

ANTA TERESA DE JESUS

# Q BIDEA



TERESA DE  
JESUS

NO IVA  
ATIS  
1975  
ECCLESIA  
STYNI 1975

**SANTA TERESA**

# **ON - BIDEA**

(CAMINO DE PERFECCION)

GEIGAŘI:

- 1 ) Biotz-oiuak
- 2) Olerkiak
- 3) Esanak

EUSKERATZAIĒLEAK:

Aita J. Onaindia

ta

Aita L. Akesolo

karmeldarĀk

CENSORES ORDINIS:

Fr. Livinus a Puero Jesu  
Fr. Petrus Maria a Sto. Joseph

IMPRfMI POTESL

fr. Joachim a Sacra. Familia,  
Provincialis  
Amorebieta, 13 mayo 1963

NIHIL OBSTAT:

Dr. Antonio Zaldúa Uriarte  
Censor ecco.

IMPRIMATUR:

T Pablo, Obispo de Bilbao  
Bilbao, 20 junio 1963

Registro n. 3 7 5 3 - 63

Depósito Legal: BI - 1309- 1963

Gráficas Ellacuría -Bilbao

# S A R E R A

i

## BAÍRAZTASUN BIDEETAN ZEAR

*Munduak —edo mundukuok— beti. izan dauz bere goraberak, bai ta izango be, gitxi asko. Eleizea, bañz, munduko Kristo'ren jañailleok osotzen dogu. Eleizeak, beraz, ba-ditu bere goraberak; eleiztarok bdtzuetan kemen biziz egin oi dogu Jainko-bizitza, beste batzuetan epelkeri-lezan nañastu oi gara. Amaseigañen gizaldian ba-zan olango epel-aldia, eta Eleizeak Batzar Nagusi bat euki, eban Trenlo'n —gaur Batikano Bigañena lez—; Batzar aretan asmo ta erabagi sendo eraginkorak artu ebezan an baturiko gizon jakitunak: Eleizea, bañu ta kanpo, erabañitu ta obeto aniolatzea zan orduko elburu beññena. Eta, ain zuzen be, Batzar ospetsu arek frutu edeñak ekañi ebañan ondoren. Bañtarik ondu ta zindotu naiezko giro berebizikoa sortu ta garatu zan gizartean, batez be ele'iztañen gogo-biñtzetan.*

*Ama Teresa, emakume jakituna, "itxas-ertzeko ondartzatza baizen biotz andikoa", Avila'n bizi zan lekaima, Encarnación eritxon komentuan. An ekañen bizi-modua, bañña, elzan Eleizeak nai eban aiñako ar'tez ta bañenkoia. Ba-*

riztau beara eukon; ez bait zan aspaldi baten Karmel-  
-mendi tontorean bakar-zale areik erokn antzekoa, gor-  
putzez latz, gogoz bero. Beste aldetik, Eleizea etsai ta are-  
rioz inguratua egoan: lutertaen alderdia —Eleizaren adar  
ausia aurki— aufera joian bere triskantza, naste ta gaiz-  
takerietan. Ortik, "ezta lo garaia" diño Teresa'k. Lanari  
lotu bear, ba, bariraztasun bidetik ekiñaz.

Eta etzan, emakume argi ta kementsu onen lana, edo-  
zelangoa izan. Beiñolako karmeldar ordena edo alkartasu-  
nari —Trento'ko Eleiz-batzañaren asmoa zanez— indar  
baria erantsi eutson, lengo zugatz-ondoari egiazko kemena  
ezañirik. Urte gitxi baru, antxiñako enbor zaña or agiri  
yaku adar bari ostodunez gaiñezka. Ta karmeldar Lagitn-  
diaren birloratze au —Joan XXIII"gañenak diñoshkunez—  
"lozez jori ta usañkiz gozo, udabari anizera izan zan Elei-  
zearentzat".

Laba gori zan Teresa'ren biotza, Jaunaganako maitasu-  
nean sutua; karmeldar Lagundiak lendik eukazan legedi  
ta ames-ereduak alik eta zeatzen bete gura izan ebazan.  
Asmo ori mamintzeko, lekaiame gazte batzuk alkartu ta,  
Jainkoak berak zuzen-azorik antza, moja-bizitza bari bati  
asiera emon eutson. Nun baiña? Bakartadean; gizarte-za-  
xata utsal ta artu-emonik ez eban gura; bakartegi-altxoan  
Jaunaren mirabe zintzo izanik, otoitzari ekin, atsedan ta  
samurtasunezko jardun ixilean bizi; Eleizeari lagundu, mi-  
xiolari izan. Teresa'k maite eban Jauna ta malte ebazan  
Arenak ziran arimak, eta danak zerutar nai ebazan. Kezka  
ori yakon biotzean akuilu. Ta ortarako eskintzen eutso-  
zan Jainkoari bere barau, soin-ildura, penitentzi, buru-uka-  
pen ta gaiñerakoak. Eleiz-gizon santuak bear ziran Eleiz  
baruan, eta onein onerako ziran bere ta bere aiztatxoan  
alegin guitiak.

Buru-ukapena ta otoitza, gogozko bizitzearen oiñañ. Te-  
resa'k ba-ekian au; ba-ekian zenbateraiñoko indaño eukon  
oneik arimak zeruratzeko. Ta oiñañi bikain onen gaiñean  
eratu eban berak bere ixil-bizimodua. Ta ori dabe zutoin

*gogo-bizitza eralu ta indartu naiez dabiltzan aren antzeko beste guztiak be. Ortik kanpora autsa alperik astintzea, jokabide badaezpadako lilzake. Teresa'renak, ostera, or zelako biz'itasun jori eraginko'ra daukan; añaña da, bai, Teresa'k orain lareun urte arnasa bañiz azkortutako karmeldar ordeneak zelako inda'ra dauan gaur Eleiz-altzoan.*

*Bañikeria ez yaku ezelan be atsegin, eta olako zerbail egin bear danean bertatik jagi oi dira eragozpen lañiak. O'elaxe Teresa'ri be. Emakume kementsu au, alan be, naiz-ta eragozpenok mendi antzekoak izan, elzan sekula gogo jaush ez killildu. Ez, orixe! Bere bizkzan, jo ara ta jo ona, amazapi lekaimetxe jaso ebazan; amazapi usotegi —gozoki esan oi dabenez—, uso zuri Jai'nko-zalez bateak. Geiago: emakumc ez-eze, gizaki bulartsu be bazalako, gizonetzkoen artean be, praileen artean, bañuan eroian su-txin-gar ori ixctu ta, oraindik bera bizi zala, praileak be —Gurutzeko Joan deunaren eta Aita Grazian'en laguntzaz batez be— amabost komenturaino jaso ebezan, Teresa'k amas bañiagaz jantzitako legedia bizi-modutzat arturik.*

*Eta gaur, bai moja bai praile, milaka ta milaka dira mundu guztian zabaldua, legedi erabañitu o'fen babespean bizitza daroenak. Eta Teresa Amaren barne-muiñetik berotasuna artuak? Aren arrasaz arnas dagienak? Aren ordena bañiztautako kimu ta adar'ak? Konta-ezin ala.*

## II

### LAREUKS URTE GEROAGO

*Teresa'k bere lan gogoangaria asi cbanetik lareun urte joan dira. Ta oraingo ontan, o'elako gertakari ta jazokunak eun erako zarataz ospatu daroaguz. Bai ta karmeldar Lagundiaren bañiztatzearen eun urte-burua be. Igaz asi ta aur-*

tengo urte baru guztian, eleizkizun, bafiketa, batzar, itzal-di, autu-mautu ta antzeko, zenbat lan egiña dogun! Eta gaurko auferapen guztiakaz egin be, zein iratiz zein uruti-ikuskiñez. Makiña bat gora izan da Teresa Amarentzat eguneroko, izpañgi ta aldizkarletan! Txalo ta eresi-jote atertu-eziña, an eta emen. Teresa'k, egiaz, merezi ditu mai-te-erakutsi oneik.

Gaurko zabalkunde-era askotatik bat —gure artean be-intzat— santuen iduria eñirflk eñi erabiltea dogu. Ta or dabil, urte baru onetan, España'ko luñalde guztietan zear Teresa Ama deunaren beso usteldu-bagea be, nainok eukt dagian nunbait aren onespen samur beroa artzeko ereti egokia. Aurtengo garil-aguztuan izango dogu gurean be. Ta Euskaleriko karmeldar komentu guztietan egingo yako merezi dauan arera ta goratzaera. Ta euskal luñean ainbat komentu ditu Teresa'k, berak bañztautako legepean bizi diranak; Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n bakarik 11 mojenak (Begoña, Grduña, Meñaka, Durango, Zaldibar, Markiña, Azkoiti, Zarautz, Zumaia, Donosti, Irun) eta 7 praileenak (Begoña, Larrea, Amorebieta, Markiña, Eihar, Donosti, Altzo). Oneik guztlok eta karmeldar adareko beste lekaimetxerik asko ikertuko ditu aurtengo udan Teresa Ama andiaren beso leñargiak.

Beso onen kondaira? Begira: Teresa Ama, komentu-jasotzailea, gau baten —1582'gañen uñlaren 4'an—, Alba de Tormes'en il zan. Berak, antza, Burgos'ko komentua jaso ondoren Avila'ren joateko asmoa erabilen, baiña bizitz-zertzelada batek Alba'ra eroan ebalako, an il zan. Eta an luña emon eutsoen. Aren santu-entzutea andia bait-zan, bere alabatxoak eta semeak Ama jainkozko aren gorpua zelau aurkitzen zan jakin nai: eortzi ta bederatzi'gañen iñabetera edegi eben lenengoz Teresa'ren ilobia. Oñetarako, Aita Grazian, bañztariaren seme kutuna, izan zan aukeratua. Obia zabaldu ta usteldu barik aurkitu eben gorputza: "datil-kolozkoa egoan, bizi baten antzera, ikutuz blgun, leun". Aita Grazian'ek, orduan, Avila'ko mojatxoeri poz emotea-

fen, ezkerreko eskua ebagi eutson; esku au Avila'n egon zan lenengo, gero Aita 'Grazian'en bitartez Lhboa'ra eroan eben, eta azkenez Frantzisko Franco, España'ko Lendakariaren eskuetara eldu zan, ta gaur El Pardo derhxon jauregian aurkitzen da.

Andik iru urtera —1585— bañiro edegi eben Teresa Amaren obia. Oraingoan, baiña, ez joiazan asmo on-onakin. Ori zala-ta, auzi gogoña sortuko zan Alba ta Avila'koen artean. Aita Grazian eta Aita Gregorio'k, Pastrana'n ospatu zan karmeldar Batzar nagusian erabagi zanez, Avila'ra aldatu bear eben Teresa'ren gorputz ustelgea. Oñela, onek bizi zala egin bagako bidea, ilik egingo eban. Baiña Aita Gregorio'k, Alba'ko komentutik gorputza atera baño len, ango mo'jdxok umezurtz geratu ez eitezan, ezkerreko besoa cbagi eutson.

Beso moztu au Alba'n egon izan da beti, ta gaur be antxe daukagu. Ta auxe berau da aurten, laugarén eun-urte bétea dalako, España'ko uririk geienak zear ospe andítan dabilena, ta laster gure ariera be etoñiko dana. Lenago, txanpon ta zuriko barik, baiña goi-arnasaz jori, or-emengo luñaideetan barna ibili zan lekaimelxe jasolen; gaur, c.ren luzapen antzera, bere gogo-arnasaz guztion bañuak aizatu nai ditu: beti zar ta beti bañi, bere irakatsien argi zuriz bazter guztiak Jainko-dizdizera erakañi.

### III

#### AMA TERESA TA EUSKALDUNAK

Etzan Ama Teresa Euskal eñiraiño eldu bere lekaimelxe jasotezko ibilaldietan. Baiña etzan urñietik ibili: azkenengo komentua Burgos'en jaso eban, eta andik laster, bera ilda gero, Iruña'n; urte geiago bizi izan ba'litz, emen



genduan ziuřik asko emakume ařigari a, euskaldunok be bere Jainko-zaletasunean ixiotu beařez.

Dana dala, Teresa'k oso maite ebazan euskaldunak. Bere bizitzan euskal odoleko askogaz artu-emonan izan eban, eta oneik etziran aregaz uzkur ez muker ibili. Bere mo)an artean ba-ebazan euskaldunak: Jesus'en Madalena bat —Salazar Arbieta—, Orduņa'ko alaba, 1581-111-5'an, Valladolid'eteko komentuan profesa zana. Ořela ba-ziran beste iru edo lau be, Salamanka'n eta Falenzia'n. Oneik zirikatuta edo, erakutsi eban Teresa'k iņoiz Orduņa aldean komentu bat eragiteko guraria.

Baiņa batez be Aita bi oneik, Bañez ta Araoz'ek —euskaldunak biok, bata jatoriz ta bestea jaiotzez— arima arazoetan asko bai asko lagundu eutsoen Teresa'ri. Aita Bañez domingařaren aitaita Ařasate'koa zan semez, eta berak be, gure luřaldean jaioa izan ezta be, euskalduntzat jotan eban bere burua: "mondragonensis", mondragoUara, esatea guttiz atsegin yakon. Aita Araoz jesulaguna Bergara'ko semea zan. Eta garai atan Palenzha'n gotzain egoan Martin Axpe jauna —Artiņano'k dirauskunez— zeanuristařa zan, Teresa Amari alnbat mesede egiņa bera.

Sasoi aretan ba-ziran gaiņera Madrid'en euskaldunak, eřegearen inguruan, ango arazoetan sartuak. Ona bi oso ezagun: Juan Idiakez ta Esteban Garibai. Gipuzkoarak biak. Eta, gaiņera, Felipe II'gařenaren eskribauak. Idiakez'ek diņoanez, Felipe II'gařenak oso maite eban Teresa ta asko ta askotan lagundu eutson. Garibai'k, osteran —bere Oroitzapenetan dakar—, bi aldiz Toledo'n Ama Teresa'gaz itz egin eban. "Asko poztu nintzan beragaz —difaosku—, bai ta Teresa bera be, ni ikustera joan nintzakolako".

Teresa'ri, bere bizitzako azken-egunetan, pozaldirik andknak emen eutsozana be euskaldun emakume zintzo ta jainkozale bat izan zan: Tolosa'ko Katalina. Orduan alargun, bere seme bi ta sei alabatxogaz, Burgos'en bizi zan ařen, gipuzkoara zan bere senara, Muritxaraz'tar Sebastian, merkatari aberatsa. Burgos'ko komentua jasotean, ainbai

*buru-auste la zoztor izan ebazan Teresa'k; danak eukazan aurka. Bmakume argi ta onoimentsu onek, orailiño, diruz ta aclorez lagundu eutson; elxe bañan gero biziko ziran mojatxoak, bere etxean euki ebazan lenengotan; jan be beretik jaten eben Teresa'k ela bere mojatxoak Uabete osoan beinlzat. Eta Teresa Amak, zelan edo alan esker cna erakutsi nairik, ona zer diñoan bere Lekaimetxeak deritxon liburuan: "Alargun santua, bizkaitar au; bai penitentziz bai otoitzez andia zan, eta aren onoimenak esanaz asko luzatu naiteke, limosnaz ta goi-maiiasunez eder, adimenez ta adorez jator" (XXXI). Gero, Katalina'ren seme biak praile egin ziran, eta sei alabak moja; bai ta, azkenez, ama be 48 urteko: danak karmeldar.*

*Bizi-legea danez, maitasuna maitasunez ordaindu bear. Teresa'k maite ebazan euskaldunak. Eta euskaldunak Teresa ez ete? Oba ez! Gaur be, ikusi zelako jaiak ospatu oi diran bere egunez, Lañea'ko ta Markiña'ko komentueian batez be. Bai, euskaldunak beti izan dautso olako jaiera berarizkoa. Eta ez eriak bakañik; Gemika'ko Batzar Nagusiak be artu izan ebazan iñoiz olango erabagi ixalogañiak; 1676'gañen bagilaren 20'an, esate baterako, boSteun dukat bialdM eutsiezan Alba de Tormes'ko lekaimeai, gizaldiak zear an gurtzen dan gorputz santuaren aurrean gau ta egun, iñoiz ilzungi barik, iraungo eban lanparargta euki egien.*

## GUK BE ZERBAIT

*Teresa Amagazko eraspēn-maila onetan tinko irauteko, guk be, laugañen eun ufle-betete au dala-ta, zertxobait egin nai izan dogu. Zer ele berori? Gurasoen arnasaz jabetzea,*

scme-alaben ames. Bedi ořela guretzat be; bedi orixe da-  
nontzat ames bakar, batez be zerurako bidean. Orixe zan  
Teresa'rena: karmeldar lagundia bañrastuz, Eleizea indar  
bařiz txertatu. Ta guzti au otoitz eta soin-ilduraren bitar-  
tez. Gaur be ba-dogu olango zerbaiien premiña, arnas ase-  
-beařa: Eleiztar garean guztiok, zelan edo alan, erabařitu,  
kemendu ta onean sustraitu beařa daukagu. Teresa'k orain  
lareun urte taiu ortako bultzada ikaragařia emon ba'eutson  
bařen-bizitzeari,, santutasun bizitzeari, guk be aren antzera  
jardun beařa dogu: bařen-bizitza beařa.

Berak idatzi eban ortarako liburu ezin-obe bal; izen au  
ezaři eutson liburu ořeri: ON-BIDEA; on-bidea, bai, one-  
rako bidea, zerurako bidea, arimak zeruratzeko bidea. Li-  
buru sakon joria, gizaldiz gizaldi asko irakuña, guttiz onu-  
ragařia.

Guk euskaldunok euskera dogu geure izkuntza, berbe-  
tea. Liburu au, ostera, oraindik euskararatu barik. "Ba-zan  
ordua", esango dauskuzue, ta ořelaxe da. Ta ořek zırika-  
tuta, emakume jakitun aren liburuak oindiño euskerara itzuli  
barik dagozalako, arek idatziriko ořialdeak guztiontzat eder  
jakingaři diralako, aren irakatsiak euskaldunok be gumetik  
jakitea komeni yakulako, or zergaitik biurtu dogun liburu  
au euskerara: berau írakuřl ta auznartuaz, bertako irakas-  
penak ikasi ta jasoaz, gero ia Jainko-zaleago egin gaitazan;  
euskaldun guztiok, Teresa amak aren bizi opa eban zeru  
edeřa jaretxi daigun. Asmo oneik gogotan izanik egiña da  
lan au.

EUSKERATZAILEAK

# ALDIZ - ALDIZKO

## Bizitz-gomutea

- 1509** Alonso Sánchez de Cepeda jauna, 1507'tik alargun, Gotañadura'n, Avila'tik sei ordura, Adaja ondoan dagon eritxoan, 1495'an jaiotako Beatriz Ahumada'z ezkontzen da. Bederatzi seme-alaba izango dabez.
- 1511** Eñodrigo jaio, geroago Teresa'ren jolas lagun.
- 1515** OtsaiTaren 28, Kristo'ren Nekaldiko eguastena; Teresa jaio da goizalderuntz. ApriTaren 4'an, Eguasten Santuz, bateatu, Avila'ko San Juan eleizan.
- 1519** Lorentzo Cepeda jaio; geroago, urteak joan urteak etofi, komentuak jasoten eta, bere, afebeari lagunduko dautso; gafiñera, Ameriketatik biurtu ondoren, aren mende jafiko da arimako gauzetan.
- 1520** Avila'n, bere osaba Prantzisko Alvarez ezkontzen da, Maria Ahumada emazte arturik. Bere neba Antonio faio.
- 1521** Bere neba Pedro Ahumada jaio.
- 1522** **Flos Sanctorum** deritxon liburua irakurten dau Teresa'k; eta an irakufitakoak biotz-beroturik, mauritañen esku-etan martiri ilteko asmoz, Salamanka'rako bidea artzen dau, Eñodrigo lagun. Bere osaba batek, bidean aurkiturik, gurasoen etxera dakaz. Bere neba Jeronimo jaio.
- 1526** Zaldizkoen liburuak irakurten ditu, orduan bere amak eta beste edozeiñek lez; biotza daroatse, lafegi zaletuz.

Berak be, Eñodrigo'gaz batera, olengo bat iclazteko saioak dagiz.

- Í527 Bere neba Augustin Ahumada jaio.
- 1528** Bere ama Beatriz Ahumada'k ilburukoa dagi aziñak 24, ta andik laster Gotafendura'n ilten da. Bere aizta Juana jaio.
- 1529 Teresa, ama il ondoren, Andra Maria'ren iduri aúfean auzpez jarten da, ama izan dakiola eskaturik.
- 1531** Bere aizta nagusi, Maria Cepeda, Martin Guzmán Barrientos'egaz ezkontzen da, Castellanos de la Cañada, Avila erki bañuko basaurira bititzez joanik. Teresa iñoren zainpe andi barik eta bere lengusu-lengusiñen biziera naiko nasaitxora zaletuta ikusirik, Avila'ko lekaima augustindañetan, **Santa Maria de Gracia** deritxon komentuan sartzen dau bere aitak. Udabafirantza da. An asten da bañiro Jainko-maitasunean berotzen.
- 1532 Uclazkeneruntz, gaixorik, aitaren etxera.
- 1533** Osaturik, atsedean bila doa Castellanos'era, bere aizta Maria'renera. Bidean, Hortigosa'n gelditzen da egun batzuetan, bere osaba Pedro Sánchez Cepeda'n etxean; au oso Jainkozalea da-ta, Teresa'ri maitasun bardiñez bañua ixiotzen alegintzen da. Ementxe artu dau, antza, mundua itxi ta erlijioan sartzeko asmua. Aitari erakusten dautso bere gogoá, bañia aitak ezezkoa. Jeronimo deunaren idazkiak irakurten.
- 1535** Río de la Plata'ra doa Eñodrigo, bere amaren etofi-ondasunen eskubideai Teresa'ren alde uko egiñik.
- 1536** Uñila: Teresa, bere neba Antonio lagun dauala, goiz-goizetik, aitaren etxea itxi ta **Encarnación** deritxon karmeldar komentuan moja sartzen da; uriko añesiz kanpotik aurkitzen da komentu au, ta bertoko bizi-modua nasai samaña, karmeldar araudia naikoa arinduta gordetan dabe. Aziiaren 2'an karmeldar jantzia jazten dau. Teresa'k ogei urte, zazpi iñabete ta sei egun daukaz.

- 153/ Azilaren 3'an dagi bere agintza edo profesa. Eñodrigo inditafen aurkako bufukan ilten cla.
- 1533 Udazkeneruntz, komentutik urtenda, Becedas'era doa emakume osagile batengana. Bidenabar, bere osaba Peclro ikusten clau Castellanos de la Cañada'n; onek damoiso Tercer Abecedario, Prantzisko Osuna'k idatzia; Teresa'k liburu auxe izan eban bere otoitz-bideetan lenengo zuzenclari.
- 1539 Aprilean, Becedas'en, entzute andiko emakume aztruaren eskuetan; eguneroko sabel-garbiketa ta gaiñerakoz guttiz ondatuta izten dau. Ango eliz-gizona onbideratzen. Avila'ra biurtzen da, oso geixorik. Aguztuaren 15'an, kornortea galdu ta iru egunez ilda lez datza. Etcarnación'eko komentura daroe, elbañitua; oñelaxe, gaxotegian biziko da iru urtean. Aita sañi doakio ikustera, ta Teresa'k era kusten dautsoz otoitzerako len-mailak.
- 1542 Jose deunagana osasun eske; indafak ba-yoakoz biztuaz, ta ba-dabil, lenengo nañas, gero oiñez. Autu-mautu askotxo ditu iztokian, eta otoitzean otzitu. Kristo'k, bañu-ikuskariz, agirika dagitso. Fontiveros'en, Avila'tik amar leguara, Juan Yepes, gero Gurutzeko Juan, jaio.
- 1543 Abenduaren azkeneruntz, Alonso Sánchez Cepeda, Teresa'ren aita, ilburukoa egin ostean, Teresa'ren besoetan ilten da santu antzera. Bizente Barron, domingotaña, bere aitaren autorlea artzen dau autorletzat.
- 1544 Avila'ko San Juan eleizan luña emon dautse Alonso'ri; araxe dakañez Beatriz aren emaztearen gorpuzkiñak be Teresa bañu-artega, ta otoitza ez izteko diñotsa Barron'ek.
- 1546 Urtafilaren 18'an Iñaquito'n (Ekuador) buñukaldia gogofa; an arturiko zaurietatik ilten da bere neba Antonio.
- 1548 Uda: Guadalupe'ko eleizara doa eñomes.
- 1554 Garizuman; Kristo bat dakus oso zauritua. Guztiz ona izateko asmua.
- 1555 Bere autoñentzuleak: Aita Diego Cetina lenengo, ta Aita Juan Prádanos gero, biak josulagunak. Santutasunean

txit goi dabil Teresa, ta ezin clabez aitu onen gertakari afigafiak. Salcedo ta Gaspar Daza be ezmezean; dea-bruaren lilurapenak ete diran clagoz. Augustin donearen Autorkizunak irakurten ditu.

- 1557** Negua: Aita Prantzisko Borja, Jesus'en Lagundiko ordezkari lez, Avila'ra dator, emengo Josulagunak daukien ikastetxea ikustera. Teresa'gaz daukon alkar-izketan, donekuntzarako bide onez dabilela dirautso. Karmel'go orclena baizitu naita, Avila'ko alargun gazte Giomar Uloa'z itundu da.
- 1559** GariTaren 29: Kristo, adimenezko ikuskariz, lenengotan agertu yakonekoa.
- 1560** Ikuskari geiago: Kristo berbiztua. Biotza aldez-alde zuloa, Giomar'en etxean; emen ezagutzen dau Pedro Alkantara deuna. DagoniTean, sulezaren ikuskari izugaia. Gau-jai antzekoa bere gelan; emen artzen dau Karmeldar Lagunclia baizituteko erabagi sendoa. Aita Pedro Ibañez, domingotafagana doa, argi-eske. Bere lenengo barne-idazkia.
- 1561** Aita Gaspar Salazar, Jesus'en Lagundikoen Nagusi baia, bere autorle izango dana. Bere **Bizitza** idazten asten da. Bere aizta Juana ta onen senaia Avila'ra datoz, asmotan daben komentu baia ixilpe samar auera eroateko. Bere neba Lorentzo'k, 1556'tik Lima'n (Peru) ezkoncluta dagoanak, eun ontzufe bialtzen dautsoz. Gabonetan, bere Nagusiak aginduta, Toledo'ra doa, Arias Pardo'ren alargun Luisa de la Cerda andre aberatsaren etxera.
- 1562** UrtaiTa-gariTa, Teresa Toledo'n. ZezeiTaren 7'an, Pio IV gafenak Avila'ko San Jose komentua jasoteko baimena damo idazki baten bitartez; Giomar Uloa'ri ta onen amari zuzenduta dago. Pedro Alkantara deunak egindako idazkian, lekaimetxe ori txirotasun osoan jasoteko diñotso. Bere **Bizitza** idaztea amaitu dau, ta Toledo'tik Avila'rako bidea artzen dau. Albaro Mendoza'k, Avila'ko Gotzain jaunak, baiezkoa emotep dautso komentu baia egiteko. Ofelaxe dagi Teresa'k, eta dagoniTaren 24'an asten dabe berak eta beste lau moja-gaik, San Jose

deritxon komentuan, beiñola Karmel-mendi gaifean angc karmeldar padafak eroan izan eben langoxe bizitza gogor latza. Pedro Alcantara il. **On-Bidea** idazten asten cla; zatika-zatika idatzi eban, 1564'gañen urteruntz amaiturik.

- 1563 Teresa, San Jose'ko ama nausi. **Araudia** idazten dau, Pio IV'gañenak 1565'gañenean baieztua. Matia Deunaren Juan'ek, geroago Gurutzeko Juan'ek, karmeldar jantzia artzen dau Medina del Campo'n (zezeiTa'ren 24'an). Lotazilaren 4'an, Trento'ko Eleiz-Batzar Nagusiaren amaiera.
- 1564 Aita Juan Bautista Rubeo, Karmelclafen Aita Nagusi. Matia Deunaren Juan anaia, profesia egin ondoren, Salamanca'ñ ikasle.
- 1565 Aita Gotzon Salazar, karmeldafen nagusiak, Aita Garcia de Toledo, domingotaña, ta Aita Antonio Heredia, karmeldaña, bere ordelari izentatzen ditu, Teresa deunari, onek gauza guztietan oso ta orniduen beti egiteko Jau-nari aginduta eukan eskintza edo botoa, autoñaldian arindu ta lazotu dagioen. Garagañilaren 17: Pio IV cañenak idazki batez sendesten ditu San Jose komentuko txirotasuna ta Gotzain-menpekotasuna.
- 1566** Beste liburu bat: **Abesti bikaiñari buruzko Gogarteak**. Aita Alonso Maldonado, Mexiko'ko mixiolaria, Avila'ko San Jose komentuan; onen itzaldia, arima asko galtzen dirala-ta. Quito'n, Teresatxo Ahumada, ama Teresa'ren loba, Lorentzo'ren alaba jaioten da.
- 1567** ZezeiTaren 18: Aita Juan Bautista Rubeo (Rossi), karmeldafen lendakaria, Avila'n; eleiz-legezko ikertaldia daga **Encarnación** deritxon komentuan. Castilla'ko lekaide^erkiak Avila'n ospaturiko batzafean buru egiten dau. Lau aste dagiz Avila'n, eta bitartean safi itz egin dau San Jose'ko lekaimetxe bañian, ango buru dan Teresa deunagaz. Eta aprilaren 27'an, baimena bialdu eutson San Jose-koaren antzeko beste komentu batzuk jasoteko; bai ta geroago, dagoniTaren ló'an, praiteen artean be olango komentu bi jasoteko agiria damotso. Teresa



deuna, Avila'rik *AAedina* del Campo'ra cioa; ango moja-komentu baña. Gurutzeko Juan c'-'c" agaz ta Aita Antonio Heredia'gaz autuan, praiteen arteko bafizketa dala-ta.

- IScS Medina-tik Alcalá'ra, ta Aicalá'tik Toledo'ra, otsaiñaren 22'gañerantza. Luisa de la Cerda'gaz Malagón'era; emengo komentu baña, apriTaren II'an. Avila'ra, osterabe, bagiTean. Bere **Eiziiza** liburua Juan de Avila'ri, ikus'i dagian. Dagnñiean, Valladolid'eko lekaimetxe baña. UñiTeian, Juan de Avila'ren idazkia bere Bizitza ontzat emonaz. Teresa deunak Valladolid'etik idaztsn dautso bere adiskide Salcedo'ri Juan Gurutzekoa goratuaz: "lañantz, goi-be txikikoa, baiña andia Jainkoauñean". AziTaren 28'an, Duruelo'ko koment. u baña asten cla, lekaide goi-otoitz-zaleen lenengoa; edo, obeto: i<arm=-dar Ortozena. An cla Aita nagusi Alonso Gcnzález; Aita Jesus'en Antonio, nagusi, Aita Gurutzeko Juan, ondorengo, ta Anai Kristo'ren Jose, atezain, izenta'ru dauz.
- 1569** Maiatzaren 14'an, lekaimetxe baña Toledo'n; an dsgo-alarik, mezulari bat doakio Eboli'ko eñegiñageiak bial-clua, Pastrana'n moja-komentu bat egin nai leuke onek; ara joanik, ofela dagi. Ementxe jasoten dabe karmel-dar ortozen bigañen komentua be, garagañiTaren 13'an. Teresa, Toleclo'ra bañiz. Emen idazten clau **Biolz-oiuak** liburua.
- T570** DagoniTaruntz, Toledo'tik Avila'ra; aziTaren lenengoan Salamanka'ko lekaimetxe baña; eta, Alcalá, karmeldar praileen ikastetxea.
- 1571** Ikuskari añañañiak (maiatz-bagiTeian). Araudi arinduari uko egin ta auñerantzean, zeatz eta meatz, baiñola Alberto deunak Karmel-Mendiko padañai emona betetera beartzen dira, Avila'ko San Jose komentuan. Padro Fernández, Aita Santuaren ordezkorean aginduz, alan be, lengo bere komentura, ots, Encarnacion'era biurú bear dau, ango ama nausi izateko. **Goçjorakizunak** liburua idazten dau. Alba de Tormes'en komentua.
- 1572 Epaiñaren 25'an, Jeronimo Gracián'ek karmeldar iantzia artzen dau Pastrana'n. Juan Gurutzekoa, Encañiación

komentuko autofoantzule. Bañanburýka iclazten clau. Ez-kontzazkoa cleritxon goi-meseclea.

- 1573** Pedro Fernández'en baimen?z, Salamanka'ra doa; an Aita Ripalda'k, Jesulagunen ikastetxeko nacusisk e.¿ká-tuta, Lekaimetxaak liburua idazten asten da. Rui Gómez i!, eta onen alargun Eboii'ko eřegiñagnia, karmeldar Pastrsna'n; komentu au andikíro zuzendu nairik, Teresa Ernari buruko miñik naikoa c'akartsoz aiargun onek. Eeas'en eía Segovia'n lekairnetxe bafiak jaso gura-ta.
- 1574** Salamanka'tik Alba'ra, ta Alba'tik ~ lamanka'ra. Epai-Isren 19'an, lekaimetxe bafia Seç: : 'n; Pastrana'ko mo-|ak datoz ona, arako printzein Ebc'i'gaz ezin bizita **Encarnaeión** komentuko ns'usitza ama'tc.
- 1575** Beas'ko lekaimetxe bafia, otsaiTaren 24'an. Emen aurkitzen da lene.ngoz Aita Gracián'egaz. Maiatzaren 26'an Se-illa'ra eltzen da, emengo komentu bafia asirik. Ga-riiaren 7'an, Aita Bañez'ek bere **Bizitz-liburua** aintzaf srtzen clautso. Agoztuaren azkenerunt'- bere nebak, Ameriketatik onuntz, Sanlucar de Barrameda'n lur-artzen clabe; Jeronimo urteieran ilten da, ta Lorentzo, alargun 1567'tik, bere iru seme-alabakaz dator: Prantzisko, 15 urteclun; Lorentzo, 13'dun, eta Teresatxo, 9 dituna; Pedro be alargun dator. Danak dagoz Sevilla'n, eta Ama Teresa'k laguntzen dauts<sup>0</sup>; Teresatxo Karmel ordenan ssrtuko da ta bere izekoak aziko clau. Naste ta buru-austek: Avila'n, Encarnación'eko autofoantzule ortozak atxilo artu clabez; eta Aita Nagusiak Teresa'ri beste la-kaimetxerik ez jasoteko; bere komentu batera joan ta ez dediTa geiago andik urten. Aita Gracián'ek, Eleiz-kerle clanez, Sevilla'n geratzeko diñotso, emen bere la-guntasuna bsafezko dala-ts.
- 1576** Caravaca'ko lekaimetxe bafia, urtafiTaran l'an. Eleiz-biTaketaren izenean, Ama Teresa'ren barne-bizitza azter-tuten dabe Aita Rodrigo Alvarez eta Aita Enrike Enri-riuez'ek. BagiTaren 3'an, Sevilla'ko etxe bafira aldatzen dira; ta, 4'an, goiz-goizetik, Sevilla'tik Malagón'erako ur-teten da Teresa, bare sendikoak lagun dituala. BagiT-

ren 26'an, Toledo'ra eltzen da, ta emen amaitzen dau Le-kaimetxeak liburuaren 27'gafen jarduna.

- 1577 Aita Gracián Toledo'n, maiatzaren 28'an; Egotiltii liburuia idazteko agintzen dautso Ama Teresa'ri; bereaxe asten da idazten, bagiiaren 2'an, eta urte ontan bertantxe, aziaren 29'reko amaitu eban. Garilean, Avila'ra dator Ama Teresa; abenduaren 3'an, karmeldar oiñetakodunak Gurutzeko Juan deuna ta Aita German atxilo artzen dabez; eta, lotaziaren 24'an, Gabonez, Ama Teresa'k, San Josepe komentuko eskeilaretatik bera jausirik, ezkefeko besoa apurtzen dau. Gurutzeko Juan deuna Toledo'ko komentuko presondegian. Ama Teresa'k, Pelipe II'gañenari idazten dautso, laguntasuna eskatuaz. Aita Santuaren ordezkari Ormaneto, karmeldar bariztuen aldekoa, ila da; Pelipe Sega, onen ondorengoak, eztau begi ain onez ikusten Teresa'ren lana.
- 1578 Medina'ko emakume osagiie batek bere lekuan jarten dautso beso ausia. Bere idazkietan diñoskunez, maiatzerako, besoa bururaiño jasoteko lain zan. Sega, Aita Santuaren ondezkariak, Aita Gracián'i kentzen dautsoz Eleizlkerle lez eukazan eskubideak; Aita au Avila'ra doia, Ama Teresa'ren laguntasun eta poz-bila. UfiTaren 9'an, karmeldar ortozen Batzar nagusia Almodovar'en; Aita Antonio Heredia, nagusi. Andik zazpi egunera, Sega ordezkariak, Batzar aretan artutako erabagiak indargetu, ta karmeldar ortozak, bai praile bai moja, oiñetakodunen nagusien mende jarten ditu. Sega ordezkariak eta lau "laguntzaiTeak", Aita Gracián epaitu ta Alcalá'ko ikastetxean atxilo ipinten dabe. Sega jauna, Madrid'en, Ama Teresa'ren aurka: emakume urduri ta ibilzalea, erlejiño zuñian, Trento'ko Eleiz-Batzafaren aurka, komentuz kanpo dabiTena.
- tS79 Joñailaren Tan, Sega'k eta onen lau laguntzaiieak, karmeldar ortozen nagusiak eskubide barik itxi, ta onein nagusi orokor Aita Aingeru Salazar izentetan dabe. Ama Teresa'k, bagiTetik aziTera, komenturik asko ikertzen ditu: Medina, Vallacolid, Alba, Salamanka, Avila, Toledo, Malagón, Villanueva de la Jara'n lekaimetxe bat

egoki litzakela diñotse; lenengotan zalantzaz, gero era bagitsu, otoiizean aitu dauanez komentu bafi au onurakor izango clala-ta.

- 1580 Aita Salazar'ek bai-agiria bialtzen dautso Teresa'ri, Villanueva'n komentu bafia eregiteko esanaz. Malagón'dik ara doa. Epailaren 26'an, Toledo'ra eltzen da. Elbafi ta biotzeko miñez Ama Teresa. Maiatzaren 5'an, Aita Gracián karmeldar ortozen nagusi bafiro, eskubide osoz. Ama Teresa'k eta Gracián'ek, Quiroga kardinalari ikustaldia Toledoclo'n. Teresa Toledo'tik, Madrid-etik zear, Segovia'ra. Bagiiaren 22'an, Aita Santu Gergorio XIII'garenaren idazkia, karmeldar ortozen probintzi berezi ta azkea sorturik: onela, Karmel'go adar bien arteko eztabaida amaitu zan. Yanguas eta Gracián'ek, **Egonlekuak** liburua ikusi ta aztertzen dabe Ama Teresa'ren aufean, Segovia'ko iztokian. La Serna'n, Lorentzo Cepeda, Teresa'ren neba, ilten da. Garifaren 6'an, Ama Teresa Avila'ra, senitartekoen auzi-mauziak antolatzera. Gero, Medina, Segovia, Vallaclo'id zear dabil, naikoa geixorik, eta zartua. Lotazilaren 29'an, Palencia'ko lekaimetxe bafia.
- 1581 Epsiiaren 4'an, Alcalá'ko Batzar nagusian Aita Gracián autetsi dabe karmeldar ortozen buru. Ama Teresa pozik. Alonso Velázauetz faunari idazten dautso bere bafu-bizitzari buruzko eskutitz luzea. Maiatzaren 29'an, Ama Teresa, Palencia itxirik, Burgo de Osma'tik zear, Soria'ra cloia ango etxe bafia eregitera. IraiTaren ó'rako bafiro claukagu Avila'n; emengo Ama nagusi egiten dabe, iraiTaren 10'an, au cla, Josepe deunaren komentukoa. Teresa ta Gurutzeko Joan cleunaren azkenengo alkar-ikustea, aziTaren 29'an; Granada'n funclaziño bafi bat egitera cloia Joan cleuna.
- 1582 Ama Teresa, Aita Gracián lagun dauala, Burgos'erak bidean; urtafiTaren 4'an, Medina del Campo'ra eltzen c'a, emendik Vallaclo'id ta Palencia'ra; il onen 26'rako Burgos'en daukagu. Berágaz ditu Teresatxo, bere loba, ta Ana de San Bartolome; euri-jasa andiak dirala-ta, goraberarik naikoa. Ango Gongotzaiñak, ara-ona ackore.n ostein, emoten clautso baiezkoa Burgos'en lekaime-

txe bat iasoteko; apriTaren 19'an burutzen dau bere asmoa. Gracián'ek agur dagitso Ama Teresa'ri, ta eztabe geiago alkar ikusiko. GariTaren 26'an, Teresa, Burgos itxi ta Palencia'tik eta Vallacloid'etik zear, Medina'ra clator; emendik, Aita Antonio'ren aginduz, Alba de Tormes'era cloia, iraiTaren 19'an. Alba'ra eltzen da 21'an, afatsaldeko seiretan; oso geixorik clago, eta berealaxe ogeratu da. 29'gañenean, meza entzun ostean, bañiro ogeratu cla geiago ez jagiteko. UñiTaren Tan, bere erio-tza diragar; 3'an, Eleizakoak damotsez, afatsaldeko bos tetan; eta, 4'an, goizeko lauretatik auñera oso baketsu ta alaikor clago, ta añasian, bederatzietan, irurogeitazapi urte, sei ilabete ta zazpi egun dabezala, bere bizitz bañirako jaioten da. Uñengo egunean eorzketa ango lekaimetxeko eleizan. Asko uñeratu ziran Ama Teresa'ri oiñetan mun egiten.

- 1585** Pastrana'ko batzañean, Teresa deunaren gorpua Avila'ra eroan bear dala erabagitzen dabe, uñiTaren 27'an. Aita Gracián eta Aita Gregorio'k beteten dabe erabagi au, aziTaren 24'an; ezkeñeko besoa izten dabe Alba'ko komentuan, eta gorpua Avila'ra clarioie. Alba'ko dukea erabagi onen aurka; Eñoma'ra idazten dau, auzi-zuñian, Teresa deunaren gorpua Alba'ra biurtzeko eskatuaz.
- 1586** Pedro Fernández jauna, Avila'ko gotzaiña, San Josepe komentura doia, urtañilaren 1'an, osagiie bi, eñege-aolkuko bi ta beste amabi bat lagun dabezala: Teresa'ren gorpua usteldu barik dago, usain gozoa dariola. Avila'ko komentuko Ama nagusiak Aita Santuaren ordezkoren agindua artzen dau: Teresa'ren gorpua Alba'ko karmelclar lekaimetxera biurtzeko diñotsa. Oñela dagie.
- 158S** Teresa cleunaren Idatziak argitaratzen dira, Salamanka'n.
- 1590** Teresa deunaren lenengo **bizitza**, Aita Ribera, josulagunak idatzita.
- 1591** LotaziTaren 14'an, Gurutzeko Joan deunaren eriotza, Ubeda'n.

- 1614** Paul V'gañenaren idazkia, Ama Teresa Zoriondunen le-  
foan jañirik (aprilaren 24'an). Irailaren 21'an, Aita  
Gracián ilten da, Bruselas'en.
- 1622** Epaiaren 12'an, Gregorio XV'gañenak Santuen mailan  
jarten dau Loiola'ko Iñaki deunaz, Xabier'ko Prantzis-  
ko cleunaz, Ixidor Iurlangífe deunaz eta Meri'ko Pelipe  
cleunaz batera.



# AMA TERESA OTOIZLARIEN ÍRAKASLE

Lareun urte dira Teresa Ama deunak bere lenengoko moja-etxea ercgi ebanik ona. Agoztuaren 24'an izan zan, 1562'gafen urtean. Egundoko amofua sortu zan ufengo egunetan emakume aren asmoak eta etxetxoa ondatu beahez. Bakea egin zanean, egun zoriontsuak etofi ziran Ama Teresa'rentzat; 1562'tik 1566'gafenerarteko urteak bere biziko zorionekoentzat euki zituan berak beti be: urte zoriontsuak bere biotzarentzat, bere biziko amesa egi biurtu al izan ebalako, bere bizia, munduko istiluetatik ufin, Jaunari eskintzea; urte zorionekoak bere mojatxoentzat be, euren Ama ebenaren irakatsiak bake osoan jaso ta ikasi al izan zituclako.

Liburu onetan daukagu gaur otoizlarien Ama ta Irakasle andi onek etxe aretan orduan emon zituan irakaspenak. Bere arimearen zuzendari batek agindurik egiña da liburu au. Euskaldun odolekoa zan zuzendari ori, ta bere burua naiñon euskaldun jatofikotzat erakusten ebana: Aita Bañes Artazubiaga, Afasate'tafa jatofiz; bere izenari "Mondrago-nensis" erasten eutson beti. Ama Teresa'k berak autortzen dauanez, ondasun andiak ixuri ei zituan Jaunak etxe aretako mojatxoan gogo-biotzetan; baiña, batez be, goi-argizko aberastasun andiak eukazan ixurita Jaun ofek ango Ama nagusiaren gogoan. A.rgi areik etziran alpefik galtzekoak bere



gogo-zuzendariaren eretxiz. Ofegaitik, eta emakumeak emakumeai irakasteko gizonaekoak baiño egokiagoak dirala-ta, Aita Artazubiaga ofek eta mojatxoak zirikataturik, Ama Teresa'k lanari eldu eutson, bere egitekoak izten eutsezan asti-orduetan lumeari eragiñaz. Ofa liburu onen sortzea, 1563' gafen urtean gitxi gorabera.

Gerora, biñtan ezafi eutson eskua bere egileak, aldaketa batzuk egiñez. Bigafen eskualdikoak, Valladolid'en gordetan dana, emoten dogu emen euskeraz. "Camino de Perfección" ezafi eutson izena. Noizik bein "liburutxoa" ta "Aita Gurea" izenez be izentetan eban. Azkenengo izen au egoki etorkion, Jaunak berak irakatsiriko otoitz ori azalduetz arlo luzeak ditualako.

Ama Teresa'ren lumatik urteniko liburuetatik irakatsiz edefenatarikoa ta ulertzeko efezenatarikoa dogu berau. Moja karmeldafak, ostera, euren bizimodua ikasteko esku libura lez dabe.

Ikusi daiguzan bere guna ta sailak. Lau sail ditu: saferatxo bat, asteko; otoitz-biderako beafezko diran egiteko ta oiñafi batzuk dakaz, gero; otoitza zer ta zetarikoa dan adierazoten dausku, ufengo; eta, *Aita Gurea* azalduaz batera, otoitz-bideko gorabera, maila ta beste jakingafi beñenak emoten dauskuz, azkenez.

Saferako iru arlo edo kapituluetan bere komentuko mojakaz diardu; euren bizimoduaren elburu ta asmoak gogoratzen dautsez. Zetarako artu dabe bizimodu o.ti? Euren burua, beste ezetako ardura barik, Jainkoari eskintzeko. Zelan eta zeren bidez? Etenbako otoitzaz, eta gaiñerako neke ta laztasunen bidez. Zer asmoz, eta zetara jotzeko? Jainkoaren adiskide miñ izan eta Eleiza Amaren alde euren egiñalak egiteko. Sua darie emen emakume gartsu onen itzai, bere alaben biotzak sutu gurez. Ez ei dituez lo egotekoak orduko egunak. Europa osoa sutan dago; Kristo'ren arerioak su ta gar diardue bere Eleizea puskatu beafez, Kristo'ren artaldea deslai ipinten. Kristiñau izeneko asko ; re-rioen artera igaro dira. Alemani'tik eta Frantai'tik ba-eto-

rrren albíste negargaírik. Ikuskizun ain mingañen aúfean, zer zan Teresa'ren ardurea, zer zan bere alabatxoén egi-tekoa? Jaunaren adískideago izan, Aren borondatea alik zeatzen bete, euren moja-bízimoduko laztasunak gogo guztiaz artu. Kristiñau galduen kalteak zelanbait osatzeko, otoi ta otoi egin bear; asmo ofetan, gorputzaren aukerak aitzurik, euren bizia oparitzat eskiñiko dabe. Ofetara, Eleizearen laguntzaile izango dira. Emakume izanik, beste ezetarako gauza ezpadira be, euren alegintxoá egin barik eztira geldituko, eleizgizon eta praileak, Eleizearen alde diarduenak, Jainkoaren egia zabaltzen frutu ugariagorik atera daien.

Kristo'renok ízateko, siñiste osoa eskatzen dautse Ama Teresa'k Kristo'ren itz eta agintzetan, Beraganik itxaron bear dabe dana, geroaren ardura barik, zer janaren gomutea be gogotik kendurik. Ofegaitik, efenta barik, etofi barik egin nai izan dau bere komentutxoa, "Jafi zeuon begiak zeuon Maiteari adi, ía Berak zuzenduko dautzue jana, bizitako bear dozuena", esango dautse bere alabai.

"Jainkoari adi bízi", labur esanda, ezta besterík Ama Teresa'k liburu onetan bere alabai irakatsi gura dautsena. Otoitzaren bidez lortu beafa dabe asmo ori; baiña otoitz utsa ezta guztia bide onetan; otoitzak berea dau oiñafi onen gainean jafirik egon beafa. Jainkoagaz otoitzean alkartasun onean jarduteko, gure bafua atarako gertau beafa daukagu. Auxe izango da gure otoitz-irakasle andi onek laugafen jardunean asi ta amaseigafenera irakatsiko dautsuna. Arlo onetako argibide ta ii-akaspenak bein-beiñekotzat, bear-beafezkotzat daukoz berak, otoitz-bizitza eroateko; eurak barik ez dago lege oneko otoitz-bidean sartzerik.

Bere bizitzako liburuan emoniko irakaspen bat argitu ta zeaztu, ezta besterik Ama Teresa'k emen egiten. Ez eban esan, ba, liburu atan otoitza ez dala besterik maite gaituan Tainkoagaz maitez eta adiskide-legean jardutea baiño? Ofá otoitz-bizitzearen guna; adískidetasunezko artu-emoná ta alkartasuna da, gu maite gaituan Jainkoagaz maitez eta adiskide-antzean, Jainko Aitagaz seme-antzean itz egitea. Ba

dakigu, baiña, onek esan nai dauan guztia? Adiskidetasunik eztago alkañen ide, alkafen antzeko diranen artean izan ezik. Beraz, Jainkoaren adiskide izateko, Aren antzeko izan bearko dogu, edo beintzat, Aren antzeko izaten alegindu beafean gagoz. Ori barik, eztaukagu Jainkoagaz bañu-bañuko artu-emonik izaterik, Aregaz adiskide-legerik eukiterik.

Otoitz-bidean ondo ibilteko, Jainkoaren antz apurtxoaz añazoko dauskuen edergafi batzuk ezafi bearko dautsoguz geure arimeari. Lenen-lenengo edergafia: Jainkoaren grazia, bañuko garbitasuna, pekatu astunik ez eukitea; ori gauza jakina da. Ofez gainera, beste iru gauza gogoratzen dautsez Teresa deunak bere alabai: alkañen arteko maitasun zindoa, biotza ezen zalekeri barik eukitea, ta apaltasuna. Ama bi jardun edo kapitulutan diardu, ama ta irakasle antzean, otoitz-bidearen oiñañitako, argitasun eder eta egokirik emoten bere alabatxoai, moja-etxeke bizitzan izan leiezan ereti batzuetarako, batez be. Oiñañi oneik emon bear dautsoe gogoari Jainkoaren ondoko giroa. Edergafi ofeik aldean dituala, gogoaz gertuago dago Jainkoagazko adiskidetasunerako, Jainkoaren arnasea ufagotik artzeko, ta biotza askatuago izango dau goruntz egiteko, Jainkoaren argi ta maitasunean murgildurik, ontxeganik asita, zelanbait zeru-bizitza eroateko. Oiñañi ofen gainean, ezin obeto ibiliko dira otoitza ta arimearen bizi guztia, gogoaz bide ofetan gora, geroago ta Jaunaren adiskideago ta kutunago egiten dala.

Ezta, bafiz, edozelangoa Ama Teresa'k otoizlariari eragin gura dautson goruzkoa. Lenengotarik asita, gorengo gailuñak erakusten dautsoz; bideko nekeari jaramontk egin barik, gogo berroz ta adoretzu auñera egiteko poza sartu nai leuskio, goiko itufi bizian edateko egafi goria sortu.

Egia esan, bide au ezta neke bakoa, batez be asikeran; baiña Jauna bera dogu bidelagun. Lan egin eta izerdia bota bearko da; baiña, ara an, azkenean, itufi bizia, zeruko ur asegañiz gainezka. Ur ofek egafi guztiak kendu ta asetzen ditu; munduko su guztiak amatau ta arimearen loi ta uger guztiak garbitzen ditu. Bera da naikoa bideko nekerik go-

gofenak ordaindurik izteko. A zori ona ta atsegiña, ur jainkozko ori aoa batean edatera eldu diranena!

Uraren irudi au txitean pitean dator liburu onen erdingurutik aufera; oso atsegingafi izan yakon bere bizi guttian Ama Teresa'ri. Txikitarik asita, ondo gogoan sarturik eukan arako Samaria'ko andrearen iduria, Kristo'ri ur-eske: "Emoidazu ur ofetatik edaten". Zer adierazo nai dausku liburu onetan ur ofegaz? Geien baten, otoitzik bikaiñena, Jainkoaren adiskiderik miñenen otoitza, guk geure alegiñez lortu ezin geinkena, Jainkoak berak bere kutunei emon oi dautsena, atsegin eta ondasunik andienak beragaz lagun dakazela. Orduan, ur bizia da, itufitik bertatik arakoa. Beste batzuetan ezta ofen goitik datofena, ez ain garbi; ur egona, itufi-baztefetako zulotxoetan batua ta olakoa. Orduan beragoko mailetako otoitzari dagokio, beronek ekarten dauskuzan zelanbaitcko atsegin eta ondasunakaz.

Teresa deunak ez leuke gura itufi bizi ofetara barik iñor gelditzerik, eta ara bidean jafi nai gendukez guztiok, Jaunagazko adiskidetasun oso ta betera bidean. Guztioi eskin tzen ei dausku Jaunak zorion ori; beintzat, orain ezpada, gero zeruan. Eta guztiok egin bear ei dogu alegin, ointxe asita, gorengo zorion ori izateko. Baldin emoten ez ba'yaku, ez bedi izan geure efuz, guk geure alak guztiak egin ez doguzalako. Baldin Jaunak ukatu ba'dagigu, gure alegiñen eta borondate onaren saria ta ordaiña gero zeruan era batera emoteko izango da. Edozelan be, bape ur barik, geure egafia zelanbait asetu barik ez gara geldituko. jo daigun beti bidean gora, jo daigun gogo osoaz, ataza guztiaz; eztaigun otoitz-bidea iñoz itxi. Ofa guztion eginbidea, ta batez be, moja karmeldafena.

Ama Teresa'ren aldietan ba-zan otoitz-bideari ondo ez eritxoenik; andrazkoen otoitz-zaletasuna, batez be, etzan guztien begikoa. Bizi-bizirik aitatzen ditu gure otoitz-irakasle onek olako gaizki-esaleen esames batzuk. Andrazkoak otoitz egiten? Oba ei eben goruetan egin. *Aita Gurea* esatea ez ete eben naiko? Amaikatxo sartu ei ziran olango asmu-

kerietan, eta zer? Euren ondamendia etofi ei yaken ortik. Suak artzen eban gure Teresa olango bafiketak entzutean. Otoitza iñorentzat galgafi? Ori iñuenak eurak artu beat ziran galgafi ta ondamendia berberatzat. Otoitza, Teresa' rentzat, ondasun guztien itufi da. Jakifien gaiñean diño ori; ondo ekian berak bere buruan ikusita. Bere alabatxoak. gaiñera, olango esames eta bafiketai ez eutsen ezetako ja ramonik egin bear; beti ta eten barik otoitzari ekitea lege eben. *Aita Gurea* esatea naiko dala? Bai, ofaitio, bear dan lez esan ezkerro. Baiña ao utsezko otoitzik eztago, edozelan be; benetako otoitza izateko, gogoaren laguntasuna beat dau beti; alan esango dau otoizlarien Ama onek bein ta bafiro.

Eta emen dogu bera otoitza zelangoa eta zenbat eratakoa izan leiteken zeaztu ta irakasten. Gain-begiratu bat egin deioegun amaseigafen jardunean asita emoten dauskuzan irakatsi oneri.

Lenengo aitatzen dauskun otoitz-modua *gogoetazkoa* (meditaziñozkoa) da. Otoitz-era au eralten eztau luzero jardun nai. Libururik geienak zeatz eta meatz azaltzen ei dabe, otoitz-gaiak be egunerik egun bananduta emoten dituela. Edefa ta gogoari mesede andiak ekartekoa ei da. Gure bi-ziaren labuía, munduko atsegiñen ustela, Jainkoari dautso-gun zor andia ta olako egiak gogoan artu ta erabiltea ondo baiño obeto yatorku, munduari ta pekatuari iges egin eta geure gogo-biotzak Jaunagana zuzendurik jarteko. Ofetara, Jainkoagaz atzeturik dabiñena Jainkoagazko adiskidetasunera biurtu ta atan irauteko bide egokia da. Teresa deunak otoitz onetan diarduenentzat, ofaitiño, afiskutxo bat salatu gura dau. Askok okefeko bidea artzen ei dabe, iya gogoeta utsean geldituz. Burua bizkor eta zofotzegia dauken askori jazoten ei yake oker ori; beti buruaz lan ta lan, ofetan ei dauke gogo guztia, otoitz-gaitzat artutako egietan sakondu gurarik auznar eta auznar, beste ardura barik. Ama Teresa'k ain jator eta politico difioan lez, domekarik ez jairik artu barik dabiltz; Jaunari maitezko begitu bat egiteko astirik be ez

dabe artzen. Oker andia da au; Jauna eztabil gure gogamenen bila, gure maitasuna bilatzen dau, Berari gure biotza zabaldu deiogun gura dau. Ori da otoitza, beste ezer baiño lenago. Gogoetazko lanari leku lafegi emoten dautsenak egi au aitzuten dabe safi.

Gaiñera, bafiz, danak eztauke gogo-lan ofetarako ezez-tasun bardiñik. Gogoa gauza baten luzero eukiteko asko ez-tira gauza. Ofegaitik, otoitzik egin eziña daukela-ta, egoten dira. Oker dagoz. Ez beítez lafitu. Teresa'k irakatsiko dautse zelan jokatu. Euren antzekoa ei zan bera be aldi baten. Eta, zelan atondu? Jauna berbera lagun artuta; Jauna bere ondo-ondoan eukala gogoraízen ebalá. "Egizue kontu —diñotse olangoai—, egizue kontu Kristo'gaz zagozela, Kristo zeuon aúfe-aúfean dozuela. Eta buruari beste nekerik ezafi barik, ekiozue Beragaz berbaz, asazkatu zaitzeze Beragaz, zeuon maitasuntxoá opatu edo zeuon bear-izanak agertzen dautsozuezala." Itzik atera beafik be eztago beti, begiratu utsa da naikoa. Naiz atsegifíean naiz atsekabean egon, egin leiteke ori. Pozaldietan, gogoratu daigun gure Jauna, biztu zaneke argitasunean. A edertasuna!, a jauntasuna!, a poza ta atsegiña! Atsekabe edo neke-orduetan, begitu deiogun Getsemani'ko ortura bidean. Aren lafia!, aren atsekabea! Gogoratu daigun afizko abeari lotuta, dana min eta zauri; edo iruditu daigun adiskide guztiak bertan-bera itxita, Kalbario'an gora, kurutzea soiñean, arnas estu baten. Ama Teresa'k dirausku begirakun ofelc ez dauskuzala Jaunak ordain barik itxiko. Olantxe, irakasle onek irakasten dauskun otoitza beti biotzari berez-berez dariona da.

Oindíño be, norbaitzuen biotzak, legofaren legofaz, ez-tira bear bada maitezko begikun ofetarako gauza izango. Zer egin? Liburu on bat artu ta astiro astiro irakufi beie. Etxake txarto etofiko, curen gogoa apurka apurka Jaunaren gauzctara oitu ta egin daiten. Olantxe egiten eban Teresa'k bcrak, buruak gogarte luzerik arloan egiteko laguntzen ez eutson urteetan. Ofcían auznaríuz ta astiro

egindako irakufaldia gogoetazko otoitzaren ordezko izan leiteke.

Eta gero, or dago edozeiñen eskumendean *aozko otoi-tza*. Jaunalc berak irakatsia da; baiña, jakiña, ez dedila ao utsezkoa izan. Agoak diñozan itzetan gogoa ta biotza ditugula egin bear dogu beti. Bestela, a zelako soiñu gogaikafia, zelako lelo aspergafia Jaunaren belafietarako! Bear dan moduan egin ezker, otoítzík bikaiñenari ez dautso ezer zor. Eztago, esaterako, *Aita Gurea* baiño otoitz edefagorik. Egin-egiñean be, auxe da Teresa'k bere liburu onen azkenengo sailean erakutsi gura dauskuna. Aita gurea! Itz oneitan bakafetan, zelango sakontasuna! Orduetarako otoitzgaia emon leigu. Jainkoa gure Aita, eta gu Aren seme! Ba al da egi pozgafiagorik, biotza zabaltzekoagorik? Gure otoítzaren asi-asikerarik Jainkoagana itz ofeikaz joteko eskubidea daukagu. Ta ori Jaunak berak esanda, obeto esateko, Jaunak berak aginduta. Ofa Jainkoak berak irakatsita gure otoitzak biotz-biotzezko jardun eta alkar-izketeak izan bear dauala. Gure Jainko-semetasuna sakondu ta bafukoagotu egin bear dau, gero ta Jainkoaren semeago egin eta egertu bear gaitu. "Aita Gurea"-k, ondo auznartu ezker, janaririk naikoa eskifii leio edozein arimari Jainko-bideko mailarik gorenenetan be. Au erakusteko idatzi dau Ama Teresa'k bere liburuko azkenengo saila, Jaunaren otoitza azalduaz. Otoitz onetan aurkitzen ditu berak otoitz-bideko ta on-bideko maila guztiak, bekoetatik asita gorengoetaraiño.

Gogoetazko otoitzaz, gaifiera, beste iru izentetan ditu, bata bestea baiño bikaiñagoak: *gogo-ba'rukoa*, *atsedenezkoa* ta *alkartasunezkoa*. Iru otoitz-modu oneik arimeak Jainkoagazko artu-emonetan egiten dituan auferakadai erantzuten dautse: arimea Jainkoaren adiskidetasunean bafurago, be-roago, ta bere otoitza bikaiñago, bafukoago. Aitatu daiguzan, laburturik, Ama Teresa'ren irakatsi batzuk.

*Gogo-ba'ruko otoitza*. "Aita gurea, zeruetan zagozana", itz onek emoten dautse Teresa'ri aria, otoitz-era au azaltzen

asfcko. Guce gogoa, gure baúa, zer da besterik z cru txik; bat baiño? Or dago, zeruan lez, Jainkoa jaun ta jabc. Beraz, cztaukagu iñora urten beafik Jainkoagaz itz egiteko, ez Bera gurtxcko. Geure baúan sartu, besterik ezto gu bear. Atara oituren danak irabazi andiak izango ditu; efeztasun andia lortuko dau otoitz-bizitzarako. Efezetan asi orduko igatiko dau bere zentzun eta almenak, crleak erlategira lez, baúra yatorkozala; apurka apurka, jauntasun andi bat nabaitzen dau; kanpoco gauzak ez dautse zirkiñik eragiten. ikusi bc eztitu nai; begiak be berez-berez gelditzen yalcoz itxirik, baúko Jaunari adi egoteko. Zori onekoa oitura au lortu dauana! Ama Teresa'k autortzen dau, oitura au artu arte, ez ebalá berak jakin otoitz egitearen poza zer zanik.

Aufeko otoitz-moduan Jauna ondoan ikusten eban otoitz-egifeak; emen bere baúan ikusten dau, ta antxe bilatzen dau beti. Jesukristo'ren pasiñoa ta eriotzea gogoratzeko be, eztauko irudimena nekatu beafik Pilato'enera edo Kalbario'ra joaten; bere baúan iruditu ta gogoratu daíke dana. Bere baúan dau Jauna, ez egote uts eta otzez, maitasunezko egotez baiño. Eta arimeak baúko lagun ori geroago ta obeto ezagutzen eta geiago maitatzen ikasten dau. Otoitz au lortzen, geure alegifiak lagundu leigue. Asikeran nekerik be emoten dau gogoaren indafak baúra adi eukiteak; baiña, ekiñez-ekiñez, geroago ta cfazago egingo yaku, ta goi-ixurizko otoitzerako gaiago egingo gaitu.

*Atsedenezko otoitza.* "Aita Gurea"-ren lenengo eskari bieí dagokiona da berau: "Santifikadu bedi zure ízena, bertorkigu zure efeiñua." Arimearen zero txikian zerutafen kanta-otsak entzuten asi dira; arimea zerutafen zeregiñetan dabil. Zertan díardue oneik? Jauna goratu ta maitatzen. Orixe berori da emen adimenaren cgitekoa: Jauna maitatu ta goratu, eztarabil beste gogorik ez pozik. Eztabil, baiña, bere alegin utsez; emendik asita grazi bafi ta berarizkoak laguntzen dautso. Jauna ta biak alkar-lanean diardue, Jauna aufe-esku dala. Ofegaitik arimeak neke gitxiago dau emen, Jaunaren eragiña ígefi-ígefián asmetan dau. Ortik bere atse-



dena ta poza; ortik bere maitasunak eta goramenezko kantak zeruko usain geiago izatea. Egia da ezuala goiko bidean Jainkoaren grazi barik ezer egiterik; baiña emendik antxifiakoa aparteko esku-emotea, aparteko laguntasuna izango da. Ori da Teresa'rentzat emen Jaunaren efeiñua, agintaritzea gugana etortea.

Otoitz onek arimearen bafuan egiten dauan bakea ta atsedena ez dira, atan be, guztizkoak. Borondatea, gogoaren bafu-bafua Jaunagaz dago beti, beti bere Jabeagaz bat egiñik; baiña adimena ta irudimena safi dabiltz kanpotik, ara ia ona. Oindiño osozko alkartasunik ezta egin Jauna ta bien artean. Ba-ditu onek arimearentzat afisku batzuk. Safiian, onaiño eldu diranak, alan diño Teresa'k, artegatasuntxoan jarten dira, bafuan asmetan daben atsegiña ez galtzeko ardurez. Zirkiñik be egin gura ez-ta dabiltz, arnasarik artzeko be bildur dira, euren zoriona galtzeko bildufez. Alpefeko alegiña eta ardurak; kaltea besterik ez dautse gogoari egingo. Begoz —esango dautse Teresa'k—, bake-bakean, geldi ta ixilik. Ez beitez asi, gaiñera, zer dan edo zer eztan aztertu naiez, gogoa nastau baiño ez dabe egingo-ta. Begoz olako ardura barik Jaunari adi, maitasuneko gomutaz. Itxi beioe Jaunari bere lana egiten, gogoaren jabe oso egin dedin arteiño. Ta Beronek nai daianean, asirik dagoan alkartasuna geitu ta sakonduz, ufengo mailak joko dabez.

*Alkartasunezko otoitza.* Olan deritxo Ama Teresa'k bere liburu onetan erakusten daskun gorengo mailako otoitzari. Goi onetan Jainkoa ta arimea oso-osoa alkar artuta dagoz; borondatea ez-eze, gogoaren beste indar guztiak be bere Egile ta Aitagana zuzendurik bizi dira. "Aita Gurea"-ren irugafen eskaria: "Egin bedi zure borondatea", bete-betean dakusgu otoizlariaren izate guztian egi biurturik. Arimeak ez darabil beste gogorik Jainkoa maitatu ta Aren naia egi-tea baiño. Zetan erakutsiko dau au, geienik? Zein da, batez be, arimearenizako Jaunaren borondatea? Ona Teresa'ren erantzuna: "Ez uste gero emengo atsegiñik, aberastasunik

andikeririk eta olango lufeko beste onclasunik opa dauzuenik. Maiteegi zaitue olako zirtzilkeririk eskiñi ta opa izateko." Ez, olako ustelkeririk ez dausku opa, ez; bere Seme laztanari opa izan eutsona opa dausku guri be: zer?, ta nekeak, oiñazeak, iraiñak: kumtzea. Kurutze barik eztago goiko itufi bizira eltzerik, Jaunaren gogoko izaterik. Jainkobideetan dabilzan guztiak eztira goi onetaraiño eltzen; ez dabe guztiak zorion ori, batez be gitxik dakielako euren borondatea osoan Jaunaren eskuetan izten, gitxik dakielake eza, nekeak eta kurutzea maitatzen.

Teresa deunak ez ditu liburu onetan. goi onetara eldu diranai egiten yakezan mesede guztiak aitatzen. Berak be, liburu au egikeran, oindifio ikusi ta sakondu barik eukazan otoitz-era onen samurtasun eta bikaintasun guztiak. Alkartasun onetan be ba-dira mailak; geroago ta ageriago, bafukoago, sendoago ta iraunkofago egiñez doala jakitea, naikoa bekigu emen, Ama Teresa'k geroago erakutsi euskunez.

Mailarik gorenera elduta be, emengo aldia egiten dogun bitartean, beti gara makalak, beti dogu indafak bafiztau beafa. Dana izan dau gogoan Jaunak "Aita Gurea" irakatsi euskunean. Otoitz bikain onen azkenengo eskarietan, zer eskintzen dausku? Berbera emoten yaku Eukaristian, gure janari ta sendogafi izateko. Gero, lagun urkoa eztoгу sekula aiztu bear. Gogo bafuan sartuta otoian egoteak eztau esan nai iñondik iñora geure anai-afebakaz aizturik bizi bear dogunik. Geure gogoko izan nai izan ez, guztiekanako maitasuna ta ondo-gurea erakutsi bear doguz beti. Gaiñera, afiskuz inguraturik gagozan ezkeru, beti dogu zur ibili beafa. Santuenak be, iñoz afotu barik, afisku ofetan jausi ez daitezkan eskatu beafa dauke. Ori da "Aita Gurea"-ren azkenengo eskariak gogorazoten dauskuena.

Onelan, Ama Teresa'ren liburu onen azkena bere asikereaz bat dator. Asikeran, Jaunagana uferatzeko, maitasuna ta apaltasuna oifiafizat jafi bear genduzala iñoskun; orain, goietara eldutakoan, maitasuna ta apaltasuna eskatzen dauskuz: maitasuna ta apaltasuna oiñafi, ta maitasuna ta

apaltasuna gailur-afi. Gailufeko birtute oneik, jakiña, lengoak baiño bikaiñagoak dira; Jainko-ikutuaren usaiña darie. Itufi garbiagotik datoz. Arimeak eztau alpefik goien-bafe-nok alkartzen dituan bidea egin: onerako bidea, otoitz-bidea. Otoitzari zor dautsoz arimeak bere ondasun eta irabazi guztiak. Otoitzagaz ondoan izan dau beti bere bide-laguna, Jainkoa bera gero ta obeto ezagutua, gero ta biotzetikoago maitatua. Otoitza izan dau neke guztien aringafi, egafi guztiak asetu ta okefeko su guztiak il dautsozan ura. Lenengotan ur pitin bat izan da, ur-negar bat; edo, geien baten, ur egona, istil-ura, nekez bilatu ta aurkitua; geroago, ugarriagoa ta garbiagoa izan dau, Jainkoak berak bere itufi bizitik emona.

Ur onek, beste egafi guztiak kendu afen, berak be sortzen dau bat, ofaitio: Jaunaren beraren egafia. Ta egafi au zeru-egafi biurtzen yako arimeari, noizik bein. Gure izate-aren argaltasuna ikusita, eztau luzarago egon gura Jauna pekatuaz galtzeko afiskurik dagoan lekuan; zerua nai dau, Jaunaren adiskidetasuna iñoz galtzeko bildufik eztan lekua. Ta biotz-biotzetik urteten dautso "Aita Gure"-ko azkenengo eskariak: "Gatxetik jagon gaizuz"; ainbesteko gatxen bildufa dagoan bizi onetatik atera naizu.

Ona, andi-andika, Ama Teresa'ren liburu eder onen guna ta mamiña. Bere alabatxoentzako egin eban orain la-reun urte. Baiña nozik bein kristiñau guztiakaz diardu: kristiñau guztieri zuzentzen yake Jesus'en deia: "Egafi dana, betor nigana." Guztiok ei daukagu itufi bizitik edateko auke-rea. Ta itufi ortarako bidea ba-dakigu, Ama Teresa'k, oto-izlarien Ama onek esanda, zein dan: otoitza. Ori da Jauna aurkitu, ezagutu, maitatu, adiskide egin eta gozatzeko bidea, emen eta zeruan. Alan izango al da liburu au irakufiko da-ben euskaldunentzat.

**O N - B I D E A**

## AUTORKÍZUNA

*Liburu ontan niñokcan guztia, Éroma'ko Eliz Ama Deunak onlzal daukanaren mende jarten dot; eta, aren aurka ha' lioa zeozer, nik bear lez aitu-ezagaitik litzake. Gure Jainko maitea'ren, beraz, herau ikusteko diran jakitunai deskatsét, ar dura andiz aztertu ta, utsen bat ba'lego bertan, zintzoki arteztu dagiela, bai ta beste edozetan legokezan ainbat akats be. Ezer ontk ba'leuko, ostera, bedi Jainkoaren dirdai ta goramenerako ta Aren Ama txit done, gure Zaindari ta Andrearen otseintzarako: naita ez duinkiro, onen jantzia ba' dakart aldean.*

## I T Z A U R E A

j hs

1. Josepe deunaren lekaimetxe ontako ene aitzak, aldi ontan neure autorle dan Aita Maixu Domingo Bañez, Domingo deunaren Lagundi dirdaitsukoak emoncla, otoitz-jar duketaz zerbait idazteko baimena ba-nebala jakiñik, ia gcgait-eragiteraiño ekin daustie, otoitza aitatzuz, zer-edo-zer idazteko eska ta eska; eta, azkenik, euren gogo ta esanera ekafi nabe. Otoitzari buruz zerbait bidez esatea ba-leiteke, gai onetan aituak diranakaz eta santu-usaindunakaz safitan artu-emona eukia naz-ta. Etxe ontako aitzak biotzez maite naben ezkeru, gai onetzaz ganoraz, adimen ernez egiñiko liburu asko izanagaitik, eta nik emen dagikedana utsez josia ta alan-olango idazkeran esana izan afen, ontzat artuko daustiela deritxat. Beraz, euron otoiak lagun, etxe onetan daroagun bizieraz Jaunari atsegafi dakion zerbait esatea izan leiteke; Ta gauza bidezkorik idatzi ez ba dagit, liburu au lenengo Domingo Aitak ikusiko dau-ta, beronek arteztu edo, bestela sutara bota begi; eta nik, Jainkoaren mirabe onein esana beteaz, eztot ezer galduko; argi ikusiko dabe, ostera, Aren Anditasunak lagundu ezik, zein utsa nazan.

2. Asmo bakaña darabilt: deabruak buruz-buru ipin-ten dauskuzan tentaziño ta maltzurkeri txikientzat osagafi batzuk azaldu. Ziri-sartzeok txiki-me baizen sañikoak diralako, eurotan ardura gitxi izan oi dogu bear bada. Gerora, arloari jafaituaz, beste gauza batzuk be esango ditut, Jaunak aitzen emon-ala ta neure gomutamenean jafi ala. Asmorik urtenena aitatuia izan afen, gauza zeatzetan zeri ekin jakin ezik, ezin daikedaz eurak sail berezietan banakatu. Ta, nire ustez, oba yat era andi barik jokatzea, gai onetaz nik jardutea txit zuzen-eza dozue-ta. Dagikedan guztiak bekar Jaunaren esku-atza, Aren naierara oro egin daiten. Nire egitadak utsez beteak izan afen be, auxe da nik beti gura dodana.

3. Ba-da nigan maitasuna ta gurari onik, eta nire aiztak, euron bitartez, Jainkoaren otseintzan gero ta bizkofago dabilzan, ezer onik egin al ba'dagioet, gertu naukie beti. Maitasun onek, dodazan urteokaz lekaime-etxeetan asko ikusia naz-ta, jakitunak eurak baifio onura ta protxu geiago lekarkie aurki, gauza txikietan beintzat; jakitunak, bada, arazo andiagoak darabilez gain, adimen argiagokoak dira, ta ezer ez dirudien gauzai ez dautse olako jaramon andirik egiten. Gure antzeko andrazko makalai, bafiz, edozek kalte egin leikegu. Onezaz gaiñera, deabruak, iruzurbide oso bakanak erabili oi ditu bakartegian gordeta bizi diran mojen kontra, onei kalte egiteko era ta iskilu bafiak bear dabezala ba-daki-ta. Nik, geldo bai nozue, eztot ain ondo be jakin neure burua aldezten; ene aitzok, ar nagizue, ba, zintzo-afitzat eta neugan galendu zaiteze guztiok. Neugan edo beste norbaitengan oartuta ikasi bakorik eztot esango.

4. Egun batzuk dirala, neure bizitz-edestia eratu nengiala agindu eusten: an be zeozertxu esan neban otoi-jarduketaz. Bear bada, baiña, zuek a ikusterik eztau naiko nire autofentzuleak, eta, augaitik, an aitaturiko gauza batzuk emen be ipiñiko dodaz; bai ta onurakor yatzuezala uste dodan beste zertxo batzuk be. Eskatu dautsodan lez, Jaunak zuzendu begi nire *ht*<sup>^</sup> ta Rere aintzarako bedi guztia! Olantxe.

Lekaimetxe au, zek eraginda egin neban ain txiro

1. Lekaimetxe, komentu au zergaitik egiña dan, eta bertan atsegin andiak izango ebazala adierazteko Jaunak egiñiko afigafi batzuk, len aitatu dodan liburuan esanda dagoz (1). Berau egiten asteen, ez neban nik txiro (pobre) egiteko asmorik, ezta bertan jarauntsi edo efenta barik bizitekorik be, ta bai ezeren beafik bage bizi izateko egokitasunakaz. Onek darakus ondo zein zur ta uzkur nenbilen ni, ortara eragiten eustana neure nasaitasuna bakafik etzan afen.

2. Ofetan izan neban, Prantzi'n eta, lutertafak egiñiko kalteen bafi: gero ta auferago joian zori gaiztoko alderdi au. Naibage anditan sartu nintzan ni, eta, zerbait nintzalakoan edo, negafez Jaunari afen ta afen jarduten neutsen, ainbesteko gal-uiolari bideak austeko eskatuaz. Neu be, an galtzen ziran gogoetariko (arimetariko) bat oneratzefen, eun bizi izanda be, guzti-guztiak emoteko gertu nengoala neritxon. Baiña, emakumea ta gauza-eza besterik enintzan; ezin burutu, beraz, nai neukean beste Jaunaren alderako. Ofaitiño be, gure Jaunak ain arerio asko ta ain adiskide gitxi dauzan ezkerro, adiskideok onak izatea izan da nire betiko leia bizia, ta al nebantxo au egitea erabagi neban: Jesukristo'ren onuak (konsejuak) al bait zeatzen bete, ta emeko lekaiameok be bardin egien leiatu. Jaungoikoak emongo eustan ortarako laguntasuna, Beragaitik dana izteko gertu dagoanik ez baitau laguntza barik izten.

Eta lekaiameok, neuk neure amesetan nekusazanak lan-goak izan ezketiño, euron onoimen cdo birtuteen artean

(1) Bizitzan, XXXII-XXXVI.



nire utsak aintzat artzekoak be elitzakezan izango, ta nerek be ofela Jaunari zerbait atsegin emon al izango neuskion; eta giñan guztiok Eleizearen aldezele ta irakasle ta jakitun diranen alde otoiketari jardunaz, neure Jaun oneri zerbait lagunduko geunskion, ainbeste on egin dautsen askok ain atsekabaturik dauken ezkerok. Izan be, azpisuge ofeik ba-dirudi bafiro gurutzeari untzetu nai dabela, ta nun burua ezafi be ez dautsoela itxi gura.

3. Oi, ene Gaizkatzaile! Lertu-beafez jarten yat biotza, au gogoratzean! Zertan diardue oraingo kristiñauak? Geien zor dautzuenak, adiguririk andienak egin dautsezuezanak, adiskidetzat aukeratu dozuzanak eurak, ikurtonen (sakramentuen) bitartez lagun egin ta emoten zaiakezanak eurak, Zeuri atsekaberik geien emoten beti? Ez al dabez, ba, naikotzat eurakaitik jasan (sufridu) dozuzan oiñaze guztiak?

4. Ezta ezer, egiaz, ene Jauna, ezta ezer orain mundutik alde egiten dauanak dagiana. Zuri ain begirune gitxi ba'dautzue, guk zer uste dogu? Zuri baiño itzal andiagorik zor ete dauskue, bear bada? Zer onik egin dautsegu guk, guri adiskide azaltzeko? Zer da au? Jainkoari eskefak, azteri naskagafi a barik gagozanok beñipein, zeri begira gagoz, azteri ofek kutsutuak txefenarenak dira-ta? Sari edefa irabazi dabe oneik, ondoren edefa eurekanatu dabe euren atsegifien ordeze: betiko sua. Eurek dira efudun; alan be, ainbeste gogo (arima) galtzen ikusteak biotza lertzen daust, Afen, ez al dira geiago galduko!

5. Oi, Kristo'gan bat garean ene aitzak! Lagundu egidazue Jaunari auxe eskatzen; ofetarako batu zaitue emen; orixe da zuen elburua: ofa jo bear dabe zuen ardurak guztiak, ofa zuen gurariak, ofa zuen negar ta eskariak, ta ez, ene aitzak, ludiko arazoetara. Niri neuri, mundukoak eurentzat Jaunari artzekoak eta ogasunak eskatzeko afenka datorriguzanean, efukiz bafe eragin ta gogoa iluntzen dauste; ta eurentariko batzuk ondasunak eta eskatu beafean, oneik zapaltzeko adorea eskatuko ba'lebe, oba. Uste onez dabiltz,

ofaitiño; origaitik eskatzen daben lez dagigu, ni neuretzat, olango gauzetan Jaunak ez daustala egundo entzuten, uste izan afen. Su-gafetan dago mundua, Kristo bañiro epaitu-naiez dabiltz, esatea dan lez, ainbeste guzur ezarten dautsez-ta, Aren Eleizea lufera bota nai dabe; ta oraindik ofelako zeren eske? Ta, bear bada, Jainkoak eskaturikoa emongo ba'leuskioe, arima bat gitxiago geunkake zeruan! Ez, ene aitzak, ezta orain Jaungoikoagaz ofelako ergelkerietan ibil-teko garaia.

Egia da, mundukoak poza artzen dabe zerbait laguntzen dautsegunean, eta al dala zerbait laguntzea eztago txarto; baifia, aitu ondo, eztira oneik ain arduraz Jainkoari eskatze-ko gauzak.

## II

Gorpuízaren beafizanen ardurarik eza.

Txirotasunaren ortdasunak

1. Mundukoen edefa ez egiteafen, ez uste, ene aitzak, ez dozuela zer janik izango. Neuk diñotzuet: janaria zuzentzeko ez egizue, afen, iñoiz be giza-asmakerietara jo, gosez ilgo zarie-ta, bai ondo irabazita il be gero. Zuzendu begiak zeuen Maitearengana; berak elikatuko zaitue; a pozik izan ezkerro, orainñarte ikusi dozuen lez, engaraz ba'da be, gitxien maite zaituenak eurak emongo dautzue zer jan. Baiña zeuori dagokizuenta eginda gero be, ilgo ba ziñe, bai zori ontsuak Josep Deunareneko lekaimeak! Jaungoikoafen, ez auxe iñoiz aitzu: jarauntsia, efentea itxi clozuen ezkerro,

itxi janariaren ardurea be, bestela dana da alpefik. Efen-tatik bizi diranak beukiez ardura ofeik, bidezko ta beafezko bai dabe, Jaunak ofela nai izanik; baiña guk ez, aitzak, guk eztogu ofetariko ardurarik izan bear: zorakeria litzake. Besteak dabenari begira egotea, iñoren etxearen ardura izate-a, nik uste. Ta zuk ardura ori izan afen, besteari biotza igituko (mobiduko) ete yako, edo-ta zuri limosnarik, ukafik emoteko gogorik etofiko ete? Guztiak igitu daikezanari, diru ta dirudunen Jaunari itxi egiozu ardura ori; Arek aginduta etofi gara ona; egizkoak dira Aren itzak; eztabe utsik egingo: zeru ta lufak lenago ondatuko dira. Gagozan beti Beragaz, ta ez bildufik izan, Bera be beti geugaz izan-go dogu; ta iñoiz itxiko ba'gaitu, geure on andiagoren baterako izango da. Bere deunak be il egiezala izten ebanean, ez ete zan arein eriotzaren bidez zeruetako aintza ta zoriona geitzeko? Axe bai ordain edefa: emengo bizitza ain arin amaitu, ta betiko ase-betea artu!

2. Ene aitzak, difiodan au gora andikoa da-ta, sartu ondo gogoan, nire eriotz osterako batez be. Ofegaitik izten dautzuet idatzita, ni bizi nazala, itzez be gogoratuko dautzuet-eta. Neure buruan ikusita dazagut txirotasunak dakafen ain irabazi andia. Augaitik nik, gitxien dogunean, ardurarik be gitxien izan oi dot; lafegi dogunean, bafiz, gitxiegi dogunean baiño atsekabe andiago izaten dodala, Jaunak berak daki. Ifioz ezer bear ba'dogu, Jaunak bereala emoten dauskula ikusteagaitik ete dan nago; dana dala, gogoz txiro izan bagarik, azaletik baiño izan barik txirotzat bizitzea, munduari iruzur egitea deritxot. Niri neuri, ori aberatsak eske ibiltea ez ete dan bildufez, bafen-mimikoak eleuskit arterik artzen itxiko. Eta, izan be, ba-leiteke luditafen emoien begira ain artega dagozanak, eskatzen asita, gaur oni eskatu, biar ari eskatu, azkenez bear eztana, ta bear bada, geiago bear dabenari eskatzea; ta emoileak galdu barik irabazi egin afen, geu gifiake galtzaile. Jainkoak ez al dau olangorik jazoten itxiko! Ori jazotekotan, oba zeunkie jarauntsia euki.

3. Jaungoikoaren maitasunafen, ez egizue, otoi, eze-lan be ukafik (limosnarik) emongo dautzuenik edo eztau-tzuenik bururatu be egin. Eta iñok zuetakoren bat ikus\*. ba'dagi, ofetan uts egiten, afen begio Jaunari ta, naiz-ta txikiena izan, alakoari oartu ta apalik esan begio eztabilala zuzen. Ta oker ibili be! Ezarian-ezarian benetako txirotasuna guztiz galtzeko bidetik baitabil. Jaunak ez ditu bere mirabeak itxiko, ta Beragaitik olangorik jazoko ezalako ustea dot. Eta zeuek aginduta idatzi dodan au, beste ezetarako ezta be, ortarako beintzat iratzargafi bekizue.

4. Siñistu egidazue, ene aitzak. Neuk be lenago, txiro bizitzeko agintza egiñafen, eneban gogozko txirotasunik ezagutzen, ero nenbilen ofetan; baiña, azkenez, zuen onerako, Jaunak erakutsita ikusi ditut pizkat onoimen ofen obariak, eta edozeiñek be ikusi leikezalakoan nago, bear bada nik baizen ondo ezafen. Gogozko txirotasuna! Ezta lufcan onik onoimen (birtute) onek eztauanik; oroen jabe egiten gaitu; bai, lufeko ondasunak ezesten dituana ondasun guzti ofein jabe dala esan gengike. Zertarako dodaz nik efege ta andiki guztien aberastasunak, eta zer ardura daust niri, arein edefa euki nai ez eukiteak, ori guzti ori baifio Jaungoikoari, areik dirala-ta, naigaberik txikienik be ez emotea gurago ba'dot? Zer ardura izan bear ete dauste arein andikeri ta dedu guztiak be, benetako txiro izatea berez be gauza andi ta itzalgafia dala ba'dakit?

5. Nire eritxiz, andikeriak eta diruak alkafen lagun dira ia beti; andikerien uzian dabilenak eztau dirurik iguin, ta diruzale eztana nekez andikeri-zale. Aitu, bai, ondo: izen andia izateko, etxe edo diru askoren jabe izan beafa dala dirudi. Nekez aurkituko dogu munduan txirorik izen andia dauanik: benetan andia izanda be, eztabe aintzat eukiko. Alan eta guzti be, egiazko txirotasunak dakafen anditasuna, a bai dala anditasuna! Nok ez dautso areri itzalik izango? Eta egiz, Jaungoikoagaitik bakafik artutako txirotasunak eztau Jainkoarena baifio besteren edefik egiterik; eta ja-

kiña, iñoren beafik eztanean, adiskide asko. Bai orixe! Neuk ondo ikusita dakit.

6. Onoimen onetzaz asko idatzi da-ta, edertu beafean, itxusitu ez dagidan, eztiñot geiago ezer. Bear bada, bafiz, eztot oindiño berau ulertzen; zelan, ba, berari buruz egoki itz egin? Neuk oafez ikasia baiño eztot emen esan, eta, egia esateko, berau idaztean zer idazten izan dodan be eztot jakin; ain itsu-mustuan idatzi dot. Jaungoikoari eskefak, esana esanda dago. Beraz, ba-dakigu; txirotasunak izan bear dau gure apaingafia, Gopatzaren asikeran gure asabak ain maite ta aintzakotzat eben txirotasuna. Gaba eltzean ur'engo goxerakorik ez ebela bizi ei ziran areik, ondo dakianak esan daustanez.

7. Orain eztogu ofenbesterañoko txirotasunik; baiña, gogoz ta biotzez beintzat, ofenbesteraño be eltzeko alegiñak egin bear doguz. Ordu bikoa da bizitza, saria, bafiz, betikoa; ta Jaungoikoaren onuak betetea, Jaungoikoari zer edo zertan jañaitzea, beste saririk ez ba'gendu be, naikoa izan bear leuke guretzako. Auxe bedi, bai, gure ikufiñaren apaingafia; txirotasuna etxe, jantzi, itz eta batez be asmoe-tan. Afetaz bete daigun orixe; ta ori ondo bete daigun artean, ez bildufik izan, ezta etxe onetan Jainkoaren maitasuna otzituko; afesi sendo-jasoak dira txirotasunarenak, Kalare Deunak iñoanez. Afesi ofeikaz eta apaltasunez esitu gura ebazan deun ofek bere lekaimetxeak. Eta, ziñez, txirotasuna bear danez jagon ezketiño, etxe andi ta aberatsak izanda baiño obeto zainduko dira onbidea ta beste ekandu onak be. Afen, ez egizue etxe andirik jaso; Jaunaren odolafen eskatzen dautzuet; iñoz jaso ba'dagizue, bafiz, bereala jausiko al yatzue!

8. Ezeukien txindiz, diruz etxe andiak jasoteak gauza itxusia dirudi, ene alabak; Jainkoak ezpei olakorik laketu: gure etxeak txiki ta txiroak izan bear dabe. Zer edo zertan gure Efegeren antza be izan daigun, ta ara: jaiotzeko estalpetxoa Belen'en ta ilteko gurutzea, beste etxerik ez eban Arek izan. Aukera gitxi izateko etxeak, ziñez! Beste ba-

tzuk etxe andiak egiten ba'dabez, eurek dakie zer dagien: asmo zintzoz dabilkez, aurki; baiña amairu lekaimetxoentzat naiko da edozein zoko. Beti bafuan egon-beafa arintzeko, landa edo baratz bat eukitea, tira, ederto legoke; baselizatxo batzuk be egin leiz bertan otoitzerako, ta otoi-zaletu ta oneraspena biztuteko aukerakoak litzakez. Baiña besterik ez, etxe anditxukunik eta ezelan bez; ezpei Jaungoikoak olakorik itxi. Epai-egunean danak lufera etofi beafak dirala gogora ekafi; ta ez ete da laster izango, gero? Ta amairu lekaimetxoek etxeak, jaustean, astrapalada andia egitea ez dirudi ondo; benetako txiroak eztabe otsik egin bear, iñok efukirik izango ba'dautse. Gero, oster, ukar edo limosnaren bat egin dautzuela-ta, bat-edo-bat gaiztokira barik gelditu dala jakitea, a bai pozgafi! Ezta gero au jazo ezin leikeana be, jaten emoten dautzuen ezker, euren alde safi otoi egitera beartuak zagoze-ta. Bai, ukar ofeik, Jaunak emonak izan afen, beste onein eskuz damoskuzalako, onein alderako be esker-onekoak izatea Jaunak berak gura dau. Ez onetzaz iñoz aitzu.

Baifia aritik urtenda nago; zer esaten asi nazan be ezta-  
kit. Jainkoak alan nai izan dau, ufean, iñoz be ezto emen  
esan dodanik idazteko asmorik izan-eta. Jaunak berak emon-  
go al dausku emen esaniko dana, beti zeatz betetako in-  
dafa. Olantxe.

### III

Lenengoan esanaren jafaipena. Lekaimeak, Eleizaren  
alde lanean diarduenen onerako otoitz egin bear dabe.  
Azkenean afen bat dakar

1. Arira gatozala, Jaunak gu emen batzean izan dauan  
asmoa beteteafen, Ari poz-atsegin apur bat emoteko alegi-  
ñak egitea da, nik ain biziro opa neukeana. Ofetarako,

ainbat gaiztakeri dakusgun ezkeru, lutertar onein sua, are geiagoo aziaz doiana, itzaltzeko biderik lufekuok asmau ezin dogun ezkeru, era bat otu yat. Gudatean Jaun bati etsaiak bere lufalde guztia artu ta estuan ipinten dabenean, jaun ofek zer egiten dau? Zain-esiakaz ondo jabondako gaztelu batera batzen da bere guda-gizon onenakaz; bai ta, noizik bein, aukerakoenak dira-ta, beste gudari epel askok baiño, eurek euretara, geiago al izaten dabe, ta safi olantxe garaitza lortzen; eta garai urten ez afen be, eztabez beintzat menderatzen; azpi-saltzailerik euren artean ez ba'dabe, gosez izan ezik, eztabez azpiratuko. Emen ezta gose ofen bildufik; ez gaitu goseak etsaien mendera ekafiko; il bai, baifia menderatu ez.

2. Baiña, zertarako aitatu dot au? Ene aitzak, egin bear dozuena zeuei azaltzeafen. Oindiño gaztelu bat ba-da, kistar on batzuk bertan dagozana; gaztelu edo uri ofetako nagusi-buruak izlari ta urtiztilariak (teologoak) doguz. Guri dagokiguna, ba, gaztelu ortako kristau bat be arerioen aldera ez doakigun Jaunari otoitz egitea da; bertako buruzagi diralako ofeik Jaunaren bideetan azkartu daitezana, eta geienak lekaide, praile diran ezkeru, beafena dabe-ta, lekaide-bizierari dagokiozan bearkunak betetan zintzo izanik, aufera ta aufera egin dagien Jaunari eskatu: ona guk egin bear doguna. Orain eztogu mundu-gizonen beafik, eleiz-gizonena baifio; ta gu, geure Efegeri beste ezertan laguntzeko gauza ez garean ezkeru, saiatu gaitezana beinik-bein jakituriz eta onoimenez euren gogoak sendotuta gero Aren alde ain azkar jokatu bear daben Jaunaren otsein zintzo oneri geure biziera onaz ta otoiakaz laguntzen.

3. Baiña, ausaz, esango daustazue: zer dirauskuzu? Gu baiño obeak diranen alde otoitz egin bear al dogu? Esango dautzuet, Jaunari dautsazuen zoña ez dozuela oindiño ondo ulertu deritxat-eta. Jaunak etxe onetara ekartean egin dautzuen eskefa! Emen munduko galbiclerik eta ausi-mausirik barik zagoze. Areik, osteru, eztabe olango zorionik, eta eztabe izan bear be; aldi onetan, batez be, epelak berotu ta

biotz ilak adoretzeko bear-beafeakoak ditugu. Onak legokez gudariak buruzagi barik! Areik gizonakaz jardun eta bizi bear dabe, ta jauregietara sartu ta iduriz euren erara etofi be bai safi. Eta zuok, ene aitzak, munduan bizi ta munduagaz jardun, munduko gora-beratan sartu ta, esan dodanez, mundu-zaleen erara safi etofi bear-ta, alan eta guzti be, biotzez munduzale ez izatea, munduaren arerio izatea ta bertan erbestean lez egotea, itz batez esateko, gizon barik aingeru izatea, gauza efeza dala uste dozue? Ta olangoak ez izatekotan, ez dagokie buruzagi-izenik eta ez al dautse Jaungoikoak euren geletatik bein be urtetan itxiko, onik baiño kalterik geiago egingo leukie-ta.

4. Ezta oraingo aldia irakasle ta zuzendari izan bear dabenetan bear eztan gauzarik ikustekoa. Ta amaitu-beafak diran gauza guztiak zapaldu ta biotza areikandik aldendu ta betikoetara zuzentzeko, bafutik, azkar ta sendo ez ba'dagoz, ezagun izango dira, alan irudi ez izateko alegiñak egiñafen. Ez al dabe mundua salatari? Nor ta mundua! Ez uste akatsik be oartu barik geldituko yakonik. Gauza onik asko, bai, ez-ikusi egingo dabez, edo aintzat be eztabez artuko; baiña txafik edo bear bezelakoa eztanik, ezelan be ez. Afiturik nauko, ofaitiño; nok erakusten ete dautsez deuntasun-legeak? Eta eztabez eurak beteko, ez; ofetarako bearkunik bape eztabelakoan dagozala dirudi; aginduak alan-olan betetea naikotzat dabe. Besteak gaiztetsi ta maisatu baiño eztabe egiten, eta safi ondo egiña be txartzat emon. Ofa, ba; ez uste guda-leku ofetan sartzeko gure gizonok Jainkoaren laguntzaren bear andia be andia ez dabenik.

5. Au dala-ta, aletin guztiak egin bear doguz Jaunari gauza bi emon-azoteko. Lenengoa, esan dodan lez, Eleizearen alde egiteko bear diran gaitasunak dabezan lekaide jakitun asko be asko izatea; ondo-ondo gertau bakoak, bafik, Jaunak berak gertau dagizala, ondo gertauriko batek bestelako askok baiño geiago egingo dau-ta. Bigafena, guda ofetan sartuta gero, guda (gefa) efeza be ezta-ta, galbidetatik ondo



urten dagien, Jaunak bere eskutik izan dagizala, ta munduaren dei liluragafiei ez-entzun egiteko kemena emon dagioela. Gauza biok, Jainkoak lagunduta, lortzen ba'doguz, etxe bafuan gagozala be, gudan dabizenen kide ízango gara. Zori onekoak orduan niretzako, ofetarakoxe gure Ama ta Andra andiaren Legedia asikerako zeatzasunez betetako txoko au egiten izan dodazan lan eta nekeak!

6. Ez egizue uste izan beti eskari au egiteaz ezer galduko dozuenik, Eurentzat otoi asko ez egin-beafak atzera eragiten dautse askori. Zein otoiitz, baiña, au baiño oberik? Garbitokiko oiñazeak laburtu gureaz zabilitze? Otoiitz onek be laburtuko dautzuez. Ta azkenengo epai-egunerarte garbitokiko oiñazetan egon bear ba'neu be, zer ardura izan bear dot arima bakar bat neure otoiagaz zeruratzea lortu ezkerok? Eta bat ez-ezik, asko be asko zeruratu geinkez ofela, Jaunaren aintzarako. Gugaitik ainbeste ta alako oiñazeak artu ebazan Jaunari gure atsegiña ta maitasuna erakusteko aukerarik yatorkunean, ez dogu izan bear oiñaze igarokofen ardurarik; onenera jo beti. Afen egiozue Jaun maiteafri onetan entzun gagizan. Neuk be, ezereza nazala, alan egin oi dot; eta, Jaunaren aintzarako ta Eleizearen onerako dan ezkerok, gura be eztot besterik.

7. Ofetarako ezer ba-nazala nik uste izatea, ausarkeria dirudi; baiña, ene Jauna, emengo lekaimeok damoste uste ori. Zeuk zer dozun atsegiñen eta axe egitea baiño beste gutafik ez dabela ba-dakizu. Zeugaitik, euken guztia itxi dabe; ta geiago euki gura leukie, dan-dana Zeuri opatuteko. Au dala-ta, ezin dot sifiistu eurok eskatzen dautzuenik ukatuko dautsazuenik; ez, etzara Zu, ene Egile ori, esker txafekoa"; ta, emakumeak izan afen, munduan zifiala be ez zeuntsen emakumeai ez-ikusirik egin, txeratsu ta efukitsu agertu zintzakien beti. Andikeririk edo aberastasunik edo olako mundu-usaiñezko beste zerbait eskatzen dautzugunean, ez-entzun egiguzu; baiña zelan ukatu, Aita samur ofek, zeure Semearen aintzarako, dana Zeugaitik, geure izena ta odola galtzeko gertu gagozanoi? Ez dautzugu, Jauna, geu-

gaitik eskatzen, gu ez gara iñor, zeure Semearen irabazi ta odolagaitik baiño.

S. Betiko Aita ofek, begira! Zure Semeak beiñola ar-  
turiko zigorkadak, iraiñak eta ain ikaragafizko oiñazeak ez-  
tira aitzutekoak. Zelan jasan ta eroan zeinke, ba, ene Egile  
ofek, ain efai samur-efukitsuak dozuzan ofek, oindiño egu-  
notako siñausleok zure Semeari egiten dautsena? Ara! guri  
euskun maitasunaren maitasunez eta Zeuri atsegiñen yatzuna  
egiteaŕen asmau eban Ikurton Deun (Sakramentu santu)  
au siñausleok Iaídoz ta erdeñuz darabile, ta eleizak Iuferatuz  
nun egon be eztautse itxi nai. Zelan jasaten dozu ori? Zure  
opaz egin bear ebanik, egin barik itxi ba'leu be! Baiña guz-  
tia eain eban bape akatsik barik zure Seme ofek. Munduan  
zala burua non ipifii be izan ez ebanak, beti neke ta lofetan  
bizi izan zan ofek, ez al dau naiko jasan ta sufridu? Orain  
be, adiskideakaz poza artzeko ta bizitzako lofa eroateko geu-  
ie makaltasunagaitik beafekoa dogun janaria geuri emoteko  
dituan etxe deunak kendu egin bear al dautsez? Etzan naiko  
ta lafegi be Adan'en oben edo pekatuaren zofetan ordaindu  
ebana? Ointxe be, oben dagigun baktzeko Bildots guztiz  
maitari onek izan bear ete dau ordaintzaile? Ez olakorik  
laketu, ene Jaun eta Jainko ofek; ibitu bedi zure asafea.  
Ez begiratu gure pekatuei: zeure Semeak gaizkatuak gara;  
begiratu onen irabaziei, bai ta Aren Ama zorientsuarenai  
ta euren oclola Zeugaitik ixuri daben martiri (ziñopa) ta  
santuenai be. Baiña, ai, ene Jauna! Nor eta ni azartu izan  
bear, guztion izenean, eskakizun au egiteko! Bitarteko edeŕa,  
ene aitzak, eskari au zuen orde zuzendu ta Jaunak entzu-  
teko! Bildur naz, Epaille nagusi au, ni onen ausarditsu iku-  
sirik, asafeago jafiko ete dan; zuzen asafetuko litzake atan  
be. Baiña, gomutau, Jauna, orain efukizko Jauna zareala;  
efuki zakioz, ba, pekatari oneri, ain lotsabako auferatzen  
yatzun ar txatxar oni. Ez begiratu, neure negat ta zotiñai  
baiño; ez egizuz gomutara ekafi nire gaiztakeriak, ene Jaun-  
goiko ofek, eta Zeu zareanagaitik ondamendira doazan ain-  
beste pekatariei efuki izan zakiez. Eta Eleizearen alde be

jagi zaitez; afen, ez begi zure Eleizeak geiago kalterik izan; ilunbe oneitan argi egizu len-bai-len.

9. Jaungoikoafen, ene aitzak, zuen otoietan gomutan izan nagizue ta Jaunak apaltasuna emon dagistan afen egiozue, artara bearturik zagoze-ta. Ez dautzuet gomutarazoten ez efegerik, ez Eleiz-gotzaiñik, ezta geure gotzaiña be; one-tan arduraz ibilteko orain zagozenok nire esan-beafik ez dozuela ba-dakit. Gotzain deuna izan ezkerro, menpeko le-kaimeak be deunak izango díra: au jakin begie gero zuen ufengo etofiko diranak be; ta ain gañantzi andiko gauzea da-ta, zeuen otoitzaldietan gomutaratu egízue beti. Zeuen otoitz, ardura ta laztasun guztiak emen esan dodan elburura zuzentzen ez ba'dozuez, bafiz, neuk dirautzuet: Jaunak, zuok emen batzean izan dauan asmoa ez dozuela betetan.

#### IV

Legea betetzeaz ta gogo-bizitzarako gañantzitsu  
diran iru gauzaz

1. Ofa, ba, gure egitekoa, ene alabak, egiteko andia benetan. Ez Jaungoikoak ez munduak buru-eritxitzat artu ez gagizan, zer ez ete dogu egin bearco? Lan andia dogula gauza argia da, beintzat; eta egiñak andiak urtetako asmoak be andiak bear; baiña, geure Legedia zeatz eta zintzo bete ba'dagigu, gure eskariak ondo artzeko Jauna adíkor izango dogulakoan nago. Ona, ene alabak, ez dautzuet gauza bafirik eskatzen, geure lege ta bizibideari zintzo ta zindo jafaitzea baiño. Orixe da gure dei-elburu ta eginbeafa; egin bear au zelan bete, or dago untzea.

2. Otoítzari unoro ekiteko dirausku antziñako legeak. Ona araurik bein-beiñekoena guretzat. Berau alik ondoen bete ezkeru, lege berak agintzen dauskuzan gaiñerako barau ta laztasunak eta ixiltasuna be, eztoguz bete barik itxiko. Badakizue zuok; otoitzak, benetako otoitza izango ba'da, gaiñerako zer ofeikaz lagun ibili bear dau. Otoitza ta buru-zalekeria ezin leikez alkafegaz batu.

3. Otoitz-ereaz zerbait esateko eskatu daustazue; eta neuk be eskari bat egin gura dautzuet: esango dodanaren orde, oraiñarte esan dodana safi gogoz irakufi ta zeatz bete dagizuela. Otoitz-gaia ikutu baiño len, beste zertxo batzuk jafiko dodaz aufetik; otoitz-bidean sartu nai dabenak bein-beiñeko izango dabez; eurakaz goiko bide ezkutuetan sartu barik be, deuntasunean bide andiak egin leiz; eta eurak barik, ezingo dau iñok bide goi ofeitan sartu, eta sartu dalakoan ba'dago, oker andian dago. Jauna betorkit lagun, esan bear dodana erakutsiz, dana bere aintzarako izan dedin. Alantxe bedi.

4. Ez dautzuedaz, ene aizta kutunak, burubide asko emongo, ez uste. Gure guraso deunak egin eta agindua bakafik be beteko al dogu! Bide onetatik ibilita irabazi eben areik deun-izena; beraz, guk beste biderik bilatzea erokeria litzake. Iru gauza baiño eztira azalduko dautzuedazanak, legean daukaguzanak irurak. Jaunak aginduriko bakea kanpo ta bafu izateko, gañantzi ta gora andia dabe, ta gogo-biotzean ondo sartuta euki bear geunkez eurak. Lenengoa, alkarganako maitetasuna; bigafena, izakiakanako edo munduko gauzakanako lerarik-eza; azkenengoa, egizko apaltasuna. Azkenengo au, azken jafi ba'dot be, lenengoa da, ta berau izanik beste biak be izango dira.

5. Lenengo aitaturia, alkar txit maite izatea, bear-beafezkoa da; alkar maite izan ezkeru, ezta gauza mingafirik pozik artu ta jasaten eztanik; asaferik edo emoteko, gauza andiren bat izango cla. Agindu au munduan bear litzaken lez gordeko ba'litz, beste guztiak gordeteko efeztasun andia emongo leuke; baiña orixe jazo oi yaku: edo goitik edo

beetik dala, iñoz be ondo gorde ez. Lafegi maitatzeak gure artean ba-dirudi ezingo dabela kalterik egin; ortik datorzan kalte ta utsegiteak, ba, bere begiz ikusi dituanak baiño eleukez sifiestuko. Etsaiak (deabruak) ortik matasa andiak sortzen ditu. Jaungoikoaren gogoia danetik ez urtetako ain zintzo ez dabiltzanak eztabez ezagutuko, ta txarto egiña ontzat eukiko dabe; baiña onena dana egingurez dabiltzanak, bai, ezagutu oi dabez. Emakumeoi, bafiz, kalte andia-goak egiten dauskuz, neure ustez; gure etxeetan oker andia-goak dakarzalakoan nago. Ortik guztiak alkar bardin maíte ez izatea, norbere maíteenari egíñiko íraíña norberarí egiña lez artzea, ortik dator ari zer emon euki gura izatea; aregaz noz itz egín al izango arduraz ibiltea, ta safi, ez Jaungoikoa zenbat maite dauan esateko, berari dautsan maitetasuna ta olako tentelkeri batzuk agertzeko baiño. -Onetariko adiskidetasunak gitxitan izaten dira Jauna maiteago izaten alkar laguntzeko, ta erlijiñoetan (gopatzetan) alderdiak sortzeko etsaiak bizten dituala uste dot. Jainkoagana zuzendua ba'da, ostera, adiskidetasuna, laster izango da ezagun; naimenak, griñapean gelditu barik, adiskidetasun ofegaz beste griña gaiztoak azpiratzeko laguntasuna bilatzen dau.

6. Onetariko adiskidetasun onak zenbat eta geiago gureguz neukez nik komentu andietan; baiña amairu baiño ez tiran eta geiago izan bear be eztaben etxetxo onetan, emen guztiak izan bear dabe alkar maite, guztiak bear dautse alkafi lagundu. Ta, Jaungoikoaren, ez egizue alkafegaz bereziko adiskidetasunik izan; deun-usaiñekoak dirala be, adiskidetasun ofeik-anai artean be- zital-ikutua baiño ez tira, eztabe bape onik ekarten; senide artean, bafiz askoz be txarago, ízufia bera. Síñisgatxa iduri afen, siñistu egidazue, ene aiztak: dirautzuedanez egiteak deuntasun andia dau, bake andia dakar, eta makal dagozanai jausbiderik asko kentzen dautsez. Geurezkoa dogu-ta, gauza eziña izango yaku safi onek baiño ak biotza geiago ez eroatea, eta beste askotan, iduri ohea ta ederkun geiago dituala-ta, gauzarik txatxafena maitagaríen izaten yaku; baiña ofegaitik be zu-

fago ibili bear dogu, okefeko lera ofek menderatu ez gaizan. Onoimenai ta bafuko ontasunai, bai, begiratu daiogun; baiña azalean baiño agiri eztanari, jaramonik be ez.

7. Eztaigun, ene aitzak, gure biotza bere odolagaz erosi ebanaren mendean baiño beste iñoren mendean itxi; bestela, zelan burutu ez dakizuela, Iotuta aurkituko dozue zeuen burua. Oi, ene Jaungoiko! Ortik datozan txatxalke-riak zenbatu al-eziñak díra; ikusi dituanak siñistuko dau-ta, eztot eurak aitatu beafik, emen. Eztot besterik esango adis-kidetasun ofeik edonorgan txafak dirala baiño, ta lekaimetxeko nagusietan izanik, izufia edo pestekeria.

8. Adiskidetasun onei lenengo-lenengotik ausi bear ya-kez bideak, eta zeatz ausi be gero; baiña ez gogofean, maitez eta zurtasunez baiño. Ofetarako, alkañegaz ordu izentauetan besterik ez egotea ta itzik ez egitea dozue onen; legeak agin-tzen dauskunez, orixe da otain dogun oitura be: alkañegaz batcra barik, banan bakotxa bcre gelan egotea. Josep Deu-narenean ez dozue izan bear gero josteko gelarik; oituta ona danafen, norbera bakañik dala, ehezago egoten da ixi lik, eta otoitzerako bakartasunera oitutea lakorik eztago; eta, etxe onen oiñafia otoitza dan ezkeru, otoitzcrako onen yakunera zaletasun andia izan bear dogu.

9. Bafiro be alkar maitatzeati nagokala, ori esateak be arira ez datoñen gauzea dirudi. Beti alkañegaz egon eta bizi, kanpoko beste iñorgaz artu-emonik ez jardunik erabili bear ez-ta, nun da ain biotz-bakorik bere bizilagunai maitasunik artuko ez dautsenik? Eta gu, gaññera, ez al gagoz siñistuta Jaunak maite gaituala, ta geure lagunok be, Beragaitik dana itxi daben ezkeru, Bera maite dabela? Ontasuna, batez be, beti da maitagafi, ta, Jainkoa lagun, etxe onetakoen artean beti izango dala, uste dot. Ezta, beraz, nire ustez, onetzaz geiago jardun beafik. Alkarganako maitasun au zelakoa izan bear dan, goi-maitasuna zelakoa dan, eta gure Jaunak bere ikasleai ta guztioi alako Ieiaz aginduriko onoimen goragafi onen jaube garean ala ez nundik igafiko dogun, ofa neure jakin-ezaren giñoan azaldu gura neuskizuenta. Beste liburuen

baten zeatzago azalduta idoro ba'dagizue emen diñodana, ez egizue niretik ezer artu, zer diñodan be bear bada ez dakit-eta.

10. Era biko maitasunaz diardut: bata gogozko utsa, gure izatezko bigunkeririk ez beste kutsurik edo loirik bape bakoa; bestea be gogozkoa, baiña geure samurtasun etj maitasun ona ta guzti, txafa be ezta, aide ta adiskideai dautseguna lakoa. Onetaz zerbait esan dot. Griña bape bako gogozko maitasun utsaz diardut orain, griñarik ba'da eztogu onik-eta; lagun onakaz, batez be autofentzuleakaz, neufiz eta zurtasunez jardutean, ostera, onura asko lekarskiguz. Baiña autofentzuleari be mundukeri-usaiñik asmatzen ba' dautsazue, ala-olakotzat euki egizue, ta ezelan be ez izan beragaz jardunik, ezta onik be; albait lastefen obenak autor-tu ta kitu. Ta aregaz etzareala ondo aurkitzen-eta, Lekai-damari (nausiar) beste bategaz aldatzeko esatea litzake ondoen; auxe dozue biderik zuzenena, aren dedu ta izen onari kalterik egin barik egin al ba'ledi.

11. Olakoetan, eta etsaiak sortu leikezan beste mataza ta gauza erabagi-gatxetan, eta zer egin ez dakigula zalantzan gagozanean, autofentzule zur-jakitun batengana joatea dogu bidezkoen. Egiatzko beafizana danean, ifiok be eztau ofetarako eragozpenik ipiñiko. Berari autortu ta bere esana egin gero. Onetariko erabagien bat artu ezik, kalte andiak etofi leikez, bestela. Ainbeste utsegite edo oker ba-dakusgu gizar-tean, gauzak burubidez ez egiteafen batez be, iñori kalte egitea dala-ta. Gaitz ori eragozteko biderik ez artzea, oket andia litzake; etsaia (txefena) emendik jokatzen asten danean, eztau zati txikia irabaziko, beingoan aúfea artu ta bideak ausi ezik. Ofela, ba, egokien beste autofentzule bategaz itz egitea da, esan dodanez, al r^la beiñipein; eta. Jauna lagun, al izango dala uste dot.

12. Begira: onetan ardura andia izan egizue, gauza afiskutsua ta guztioi kalte andia ta su-lezea (inpernu) eka-ñi leiskeguzana da-ta. Kalte andiak eginda ikusi arte, ez, otoi, ítxaroten egon; al dozuezan eta onak deritxazuezan

bide guztiak artu-ta, alik ariñen moztu, asikeran obeto. Ta ori ezeren kezka barik egin zeinkie. Nik uste dot, alan be, Jaunak eztabela olakorik laketuko; eziña da, ba, beti otoi-tzari lotutakoak, Jaungoikoa biotzez laztan dauna baiño besterik maite izatea: au gauza argia dozue; edo-ta, olakoak eztau ez otoitzarik ez deun-zaletasunik guk emen nai dogun lakorik. Lekaimea oartzen ba'da autofentzuleak ez dautsola diñotsona ulertzen eta Jainkoaz be ez dautsola itzik egiten, kidekoa ez-tala-ta, olakoa ez yako eder; kideko baldin ba'da. ostera, emen eztau ereti andirik izango kalte egiteko; edo, memel-txepela dalako, eztau gura izango ez bere burua kezkatu, ez Jaunaren mirabe oneik artegaz jafi.

13. Gai au zuei azaltzen asi nazan ezkeru, auxe dala esan bear dautzuet, deabruak egin leikezuen kalterik bakar eta andiena. Berandu baiño ezta bat konturatzen; eta igafi barik, nundik ez dakigula, gaitz andia ekañi leikeo gure onak izan-naiari. Izan be, autofentzulea mundu-zale ba'da, gauzak gitxitzat daukaz, ta bide ortatik daroaz besteak be. Jagon ta gorde gaizuz, ene Jaungoiko!, zareana zarealako, olako afiskuetatik. Emengo lekaime guztiak artegatzeko naikoa litzake au; euren bafuak diñotse gauza bat eta autofentzuleak beste bat. Eta autofentzule bat bakafik eukiteko ta, estu artzen ba dabez, ez dakie zer egin ez zelan baketu euren bafuak, gaizkile benetako euren gogoak zuzendu ta ibitu bear leukezana dabe-ta. Toki batzuetan edu ofetako naiko atsekabe da, antza; efuki ditut. Etzaitzeze afitu, ba, oker au zuek aitu daizuen ainbeste arduratu ba'naz be.



## V

### **Autofenizuleak asko ikasiak izateak dauan gañantzia**

1. Jaunak bere ontasunean ezpei etxe onetako iñor aitaturiko lafialdia ikusi beafean jafi, gorputz eta gogoa estutzen dituan lafia da-ta. Esaterako, lekaime nagusia autofentzuleaz pozik ba'dago, besteak ez nagusi ofetzaz autofentzuleari, ez autofentzuleaz nagusiari ezer esateko ausar-menik eztabe izango; eta ofela, ifiogaz naigabe-aldirik ez izateafen, oben andiren bat autortzen bildur izateraiño eldu leiteke. Oi, ene Jaungoiko!, etsaiak onan egin leien kaltea, ta aintzagafi dalako estutasun ofek ekafi leien lofa! Autofentzule bat bakafik izateaz etxekoen deun-izenak asko irabaziko dabela uste dabe, ta etsaia, deabrua, beste biderik eztaukala, ortikoxe euren arimak lakioratzen. Beste autofentzulerik eskatu ezker, lekaimetxean bear dan burubidea azpikoz-gora geratzen dala deritxe; eta autofentzule ori gopatz edo ordena berekoa ez ba'da, aregaz ibiltea edo jardutea lotsagañitzat dauke.

2. Onetan, Jaungoikoafen, askatasuna eskatzen dot, legezko autofentzuleagaz barik besteren bategaz itz egiteko askatasun deuna; eta lekaime nausia, berak eta beste aizta guztiak euren bafuko goraberak beste eleiz-gizon jakitunetarikoa bategaz erabilteko aukerea izan daian, lekaiderpuruaz nai gotzaiñaz itundu bedi, batez be legezko edo oizko autofentzulea asko ikasia ez ba'da. Jakitunak edozertan argi egiteko gañantzi andia dau. Jakituria ta deuntasuna, biak batera norbaitek izatea ba-leiteke. Dana dala, Jaunak otoi-tzan geiago jasoten zaituen neufian, zuen otoiak eta egiteak oiñafi sakon-sendoagoaz bear dabe. Lenengo ba-dakizue zein dan: bafua garbi eukitea. Obenik txikienak kemenez kenduazo ta onenera jo eragitea, ofa autofentzulearen lana. Ori edozeiñek dakiala uste al dozue? Ba, oker zagoze. Neu be

Teologi osoa ikasita eukanaz ibili nintzan bein, eta ez eustan kalte gitxi egin, pekatu andiak ziranak ezer be etzirala-ta. Ez eustan guzuzik sartu gura, zergaitik sartu be ez eukan; baiña ez ekian geiagorik. Beste bi edo irugaz be bardin jazo yatan.

3. Jaunaren legea zeatz betetako egizko argia izatea dogu gure ondasun guztia. Argi ori izan ezkerro, otoiak oiñafi onak ditu; eta oiñafi ori barik, alpefeko lana etxea gora jasotea. Beraz, esan dodazanak bako eleiz-gizonakaz bere bafua aztertzeke aukerarik ez ukatu iñori. Areago oindiño: legez dagoan autofentzulea bear dan guztia dauana ba'da be, emen diñodana egin bearko da noizean-bein. Bera be oker egotea jazo leiteke, ta bera dala-ta beste guztiak okefean egon-beafa ezta zuzenbidea. Nausien aginduen aurka ezer egin barik, ofaitiño: danerako izango dira bide onak, eta arimentzat ain beafezkoa dan autortzeke aukera au bilatzeke, al diran bide on guztietara jo bear da.

4. Emen esana danau lekaiame nagusiarri yoako, ta be-rari lengo eskari berbera zuzendu bear dautsat bafiro: emen gogoaren aukerea ta atsegiña baiño bilatzen eztan ezkerro, atsegin au lekaiameai ez ukatzeko. Jaunak arimentzat zuzenbide asko ditu, ta era askotakoak; eta autofentzule guztiak ez dagoz bide ofeik oro jakin beafean. Baiña lekaiamefik, bear daben erakoak ba'dira, eztabe eleizgizon onik-ezik izango euren autortzak artu ta euren arimak argitu ta poztuteko. Soiñai jana emoten dautsenak, zuen gogoai argi emoteko be bat edo bati eragingo dautso, ta ni artega nakafen gaitz ofi osabidea ezafiko dautso. Olan, nai-ta etsaiak autofentzule bati bein okefeko erakutsiren bat siñistuazo, beste batzukaz be ba'diardugula jakitean, atzera egingo dau, ta arik gero uzkur ibiliko da.

5. Txefenari sarbide au kendu ezkerro, etsai ofek beste sarbiderik etxe onetan izango dauanik eztot uste. Ofegaitik, Jaunafen, gotzaiñari autortzeke askatasun au itxi daiela eskatzen dautsot, eta eztaioela iñoiz kendu, afen, batez be

eleizgizon on eta jakitunak diranean. Onako efi txiki batean, bafiz, ezta gaitz izango eurok ezagutzen.

6. Emen esana, alan bear dala neuk ikusita dakit, eta gizon jakintsu ta deun-usaiñekoakaz be itz egin dot. Eurokaz etxe onetan santutasuna ta onbideagaitik ipinteko egokien litzakena, ondo aztertuta nago; ta bizitza onetan gareala, afiskuak nainon ba'dira be, afiskurik txikiena auxe zala ikusi gendun; eta ez daitela iñoiz izan autofentzulerik ez beste eleiz-gizonik lekaimetxean sartzeko eskubidea daukanik, erabagi gendun. Oneik, etxeko bakartasuna, ekandu onak eta gogoaren auferapena zaintzeko bafño eztira izango, ezer okefik ikusten dabenean bear yakonari oar-azoteko; baiña ez eurak nausi izateko.

7. Alan egiten da egin be orain, ta ez neuri eritxia egiteafen bakafik. Orain dogun Gotzaiñak be eritxi bera dau, ta gu beronen eskumendean gagoz. Gopatz edo erlijioaren menpean barik, Gotzain onenean, zio ta efazoi asko zirala jafi zan etxe au. Jainko-zaletasunez eta deuntasunez andia dogu oraingo Gotzaiña, Jaunaren mofoi zintzoa benetan. Mendoza'tar Albar dau izena, guraso andien seme. Iñondik al dala, etxe oni mesedeak egiteko gertu da-ta, beronek gizon jakitun eta deun batzuk batu ta eurakaz iztata zan, eta diñodana erabagi eben.

Ufen etofiko diran gotzaiñak be ain gizon argi ta onak arturiko eretxi onetara egingo al dabe! Jaungoikoari otoirik naiko egin yakon onena erakusteko; ta oraiñartekoan ikusi dogunez, bai izan dala onena! Jaunak dana bere gorapiderako zuzendu bei! Alan bedi.

## V!

### Lenengo aitatyriko maitasuna azaltzen dau

1. Aritik urtenda nabil; baiña esanikoen gora andia ezagutzen dauanak, ez daust agaitik agirikarik egingo. Alkafi bear dautsagun maitasuna, gogotiko utsa dalako maitasuna, azaldu daigun orain. Zer diñodan be ez dakidala-ta nago; baiña, ofelako maitasun ori gitxik dabe-ta, berori azaltzen ez dago jardute andirik zetan egin. Jaunak iñori emon ba' dautso, santutasun andirakoa izango da, ta Ari esker bereziak egin begioz. Maitasun ofi, ba, ikututxo bat beiñipein egiteko gogoa dauk.ot; onoimen-zale dana ta bere bila dabilena, onoimena begien afean ipinteak asko berotu of clau-ta, norbaiti on egingo dautsadala uste dot. Jaunak emongo al daust esatekoa ulertu ta, batez be, azaltzeko eskefa' Maitasuna noiz utsezkoa ta noiz griñaz nastekoa dan ez dakidan onek, arlo au zelan artu dodan be ez dakit. Ufiñean izketea (berbaroa) entzun eta zer diñoen ezin artn dauanaren antzean nago ni; orixe jazoten yat safi. Batzutan, zer diñodan ez dakidala be, Jainkoak gura daualako, ondo esango dot; baiña, beste batzutan, arira datofenik ezer ez ba'diñot be, ezta afitzekoa, nik egin neikeana guztia okefetara esatea baiño ez da-ta.

2. Neure eritxia da, mundu au Jaungoikoak dan lez ezagun-azo dautsonak, beste mundurik be ba-dala ta mundu biok alkafen artean daben aldea ikusten dauanak, bata betikoa ta bestea ames utsezkoa dalakoan bizi danak, izakien egilea maitatzea ta izakiak maitatzea zer diran dakianak, izakiak eta izakien egilea zer diran, eta bata naiz bestea maite izanak zer galtzen edo zer irabazten dan ikusi dauanak, eta, azkenez, Jaungoikoak otoitzean ikasi-gurez edo Berak gura dauzanei erakusten dautsezan beste cgin asko ikasi dabezanak, ofenbeste ikusi ez dogunon antzeko maitasuna ezabela, askoz besterakoa baiño.

3. Ene aitzak, au esan beafik ez neukala uste izango do-  
zue, bear bada, lendik be ba-zenkiela ofenbeste. Ori gurako  
neuke, ba, nik: ori guzti ori bear dan lez, biotzean sartuta,  
benetan jakin daizuela. Alan ba'dakizue: Jaungoikoak aita-  
turiko egiak erakutsi dautsazanak, alako maitasuna dabela  
diñodanean, guzufik ez diñodala autortuko dozue. Alakoak  
biotz andidunak dira, andikiak esan geinkioe. Alakoak ez-  
tabe gorputz oneitan, gauza ain txatxafotan, atsegiñik artzen.  
Gorputzok, edefenak izanda be, nai-ta politen politez begie-  
tarako atsegingafiak izan, eztabez aintzat artzen, Jaunari  
aintza emoteko baiño; ez, ostera, areitan biotza ipinteko.  
Esan gura dot: eztabe iñor aren edertasuna dala-ta maite;  
utsa maite dabela idurituko litzakie, lotsa izango leukie  
euren buruaz, eta lotsaren lotsaz eleukie arpegirik izango  
Jaungoikoari maite dabenik esateko.

4. Ofeik maitasuník eztabela esango daustazue, eura-  
kanako maitasunari erantzuten ez dakiela. Egia esateko, iñok  
maitasunik izan naiz izan ez, ez dautse ardura andirik. Be-  
rezkoa da-ta, maitasuna dautsela-ta, iñoiz oarkabe poza artzea  
jazoko yake; baiña kontnratu orduko buru-bakokeria dala  
ezagutzen dabe, irakatsiz edo otoitz on egingo dautsenen  
aldetik ez datofen maitasunagaitik poztutea. Beste maitasun  
edo maitakeri guztiak aspertu eragiten dautse. Onik egingo  
cz dautsela ba-dakie, ta kalterik bai, bear bada. Eztira, ofai-  
tiño, esker txafeoak, eta erakusten yaken maitasunaren  
orde, otoi egiten dautsoe Jainkoari. Jaunaren leporako ara-  
zotzat artzen dabe ondo nai dautsenen ardurea. Iñok maite  
ba'ditu, maitasun au Jaunagandik datofela-ta dagoz; eurak  
eurenez zergaitik maite izan ez bai daukie. Jaungoikoak laz-  
tan dabezalako dala uste dabe, ta ordaintzeko ardurea Jau-  
nari izten dautsoe, ta arein alde otoitz egifiik, beste egin-  
beafik eztabela-ta, kezka barik geratu oi dira. Auxe gogoan  
ondo artzen egon naz safi, ta betiko ondasunak irabazten  
Jagundu leiskegunak ez dirala, beste iñok maite izan-gurez  
ibilteari zentzunbakokeri andia deritxat. Iñoren maitasun  
bila gabiltzanean, bafiz, edo irabazien baten edo atsegiñen

baten bila gabiltz; baiña onbidean aziak diranok munduak opa leikezan on eta aukera guztiak oinpean daukiez; atsegin ezertan ia ezin dabe artu Jainkoagan edo Jainkoazko jardunetan ezik. Beraz, maitatuak izateaz zer irabazi leikie?

5. Egi au buruan dabela, lenago euren maite-erakutsiak ordaiñik artzen ba'eben edo ezpa'eben, ain kezkatu ibilten dirala-ta, ifi dagitse orain euren buruari. Gure maitasuna on utsa izan afen, ordaiña artu-gurea geure-geurezkoa dogu; baiña artzen dogunean, zer ordain da artzen dogun ori? Gauza utsa, ezereza, aizeak daroan lastoa ta bat. Maiteen gaitue-zanean be, zer da, ba, artzen doguna? Ofegaitik, nik diñodazan oneiri, iñok maite izan nai izan ez, bardin dautse; euren gogoaren onerako lagundu leioenakaitik bakafik artzen dabe arduratxoa. Oneik maitasunik ez ba'leutse, gure izatea alakoa dalako, aspertu egingo litzatekezala ba-dakie. Oneik, ofaitiño, Jaungoikoaz besterik ezabela iñor maite izango uste al dozue? Bai, besterik be maite dabe, asko maite be; onein maitasuna ziñagoa, gartsuagoa ta onuratsagoa dozue; itz baten esateko, maitasuna auxe da. Onakoak artzen baiño emoten zaleago dira; eta au euren Egileagaz beragaz be bai. Maitasun oferi yagoko benetan maitasun-izena. luferko beste maitakeri galgafiak izena artu dautsoen afen. Baiña, ikusten dabenagaitik maite ez ba'dabe, esango dozue oindiño, zek ixetzen dau ofein maitasuna? Ikusiak eta entzunak zaletuten ditu, bai, baiña oneik gauza iraunkofik baiño eztabe ikusten ez entzuten. Maitatzeko, gorputzera begira egon barik, arimara begiratzen dabe, ta an ezer maite izatekorik dagon ikusi. Ez ba'dago, baiña bertan. ufe-tokirik aurkitu ta, maiterik ekifiaz, ufea aterateko erarik ikusi ba'dagie, ez ditu nekeak bildurtuko, ezta ezer egongo arima aren onerako asmauta egingo cz dabenik. Beti izan nai leukie maite, baiña beti maitatzerik ez dagoala ba-dakie, besteak onegiteen onegitez maitatzera beartu gura ba'litu ez ba'dau. Ta olan ezik, ezin izango dabe maite; bat nai ta bcsteak goiko eskefik ez ba'dau ta Jainkoa sutsu maite be, ilteraiñoko maitasuna erakutsiko ba'leutse ta iñungo eder-

kun guztiak ba'leukez be, ezin izango dau arein biotzean beraganako maitasun bizi ta iraunkofik sortu. Ba-dakie areik mundu onetako gauzen bañi, ta ez dautso ofetan iñok oker-biderik artuazoko. Toki baterako ez dirana badakie, to beraz ezin alkar beti maitatu. Besteak Jaungoikoaren legea betetan ez ba'dau, Jaungoikoa maite ez ba'dau, euren maitasuna biziaz amaitzekoa da. Besteak Jaungoikoa maite ez dauana ba-dakie; beraz, batak leku batera, besteak bestera joango dirana be bai.

6. Jaunak benetako jakituria emon dautsen arimak, emen baiño ez dirauan maitasuna, ez dabe dan baiño geiagotzat artuko, ezta aintzat be. Munduko atsegin, goratasun eta aberastasunen zale diranak, maitasun ori be euren jolas ta atsegiñetarako egokitzen dute; baiña ori guzti ori iguin dabenai ez dautse biotzean ikuturik egingo. Onango arimak iñor maite izaterik ez daukela-ta, zelango ardurea ipinten daben! Maitasun onek neke ta lor andiak afazoten dautsez; lagun urkoari onik egiteko erarik ez dabe alpefik galduko; onik txikiena egitefen, euren bizia emoteko gertu dagoz. Au bai maitasun edeña! Jesukristo, maitasunaren Efegearen antzera jarduten dau.

## VII

### **Gogozko maitasuna lortzeko bide batzuk**

1. Afitzekoa da maitasun onen beroa. Maitasun au dagoaneko negafak, orduko laztasunak artu ta otoitz egin beaña, orduko ardurak beste guztiak be maitearen alde otoi egin dagien! A izaten da adiskidea auferakada andiak egiten

ikusi-gurea, ta aufera ikusi arte, iñon onik eukieziña! Obera egin dauala ikusita gero, bañero atzerantza doala ikusi ba' dagi, ostera, a gogoaren atsekabea! Jaten dala, lotan dala, beste ardurarik eztua ibiliko: berak aín maite dauana betiko galduko ete dan, alkafengandik betiko alde egin bearko ete daben. Eztau gorputzaren ilteak eta alde egin-beafak lafitzen, nundik oratu ez daukan gauzarik, txistu baten itzaltzen dan gauzarik eztau gura-ta. Maitasun au bape buruginkeririk bakoa da, adiskidea zeruko ondasunez beterik ikustea beste asmorik ez darabil. Au bai dala benetako maitasuna, lur ontako zorigaiztoko maitasunak ez.

2. Ez dot onegaz maitakeri txafik ikutu gura; ofeitatik, afen, Jaungoikoak gordeko al gaitu! Ofeik inpernukoak dira, ta inpernura daroien gauzen balzkeria zetan azaldu ez daukot, ango txafik txikiena azaldu eziña baita. Olango maitakeriak aitatu be ez egin gure artean, munduan danik gogoratu be ez. Ez benetan ez olgetan, ez euki ofetzazko jardunik; ezertarako be ezta ona, ta entzuteak bakafik kalte egin lei.

3. Ník emen txartzat aitatu dodan maitasuna bestelakoa da, bidezkoa da, esaterako, adiskideak eta senideak alkafi dautseguna. Maitasun onek, maiteak il bear dauanik be eztau entzun nai; adiskideak buruko miñik ba'dau, geuk be arimean min dogula iruditzen yaku. Neketan ikusten ba' dogu, artega gabiltz geu be. Olangoxea da luñeko maitasuna. Gogozko maitasun utsa ezta, bafiz, olangoa. Maitearen nekeak lenengo-lenengotan min etnon afen, bereala adiñak neke ofeik gogo arentzat ongafi izango ete diran aztertzen dau, zelan eroaten dituen eta onean aziago egiten dan begiratzan dau, ta eroapena artu ta irabazi dagian Jaunari efegu dagitso. Ondo jasaten dabezala ba'dakus, bape miñik artu barik, poztu ta alaitu egiten da. Jasanaren irabazi ta ondasunak besteari emon al ba'leuskioz, beste neke-miñetan ikusi baiño berak jasatea (sufridutea) gurago izango leuke, ori bai; baiña ezta ofegaitik artekatuko, ezta bere onetik urtengo.



4. Maitasun onek, bañiro diñot, Jesukristo gure mai' tale onak izan euskun maitasunaren antza dau. Olango ari-mak mesede andia egin oi dabe, lana ta nekea eurak artu ta irabaziak iñori itxi gurez dabiltzalako. Ofegaitik eurakaz adiskide diranak, lanik egin barik, irabazi andiak egin da-roez. Siñistu auxe: ofeik iñor mañte ba'dabe, edo ez dabe aregaz geiago artu-emonik eukiko, edo Monike deunak Agus-tin doneari lortu eutsan lez, biak bide batetik ibiltea lor-tuko dabe. Ezin dabe lagunakaz zurikeririk erabili; laguna okefeko bidetik ba'dabil, edo utsen bat egiten ba'dau, argi esango dautsoe, ezin esan barik itxi; ta zuzentzen ez ba'da, ez yakoz losingaka ta zuriketan ibiliko. Edo bata zuzendu, edo besteak adiskidetasuna ukatuko dautso; ezingo dau olango adiskiderik euki, ta euki bear be ez, biak alkafentzat alagafi ta aspergafi izango litzakez-ta. Munduko gauzen ar-dura barik, eurak Jaunaren aufflean zintzo jardun ta besteak ba'diarduen ala <∞ ardua barik geienetan ibili afen, adiski-deen ardua barik czin dira egon, adiskideen utsik bape ez yake oartu, asmau barik igaroko, txikiena be ikusiko dautse. Olan, bene-benetan gurutza astuna darabile lepoan.

5. Maitasun-era auxe da guk emen erabiltea nik gura neukeana be; asikeran ezta, bear bada, ain betea izango, baiña Jaunak berak apurka-apurka osotuko dau. Ta lenen-gotan samurtasunez be zerbait nastaua izan afen, eztau kalte esatekorik ekafiko, danentzako ba'da beintzat. Batzutan be-rezko ta on dogu geure maitasunean biotz-samurtasun pizkat erakustea, eta ez erakutsi bakafik, bai ta geuk bafuan asmau be. Geure aitzai lagundu bear dautsegu euren lan, neke ta geixaldietan, naita txiki-ariñak izan oneik. Jazo oi da-nez, iñoiz gauza txiki-txikiak min andiangoa emoten dautso bati, gurutz astunak beste bati baiñio: batzuk izatez doguz sentikor eta minbera, ta oneiri besteak ezertzat ez daukie-zan gauzak be kezabide yakez. Zuek kementsuago ba'zarie be, efuki zakioz urko lagunari ta ez afñtu aren izakereaz; gure Jaunak, bear bada, ez dansku emoten olango neke-lofik, baiña izango cloguz beste era batekoak, eta oneik ausaz as-

tunak dira guretzat, eta berez ofelaxe dira, baiña gure aitzai ariñak irudit. Onetakoetan, ez daiguzan besteak epaitu geure kautan dakusgunetik, ezta areik orain geugaz kidetu be —Jaunak, bear bada, guk merezi bage, adoretsuago egin gaitu—, geu makal giñean aldia gogoratu baiño.

6. Beafezko yaku au, txikiak izanik be, urkoak dituan kezka ta nekeetan zelan poztu jakiteko. Aitaturiko arima adoretsuak, batez be, nora-ezekoa dabe au; oneik, bada, naibage ta lanak opa dabezala-ta, ez dautse besteen gurutzeai jaramon andirik egiten. Olakoak gomutaratu bear dabe, ta afetaz gero, eurak zelangoak izan ziran antzeko makalaldie-tan, eta ikusi, orain makal ez ba'dira be, eztala ori eurak eurenez lortua. Deabruak, bestela, oarkabe otzitu leikegu urko lagunari dautsagun maitasuna, berez txafa dana ona dala guri siñistu-azoz. Egoki yaku, bai, beti arduraz ta zur ibiltea; etsaia eztago lotan, arimea donetasunean gorago ta bera itxafago; garai onetan egundokorik ziri-sartze mee-ixilagoetan daragoio, beste ezertan azartzen ez dalako; ta, diñoenez, oso arduratsu ez ba'gabiltz, guk igafi orduko okefa egiña. Labur: guk beti ernai egon ta otoitzari ekin bear dautsagu; ezta otoitza baiño bide obarik, arerioaren ibili **ixil** oneik ezagutu ta ari bere burua agiri-azoteko.

7. Gaiñerakoan, txeratsuak izan zeuen aitzakaz, oneik euren beafezko jolasaldia dabenean be; naita zeuen gogoko **izan** ez, emon eurakaz legeak agintzen dauan aldi guztia; asmo onez osotu ezker, ba, dana dozue maitasun **ziña**. Zuzen ta bidezko aitzak alkafi bear-izanetan laguntzea; baiña ez daitela izan, otoi, zentzun barik edo menpekotasunaren kaltez. Ama nagusiak agindutakoa **latz** iduritu afen, nagusiari berari apal-apal izan ezik, **ez** egiozue beste **iñori olafeorik** aitzen emon, kaltekor litzake-ta. Bai **ta** jakin bear dozue aitzai zetan lagundu ta zertaz euren efuki izan be; eurengan oarturiko edozein utsek, agirikoa ba'da batez be, min andia ekafi bear dautzue; bai ta berau egiztu ta era-kutsi be, naiz-ta artea arturik eta ori dala-ta afimenik azal-du bage. Besteak be zuen utsakaz bardin egingo dabe, bai

konturatukoakaz bai ta askoz geiago konturatu-ezakaz. Etenbako afenez eskatu Jaungoikoari aizta ofen alde ta saia zaitzeze aregan agiri dan utsetik igestu ta bestelako onoinena zeuekanatzen. Ziñez alegindu ofetan, alakoari egitez adierazteko, bear bada ez itzez ez zigofez, iñoiz aitu ta lortuko ez ebana. Egi-egitan, besteengan ikusi oi dogun ona norberak egitea, ikasbide eragikofa da. Oarkizun aukerakoa dozue au, ez iñoiz aiztu.

8. Egiazko maitasun zindoa erakusten dau, aiztai eder izateafen, bere ona itxi daroan lekaimiak; legedia bere lazatasun osoakaz zeatz bete ta onbidean ufats-arin dabilenak. Maitasun au obeago dozue, izan be, esandako samurtasun guztiak baiño; biotz-epelkeririk ez darabilgu, ba, etxe onetan, ezta erabiliko be; ez, mundukoak euren maite-jardunetan erabili oi dabezan "ene bizi", "ene biotz", "ene laztan" ta antzeko sasi-itzik -emen ez. Itz samufok gorde zeuen Senar maiteazko artu-emonetarako: bakañik be safi egon bear dozue Aregaz, ta egoki ta ondo yatortzue onakoak Aren Anditasunari eder izateko. Ez, olango itz samufak Jaunari askotan esan afen, etzaitue minbera ta biotz-ikutuegi egingo; Arentzat gorde, beraz, ez beste iñori esan. Esaera politok, gaiñera, andrazkoenak dira oso, ta ez dot gura, ene azitak, zuok ofela izaterik, ez agertzerik; bai, ostera, gizaki sendo lez. Zeuei dagokizuen alegiña ba'dagizue, gizonak eurak afitzeraiño indar-adorez jantziko zaitue Jaunak. Efez yako au Oni, ezerezetik sortu ginduzan-eta!

9. Onezaz gaiñera, etxeko arazoetan aiztai lanak arintzea, norberak arein eginbeafa beterik, maitasunaren ezauzafi berebizikoa dozue; bai ta, euren onoinenak aziaz doazalata, pozafen Jaungoikoa goratu ta eresi jotea be. Gauza guzti oneik —euren kautan daben on osoa albora itxita be— asko laguntzen daskue etxeko danon arteko batasuna ta bakea egiteko; oraingo guztiok, Jainkoari eskefak, bizi ta ikusiz dakigu au. Auferantzean be eder bekio Jaunari ofelaxe beti izatea; ikaragafi litzake, bestela, ta guztiz latza

ain gitxiren arteko eroan-eziña; ezpei Jaunak olakorik nai izan.

10. Zuetarikoren bat iraduz edo arinkeriz esandako itzen bat-gaitik mindu ba'ledi, lautu egizue beingoan oker ori; ta edozein uts irannkor, alderdikeri, maitakeri, nausikeri naiz dedu-andikeri ta antzekorik sortu ba'ledi, gartsu be gartsu otoi egin Jaunari. Au idazterakoan, bein edo bein lekaimetxek olako ezer izan daikegula gogoratuaz bakafik zanetako odola izoztu egiten yatala dirudit; auxe da, izan be, nire eritxiz, monjetxetako gatxik gordiñena. Zuen artean onakorik ba'litz, galduak zarie; zeuen Senar maitea etxetik bota dozuela uste izan, eta, berea dauan etxeko atea itxi dautsazuen ezker, beste ostate baten bila joan yatzuela. Jaunari laguntza eske oi u egiñik, ausi bideak oker oni, batez be safi autortu ta jaunartuaz; olan eginda be, geixo ofetatik aldenduten ez ba'zarie, zuen artean Judas'en bat ez ete dan bildur izan zaiteze.

11. Jaungoiko maiteafen, bebil ardura andiz lekaidama, onango ezeri be biderik ez emoteko; asi ordukoxe ebagi ta efotik atera bear dauz olako gatx-begiak: ementxe bai datza oker guztia ta bere osabidea. Ta maite-erakutsia naiko ez ba'da, doala beste lekaimetxe batera: Jainkoak izango dau olakoarentzat be sari-ardurea; jaurti egizue zeuekandik izufi kutsukor ori; ebagi ta moztu alik ondoen adafak; eta, au naiko ez ba'litz, atera sustraiak be. Ta au be ezin ba'litz, oba legoke espetxean, etxeko guztiak izufi osagaitz ofegaz kutsutu ez daizan.

Au bai kalte! Jaungoikoak jagon gaizala onakoa sartu leikean lekaimetxetik! Gurago neuke nik suak artuko ba'leu, ta gu guztiok bertan kiskaldu. Onetzaz, gora andikoa bai yaku, geiago beste leku batean esango dot-eta, enaz emen luzagotzen.

## VIII

On-ona da egiñiko gauza guztietatik geure buruak,  
baru ta kanpo, erantzi ta jareitea

1. Ikusi daigun, orain, geure bafua zelan euki bear dogun uts-utsik, gauza guztietatik erantzita, auxe baita bear dan lez ba'doa, on guztien ardatza. "On guztien ardatza" diñot, eta ofelaxe da izan be; Egileari bakafik oratu ta sor-karien ardurarik bape ez ba'dogu, onoimenak Jaunak berak ixuriko dauskuz ta guk pizkaka-pizkaka al doguntxoaa egifiik, zegaz bufukatu gitxi baiño ez dogu izango, deabruaren maltzurkeri ta munduko gaitz danetatik Berak zainduko gaitu-ta. Irabazi txikia dogula uste dozue, diñodanez, Aren onean on guztiak dagoz-ta, geure burua osoan Ari emotea, geuretzat ezer be gorde barik? Gora daigun, aitzak, emen alkartu ginduzalako, ta ez dogu izan be beste egikizunik. Eta au ez dakit zergaitik diñotzuedan be, zuok guztiok ba gai onetan ondo ziñakeze nire irakasle; gai oneri buruz, bai, autortzen dautzuet, ez nazala gura neukean aiña oso, ezta dakidan beste be, zuon artean akatsez beteena baiño. Orobat dirautzuet gaiñontzeko onoimen ta emen darabildazan beste gaietaz: egia, eñezago da oneitzaz idaztea, norbere burua eurokaz jaztea baiño. Idaztean be, ofaitiño, ezta zail uts-egitea: onako gauzak safi oafikasiz bakafik azaldu leikez zuzen, eta ofetan nik, artez jardutekotan, izan dodazan oker ta akatsik as'ko aitatu bear. Kanpotiko afisku ta jaus-bideai begiratuta, baiña, argi dakusgu areitatiek zein ufin gagozan emen.

2. Oi, aitzak! Jainko laztanafen, begira zelako maite-erakutsi samufa egin euskun Jaunak ona ekafi ginduzanoi! Bai, artu bei bakotxak ondo gogoan: amabi lekaimetatiek neu naz bat Jaunak aukeratua. Ta zenbatek, ni baiño zintzoago izanik gero, artuko leukean, eta pozik artu be, toki au! Gure Jaunak, alan be, neuri emon eustan, ni ezetan be

merezigafi ez nintzala. Goratua Zu, ene Jaungoikoa!, ta izaki guztiak be goratu zagiezala! Ez, maite-erakutsi au eztot merezi izan, Zuk egindako beste asko lez. Esker andia izan zan niretzat lekaime-deia. Ni onen makal ikusirik, etzendan Zuk Jauna, nigan uste andirik: askoren artean nire erkintasuna, bizitzaldi osoan bear bada, agiriko egin barik, ots, nire utsak ixilik igaroko zirala-ta, ona ekafi ninduzun Jaun ofek; emen, ostera, gitxi baiño ez gara ta nire pekatuak ez nabarmentzea eziña dirudi. Arduraz ibilirik bizitza obea egin nengian, txuferako bide guztiak ausi zeunstazan. Ofe-gaitik autor dautzut, Jauna, nire efuak ezabela ez igesbiderik, ez akiakuilurik; eta nik zure efuki-bear geiago dot par-katu daistazun.

3. Afen, auxe eskatzen dautzuet: ez daukala berak emen oituten dana eroateko beste kemen ikusten dauanak, adierazo dagiala argi profesa aúfetik. Beste komentu batzuk be ba-dira Jauna, bear bada, zintzoro otseintzen dabenak; ez daizala, beraz, olakoak nastu ta azpikoz-gaiñera ipiñi Jaunak emen alkafegaz biziteko batu dabezan gitxi oneik. Ba-dira beste etxe batzuk lekaimeak euren senideakaz artu-emonean pozartu ta alaitzeko eskubidea daukenak; emen, senitartekorik iñoiz artzen ba'da, onein pozerako besterik ezta. Baiña senideak, guztiz gogo-zale ez ba'dira beintzat, bere ba'ua alaitzeko ikusi gura dabezan lekaimeak eztala jakin bei benetako lekaime; onakoa loturik dago, osasunez eztago ondo, eztau gogozko askatasunik, ez bakerik lortuko; osagilea bear dau. Ta, bene-benetan diñotzuet, gatx ofetatik osatu ta aklatzen ez ba'da, etxatzue etxe onetarako onuragafi.

4. Onakoetan, nik dakidanez, osagafirik onena auxe: lotura ta estuntza oneitatie bere burua azke (libre) ikusi arte guztian, senideakaz ez daiala artu-emonik izan: bekio otoitzari eten barik, Jaunagandik esker au jaritxi arteiño. Senide ofeikazko ar-emona neke ta gurutz yakonean, orduan bai ikusi beiz; orduan, bada, alkafegaz izandako ikustaldia mesedegafi izango yake ziufik asko, bai lekaimeari bai scniisrtekoai.

Egoki baizen on yake gizarteari agur egin dautsoenai,  
euren senideakandik urin bizi izatea

1. Oi, lekaiameok ba'genki zelako kalteak yatorkuzan senideakaz artu-emon lafegia eukitetik, laster ufinduko gintzakez euren ondotik! Ez dakit nik ze atsegin edo poz ekafi leiskeguen olako alkartze ta kidetasunak; bafu-bizitzarako dakarskuen kalteari jaramonik ezta be, zer atsedan ta biotz-pozgafi emon daikegue guri? Ezin guk arein jolas-atsegiñetan eskurik sartu, ez yaku zilegi, legezko; bai, oster, arein neke-lofak lepo-gain artu, ta oneik safi eurak baiño ainbat geiago alakatzen gaitue. Egiaz, gorputzak irabazitako atsegin pizkategaitik, ondo ordaindu beafa dabe arimeak eta gogozko txirotasunak. Emen eztozue ofen afiskurik, emen dana da danena ta ezin daike inok jaso berarizko bezuza, efgalorik; eta lekaimetxera datozen ukar ta limosnak oro guztionak diralako, ez dago emen senitartekoai ezer orde emon beafik, eta guri, dakizuenez, Jaunak danoi ta bakotxari emon oi dausku bear doguna.

2. Zurtuta nauko, senitartekoak zelako kaltea egiten dauskuen ikusteak. Eta, bere buruan ikusi dauanak izan ezik, ez dot uste siñistuko leukeanik. Onbide au, bafiz, gopatz edo erlijjioetan be gaur naiko aitzurik dagola dirudi; Jaungoikoagaitik dana itxi gendula difiogunok ez dakit nik munduko zer izten dogun, bertako beñenetik, au da, senideakandik iges ez ba'dagigu? Ta gaitz au, begira noragiño eldu dan gaur: zeure senideakaz artu emon askorik ez ba'daukazu, edo euki gura ez ba'dozu, biotz-bako ta utsez betea zareala esango dautzue; bai ta arpegira bota, ta efaZOI ta guzti.

3. Etxe onetan, alabak, Jainkoari zuzentzen dautsaguzan otoietan eurak be gogoratu bear doguz, au bidezkoa

da-ta; alik eta ariñen albora daiguzan, osterantzean, geure gomutamenetik, besteetan baiño geitxoago eurotan geure biotza jartea berezko bai yaku. Ni neure senideak, iñoenez, oso maite ninduen, eta neuk be ordez maite-maite nebazalako, ezin eurak iñoiz aiztu; alan be, neugaz jazoan eta beste batzuekan ikusiz dakit, beafizanean aurkitu nazanetan —gurasoak izan ezik, oneik bada iñoizkoren baten bakafik ezta bez euren seme-alabak sorosiko—, neure senitartekoak izan dira gitxien lagun etofi yatazanak. Gizon jainko-zaleak be bai, lagundu daustie. Bestaldetik, eta aitu ondo, gurasoak, aita nai ama, gure pozaren edo biotz-berotasunaren beafean dagozanean, egoki ta bidezko da gu orduan eurakandik urin ez egotea: au aitaturiko buru-erazteaz ezkondu daikeguna da. Beste ainbeste diñot geure neba ta aitzakaz be.

4. Siñistu egidazue, aitzak, Jaunagazko gauzak albait zeatzen, legeak agintzen dautzuezan lez bete ezkeru, ez dozue aurkituko Jaunak bialduko leuskizuezanak baiño senitarteko obarik. Onelaxe dana ba-dakit nik ondo be; bai, zeuen arazo onetan zeatz bete ezkeru —ta beste ezer ba'zengie, zeuen egizko Adiskide ta Senar maitearen aurka ziñoakeze—, egon ziur, gogozko askatasun au guztiz arin eskuratuko dozue. Egiz, Jaunafen bakafik maite zaituenak, senitarteko guztiak baiño uste on geiago emongo dautzue, bertan bera etzaitue iñoiz itxiko, ta guraso ta anaiak idoroko dozuez nun gitxien uste, antxe. Oneik Jainko-ordaiña besterik nai eztabelako, dagiena geugaitik dagie; areik, oster, gure ordain-zain dagozalako, gu txiro, ezeukian eta eurai lagundu ezifiik ikusterakoan, laster nekatu oi dira gure izketa ta artu-emonakaz. Ta onela beti jazo ezta be, mundua ortik dabil, auxe da gaur munduaren lege. Iñok bestera iñoiz bein esango ba'leuskizue, ofela dala edo olakorik, ez afen siñistu; lartxo luzatuko nintzake onek bafuan dauan gaitz guztia azaldu nai ezkeru, ta gai onetzaz nik baiño obeto zer diñoen dakienak idatzita daukazue-ta, naiko dozue nik emen esana. Gai au, ezereza ta utsez betea nazan onek be ain ondo ulertu ba'dot, jakitunok zein obeto ez ete dabe aitu ta azalduko?



5. Santuak zuzenean dagoz, ezpai barik, mundutik iges •egiteko guri ainbat aldiz diñoskuenenan; gauza argia, ziñez. Ontzat artu, ba, esan dautzuedana: senideak dirala, guri efen iraatsi ta ezarten yakuzanak, eta geugandik nekezen erantzi ta ufintzen doguzanak. Ořegaitik ondo egiten dabe, onek balio ba'dautse, euren lufaldeetatik iges dagienak; nik ez dot uste, baiña, gorputzez ufintzean ainbeste dagoanik, arimea erabagi osoz Jesus Jaun onaren beso artean murgilduta, beste edozertaz aitzurik, bear dauan oro damotsan Areri itsatsita sendo egotean baiño. Alan be, egi onegaz jabetu arteraiño, ezta laguntza txikia senideakandik asago, ufun egotea. Gerora, bear bada, Jaunari eder izango yako guk areikaz artu-emona izatea, len atsegiña genduan zer atan bertan, orain gurutzea izan daigun antza.

## X

**Senideak ukatzea ezta naiko, geure buruari be uko egin bear. Buru-ukapen au ta apaltasuna alkařegaz dabiltz**

1. Gizarte ta senideakandik alde egin, lakeimetxe onen lau orma artean sartu ta txirotasun osoan bizí izan ezkeru, dana egifik daukagula dirudi, auferantzean nogaz bufukaturik ez daukagula. Ai, ene aizatxoak! Onen seguru zagozenik ez uste izan, ezta nasai-nasai lotaratu be! Lapur-bildufez atea ondo zafatuta —baiña, egiaz, lapufak bafuan itxirik—, ezeren ardurage ogera doanaren antzekoak zintzakiez. Ez al dozue entzun lapufik gaiztoena etxe bafukoa dala? Gure izamena beti bat, ta benetako arduraz ez ba' gabiltz, gure tariko bakotxak bere aukeramena gurutzetuz al dauna ez ba'dagi aspertzake, gauza ta zoztor askotxo doguz inguruan, gure arimea lur ta berunezko zama barik Egileagana igon

daiten, gogo-askatasuna indargetu ta moztu daroaskuenak.

2. Osagailu ona onetarako, munduko gauza guztiak uts eta laster amaitzekoak dirala, etenbarik gogotan ekartea; ofela, txatxar ta zirtzil diran gauzetatik geure biotza atera ta betikor diranetan efotuko dogu. Bide makala, ausaz? Egi-egiaz dirautzuet, arimea asko be asko sendotu oi dau onek. Gabiltzan, bai, arduraz gauza kaskar ta gora andi bakoetan batez be; olakoren batek iñoiz bein biotza ba'daroasku, geure gogamena andik baztertu ta Jaungoikoagan josi bear dogu: Jaunak berak laguntzen dausku ofetan. Bai, orixe! Lekaimetxe onetan, bada, geiena egiñik izatea dogu Jaunak emon dauskun grazi andia. Geure burua ukatu, geugandik alde egin ta geure aukeramena gurutz-abean jostea latza baizen mergatza yakun afen, guztiok batean bizi ta benetan alkar maitaturik, apaltasunak artuko dau emen bere jatlekua. Nire ustez, izan be, apaltasuna ta buru-ukapena aizta bi dira beti alkafegaz dabiltzanak, egundo alkafegandik banandu ezin diranak. Oneik eztira, ez, aiztu bear dozuezala esan dautzuedazan senideak: besarka ta maite egiuez biak, eta etzaitze iñoiz eurok barik aurkitu.

3. Onoimen jatot gavaiak' Sovkari guztien buru ta munduko efergiñak; etsai gaiztoak jarten dauskuzan lakio ta sareetatik gu jareitekoak! Zuek barik amen baten be ez bait-zan bizi, gure Irakasle, Kristo Jesus'ek ain kutun izan zinduezanak! Zuokaz edertu danak, kanpora nrtcnik, bufukatn leike inpernu guztiaz batera, mundu ta bertoko jausbide guztien aurka! Ez, olakoak, "zeru-efeñua eurena dabe-ta", ezpeiz bildur izan: ez daukie nori bildur izan; dana galdu afen, zer arei? Ezer ez daukie galdutzat; Jainkoari min emon, orixe yake bildurgafi bakar-bakafik, eta Ari eskatu oi dautsoe, gartsuki cskatu be, onoimen oneik euren efuz galdu ez daiezan, lagundn dagitsela eurok arima bafuan zaindu ta iraun-azoten.

4. Birtute oneik, egia, daukazanak ez ditu ikusten, eta bcstcak olan ba'diñotse be, berak ikusten eztabezan lez, ez

dautse siñistuten. Biotzez, au ta guzti be, maite dauz ta beti dabilkizu are ta geiago eurak irabazi naiean, are ta geiago onbideok bere arima bafenean sustraitu ta aziaz. Onein jabe diranak eurak konturatu ta konturaterik nai ezta be, laster konturatu oi dira inguruan bizi yakezanak. Baiña buruginkeri itzala litzake apaltasuna ta buru-ukapena, zeruko Efegeak aren goi jañi ta bere lan ta oiñaze zenbatu-eziñez eredu ebazanak, orain nik goratu nai izatea! Ea, ba aitzak, Egipto'ko lufetik iges egiteko, lanari lotu ta saia gaitzean onetan; bai, ene aitzak, onoimenok eskuratu ezketiño, mana gozoa aurkituko dozue; orduan edozer gozo izango yatzue, mundukoentzat gafatz dana be zuontzat gozagafi.

5. Beraz, ona gure lelengo zeregiña: gorputzaganako maite-lera ausi ta ufatu. Batzuk oso guperak gara, gero, gure gorputzaz ta ezta eñez beragazkoa egitea; afigafia, bai, noraiñoko buruko miña emoten daskun onek danoi, baiña batez be lekaimeoi. Guretariko batzuk, izan be, il barik irauteko alegiñak egitera bakafik komentura gatozala dirudi: baktokak al dauana egiñik, gorputzak janaritu ta pozik euki, auxe olakoen ames zuria. Egia esan, ementxe daukagu ori egizteko erarik gitxien, baiña nik eneuke nai zuek olango gauzarik gogo izaterik be. Etsi zaiteze, aitzak. Kristo'gaitik iltera etofi zarie ona, ez Agaitik guri ta samur bizi izatera. Gure arimen etsaiak, bai, safi sartuko dautzue, legeak obeto betetako-ta, beafezko dozuela gorputz-ardura ori; ta egiz legea bete gura da, osasunari berea emonaz; olako lekaimeak kezka ibili oi dira osasuna zaintzen, gero lege betetako gauza izan daitezcan, antza; baiña ilabetean edo, bear bada, egun batean legea osorik bete barik yatorke eriotza. Osasuna beste elbururik ez baldin ba'dogu, e?, dakit nik zertarako etofi giñean ona.

6. Onetan ez bildur izan, senbako ta geiegizkorik eztozu izango ta; gure autofentzuleak, ba, otsean-otsean soin ilduraz ta penitentziz ilgo ete garean ikara dira, ta ofela diñoskue; ta nik, onetan aiña zurtasun enparau uts-egite guz-

tietan be gura neuke. Bestera dagienak, ba-dakit nik, bost berakatz dautsela emen diñoadan onek, ezta niri be axola andirik neure buruz besteak ebazten dodazala diñoenak, egia da-ta. Auxegaitik egin gaitu Jaunak, nik uste, izakera makaleko; niri, beintzat, berebiziko efukia erakutsi eustan ofelakoa izanaz: guri-zale izango nintzana ba-ekian, eta nik ortarako atxakiren bat izatea nai izan eban. Gauza bitxi-politetan dabiltz, ibili be, olako kezka artegatzen diranak. Noizik beñean lastasun ta penitentzi-zale agertzen yakuz, ez neufi, ez zentzun; berotasun onek egun batez dirau, esaera danez, geienik be; ondoren, bada, etsaiak azur-bafuraino sartzen dautse ildura ta penitentzi ofeik kaltegarfi izan yakezala. Geroenean, gesu baten, kalte ori dala-ta, eztabe ezelako penitentzirik egin gura, legeak agindukorik be ez. Legeko gauzarik pitiñena be, ots, ixiltasuna, kalterik egingo eleuskiguna, eztoгу betetan. Buruko miñez gagozala uste bide dogulako, ez gara korura joaten; ez gaitu, bafiz, ez bata ez besteak ilgo; gaur ez goaz buruko miñez gagozalako, biar egon giñalako, ta ufengoan, bafiro egon ez gaitez; atsegin yaku, bai, penitentziak asmetea, ta azkenez, ez bata ez bestea, eztoгу ezer egiten. Beste garai batzuetan, ainbeste min barik ondo samar aurkitzen gara, alan be ez dogu uste ezer egin dogunik: baimena eskatu ta kitu.

7. Esango daustazue: "Ama nausiarena da efua; zergaitik emoten dau baimena?" Zuen bafukoa ba'leki, ukatuko leuskizue bear bada; baiña ain argi agertu daustazue zeuen beafa, osagileren bat be izango da ufean zuek dagizuen eskabide ori indartzen dauana, bai ta lagun edo senideen bat be alboan negahez..., zer egingo dautzue? Alkar-maitasunaren kontra uts ete kgikean kezka legoke, ta berak baiño zuek uts egitea gurago dautzue.

Oneik gauzok iñoiz bein jazo leitekezanak dira; olakoe-tan arduraz ibili zaitezen ipintzen dautzuedaz emen; egundo eztoгу, ba, ezer egingo, etsaia, osasuna paltako yakula-ta, gu bildurtzen asi ba'dadi. Jaunak bemoigu argia, geure bear-kunak zeatz betetako. Olantxe.

## X I

### Gaioxaldietan lortu bear dan buru-ukapena

1. Gauza ufi bada-ezpadakotzat daukat, ene alabak, min ariñakaitik beti aieneka ibiltea. Min ori estaltzeko gauza ba'zarie, ez iletarik jo. Andia danean, gatxa bera da iletari; bestelako miña emoten dau, ta laster igarten yako. Gitxi zariena gogoan euki; ta batek olako oitura txafa artzen ba'dau, alkafi maitasuna ta efukia artu beafa daukazuen ez kero, guztiok atsekabez erabiliko zaitue. Benetako gatzik daukanak, esan daijala, ta bear dauanik artu barik ez dedila gelditu. Zeuon buruginkeria galtzen ba'dozue, edozelangc atsegingafirik artu beafak min emongo dautzue, ta eztozue bear-izanik barik artu naiko, ez geiagoko barik miñik eraku tsiko. Bear-izanik ba'litz, ostera, ezer ez esatea askozaz be txartoago legoke, aringafitxoen bat bear-izanik eztala artzea baiño, ta are txartoago besteak efukirik ez erakustea.

2. Onetan, ain gitxi izan ta alkar ain maite dozuen leku onetan, ardura barik egon: zuen gaxoetan nok zaíndu eztozue paltako. Baifia ondoez txiki ta andrazkoen makalal-diíxo batzuk baiño eztranean, ez aintzat be artu ta egon ixilik: safitan deabruak irudi-azokoak, joan-etofikoak izaten dira; Jainkoari izan ezik, beste iñori ez esateko oiturea artu egizue, osterantzean betíko alamena emongo dozue. Gure gorputzak gaitz bat dauko, euki be: mizkeri geiago emon ala, geiago eskatzea. Itzala da, izan be, onen mizkeri-zalea, ta bear-izanik izan orduko, gauzeak itxurarik ba'dau, alak egingo ditu arima gaxoari amor-eragin eta aufera egitea galazoteko.

3. Amaikatxo gaixo ba-dirala ekafi egizue gogora euren beafizanean nori esan eztaukenak. Eta guk, txirotzat egon eta aukera guztiak nai? Ekar gogora andra ezkondu askorena. Neuk be ezagutzen ditut emazte ezkondu batzuk,

andikietakoak eurak, min eta neke andiak izan afen, euren senafari alamenik ez emoteafen txitik aterateko bildur izaten diranak. Ai, enetxoa, bada! Gu areik baifio mizkeago biziteko ez gara ona etofi. Emen munduko amaikatxo buru-austetik ufin zagozen ezkerro, ikasi egizue Jainkoaren maitasunafen, etxe guztia jakitun ipiñi barik, min apurtxo bat artzen. Ofa ezkontza txafa egin dauan emakume bat: senafak bere miñen usaiñik artu eztaian, ixilik dago, eztau muxifiik egiten, ordu samin bai samiñak igaroten ditu, ifiogaz asazketan eztaia. Ta guk, ez ete dogu Jainkoak bialtzen deuskun gaitz apufa, Beragaz bakafean, igaroko, batez be ixilik ez eukiaz ia ezer be arintzen eztan ezkerro?

4. Emen esana ezto esan min andiak sukar andiagaz-ta diranerako; ordurako be iraupena ta eroapena eskatzen ditut, baña emen esana oera barik igaroteko makalaldikoak diranerako jafi dot. Liburu au, ofaitiño, gure ethez kanpo-koen batek ikusi bear ba'leu, zer izango ete leiteke? Zer esango ete leukie moja guztiak nigaitik? Eta bai pozik eta onez eroango neukela nik be dana, euretariko bat zuzenduko ba'litz! Bestela, askoren artean guzufezko negarti bat egoteak zelango okefak ekarten dabezan! Gero, gatzik andienak euld afen, ez dautse siñestuten. Ekafi daiguzan gogora gure antxiñako gurasoak, euren bizibidea eroan nai dogun ezkerro. Areinak bai nekeak, eta bakafean eroanak! Areinak bai gosealdiak, otzak eta beroak, eta Jainkoa besterik, nori esan ez eukela! Bufiñezkoak edo zirala uste dozue? Ez, gu baizen minberak ziran. Siñestu eidazue, alabatxoak: gure gorputz oneik, bein azpian artzen asten ba'gara, ez dauskue ainbesteko nekerik emoten. Ara: zaintzaile barik etzarie geldituko bear dozuena emoteko; zuek ez artu ardurarik, igefi-igefiko bear-orduen baten ezpada. Osasunik-eza ta eriotzea begiak itxirik irusteko gauza ez ba'gara, eztoгу iñcz ezer egingo.

5. Eriotzearen bildufa kentzen eta, datofena datofela, zearo zeuen buruak Jainkoaren eskuetan izten alegindu zaitze. Gu ilda be, zer? Gcrputzak ainbat bider iruzur egin

dauskun ezkeru, ez ete dautsogu noz edo bein geuk berari egingo? Erabagi au bear dogu, eta bene-benetan guk uste dogun baifio gorabera andiagokoa da; goitu daigun bein eta bafiro gorpuz au, ta Jaunaren laguntasunaz, apurka-apurka, bere jabe egingo gara. Ta onango arerio bat azpian artzea, bizi onetako jokorako ogeitamaika eskutik eukitea dozue. Jaunak dagikena da-ta, egingo al dausku Berak mesede au. Zelango obaria dan eztau aituko, ondo dakit nik, arerioa zapaldurik daukanak baiño. Zelango irabazi andia, gero! Neu nago, bake ta askatasun ori izateafen, iñok eztauala nekearen damurik izango.

## XII

Jaungoikoa benetan maite dauanak ardura gitxi emon bear dautso bere biziari; dedu ta andikeriak, bafiz, biotzez ezetsi

1. Gatozan orain beste zer batzuetara, azalez ezerezak iduritu afen, barne-mamiñez gafantzi andikoak diranetara. Arlo latza dirudi, bai ta izan be, geure buruagazko bufuka da-ta; lanari gogoz lotu ezkeru, baiña, Jainkoak berak be, mesede ugari egifiaz-ta, asko laguntzen dauskulako, ízakeria begitandu oi yaku guk bizitz onetan egin geinkean guztia. Lekaimoek, gaiñera, lan ofen arlorik geiena egifia dogu, geure aukeramena, jainkozko maítasunafen, beste baten eskuan itxia dogun ezkeru. Geure neke, barau, ixiltasun, etxe-bafu-egote, koruko ardura ta abafez asko jasan beafa dogu, bai, ta eroso bizi izan naita be, ezin olakorik iñozkoren baten izan ezean, ta bear bada nik ikertu dodazan ainbat komentutik neu bakafik izan nozue ofetan alegindu nazana! Zer-

gaitik, ba, guk geure bafua ilduratzetik atzera egin? Auxe dogu beste onoimen guztien sorburu; onen bitartez osotu egin oí dira besteak, onura geiago aterarik, samur ta bake-tsu. Bañuildura (mortifikaziño) au, esan dot, astiro astiro eskuraten dala; gauzarik kaskafenetan be, eztoгу egundo geure naikeri ta griñak eskatzen dauskuenik egin bear, gorputza geure arimearen mende jarten saiatu baiño.

2. Bafiren bafi dirautzuet: dana, edo beintzat, geiena, egiñik daukagu geure soin-atsegiñari ta buru-ardureari uko egin ezketiño. Jaungoikoaren mofoitzan benetan ba'diardugu, izan be, eskiñi geinkeonik ufiena geure bizitza dogu; ta geure aukeramena Aren eskuetan laga ba'dogu, zeren bildur onezkero? Bai, egizko lekaime ta egizko otoizlari, Jaungandiko atsegin ta gozotasunak euki nai dauazana baldin ba'da, gertu dago onezkero, Ari sorbaldak emon ez-ezik, Aren onerako bizia eskiñi naiz Agaitik martiri izateko be. Ez al dakizue, aitzak, lekaime zintzoaren biziera, bai ta Jainkoaren adiskide ufenekoen arteko izan nai dauan edozeiñena be, martiri edo odol-emote luze dala? Luze, bai; bertatik samea moztuten dautsienakaz bardindu edo iduri-azo ezkeru, *luze* esan daikegu; osterantzean, gure bizi-aldia *labuía* da, ta batzuetan oso labuía alan be. Zer, ba, Jaungoikoa benetan serbiduteko erabagia artu ta ara, edo andik ordu betera, bizitz-aria etengo yakun be ez dakigu-ta? Ez uste, izan daitekena dogu; beraz, iradu doan ezerezari ez dautsagu jaramon andirik egin bear, eta are gitxiago biziari, egun bat bera seguru ez bai daukagu. Ordu bakotxa azken daiteke; au gogoraturik, nok ez berau lanean emon?

3. Auxe dogu ikuspegirik ziuñena ta, siñistu, afen: dalakoan dala, gabiltzan beti geure naimena eratxi-beafez; eta, esana dot, ardura zeozer baldin ba'da, igafi barik, geldi-ro, mendiaren tontofean aurkituko zarie. Ez dautsagula ofaitiño, geure buruari egundo be atsegiñik aukeratu bear' Buru-ukapenak beragaz dakarskun poz-gozotasuna ta bizitz onetan ofela egiñik irabazi daroaguna gogora ekafi ezik. latza ta mergatza dirudí egitan! Emen, ostera, au danok da-



gizue-ta, zatirik beiñena egiña da: aizta batek bestea dau zirikalari ta laguntzaile. Ta onelaxe, alkafen leian, norgeiagoka bizian jokatu beafa dogu.

4. Zur ibili, aitzak, zeuen bafu-igierakaz, sentimentuakaz, nor-lenago ta olangoetan batez be. Jaunak gorde gaizala, bere Odolafen, "ni lenago naz", "au baiño zafago nozue", "lan geiago egin dot", "sandia ni baiño obeto ikusia da", uste dongean, esan naiz gogora ekartetik. Zuen gogo-muiñean olakorik afotu ba'ledi, ausi adafak otsean: euretan iraunez ba'zengoze, edo-ta olakoak autuan erabili, azteri kutsukofa litzateke, gaitz eskergen itufi. Zuen artean antzeko gauzarik, naita ezereza izan, itxiko leukean Ama nausirik ba'zeunkie, jakizue, aitzak, zuek zeuen pekatuan zigortzeko Jainkoak laketu dautzuela aginpide ofetan; eta au, onez gaiñera, zeuen ondamendiaren asiera baiño eztozue. Egin Jainkoari oi ta dei laguntza-eske; gaitz ofi osabidea jarteko, zuzendu beitez, bai, zuen otoitz guztiak Arengana, agiri-agiriko afiskuan zagoze-ta.

5. Zuek, bear bada, jardetsiko: "Zergaitik ofenbeste gai onez? Latzegi ez ete? Jaungoikoak ain erantzia eztanari be ez al dagitsoz maite-erakutsiak? Bai, neu be ofetan bat natorkizue; ba-daki Arek, bere jakituri mugabakoz, egoki dala ofelaxe egitea, arimak Beragaitik dana iztera erakafi dagizan be. Iztea ez deritxot naitaez lekaimetxera sartzea danik, ba-dira ba eragozpen batzuk au lagatzen ez dabenak, eta edozein bizieratan be izan daitekez arima guztiz erantzi ta apalak; oso ta apal izatea, ostera, nekezako dogu gizartean gagozala, inguruko giroak indar andia dagisku-ta. Baiña artu au ziurtzat: zein komentuan zein onetarik kanpo, dedu-nai edo diru-zale danik —afiskutik asago efua andiango— iñor ba'da, urte askotan otoitzari, edo obeto, gogarteari —otoitz bikaiñak, ba, kutsu oneik zearo uxa oi ditu— ekin afen be, eztau olakoak iñoz be auferaka andirik egingo, ezta otoitzak bere bafu-unean dauan gozoaren ezta miazkau be.

6. Begira, aitzak, gauzotan zelan zabiltzen, ona ez bai-

tzarie beste ezetarako etofi. Eurok, egia, eztautzue dedu esatekorik eskuratu, ta bai, ostera, azkenean beintzat dedu-gafi litzakizuezan onura ta irabaziak galdueragin: emen, bada, dedu-eza ta galpena nastean dabilkez. Azter bei bakotxak bere bafua umiltasunean ze moduz dabilen begiratuaz, ta ortatik aterako dau noraiño auferatua dagoan. Zafago-andiagozko bitxikerietan, len-zifaraz be ez dot uste deabrua azartuko danik egiaz apal danagana zirika-zufean uferatzen: malmu-tza da-ta, bat-batean artuko leuken mustur-zartakoaren bildur litzateke. Eziña da ori; norbait, bada, apal ta umila dalarik, deabruak ortik zirikatuko ba'leu, arimea geiago sendotuko litzake ontasun ontan eta irabazi geiago atera; biotzez apal danak, egin-egifian be, joan yakon bizia dakar gogora, ta ortik argiro dakus zein eskas ta txarto serbidu dauan Jauna, Oni ainbat zor dautsolarik; guri apal ta otzan izaten erakustefen, ainbat gauza afigafi osotu ebazan; gomutara dakarz baita bere pekatuk, eta oneikaitik merezi eban inpernua. Ta guztiz protxugafi yakez gogorakizunok; eta deabruaJc eztau bafiro zirika-bidera biurtzeko adorerik, buruj bifinduta itzuli bearko leuke-ta.

7. Jaso gogoan damotzuedan oar, abisu au, ta ez aitzu; osozko irabazia izango dozue onetan, ta ez bakafik bafu-bizitzarako —ziltzalditik ezer onik ez ateratea, oker andi litzateke—, bai ta kanpo-aldetik begiratuta be: gogo gaiztoari mutufekoa emonda, zeure aitzak be ofen irabazle egin bear dituzu, kezka-aldi ofetatik ariñago askatzea nai ba'dozu. Olako pentsamentuak zeure kautan afotzen asi ordukoxe, esan beingoan Ama nausiarri ta eskatu berari arazo xe-apalen bat egin-azo daizula; edo, bestelan, zeuk egin, ondoen yatortzunez, antzekoren bat. Bitartean, iguingaficn yatzuzan gauzetan batez be, ikasi zelan menderatu zeure naimcna: Jaunak berak irakatsiko dautzuz ofetarako biderik asko; ta onela jokatuaz, itzetik ortzera uxatuko yatzu gogo gaiztoaren zirika-naia.

8. Andikeriak gogoan, ta Jaungoikoarcn mirabe? Berak gorde gaizala olakotik. Kaltegafi baiño cz yaku onegaz ira-

bazten doguna: dedua bera be, esan dot, opa izanik galdu oi da, batez be lekaimetak eta nagusi-maila ta andikerietan asi ezkerok, munduan eztago ba pozoirik donekuntza bidean dabilzanai oneik lez ilgafi yakenik. Uts berezkoak dirala esango daustazue, ez yakela ainbeste jaramon egin bear. Ez, maiteok, ez egizuez erdibañez arintzat artu; lekaimetxeetan batez be, itxasoan bitsa baizen arin azten dana dogu; ezin leikeo kaskar izenik ezafi onen agiriko galzoria dauanari, dedu-puntutxo ta iraiñik egin ete dauskuen edo ez dauskuendiko kezka txepel oneiri. Zergaitik dan ba-dakizue, beste gauzarik asko albora itxirik? Lenengotan, bear bada, bat asten da ezerezean, z-erbait dan edo eztan; albckoak, ondoren, deabruak eraginda, asko dala uste dau; ta bertatik, ofetzaz itz egin ta irain ori ixilik zelan daroazun zuri esatea maitasuna dala deritxo; bai ta Jainkoari eskatzeko diñotzu berau egonafiz eroateko artea, Ari eskintzeko atsekabe ori, santu batek be, ofenbeste nekez sufriduko leukela-ta. Labur esan, deabruak albokoaren min-maratilaz oker galanta sakatu dautzu, ta zu dan ori leunkiro eroateko gertu zengozan afen, afokeri pizkategaz lotu oi zara, eroan bear zenduan baizen ondo etzendula eroan-eta.

9. Gure izatea makal-makala baita, kezka barik egon gintekezala esanik, goragafi dan zeozer egin dogulakoan, izandako iraiñagaitik min artu daroagu, ta askotaz geiago enparauak be geugaz batera atsekabetzen ba'dira. Ta onela lengo kezka areagotzen da, ta arimeak irabazpide eban abagune edefa galtzen, len baiño be argal ta makalago lotuaz; deabruak, bafiz, atepak zabalik ditu, atzo baiño gaur gauza txafago bafiro gu gogor be gogor zirikatzeke. Ta izan daiteke, iraiña epez eroateko zu gertu egon afen, norbaitek, zure ondoratu ta belafira esatea: "Pizti al zara? Nori ondo ez zor yakon lotsea?" Jainko maiteafen, ene aitzak! Ez izan ifioz senbako kezkarik, buru-azalean sorturiko iraiñak dirala-ta, batez be norbaitek artu leikean miñagaitik, Job santuari bere emazte ta adiskideak erakutsi eutsoena langoagaitik nunbait.

## XIII

Morbere **burua** ukaizeaz **gei**ago; **egi**azko **e**fazeiaren  
**jaube** izaieko, **munduko** eriixi ta **e**fazoiai iges egin  
**bear** daufsegula

1. Safitan esan oi dautzuet, ene aizatxoak, eta aitzu eztaizuen, emen idatzirik itxi gura dautzuet orain: bai etxe onetan bizi danak, eta bai Jaunagana bidean gorengo mailea jo gura dauan edozeiñek, ufin be ufin iges egin bear dauala "efazoia neukan", "eztot euki efurik", "niri au ta au egín daustana ezbidetan dago", ta olako berbetarik erabiltetik. Jaunak kenduko al dauskuz olako berbetak. Efazoizko gauzea, zuzenezkoa al zan gure Jaunak ainbeste irain, ainbeste itxuskeri artu bear izatea? Efazoien neufi-neufiko gurutzea besterik eroan nai eztauana, nik eztakit zetako dagon komentuan; beioa mundura, an efazoe gitxiago aurkituko ba'dau be. Artu-alak artuta be, zor dozuena geiago ez ete da izango beti? Zelango efazoi-rnodua da au? Nik, beintzat, ezin dot aitu.

2. Andigafizko edo txera onezkorik ezer egiten dauskuenean, orduan atera daigun, bai, izketa ori, guri bizi gareala olakorik egiteak itxurarik ez dauko, euki be ta. Baiña iraiñik egiten dauskuenean —irain-izena emoten dautse eztanari be—, nik ez dakit zer dala-ta aitatu bear dogun ezer. Bitarik bat: gure Efege ain andiaren emazte gara, ala cz. Ba-gara? Eztago emazte izen onekorik bere senafari egindako iraiñak berari egindakoízní artuko cz dituenik, bere gogokoak ez izan afen; senar-emazteak, lotsaria dala, ondo-eritxia dala, biak erdi-bana egin bear dabez. Kristo'ren cfcíñuko izan, ango atsegiñak euki, ta Aren lotsari ta nekeetarik ezcr artu barik cgon gura izatea, alkafegez ondo datoazan gauzak eztira.

3. Jainkoafen, ez al dogu guk olango guraririk izango; gure artean baztertuentzat daukela-ta dagoanak, zori onekoentzat euki bei bere burua; berc lor ori bear dan lez eroaten ba'daki, alantxe da izan be ta; andigafi barik ezta geldituko ez bizi onetan ez bestean; siñistu neuri. Baiña, nire lotsabakoa! Niri siñistuteko esan, egiazko Jakituria bera danak esana izanda! Apaltasunean, ene alabatxoak, Ama Birjiñaren antz apur bat artu daigun; bere soiñekoaz gabiltz; gure lotsaritako, bere izeneko mojak gara; ta, ara!, gure buruak apaltzen alak egin afen, lekutan geratuko gara alako Ama baten alaba eta alako Jaun baten emazte izateko. Ebagi daiguzan, beraz, efuki barik gure afokeri guztiak; bestela, gaur ezereza dirudiana ba-leiteke biarko pekatu biurtzea, txikefa baiño ezpada be; eta zur ibili ezik, ezta bakafik geldituko, ain da mataza txafekoa. Moja-etxe-etan kalte andiak egin leiz.

4. Lekaime edo moja gareanoi onetan zur bai zur ibiltea dagokigu, gure alde dabiltzenai eta gure eredu izan nai dabenai kalterik ez egiteafen be. Oitura txar bat asteak zelango kaltea dakarken ba'genki, naiago genduke il olako gauza bati asikerea emon baiño lenago. Eriotzea gorputzaren kaltea da; beste ori, bafiz, arimearena; ta au da benetako kaltea, ta itxura baten, azken bakoa. Zergaitik? Batzuk ilda gero, ondotik beste batzuk datozalako; ta, bear bada, on asko izan afen, danak artzen dabe ekandu txar batetik, beste on guztitik baiño geiago. Ekandu txafari deabruak eutsiko dautso, jausi eztedin; gure jatofizko argaltasuna, ostera, bera da naiko, birtuteai bea jo-azoteko.

5. Bestelako mesedea ta Jaungoikoaren auferako gauza edefa edozein mojak egingo leukena, etxe onetako ekan-duai eusteko gauza ezuala ikusi ezkeru, ori autortu ta emendik alde egingo ba leu! Ta alantxe egin-beafa dauko, emen inpernua ikusi nai ez ba'dau. Eta, Jainkoafen, ez al dau beste bat an gero izango. Bildur izatekoa da; ta, bear bada, cz berak ez bestek eztau afisku au ník baizen argi ikusiko.

6. Siñistu onetan —bestela geroak erakutsiko dau tzue—: guk emen darabilgun asmoa ezta edozelango lekai-me-izatea, bakartegikoak izatea baiño; cmengoak danarí uko egin nai dautse, ta Jaunak onako aukeratu dituenai grazi au egin dautsena ba-dakust. Oindiño, bear bada, eztau ori zearo lortu, baiña munduko artu-emonak betiko itxita dabezalako gomuteak eta erlijiñoko gauza guztietan aurkitzen clauan zorionak emoten dautsen poz eta birloralditik ezagun danez, arako bidean da.

7. Bañiro diñot: munduko gauzetarako joerea claukana, okefera au zuzendu ezifiik ba'dabil, beioa emendik. Moja-izateari itxi gura ez ba'dautso, beste moja-arte bateivi jo bedi; bestela, berak ikusiko dau zer jazoten yakon. Eme-ko bizimoclu au asi neban onegaitik, beintzat, ez daiala esanesik erabili, auzetik esan ez dautsedala-ta.

8. Lur onetan zerurik ba'da, etxe au zero txiki bat da Jainkoaren edefa besterik nai ez dauanarentzat; norbere atsegiñik bilatzen ez dauanarentzat, bizimodu baketsua bertokoa. Besterik ezer bilatzen dauanak clana galduko dau, beste biderik emen ez dago-ta. Pozik barik artega dabilena gorazko andia daukanaren antzekoa cl: janaririk onenak be iguin emoten dautso, ta osasunaz dagoanak gogoz jango leukenak, alanproari bafua nastetan clautso. Beste nonbaiten zerura bidea obeto aurkituko dau; ta ba-leiteke emen ezin izan eban santutasunera, apurka apurka, an eltzea. Emen goi ori, pizkaka barik, era batera jo bear zan; burua ukatu ta bafuko askatasun osoa lortu arte etxon beafik ba'da be, kanpo-aldez emen beingoan egin bear da; ta guztiak ofetan diarduela ikusteak eta ain lagunarte onean egoteak urte betean onik egiten ez dautsonari bildur naz urte geiagotan onik geiago barik, gitxiago egingo ez ete dautson. Ez diñot auferakuntza ofek beste guztien neufi betean agertu bear dauanik; baiña obero egiten dauana ageri daitela beiñik bein, gatxa iltekoa danean beingoan igarten da-ta.

## X I V

Aurêko jardunetan esan diran gauzakaz bat ez datoñenari  
etxako profesarik emon bear

1. Onean bizi izateko asmoa artu dauanari, nire us-  
tez, mesede andia egin dautso Jaunak; ofegaitik, komen-  
tura datofena zelango asmoz datofen, ondo aztertu egizue.  
Aterpe-bila eztau, ba, ona iñok etofi bear, gaur askotxo  
samar jazoten danez; alan be, moja-gei ori seta onekoa ta  
zentzunduna baldin ba'da, gure Jaunak osotu leikeo da-  
kañen erdizkako asmoa. Ofelakoa ez ba'litz, ostera, ez artu  
eze'an be, berak be, ba, ez leuke ezagutu naiko zergaitik  
datofen komentura, eta nagusiak ostean olango bati ezer  
aitu eragiteko ez litzatekez gauza izango. Oi danez, akats  
onen jabe diranak beti uste dabe, jakitunenak baiño obeto  
dakiela eurak on ta egoki zer yakien. Gaixo au, gaifiera,  
osatu eziña dala deritxat, mafukeri barik gitxitan datofe-  
lako. Askotsu diran komentueta ba-leiteke eroangafi iza-  
tea, baiña onen gitxi garean tokian, ezetara be ez.

2. Zentzundunak, bafiz, ona zer dan ikusi ala, arixi  
oratu oi dautso kementsu bai kementsu, segumena axe  
dala-ta; onakoa, gogo-barnetasun andirako izan ezta be, jar-  
duneko zeozer egin bear danerako ta abar, egoki-egokia  
dozue; iñori astun ez, ta bere onu, konseju artezez argi  
galanta izango yatzue. Zentzunbako bat, baiña, nik ez dakit  
zetako dogun komentu bañuan, on orde z gaitz andia ekañi  
leikegu-ta. Berezko akats au ezta beingoan ezagutzen, asko-  
txuk bada itz ederto dagie ta txarto aitu; beste batzuen

berbetea, bañiz, labur eta jantzi-apaindurarik bakoa dozue, baiña onik askorako zentzuna dauana. Arima bakan, santu batzuk ba-dira gizarte-arazo ta eraetan gitxi besterik ez daki-enak, oso egoki ta aukerakoak alan be Jainko-gauzetarako. Ofegaitik, ba, ipiñi jakitun norbait lekaimetzarako (moja izateko) artu aufetik, eta gero be lekaimegaia ondo azter-tzen saiatu agintza edo profesia egin baiño len. Mundukoak konturatzen ba'dira bein sartu-bafiak bañiro etxera bial-tzeko eskubidea ba-daukazueta —eretirik asko dozuez or-tarako, biziera latza daroagun komentuetan—, zuok olan eginda be, ifiok eztau iraintzat artuko.

3. Gaurko egunak zori txafekoak dira ta makal utsak gu, origaitik diñot au, batez be; gure aufetikoak esana ta irakatsia eztira naikoa, senitartekoak iraindu ez daiguzan eta gaur munduak dedutzat artuta daukonaz konturatu gai tezan. Eztaigula, Jainkoafen, lekaime gauza-ebak artu gen-duzanok ezer ordaindu beafik izan beste munduan. Artu bear dogula uste izateko, beti euki oi doguz aterik aiña maratila.

4. Zeregin au, ondoren andikoa da-ta, bakotxak bere-berea lez artu bear leuke; bai ta otoitz bitartean Jainkoari argia eskatu, ta iñozkoren baten Ama nausia ezmezean ba'lego, au adoretu be. Afen dagitsot Jaunari, argia emon daizuen onetan. Ondo dozue bizi-saririk (doterik) ez ar tzea; artzen dan etxean jazo leiteke, ba, esku artean dau-kien dirua atzera ez biurtzeafen, ondasunak ostu leikeozan lapuñta etxe bafuan ostonduta iztea: au berebiziko zori txafa litzake. Zuek ez artu emen iñoren saririk; irabazi beafean, galduko zeunkie.



## XV

Efurik ez-ta efudun egiten gaituenean ixilik egoteak  
ondasun andiak ekarten dauskuzala

1. Lotsa gofiaz asten naz zueri orain esan bear dau-tzuedana esaten; emen esango dodanaren puskatxo bat, gi-txienez, neure egiteetan erakutsi bear neban lenengo. Ta, artez egia esan, onetan auferakada gitxi egin dot. Bein be ez nago, neure eritxian, neure burua obetzat ez eukiteko efazoi barik. Noizean bein norbere alde egitea be legezkoa ei da, ta ez egitea oker; baiña nik ez daukat zurtasunik, edo, obeto esateko, apaltasunik, bear danean egiteko. Benetan apaltasun andizko egitekoa da, norbere burua efu barik efudun egiñik ikusita, ixilik egotea; gure efu guztiak gar-bitu euskuzan Jaunaren antz andiko da orixe. Au dala-ta, ardura andia erabili onetan, irabazpide andien itufi dozue-ta. Gure burupk zuritzen, efu bako egiten alegintzeak, oster-a, ez dakar bape onik, noizean bein egia ez esateak okefik edo gaizpiderik ekañi ieien baten izan 'ezik. Nire adimena baiño ohea daukanak au aitu eziñik ez dauko.

2. Nire ustez, zer-ikusi andikoa da birtute ontan oitu-tea, edo beintzat Jaunagandik apaltasuna lortzen alegintzea, apaltasunetik datofela uste dot eta. Gitxi eritxian egotea, gauza astunetan dala be efu barik efuduntzat egotea, ofa izan be benetako apalak nai izan bear leukena. Ta Jaunaren antzeko egin gura izatekotan, zelan olantxe baiño obeto? Ofetarako eztogu bear, oster-a, besoetako indafik ez iñoren laguntasunik, Jainkoarena baiño.

3. Onango birtute edo onoimen andietan nai neuke nik, ene aizatxoak, bero ta zoli ibiliko ba'giña, ta ofetan penitentzia egingo ba'gendu. Penitentzi lafegirik egiteko ba-dakizue ez dautzuedala esku andirik emoten, buru barik egin ezkeru osasunaren kaltegafi diralako. Beste ofetan ez

dago bildufik. Gogo-ba'uko beste neke ofcik, gogofenak izanda be, eztautsc gorputzari kentzen erlijijiñoko beafetarako indafik, eta arimea indartu egin oi dabe; ta, beste bein be esanda daukoda lez, gauza txikienetan oituak gauza andiei buru emoteko efeztasuna atera leike.

4. Nik neuk eztot izan gauza andietan leiatzeko erarik; eztot egundo entzun nitzaz txarkeririk txarto esalea labur gelditzen zala ikusi barik. Gauza berberetan ez ba'zan be, beste askotan neukan iraindurik Jauna, ta irain oneik ez aiatuaz asko egiten ebela neritxon, eta pozikago artzen dot beti besteak nitzaz diranak baiño eztiranak esatea.

5. Asko lagunduko dausku emen atera geinkezan irabaziak gogoan erabilteak, eta zelan, ondo begiratu ezker, ez dauskuen bape.éfu barik ezer ezarten. Beti gagoz utsez beterik, zazpi bider jausten da zuzen dana; pekaturik eztogula esatea guzufa litzake. Ezarten deuskuena guzufa ba'da be, iñoz be ez gara bape éfu barik, gure Jesus egon zan lez.

6. Oi, ene Jauna! Zuk iñondik merezi izan barik, zelangotaz zetariko neke-lotsariak ikusi zenduzan gogoratzean, eztakit zer esan nigaitik, eztakit nun neban zentsuna nekerik nai ezta ibili nintzanean, ez nun nazan neure burua zuritu beafez nabilenetan. Ondo dakizu Zuk, ene On guzti ofek, nik ezer onik baldin ba'dot, Zeuk emon utsa dodala. Zer dautzu, bada, Zuri gitxi naiz asko emon? Ez dogula merezi? Len Zuk egindako mesedeak be ez nituan, ofaitiño, nik naerezi. Nundik nora nai izan bear nik, ni lako gaizkin bat iñok ontzat eukiterik, Zugaitik, onik onena ziñala, alako gaizki esakak erabili ebezan ezker? Ezetatik ezetara be, ez orixe; ezin lei olakorik onez ikusi, ene Jauna, ta eztot neuk be gura Zuk nigan zure begietarako eder eztanik onez ikus. terik. Ikusi, ba, Jauna, nire begien itsukeria; ezer gitxi bear euren asegañi. Emoidazu Zeuk argia, ta guztiak gofoto izan naiela, ain ziñez maite izan nozun Ori ainbatetan itxi zaitudan ezker.

7. Au zer da, ene Jainkoa? Izakien edefa egiñaz zer ateratea uste ete dogu? Zer dausku guri, guztiak txarto esaka jardun afen, Zure afean efu bakoak ba gara? Ene aizatxoak, au, egia au ulertu eziña gurea! Ortik datorkigu gero goiko mailetara eldu eziña, ez ta bai guztiak ondo begiratu ta aztertu ondoren izan ezik. Gero ta gero be, guzfa ezafi dautzuna Zure eroapenaz eta onez artzeaz lotsaturik gelditzea beste irabazirik ez ba'lego be, naiko litzake obaririk. Olako gauza bat gogoarentzat amar sermoi baiño azkorgafiago da. Guztiok dogu egitez sermolari izaten alegen egin beafa, Apostoluak eta geure ezerezak itzezko sermolari (izlari) izaten galazoten dauskun ezkeru.

8. Ain ezkutu zagozen afen, ez uste egingo dozuen ona ez txafa ixilpean geldituko danik. Eta, zer uste dozue? Zuok zeuen burua zuritu ez afen, ezuala izango zuen alde urtetakorik? Ara zelan Pariseotafaren etxean gure Jaunak Madalena'ren alde arpegia erakutsi eban, aren afebeak marmarka ekin eutsonean. Ez dautzu-e zueri bere buruari bai-zen gogor esango; Bera gurutzean zan, lapur batek alde urten eutsen orduko. Zuen alde urtetako bat edo bati gogo-ja fiko dautsa, ta alan ez ba'dagi, ez edo dozue bear-izanik. Auxe da nik ikusita daukodana; baiña ez dot nai pozgafi au zuok gogotan artzerik. Zuok poztu zaiteze ezta-nen bat ezarten dautzuenean. Zuen arimeak ortik aterako dauan ondasuna geroak erakutsiko dautzue. Orduan asko asiko zarie askatasuna irabazten; eta ondo esan nai txar-to esan, beste norbaiten goraberea ba'litz lez, bardin izango yatzue. Lagun bi alkafegaz berbaz dagozanean lez da; gugaz ez diarduen artean, guk ez daukagu erantzuteko ardurarik. Orixe bera jazoten da emen; erantzunenik ez daukagula-ta, gugaz ez daragoioela dirudigu. Ain min-bera ta geure burua ukatzera gitxi egiñak gareanok, egin-eziñeko gauzatzat eukiko dogu ori. Lenengotan gatxa da, izan be; baiña, nik ondo dakit, askatasun au ta buru-ukapeti au, Jainkoa lagun dogula, lortu daikeguzan gauzak dira.

9. Eta ez askotzat euki diñotzuedan guzti au, jokoa atonduaz noia ba, esan oi danez. Otoitzaren asierea azaltzeko eskatu zeustien; nik, ostera, alabatxoak, ez dakii besterik auxe baiño: Jaunak ez ninduan eroan asiera ontatik, onako birtuterik oindiño ez daukadalako. Siñistu eida-zue, bada, ajedrez-jokuan geiak eraz jarten ez dakianak eztau ondo jokatu, ta moltsotuten ez dakianak ilten be eztau jakingo. Emen be ba-daukazue niri arpegira zer bota. joko-kontuan diardudan ezker; etxe onetan eztago, ba, onangorik, ezta egongo be. Emen daukazue, bai, Jainkoak emon eutzuen ama au, uskeri auxe be ba-ekiala; banaketan, alan be, bidezkoa dogu, diñoenez. Eta guretzat bai dala bidezko ta zilegi jokabide au; eta zein arin, safi erabili ezker, moltsoratuko dogun Jainko Efege au, ta bein esku ratu ezker ez yaku joango eskuetatik, ezta naiko be. Andrea da joko onetan gudarik geien egin leikeona, ta beste gei guztiak lagundu baiño ez. Eztago apaltasuna lango andrarik efegea azpiratzeko; onek ekafi eban zerutik Andra Maria'ren efaietan, eta onegaz erakafiko dogu guk be ule batez geure arimetara. Ta, zagoze ziur, apalago danak geiagotan eukiko dau, ta ainbeste eztanak gitxiago; nik ulertu ezindakoa da maitasun bako apaltasuna ta apaltasun bako maitasuna. Birtute bi oneik, gaiñera, sorturiko danetik erantzita dagoanagan izan ezik, ezin daitez bizi.

## XV !

Otoitz bikaiñekoen eta gogarte-zaleen artean zelako goi-be ta aldea dagon. Jainkoak batzuetan arima besteratuak be zergaitik jaso daroazan otoitz bikaiñera. Onek eta ufengo atalburuak ba-dabe *euren* bañu-mamiña

1. Bear bada, ene alabak, birtute oneik zetako aita-tuten dautzuedazan ítanduko daustazue; liburu asko dirala ofeik irakasten dauskuezanak eta zuek eztozue gura otoitz bikaiñaz jardutea baiño. Gogarte edo meditaziñoari buruz idazteko eskatu ba'zeunstien be, nik azalduko neutzuezan oneik, eta esandako birtuterik ez ba'daukazue, eurok esku-ratzeko alegindu zaitezela diñotzuet guztioi; auxe dogu, ba, onoimen danak irabazteko len-mailea: kristiñau gareala be, naitaez onetatik asi beaña daukagu guztiok. Ez, iñok be eleuke ori itxi bear, naiz-ta galdua izan, Jainkoak ortara ba'daragio beintzat. Onetzaz idatzita daukat beste nunbait be, bai ta •—Jaungoikoak ba-dazau— zer diñoen nik baiño askoz obeto dakien beste zeinbateg be.

2. Otoitz bikaiña, bañiz, beste zerbait dozue, alabak, naita ontan ia guztiok oker egon; norbaitek, ízan be, egun-ean zatitxo bat bere pekatuak gogoratzen egin ba'dagi —ize-nez baiño geitxoago kristiñau dana, ortara beartua da be-rez—, olakoa begiztataile andia dala esaten dogu becrítatik, eta egoera ofi dagokiozan birtute ta onoímenakaz ornidua egon bear dauala uste dogu beste barik: bai ta berak be olantxe uste dau, baiña zearo oker dabil. Asikeran ez eban jakin jokua zelan atondu; naikoa zan eritxi baten geiak ezagutzea eriotza emoteko, baiña au eziña dozue: Efege au ez baita iñori emon oi, Berari osoz emon oi yakonari ezezik.

3. Au olan dozuela, alabak, otoitz bikaiñerako bidea nik azaltzea nai ba'dozue, pazientzi ta epez eroan egizue,

afen, gauza batzuetan aufetik, naiz-ta ofen gora andikoak iduritu ez, ni zerbait luzatzea. Zuek ezta be, nik baietz uste dot, gauza oneik ba-dabela euren berarizko gafantzia; zuok, zeuen aldetik, olako zerik ez entzun ez egin gura ezta be, jardun zeuen gogozko otoitzean, biziak dirautzuen arte guztian; neuk diñotzuet, ba, zuoi ta otoiz-mail ontara eldu nai dauan edonori, egundo eztozuela beste bidez, ortixik baiño, egizko otoitz bikaiña jaritxiko. Izan daiteke, alan be, ni oneri buruz oker egotea, neuri jazo yatanetik diardut-eta: begiztatzaile izan naita, ogei urtez saiatur nozue.

4. Orain gogozko otoitza, buruz dagigun otoia azaldu ta adierazo gura dautzuet, zuetariko batzuk ausaz eztabe berau zer dan ondo jakingo-ta. Jaungoikoak bemoigu bear lez otoitzdun gu izatea; onoiemenak lendik geuregandu ezik, baiña, bildur naz neke andiz baiño ez ete garean izango: emen, alan be, gogozko otoitzerako eztoguz bear onoiemenok otoitz bikaiñerako baizen maila goi-erpiñean. Zerutar Efegea ez yatorku bafura, gugaz loturik bizi izatera, geu geurenez birtute garaiak irabazten alegindu ezik. Au da adierazo nai dautzuedana, ta zeozer egi eztana bertan aurkitzen ba'dozue, ez niri siñistu, ta ofetan zuzen zengokeze, ni jakiniez oker ba'niñoake; baiña ez beist laga Jainkoak guzufik esaten: okefik ba'niñoke, ez jakifiz edo ondo ulertu ezagaitik litzake.

5. Bai ta jakin-azo gura dautzuet: Jainkoak batzuetan, txarto dagozan arimai be, egin naiko dautse mesede andi au, arte onegaz deabruaren atzartetik aterateko antza. O ene Jauna! Zenbatetan beartzen zaitugun geugaitik gogo gaiztoaz bufukatzeko! Ez ete zan naikoa, a zelan azpiratu guri erakustefen, eleiz-erpiñera eroan zinduzanean aren bcso atsietan zeure burua iztea? Zelako ikuskizun, alabak, Eguzki au ilun arein alboan! Zein izukor joango zan doakabe a, zergaitik jakin ez afcn, Jainkoak ez bai eutson aituten emon! Gora daiguzan on ta efnki andi oneik. Gu kristiñauok bai Iotsa izan bear gendukela, esan dodanez, pizti satsu onegaz egunero gure Jauna bufukan ipintean!

Bai, Jauna, beso sendoak bear zenduzan; zelan etxatzuzan, bestela, makal geratu gurutzean jasan zenduzan beste ala ta oiñazez? Oi, maitasunez daroaguna bai ber-osatu arin! Biziak luzaroago iraun ba'leutzu be, nik uste, beste osagafi barik be, guri euskuzun maitasunak osatuko eutzuzan an egiñiko zauriak. O ene Jaungoiko! ta olako osakaia nok ipiñi leikean neke ta gurutze yatazan zer guztietan! Biziro opa izango neukez, bai, taiu ontako igortziki bikaiñez osatzekoak ba'litzaz!

6. Baiña, esandakora biurtuaz, arima batzuk ba-dagozala ba-daki Jaungoikoak, onela Beretzat irabazi leikezanak: ba-dakus, bai, Jaunak guztiz ta betiko ondatu daitekezan bidean, eta Arek eztau bere aldetik olakorik jazoterik gura, ta gaiztozko egoeran, onoimen barik dagozala be, poz-atsegin, maite-erakutsi ta eraspén samufak emon oi dautsez, arein arima-zokoetan ofela gurari onak eta sortu-azorik; oin-diño geiago: naita gitxitan eta une labufez begiztaldira be jasoten ditu nozean bein. Onela egin daroa, diñoenez, ia olako arimak eskefokaz safiago bere mesedeak gozartzeko gertatzen diran ala ez ikusi ta ziurtzeafen. Baiña ofela ez ba'dagie, ta euren arerioari parkatzeko prest ez ba'dagoz, orduan parkatu eiguzu Zuk, Jaun ofek; obeto esateko, naiko gaiztakeri da —baltza alan be!— Zu onako arima bafura etofi ta au gero, lurkoi danera itzulirik, ari erantsi ta lotzea. Ziur dakidanez, Jaunak arima askogaz egiten dau azterketa au, baiña gitxi mesede oni zearo erantzuteko gertau oi diranak; Jaunak onela dagianean, ba, ta guk zoztofik ipiñi ez —ni ziur nago—, A ezta aspertu oi guri eskefak emotean, otoitz-maila oso goikoa guri jaritxi-azo arte. Guk geure burua Aren eskuan, Berak berea gugan lez, itxi ba'dagigu, gu gogozko otoitzan itxi ta mastian lan dagien mofoiak lez noizik noiz ikertzen ba'gaitu be, naikoa egiten dau Arek. Besteok osterá, bere ume kutunak ditu ta eleukez bere albotik ufindu gura, ezta iñoiz ufindu be arima ofeik eztabe Jauna itxi gura-ta. Jafi be bere maira jarten dauz, ta Berak zer jan axe damotse arei be, Bere aotik ogia be, esan oi danez,

arei emoteafen, itxirik. Au bai, ene alabak, ardura eder! Gauza ufi ta beekoen ukapen au bai doatsu, gu ain gora jasoten gaituna! Ara, zer zuei, Jaungoikoaren beso artean bakez atsedendu ezkeru, mundua osoak efudun eginda be?

7. Altsu da Jauna. zuek edozertan jareiteko. *J3ein* bakafik mundua irazan (egin) zedila agindu eban, eta ofelaxe gerta zan: Aregan, nai ta egin, bat baiño eztira. Maite dauanaren on geiagorako ezpada, ez bildur izan, eztautse zuen kontra ezer esaten itxiko: maite dauazanak giartsu maite ditu. Geuk be, ene aitzak, zergaitik ez dautsagu erakutsiko, al bestean, maitasun beroa? Begira: Bereagaitik guk geurea emon, a zelako maitasun-truk edefa! Dana emon al dauskunari damotsagu guk geurea, guk Aren laguntza barik ezertxo be ezin dogunok. Zer da, baiña, Zugaitik dagiguna, gure Jaun eta Irazaille? Guk ez dagigu ezer, erabagi kaskafen bat artu izan ezik. Ezerez origaitik, baiña, Aren Anditasunak guk gauza oro merezi izatea gogo ba'dau, ori be Ari ukatuz ez gaitezkan zoro izan.

8. O Jauna! Zeugan begiak ez jostetik yatorkuz gaitz guztiak: gabiltzan bideari baiño ez ba'geunskio begiratuko, laster giñakez amaian; baiña milakatan jausten gara ta mi-lakatan afietan topo, ta gisa ofetan aldefai gabiltz, bidea galduta, egiazko "bide" Ofegan, esan dot, begiak tinko ez jarteagaitik. Bidea bafi egin oi yaku, bertotik iñoz iñor ibili ez ba'litzan. Egiaz, tamalgafi da nozean noz jazoten dana: albokoa baiño gitxiago izatea ezin dogu eroan, ezta eroangafi be antza. Santu ez gareala difioe gero.

9. Jaungoikoak gorde gaizala, aitzak, utsen baten jaus-tean, "ez gara aingeru", "ez gara santu" ta olakoak esate-tik. Izan ezta be, alegindu ba'gagiz, laguntza andia dogu. Jaungoikoaz, izan geintekezala jakitea. Guk geurea ba'da-gigu, ez bildur izan, Aren aldetik laguntasuna izango dogu. Esan dautzuedanez, ez bai gatoz ona beste ezertarako, ezar eskuak lanari. Ez bedi ezer, Jaunaren mofoitzarako oba dala dakigunik, Berak lagunduta, gogotsu ekin ta aufera eroaten azartzen ez gareanik. Etxe onetan, bai, ausartasun



au nai neuke nik, beti be apaltasuna aziagotzen dauana. Ixio beti kemen santu au, Jainkoak bada eztau giza-arpe-girik aintzat artzen, baifia bai sendoai lagundu.

10. Gaitik naiko aldendu naz, baiña bafiro biurtu nai dot len be niñoanera; au da, gogozko otoitza ta begizta -otoitza zer diran azaldu. Buruginkeria dirudi, baifia zuok nire edozertan uts-estali zarie. Ba-leiteke, alan be: nire baldan onetan idazkera jantziagoz baiño obeto ulertuko dozue. Jauna lagun bekit onetan. Olantxe.

## XVII

Guztiak eztira goi-ixurizko otoitzerako gai. Batzuk beranduan eltzen dira araiño. Egiazko apalak, Jaunak daroan bidetik, pozik ibili bear dau

1. Otoitzaren arloan sartzan asi nazala dirudi; baiña oindiñoakoafen zeozer esan bear dot, joan-etofi andiko gauzea bera, apaltasunaren goraberazkoa; ta apaltasuna beafezko dogu gure etxean. Emengo egikizunik andiena otoitza da, ta, esan dodanez, oso egoki dozue apaltasunean ibiltan jakitea. Ta apaltasunaren arloan, ona zertzeladatxo bat, otoitz-bidean dabilzantentzat argitu beafekoa: Benetako apalak zelan euki lei bere burua goi-argizko otoitzara eldu diranak baizen ontzat? Jainkoak, bere ontasan eta efukiz, ofenbesteko mesedea egin leio berari be; bai, orixe! Baifia ona nire esana: beti azkenengo lefokotzat euki bear dau bere burua, Kristo'k bere itz eta egitez erakutsi euskun lez. Bada-ezpadakoan, Jainkoak bide bikain ofetatik eroau nai? Ba, ordurako da apaltasuna. Zorionekotzat izan bei bere burua, Jaunaren mirabe izateaz; inpernuan deabruen

menpeko izatea merezi izanik, lagunarte onetara ekafi dau-  
ala-ta, goratu bei Jauna.

2. Eztiñot au geiagoko barik; Jaunak guztiok bide batetik eroan oi ez gaituna jakitea txit ondo yatorku, etofi be. Bear bada, beeragoko bidetik doalakoan dagoana goragotik doa Jaunaren begietan. Au dala-ta, etxe onetan guztiok otoitz egitera egon afen, eztira nai ta nai ez guztiak goi-argidun, eta izan beafik be ez. Eztanarentzat guztiz litzake atsekabegafi egi au ez jakitea, ori Jainkoak emona dala ez aitutea. Salbetako ezta noraezekoa, ta ez uste sariz emoteko edo eskatzekoa danik. Esan dogun guztia dagiana, ori barik be, gorengo mailak jo barik ezta geldituko; ba-leiteke, bafiz, neke andiagoz dabilelako, meriturik geiagi izatea. Jaunak sendotzat artzen dau ta emen ez dituen atsegiñak danak era batera gero emoteko gordetan dautsoz. Ez bei ofegaitik gogorik galdu, ez besteak egiten dabenik egiteke itxi. Iñoz Jauna beranduan agertu oi da, egin dogun danaren orde sari edefa, besteri urte askotan emona aiñe-koa, era batera emoteko.

3. Amalau urtez egon nintzan ni, zerbait irakufiaz batera izan ezik, gogozko otoitzik egin eziñik. Askori jazoko yake bardin; eta beste batzuk, liburua lagun dabela be, eztira gauza izango gogozko otoitzik, agozko otoitzaz beterik egiteko; aozko otoitz oferi ekiten dautse geien baten. Izan oi dira, gogoaren ezin egonaz, gauza bat gogoratzen ezin egon diranak be, ezin dabela iñon arterik artu; Jainko,j gogora ekafi nai ta ba-yoakie burua iñun diran irudi erotan, uskeri ta kezketan sartzen. Ba-dot neuk be ezagun bat, zafa cso, bizikera on eta latzekoa, Jainkozale andia; urteak daroaz aozko otoitzean egunero ordu asko emoten dituala, baiña gogozkorik ezin dau iñundik iñora egin; geien geien be, ehezetan dauan gitxika gitxaka gogoz auznartu, beterik ezin dau egin. Ta beste asko izan oi dira antzera dabJlízennk. Beoikzez apalik, eta ez dot uste azken baten atsegiñez beterik dabilzenak baiño azken txafagorik izango dabcnik; beste ofeik aiña izango dabe ta, alde batez,

areik baiño seguruago dabiltz. Zergaitik? Atsegiñak Jainkoak ala deabruak emonak diran ez dakigulako. Eta Jainkoarenak ez izatekotan, andiagoa da afiskua, deabrua afokeria sortzen aleginduko da-ta. Jainkoarenak direanean, orduan ez dago ardurarik; eta batera dakafe apaltasuna, beste liburuan luze esanda itxi neban lez.

4. Atsegiñk barik dabiltenak apalik ibili oi dira, euren efuz izango ete dan bildufez, beti aufera egiteko arduraz. Eurak ez-ta, besterik negar pitin bat egiten ikusi orduko, Jainkoaren aúfean eurak oso atzerago doazala-ta dagoz. Ba-leiteke, osterá, askoz auferago ibiltea. Negafak obak dira, baiña eztira danak utsik bakoak; apaltasuna, norbere buruaren ukoa, biotzaren askatasuna ta onangoak, seguruagoak dira beti. Ez izan, ba, bildufik; ez uste goi-argidun andien mailara eldu eziñik geldituko zarienik.

5. Santu andia zan Marta deuna, baiña ez diñoe goi-argidun ofeitakoa zanik. Gitxitzat daukazue andra zorioneko onen bestekoa izatea, ainbeste bidar Kristo bere etxean ostatuz euki, Berari bazkaiten emon ta Beragaz mai baten ezafi zan au aiñakoa izatea? Madalena lez birloraturik adi-adi egon besterik egin ez ba'leu, etxean euken Jainkoari maia apaintzekorik etzan izango. Gogoan izan Marta'ren etxea gure etxe au dala, ta emen danerik bear dala. Emen nekezko otoitz-bidetik doazenak ez beioe gaizki esaka eldu goi-argizko bidean birloratuta dabilzanai. Eurok ixilik egongo dira, otoitz-bide onek, geien baten, nor bere buruaren eta beste gauza guztien ardura kentzen daualako; baiña Jaunak urtengo dau euren alde.

6. Ez beie aitzu Jaunari jana apaintzekoen bear-izanik be ba-dala, ta zorionekotzat egon beitez Marta'ren zeregiñetan jardunaz. Ikusi beie benetako apaltasuna erakusteko era edefa auxe dala: Jaunak eurekaz zer egin nai dauan, arexegaz pozik egotea, Jaunaren mofoien izenik be eroateko ez dirala-ta. Bai goi-argitan izatea, bai gogozko nai aozko otoitza egitea, bai gaixoak zaindu ta etxeko beafak egitea ta beste lanik txatxafenetan jardutea, dana da Jaunaren

esanera egitea, gure etxera ostatur etofi ta berton egon, jan ta atseden artzera datofenaren mofoi-neskame izatea. Au olan dala, zer deusku guri eginbide au olan nai alan egin?

7. Eztifiot nik otoitz bikain ori barik geure utsegitez gelditu bear dogunik; zuek alegin guztiak egin bear dozuez. Ara eltzea eztago gure aukeran, Jaunarenean baiño. Ofaitiño, urte luzeak joanda, Jaunak zuetarikoen bat beerengo beafetarako gura ba'leu, apaltasun argia izango litzake zuona, besterik nai ba'zendue. Itxiozue etxeko Jaunari aukera; dana daki, dana daike, ba-daki zer dozuen on eta Berak zer dauan on be bai. Zeuen alegintxoia egizue, len esan dautzuedan lez, otoitz bikain ofetan sartzeko gertatzen, eta jakifiik egon: Berak mesede ori egiten ez ba'dautzue —benetako apaltasunik eta biotzeko askatasun osorik ba'daukazue, eztot uste ukatuko dautzuenik—, gero zeruan dana erabatera emoteko gordetan dautzue atsegin-sari ori. Beste bein esan dautzuedan lez, sendotzat artu nai zaitue, Berak eroan ebana langoxe gurutzea damotzuela.

8. Eta, ba ete da adiskidetasun-agiri andiagorik Beretzat gura izan ebana zeuori eskintzea baiño? Ba-zeitekean, bafiz, goi-argizko beste bide ofetatik sari ain andi au ez izatea. Jaunaren asmoak dira, guk ez daukagu eurak aztertzen zetan sartu. Gure aukerako gauzea ez izatea, ez mesede makala guretzat; baketsuago eritxirik guk goi-argidunen bidea naiko genduke guztiok. Au irabazia gurea, gure ustezko irabazi bila ez ibiltea! Emen ez dago ezer galtzeko bildufik; Jaunak eztau izten bere burua zearo ukatuta daukanak ezetariko galtzaiarik izan daian, geiago irabazteko izan ezik.

## XV! I I

Lengo gaiari jardunik, begiztatzailen nekeak eginkoñenak baiño mingotsagoak dirala diño. Au pozgafi da areintzat

1. Zuoi, alaboi, ta Jaungoikoak begizta-bidez ez darozaneñ neuk diñotzuet: ikusiz ta ikasiz dakidanez, zuek baiño gurutze ariñagoa ez daroela gofko bide ortatik dabilzanak be; gaiñera, Jainkoak gurutze ofeik nundik eta zelan emon oi dautsiezana ikusirik, afi eginda geldituko zintzakeze. Bietakoak ezagutzen ditut naikoa, ta Jaunak begiztaileai emoniko nekelofak eroan-eziñak dirala ba-dakit ondo be; eroan eziñak diñot, eta ofelaxe da: Jainkoak berak bere atsegiñez olakoak janaritu ezik, eleukiez ezetara be eroan al izango. Argi dago, Jainkoak maite dabezanak naitagezko bide zear darozala: maiteago ta Arek neke gorriagoz zapaldu oi ditu. Begiztatzailak Arek iguin ditula uste izatea, siñesgaitz yaku, Bere agoz goratu ta bere adiskideztat ezagutzen dauazan ezkeru, ta zentzun-bakokeria litzake, biziera guri-efezean bizi diranak Arek bere adiskidegoan artzen dauazala uste izatea: Jaunak, nik ziurtzat daukadanez, kutun ditunai askoz neke gafatzagoak bialdu daroatsez. Oneik daroazan bídea geienez sakosta ta latza dalako, batzuetan galduak dirala uste dabe, ta atzera biurturik bafiz artu bear dabela bidea. Aren Anditasunak ofelaxe emon Dear dautsoe edari ozkifia; *ma* barik, *ardaoa*; jainkozko edari onegaz mozkor, sorgor ta ezer asmau barik, eroan al dagien neke ori. Era onetan, gitxi baizen eztira egiazko begiztatzailen artean, edozein neke-gurutze eroateko gogoz ta kementsu eztagozanak. Berez aulak ba'dira be, Jaunak adorea sartu oi dautse biotz-mamiñean, oiñaze-samiñai buruz ikaratu ez daitezana.

2. Nire ustez, bizitz egile edo eragiñezkoan diarduenak, bestelakoak, au da, otoitz bikain zaleak nozik-bein

olako pozaldiak dabezala ikusiaz, beti ofelaxe dalakoan dagoz; alan be, zuoi eki.n zaleoi neuk diñotzuet, bear bada cgun soil batean be etzariela gauza bcste ofeik lango nekerik eroan al izateko. Jaunak ba-daki, bai, gutariko bakotxa zertarako dan gauza, ta bakotxari emon oi dausku, geuretzat egokien, Beretzat edefen ta urko lagunarentzat onen dana. Ta zuetakoren bati arlo bereziren bat egokitu ez ba'dautso be, alpefeko lana dagiala-ta, ez daitela bildur izan. Ar gogotan dirautzuedan au: Jaungoikoaren zerbitzari gara emen guzti-guztiok, eta Agazlco zeregiñak zeatzik zeatzen bete bear ditugu, ta ez urte betean edo bitan, ezta amafean be, geure betebeafak koldar egin barik izteko. Egoki yaku. beraz, ez gareala zabar ta itxiak geure Jaunari aitzen emotea. Guda edo gefate batean, nai bufukatu nai bufukatu ez, euren lan-saria artzen daben gudari antzera izan bear dogu guk; areik, luzaro euren arloan egon afen, euren nagusiak nora bialdu araxe joateko beti gertu ta prest egon bear dabe, euren saria be izango dabe-ta. Gure Efegek, oster, lufekoak baifio askoz obeto ordaindu daroa bere zofa!

3. Gudari-buruak, bere mendekoak ikuskatzen dauz bakotxa bere egitekoan; gaiñera, bakotxa zertarako gai dan dakialako, ari au ta besteari a, bakotxari bere zeregiña izentatu oi dautso; baifia mutil areik guda-oiñean ez ba'leukoz, eleuskioe ezer ez aginduko ez ordainduko. Ofetakoz, aiztak, ekin gogozko otoiari; ta au ezin dauana, bebil aozkoan; gero esango dautzuedanez, irakufiz ta Jainkozko alkar-izketa samufez, jardun bei ofetan. Zeuen otoitzarako orduak, ez itxi iñoz be: Senar maiteak ez dakizue noz deituko dautzuen, ta jazo leikizue neskatx ergelena. Ba-leiteke gure Jaunak zuoi be, bere poz-adiguriz estalita, olako gurutz astunen bat leporatzea. Ofelakorik ez ba'legi, eztozuela balio jakizue begizta-bizitzarako, eraginkoferako baizen. Era edefa egokituko dautzue onek, apal izanik, ainbat irabazi ta merezimentu eskuratzeko, daukazuen arlo oftarako be etzariela gauza bene-benetan uste izanaz. Ibili beti alai, agin.du daitzuen zintzo buruturik, eta bidezko apaltasunez

ba dabil beintzat, zoriontsu bizitz eragiñean dabilen Jainko-mirabea, bere buruaz baiño ez baitau marmarka jardungo.

4. Besteak laga beiz euren bufuka-zelain, neke txikiá be ez da-ta. Ikufiña daroenak —buru bai dira—, bufukaldian eraso ez afen, afisku anditan jarten dabez euren buruak, eta, ikufiña daroen ezkerok, beste guda-saileko guztiak baiño kementsuago jokatu beafa dabe; euren buruak ezin dabez ez zaindu ez aldeztu, ta ikufiña zati-zati ba'dagitsoe be, ezin daikee eskutik itxi. Taiu ofetan, arima jainkotiak be, goi be goi eroan bear dabe apaltasunezko ikufiña ta eikeezan zartako guztiak epez eroan, eurak bat bera atzera biurtu barik gero; euren jardunbidea, ba, Kristok egin ebanez sufridutea da; gurutzea, afiskuan aurkitu afen, egundo eskutik jausten itxi barik, goi-goi eroan bear dabe; iñok ez dagiala areingan sufriduteko koldarkeririk oartu edo ikusi; ofetarakoxe bakafik emon dautsie egiteko ain garai ori. Ola-koak, beraz arduraz ibili bear dabe, ikufiña itxi ba'dagie ba bufuka aretako ekiña galdua da. Bardin antzera, nik uste, ain auferatuta ez dagozan arimai kalte andia yatorke, nagusi ta Jainkoaren laguntzat daukiezanetan euren arazoak eskatzen dautsen lango egiñik ez ba'dakuse. Enparau gudáriak, jakiña, al daben lez doaz: iñoz bein bufuka-zelaitik iñok ikusi barik aldegin afen, ez bizirik ez dedurik eztabe gal-tzen; ikufiña daroanagan, osterá, begi guztiak dagoz zoli, ta konturatu bage ezin iñundik iñora be ariñari emon. Arazo au benetan sotil ta argia da, dedu ta mesede andia dagitso efegeak berau damotsanari, bai ta au artzen daua-nak erantzukizun edefa bizkaferatu be.

5. Ofegaitik, ba, aitzak, zer eskatzen be ez dakigun ezketiño, Jaunaren eskuetan itxi daigun dana, geuk baiño obeto bai daki Arek guk zer bear dogun. Apala dan biotza pozañen dago emoten yakonagaz, b'aiña ba'dira batzuk —zuzenez zor bai leutsoezan— Jainkoari mesede ta adiguriak eskatzen dautsoezanak. Olakoen apaltasuna! Gauza guztiak ezagun dabezanak, bada, ondo dagi —eztot uste safi dagia-nik—, Aren edontzikoa edateko gai eztiran ezkerok, olakoai

olakorik ez emonaz. Auxe dozue, alabak, aufera goiazan ala ez ezagutzeko biderik onena: bai jardunez bai barne-ustez aitzen emon bei danetarik atzenena dala, beretzat eta besteentzat onbidean auferatzea beti nai izan ta bilatuaz. Auxe dozue, bai, bide artez ziuña, eta ez arek edo onek euki leikezan otoitzaldiko gozotasunak, sorgortasunak, ikuskariak, naiz Jaunak egin daroazan edozetariko mesedeak; onein balioa ezin geinke, beste mundurarte, artez ebatzi. Beste ori, ofaitifio, diru ibilia dozue, geratu bako etofia, betiko jarauntsia, ta ez nozbait amaitzeko artuena, kendu ta ipintekoa. Difiotzuedana auxe da: apaltasun andia beafezko dogu, ildurazaletasuna, nagusiak emon aginduak zeatz betetako esangintasun zindoa, Jainkoak berak agintzen dauskula ba-dakigu, ba, nagusia Aren ordezko dogu-ta. Gorarik andikoena dogu menpekotasuna; onetan muker dabilena ez baita moja benetako, onetzaz eztiñot tautik geiago; mojakaz diardut, ba, ta onakaz, nik uste, edo beintzat onak izan nai dabenakaz. Birtute onetzaz, alan be, gora ta ondoren agirikoa da-ta, zerbait esan nai dautzuet, aiztu ez dakitzuen. Ezin dot nik aitu, menpekotasun-agintza eginda berau al-bait ondoen betetako arduratzen eztana, zetarako dagoan komentuan. Au diñotsat olangoari: onetan uts dagian bitartean, eztala egundo be begizta-egoerara elduko, ezta bizitz cragikofa ondo eroatera be; onetan bai, ziur nago. Ortara beartua ezta be, begiztatzaille izatea gura ba'dau, edo beintzat ortarako al dauana ba'dagi —artez ibilteko naitaez—, bere naimena autofentzule benetan ikasia dan baten eskuetan itxi bear dau oso osorik. Onela zuzendutakoak, bada, urte betean geiago auferatuko dira, bestela luzaroan jardunak baiño. Zuori, baiña, ez dagokizue au, ta eztago onezaz are geiago luzatu beafik.

6. Azkenez, ba, onexek dira nik zuok eukitea gura dodazan birtute ta onoinenak; bai, ene alabak, alegindu zaiteze eurok lortzen, eta alkafen leian santuki alegindu be. Ez miñik izan, otoi, beste eraspén ofeik euki ez afen, ez baitira seguruak. Naita besteetan Jainkoagandikoa izan,



zuotan, Aren Anditasunak ofela gura-ta, deabruaren lilura besterik ezta izango, ta ziria sartuko dautzue, beste batzuekaz be beste ainbeste egin dau-ta. Zergaitik ibili afiskuetan, ainbat bide seguru eukirik? Nok sartzen zaitue onako galzoretan? Gai egoki yatzuela ba-dakidalako, lartxo luzatu naiatzue berton; berez gara gu makalak, baiña Jainkoak berak begizta-mailara jaso gura dauana indartu oi dau. Araiñoko deirik izan eztabenentzat, pozik jafi dodaz nik oarkizun, abisu oneik: begizta-bizitzara deitutakoak be, apal izatera, onek bizkortuko ditu nunbait. Dana dalako, gure Jaunak emon beisku argia edozertan, ezeren bildur bage, Berari jafaítu daiogun.

## XIX

Otoitza zer dan adierazoten asten da. Adimena erabilteko gai ez diranentzako irakatsiak

*1.* Egunak dira aufekoa idatzi nebala, ta jafaitzeko asti barik egon naz. Ostera irakufi bearko neuke, zer niñ oan jakiteko; baiña astirik ez galtzeafen, aufera noa, abespeluan bada be. Adimen argidunentzako, artara zerbait egiñik egon eta bakafik egoteko gai diranentzako, ba-da liburu edefik, gizon argiak egiñik; au dala-ta, oker andia litzake otoitz gauzetan zuok nire esanari begira egotea. Or dozuez, diñodan lez, liburu ofeik; eurotan dozuez, sailean jafita, aste bafuko egun baktotxerako gogarte-gaiak: gure Jaunaren bizia ta eriotzea, azken-epai edo juizioa, inpernua, gure ezer-eza, Jainkoari dautsogun zor andia, dana ederto zeaturik, otoitza asi ta amaitzeko era ta guzti. Olango otoitza egiteko

erea ta oiturea artu dauana, esan beafik eztago, Jaunak bide eder ofetatik argi-porturaino aterako dau. Asiera eder ofegaz azken edefa izan bear. Bide ofetatik dabilkenak atsedenezko ta bildurbako ibilkerea dauko; bere adimena, zeri eldu daukala, neke barik dabil.

2. Baiña, Jainkoaren laguntasunaz neuk be zerbait esan eta argibide batzuk emon gura neukez arima batzuen-tzako, edo beintzat jakiñerazo zuori arima askok igaroten dabezan nekeak, zuok be neke bardiñetan zagozenezan ki kildu ez zaitezten. Ara, ba: izan oi dira arima ta buru batzuk guztiz legebako ta urduriak, zaldi ezi bakoak diru-diela. Eztago eurak geldi eukiterik; ara ta oia dabiltz, beti artega. Berez izan alangoxeak, edo Jainkoaren baimenez artaratu. Efkua dautset nik. Egin daigun egafiz ito-aiñik dagoan batek ufiñean ura ikusi ta bertara nai ta baten batck beti bide guztiak izten dautsozala. Olangoxeen antza artzen dautset nik arima onei. Iñoz jazo oi yake, nekearen nekez, lenengo arerioak goitzea; baiña ufengoan azpian jausten dira, naiago dabe egafiz il ainbesteko nekea emoten dautsen ura edan baiño. Uko egiten dabe; gogoa ilten yake. Beste batzuk, bigafen arerioak garaitzeko gauza izaten dira, baiña irugafenen aufean txil egin daroe; ta, bear bada, oinkadatu bi, pausu bi emotea besterik ez eukela, Jesus'ek Samaria'ko andreari aitaturiko itufian egoteko, "bein edan ezkeru egafia betiko kentzen dauan" ur bizia edateko.

3. Eta, izan be, auxe bai egia, Egia bera danaren agotik urtena! Ur ori edaten dauanak eztau izango, ez, lufeko ezeren egafirik. Zeruko gauzetarako egafia bai, ori gero ta andiagoa egiten yako, gorputzaren egafitik asmau geinken baiño askozaz andiagoa. Zelangoa da, bafiz, egafi ofek emoten dauan egafi-gurea ! Arimeak ba-daki bere balio andia. Ito-beafekoa da, baiña berofek dakar berori kentzeko asegafia, ez gaitu ilten lufeko gauzetarako izan ezik, eta bafua guztiz aserik izten dau. Augaitik, Jaunak egafi ori asetzen dauanean, arimeari ezin leio mesede andiagonk egin

egafi berberofegaz iztea baiño. Ur onek, edanago ta ega-  
fiago izten dau beti.

4. Nik orain gogoratzen ditudala, urak ba-ditu iru egikun; geiago be ba-ditu, aurki, baifia iru dira orain nire artra datozenak. Lenengoa, bero kentzea. Berorik andie-  
nean be, uretan sartu ezker, beingoan yoaku; su andirik ba'da, urak amatauko (itzungiko) dau; pikezkoa ez ba'da beintzat, orduan suak piztuago egiten dau-ta. Ene Jainkoa! Afigafia benetan sua uraz biztuago egitea. Ori bai sua, su bizi indartsua, ezerk goitzen eztauana, urak be, bere galgafi izanik, galdu barik biziago egiten dauana! Ondo etofiko litzakit emen Filosofia dakian bategaz jarduteko era ba'neu, gauzen bafuko guna jakiñik, neure gogoia obeto azaltzeko. Uraren irudi onek ez titan nauka, baiña ez dakit adi-erazoten, eta, bear bada, neuk ulertzen be ez.

5. Jaunak ur au edaran daizuenean, ene aizatxoak, orain edaten dabenak bestean antz emongo dautsozue emen diñodanari. Orduan ikusiko dozue Jainkoaren maitasunak mundua ta munduko zer guztiak mendean dituala, beintzat bere indafean ba'da, lufeko gauzak gogoari zearo itxiazko ta guztien gaiñetik egaz eragitekoa ba'da. Eztago lufeko urik, ez bildufik izan, Jainko-maitasun onen sua iltekorik; alkafen galgafi dira, baiña ezta bata bestearen eskuko. Maitasun ori bere eskuko da, ez beste su ofen aspiko. Ez afitu, ba, aitzak, askatasun ori lortzeko liburu onetan ainbeste zirika egin ba'dagitzu.

6. Ez al da gauza bitxia Jaundone Josepe'ko mojatxo batek mundua ta munduko guztiak bere eskupean euki al izatea? Eta asko al da santuak gauza guztiekaz zelan nai ta alantxe jokatzeko? Martin deunak sua ta ura bere senera euki oi ebazan; Prantzisko deunak txori ta aiañai agintzen eutsen, eta bardin beste santu askok be. Ezagun zan munduko gauza guztien jaun ta jabe zirana, mundu ori ezesten ondo jokatu ebelako, ta euren egiñalean gauza guztien Ja-bearen mendean jafi ziralako. Baiño esango dot, ba, ez dagoala lufeko surik Jainkoaren suari geiago egitekorik;

onen gafak goregi doaz, eta sortu be, ezta emen beeko gauzetan sortzen ez ixiotzen. Beste su batzuk, Jainko-maitasun epelago batek ixiotuak, edozek itzaliko ditu; baiña beste au, iñundik iñora be ez. Tentaziño itxaso guztiak gaiñera etor'ita be, gafetan iraungo dau, guztiak amatauko ditu.

7. Gaifiera yatorkona zeruko ura bada, ostera, gitxiago amatauko (itzungiko) dau; eztira orduan alkafen arerio, efi batekoak dira. Ez dautse alkafi kalterik egingo, ardura barik egon; batak besteari lagunduko dautse. Egiazko otoitz-aldian sortzen diran negar-urak, Jainko Efegek emonak, suari indar andiago ta luzeroragokoa emoten dautso, era batera sua uraren otzgafi dala. Ene Jainkoa! Sua uraren otzgafi! Gauza afigafiagorik eta ikusgafiagorik! Eta otzitu ez-eze, leitu be egin oi da. Bai, munduko maitakeri guztiak izoztuten ditu su ofek, zeruko ur biziaz batera dautofenean, aitatu diran negafak zeruko itufi ofetan sortuak, guk geure alegiñez atereak, barik Jainkoak berak emonak diranean. Bene-benetan, su ofek munduko gauzetarako bero guztia kentzen dautso arimeari, ez dautso izten begi-biotzik ezetan jarten, danari bere sua ezarteko ezpada; onetan bai eztala utsak asetzekoa, al ba'leu mundu osoa gafetan ipiñiko leuke.

8. Uraren beste egikun bat: loiak garbitzea. Urik ez ba'litz, zer izango ete leiteke mundua lofen loiez? Gure ur bizi onek, ur zeruko onek, ur garden onek, ezetariko afetasunik ez loirik ez daukanean, zerutik jausia danean, ba-dakizue zelango garbiketak egiten dituan? Bein edanaz beste barik, gauza ziurtzat daukat, arimea dana garbi ta bape zor barik izten dauala. Beste leku baten be esanda daukat: ur au edatea eztago gure aukeran, Jainkoagazko alkartasun eta batasun au dana goitikoa da-ta; ofegaitik ez dautso Jainkoak arimeari ur ori edaten emoten, dana garbi ta pekatuen loi ta zitalkeri guztiak kentzeko baiño. Beste gozotasun batzuk, adimenaren alegiñez ekafiak izanik, gero ta gero be loiaren gaiñean nafas doan urak ekafien antea

dauke, ez itufitik arako urarenak: euren bidean ezin egon loirik arean ikutu barik, ez datoz ain garbi ta garden. Adimenaren ekitez egiten dan otoitz ori eztoz izentetan emen ur garbiaren izenez, eztaukat aintzakotzat. Alpefik izango dira gure alegiñak; guk nai ezta be, beti eratsiko yako or arimeari, gure gorputzaren eta txatxar izatearen egitez, guk nai ez geunken bideko saskeritxoen bat.

9. Zeatzago adierazo nai dautzuet neure gogoia. Egin daigun, mundua iguin izan naiez, mundu ori zer dan eta bertako gauzak zelan amaitu-beafezkoak diran gogoan auznartzen diardugula. Ia igafi barik, atsegingafi ditugun gauzetan murgildurik aurkitzen dogu geure burua. Gogotik kendu naiez asten gara; baiña ortxe be atzera-bidetxoa badaukagu, zer dan edo zer eztan, zer egin dogun edo egin bearke dogun, pentsetan edo geure gogoari esaten. Ofetara, munduko galbideetatik urtetako bidearen bila gabiltzala, bertan sartzen gara bañero. Ori be ezta egin barik iztekoa, baiña zur ibili bear da, ta ez egon lo. Beste goiko otoitz-bide ofetan Jaunak berak artzen dau gure ardurea, ez gaitu gure pentzudan itxi gura, ain dau maite gure arimea; mesede au egiten dautson bitartean, ez dautso izten kaltegefi dabezan gauzetan sartzen; bertatik bere ondo-ondoan jartzen dau, ta unetxo baten guk emen urteetan ikasi ala baiño egi geiago irakatsi ta edozetan argi geiago emoten dautso. Gure begiak ez dagoz eurenez lauso barik, bidean joan ala, bideko autsak itsututen gaitu; baiña otoitz bikain onetan Jaunak berak garoaz bidaldi guztian, zelan ez dakigula.

10. Uraren beste irugañen egikuna egafia ase ta kentzea da. Zer da egafia? Bear-beafezkoa izan eta bape ez ba' dogu ilik izten gaituan zerbait gura izatea, orixe da niretzat egafia. Gauza bitxia, bape euki ezean il egiten gaituala, eta lafegi izanean be, bizia kendu beafa! Eztira, ba, asko urez itota ikusten? Ene Jauna, nor legoken ur onetan, bizi au galtzeraifio murgildurik! Ez al da jazo leitekena? Bai, orixe; Jaunaren maitasuna, Jainko-gurea, gorputzak jaso ezin alaku

neufian azi ta geitzea jazo leiteke, ta iñori jazo yako olan-  
txe iltea.

II. Nik ezautzen dodan bati bardin jazoko yakon Jaunak lagundu ez ba'leutso, albait ariñen ur bizi ori ibaika emonaz, eta olan konortea galduazo ta ia bere gorputzetik atereaz. Jaunak ia bere gorputza itxiazo egiten eutsola diñot. Egin-egiñean be, ofexegaz asazketan yako ba'fua. Mundua onez ezin eroanez ito-bea'fean, ba-dirudi Jaunak arimea berbiztu egiten dauala. Jainkoak egiten dau gai arimea, beronen izatean dala il barik ezingo ebana gozatzeko. Gure on guztizkoa dogun Jainkoari ez dagokio guztiz ona ezta-nik ezer emotea; ortik atera bear dozue Berak enioten dauan guztia gure onerako dala; bere uretik emon alean emon áfen, bere emonean ezin leitekela izan la'fegirik. Asko emon ba'daroa, gure ba'fua be asko edateko gai egiten dau; leiar-egileak, berak ba'fuan sartu gura dauan bestekoa egiten dauan lez ontzia, alantxe emen Jaunak be. Jainkoa-naia, gure ba'fuan sortua dala, iñoz be eztago utsik bage; on-usaiñekorik ba'daroa, Jaunaren eskutik datorkiona dau. Baiña nai ofek emoten dauan miña ain biguna ta atsegiña da-ta, gure ase-eziñak, geiago ta geiago gureak zoratzen gaitu; neufi barik jaten dogu, gure gurari ofi egiñalean laguntzen dautsogula, ta olantxe ilten gaituala. Zorioneko iltea, olango arimearena! Baiña, ofaitio, biziaz, bear bada beste batzueri lagunduko eutsen ilbea'feko gurari bardiñak eukiten. O'fa, nire ustez, zergaitik sartzen dan emen deabrua; olango arimak, biziaz, egin leioen kaltea ba-daki; ori dala-ta, zentzunik ez neufirik bako laztasunak afazoten dautsez, osasunaren kaltetan. Ezta irabazi makala ori beretzat.

12. Egafi ain itoa daukanak, tentaziño ori euki lei-ta zur ibili beafa dau. Egañ ofek il egiten ez ba-dau be, osasuna galduko dau beintzat, eta berak gura ez-ta be, nabarbenkerien batzuk egingo ditu, ta oneik, iñondik al dala, galazo egin bear dira. Batzuetan alpe'fekoak izango dira gure alegiñak, ezingo dogu gorde nai dogun guztia. Egon gaitazan, ba, zur; gora-naizko min andi oiieik gogor joten

gaituenean, ez deioegun su geiagorik emon, ausi daioegun polito-polito euren aria, gogoa beste zeozetara biurtuz. Gogoan izan bear dogu geure izakereak be iñoz goi-nai ofek aña indar erakutsi leiela; ba-dirala, izan be, edozein gauza, txafa izanda be, euki-bear gofiaz nai izaten dabenak. Euren buruak osoan ukatuta daukezanei ez yake, nire ustez, olan-gorik jazoko; norbere buruaren ukoa danerako da on. Ero-keria dirudi ain gauza on bati legea jartea. Ezta, baiña, erokeririk. Nik eztiñot goranai ofeik kentzekorik, neufia ipiñi bear yakela baiño. Ta ba-leiteke, gurari ofi beste bide bat emonaz, arimeak irabazi bardiña izatea.

13. Neure gogoa argiago agertzeko, zerbait geitxoago esan nai dot. Ba-yatorko arimeari, esaterako, bizi onetatik urten eta Jainkoagaz egoteko gurari ifitu bat, Paulo deunarena lango bat. Min ofegaz, atsekabe atsegingafi ofegaz dago dana. Zelango buru-ukapena bearko ete dau gurari ofi atzera eragiteko? Ta, guztiz guztiz, ezingo dautso eragin be. Iñoz, burutik eragiteko bestekoa izan leiteke estualdia. Antxiña barik ezagutu dot nik arima bat, berez biotz-gartsua, ta bere burua ukatzen oitua. Nik uste, gauza askotan agertzen eban lez, guztiz menperatuta eukala bere burua. Urli ori, bada, burutik eginga lez ikusi neban bein, une baten beintzat, bere Jainko-miñaren miñez ta min ori ez iragarteko egin ebazan indafez. Olako estualdi gofi baten, diñot nik, apaltasuntzat daukot, Jainkoagandikoa izan afen, ez ete dan bildufez egotea; eztogu uste izan bear gure maitasuna gure gogoa ofenbesteko estualdian jartekoa danik.

14. Are geiago: al dauala —beti ezingo dau-ta—, nire eritxiz, eztau txarto egingo gurari ofei beste bide bat emoten ba'dautse; esaterako, bere buruari esanaz: bizi dala, Jainkoaren alde lan oberik ez ete dauan egingo, bestela galdu-beafekoa zan arimaren bati argi pitintxo bat emoteko erarik izango ez ete dauan, eta lan geiago egiñaz, Jainkoaren ondoragoko izango ez ete dan; eta, oindiño, zerurako lan gitxi egin ez ete dauan bildufean sar bedi. Pozgafi oneik eztira txafak olango estualdieratako; gogoak bere atseka-

bearen aringafi onak izango ditu ta asko irabazi, Jaunaren tzat lan geiago egiteagaitik, emen bere atsekabeakaz bizi tzera jarten dalako. Pozgafi bardiñak emon oi yakoz estualdi edo atsekabe astun bat daukan edozeifii: epea artzeko esaten yako, Jainkoaren eskuetan jafi daitela, itxi daiola Ari beragaz naien dauana egiten, Jaunaren borondateaz bat eginda egotea dogula danetan egokien eta ondoen.

15. Gaiñera, ba-leiteke Jainkoa-nai andi ori deabruak ipiñia ízatea. Kasiano'k ez diño deabruak, bizitza latza bai latza erorian antxiñako padar bati, burua osin andi batera botatea sartu eutsola buruan, ofetara Jainkoa lenago ikusiko ebalata? Nire ustez, ofaitio, padar ori etzan ibili Jaunaren bidean ez apalik ez zintzorik. Leiala da Jauna, ta ez eban gauza ain argitan ofen itsu nai. Jainko-nai ori Jaunak emona izan ba'litz, gauza argia da ez eutsola gatxik egingo; jainkoarenak beragaz dakar argia, zentzuna ta neufia. Au egi utsa da; baiña gure arerio onek, ifiundik al ba'dau, gure kalterako alegiñak egin daroaz, eta bera lo ez dagoan ezkerero, guk be eztaigun lorik egin. Aldi askotarako dozue egia au gogoan eukitekoa; esaterako, eztitan egon afen, noizik beiñean otoialdia laburtzeko, gorputza indarga geratzen edo burua arintzen asten danean. Danerako bear-beafezkoa dogu zentzuna.

16. Azkenean artzeko saria bufukea baiño lenago erakutsi nai izan dautzuet, zeru-itufiko ur bizi au edatera eltzetarak dakafen ona adierazo dautzuedanean. Zer dala-ta uste clozue egin dodala au? Bideko nekeak eta eragozpenak estutu ez zaiezan, gogatsu ibili ta nekatu ez zaitezten. Esan dautzuedan lez, jazo leitekezue, itufi ondora elduta, auzpez jartea besterik eztozuela, dana bertan-bera itxi ta ondasun au galtzea, araiñoko indafik ez dozuela-ta, atarako gauza etzariela-ta.

17. Ara, ba; Jaunak guztioi egiten dausku dei. Egia bera dogu, eztago Aren esana erdizka edo ezbaika artzerik. Bere maia guztientzako ez ba'leu, Jaunak ez leuskioe guztiei dei egingo, ta guztiei dei eginda be, ez leuke esango: "Eda-



ten emongo dautzuet" (Jon. 7, 37). Esan eukean: "Erdue, guztiok, eta, edozelan be, eztozue ezer galduko, ta Neuk deritxadanaí edaten emongo dautset". Olako baldintza barik, guztiai emongo eutsela esan eban; ofégaitik, nik gauza ziurtzat daukot, bidean opor egiten eztaben guztiak edango dabela ur ori. Alan agindu dauskun Jaun ofek berofek, Bera dana dalako, emongo al dausku ur ori bear dan lez bilatzeko grazia.

## XX

Otoitz-bitlean, antlik edo emendik, beti daukaguz pozaldiak. Ortaz beite, aspertu barik, lekaiméen autu ta izketa

1. Alkar-joka, buruz-buru dagozala dirudi nik lendik esana ta azkenez aufeko atalburuan irakatsi dautzuedana; begizta-mailara eltzen eztiranak poztuteafen edo, Jaunak, zeruan bizileku asko lez, arimak Beraganatzeko berein bide daukazala esan neutzuen. Eta bafiro difiot orain: Aren Anditasunak, Jaínko danez, ezagutzen ditula gure argaltasunak eta aufetiaz izan ebala gure ardura. Ez eban esan, ofaitiño: "Betoz batzuk emendik; besteok, bafiz, bide ortatik." Guztiz efukitsu da-ta, ez eutson iñori be galazo bizitz itufi ontara eldu ta egafia arintzen saiatzea. Goratua bedi beti-betikoz! Arek bai efazoi naiko, olakoa niri galazoteko!

2. Alan be, ni ara lenengoz uferatu nintzanean, ori galazo ezeze, bertan ain sakon bafura murgildu nindun ezkerro, ifior be eztau antza ortatik aienatu gura izango. Sorburu ortara deiez daukagu euki be, abots zolitan. Jakiña.

on utsa da-ta, andik edatera ez garoaz indaíez, baiña era ta modu askotara emon oi clautse edaten Berari jafaika doakiozanai, iñor ez baitau andik naibagez bialdu nai, ez eganz ikcrik gura. Itufi jori ontatik, gaiñera, beste efekasto batzuk darioe, oneik andi, areik txiki, eta noizik noiz apakin ta ur-zulo pitxiñak umeentzako langoak: lar yakoe ori, ur andi ta askoak ikara sartuko leuskioe-ta; ume antzeko oneik, oindiño asi-bafi dagozanak ditugu. Bete-betean zagokeze, ba, aitzak; ez bildufik izan, otoitz-bide onetan etzarie egafiz ilgo. Atsegin-ura ezta egundo be ofen eskas, ufi ta eza, ots, egafia eroan eziñeraiñokoa. Au onelaxe dozue, bai, ta jaso clamotzuedan abisu au: etzaitze bidean luze egin, gizonkiro bufukatu baiño; etxe onetara bufukarako bakafik etofi ziñien ezkeru, jokatu gudazelaian azken-arnasa emon arteraiño. Bide azkena atxitu barik lotu baiño il lenagoko asmo zindoz ekin ezkeru, laster dozue ibilaldia burutu. Ta bizitz onetan Jaunak bein edo bein egarbera ta igar ba'zaroaze be, betiraunean emongo dautzue oparo, ta iñoz paltako ete yatzeneko bildur izpi barik emon be. Eder bekio Jaunari guk ez claiogula utsik egin! Olantxe.

3. Orain, bafiz, ikusi daigun esandako bide au zelan asi. Bai, gora andikoa da-ta, asiera-asieratik oker ibili ez gaitzean, zerbait esan daigun onetzaz: gauza bakotxa, ba, ardatz onen gain dabilela derist. Emen esango dodan otoitzean irauteko erabagi barik be, eziñot onetan astea egoki eztanik, gure Jaunak berak mailaz-maila osoagotu oi dau-ta. Otoitzak indar andia dau bere kautan, ortan daragoionak ezpei iñoiz izan, ba, ezer galtzeko bildufik: oinkada bat, pausu bat besterik emon ezta be, Jaunak ez dautso ederto ordaintzeke itxiko. Parkapen-garaudi antzera dogu, esate baterako; baten efézau nai esanez irabazten doguz parkapenok, safi esan ezkeru, irabazi be geiago; baiño induljentzi-gailu ori, aldean erabili ta efézau beafean, kutxa baten gordeta ba'daukagu, olakorik ez eukita be ez genduke ezer galduko. Bardintsu, naiz-ta otoitz-bide ofetan gero iraun ez, ber-

tan ibili eitekean gitxi ofek be argia emongo dautsa beste gauza batzuetarako, zenbat eta geiago auferatu ugariago emon be. Labur, olakoak euki beie ziurtzat, bide-aste ofek, gero itxita be, ez dautsela ezetariko kalterik astinduko: onak ez dakar iñoz esateko txafik. Ortik, ba, alabak, zuokaz artu-emona daukienetan otoitzerako joera edo zaletasunik ba'dakusue, onakoak asieran batez be izan leikien izu-ikara euretatik aienatzen alegindu zaitez. Jainko maiteafen es-jatzen dautzuet: zuen kanpokoazko ar-emona beti bedi itz dagitzuenen onerako. Zuen otoitzak be arimen probetxurako izan bear dau; eskatu, bai, onekaitik Jaunari, ta eten barik eskatu be: motza dirudi, aitzak, guk noznai ta zernaitan ofela ez egitea.

4. Aide ona izateko, auxe egizko txeratasuna: adis-kide zintzo izan gura-ta be —jakizue—, auxe dozue ortarako bide bakafa. Zuen biotzetan azi ta bebil, bear lez, gogartearen bitartez jaritxitako egia, ta urko laguna zelan maitatu bear dogun argi be argi ikusiko dozue. Onezkero ezta, aitzak, ume-jolasetarako garaia, ta munduko adiskidetasanak, onak eta guzti be, ez dirudie besterik. Ez zeuen aideakaz, ez beste iñogaz, ez erabili zoro antzeko izketa: "Maite nozu?" "Enozu atsegin?" ta olakorik, nor-edo-noren onerako ta asmo onez edo, izan ezik. Noizik-bein zeuen senide, anai edo beste norbaitek entzun ta diñotsazuen egia aintzat artu daizuen, ba-leiteke olako itz eta maite-ezaugafi batzuk, gure biotz-ifitsari eder yakozanak beti be, erabili bear izatea. Itz samur ta bigun bat, bear bada (ta ofelaxe begitantzen yake) zuk Jaungoikoaz esan zeinkeoezan anitz baiño ezti edefago yake: gerora, bafiz, onela gertatutakoan, zaletuagoturik eukiko dozuz jainkozko gauzatzazko zure berbak entzuteko be. Ez dautzuedaz, ba, galazoten olako 'txera-erakutsiak, asmo onez erabili ezkerok; ofela ezik, ostera, ezeren onik ez lekartzue ta bai kalte ugari zuok igafi barik. Ea-dakie lekaima zariela, otoitza beraz zuon arazo. Ez esan zeuon kolkorako: "Ni iñok ontzat joterik, eztot gura." Dana dala, on naiz txar, zuokan dakusana,

orixe artuko lagun urkoak. Eta lotsagafi litzakizue, lekai-me-zufian, Jaungoikozko gauzak besterik zeuen autuetan ez erabiltera beartuta zagozenok, ofetara egitetik atzertzea, bein edo bein, bestela baitakoan itzeginda, obariren bat aterateko asmoaz edo izan ezik. Jainkozaleai yagokena bedi beti zuen gizabide ta izketa. Ta auxe berau jaritxi dagíela zuekaz artu-emona euki naí daben guztiak be; zuok, alan be, ez ikasi ezer, ez artu ezer mundukoengandik: inpernua litzakizue.

5. Gaizki-azi ta baldantzat ba'zaukiez be, zuoi zer? Azaluts eritxita be, bardin, mesedegafi baifio ez. Zuon izkera dakienak baiño etzagiezala ikusi; norbaitek arabitafen izkuntzarik ez ba'daki, ori besterik ez dakianaz itz egin nai izatea, ezta bidezko: mundua ofela etxatzue ez nekegafi ez kaltegafi, zuontzat elitzateke ba gaítz txikia zeuen aldirik edefena aren izkuntza bafia ikasten emotea. Nik lango oafikaskizunik eztozue-ta, zuek ezin zeinkie nik lez ulertu onek zelako kalte izugafia dakartson arimeari, au jakiteafen a aitzu oi yako-ta. Atzenbako artega ta egon-eziña benetan; eta ontatik askatzeko, lefenak egin bear dozuez; esaten asi nazan otoitz-biderako, noraezokoak dira arima bake ta atsedena.

6. Zuon izkera ikasi nairik eske ba'lioakizue norbait, oni erakustea zuoi ez dagokizuen afen, berau jakiñaz zelako ondasun andiak irabazi ta eskuratzen diran, esan zeinkioe beintzat. Onetan ez aspertu iñoz be, beti txeratsu, maitekor ta otoizlari, urko lagunari on izateko asmuz, buru ta belarri eldn baiño, ofela egitetik yatorken mesede ta irabaziaz konturaturik, bide ori erakutsi leikeoen maisu baten bila joan daitezcan. Arimen bati otoitzera eragin ta iñarkun ortan ipinteko Jaunalc gaitzen ba'zaitue, ez dautzue mesede makala egiten. Zenbat gai yatorkuzan bidera onetzaz mintzatzen asiaz bakafik, bai ta nire antzera ortatik ain txarto ibiít danarentzat be! Eder bekio Jaunari, aitzak, nik oraiñarte egtña baiño obeto, zuoi irakasíea. Olantxe.

## X X I

Gorabera andiko gauzea da otoitzari gogo beroz  
eltzea, ta deabs-uak jarten dabezan atzerabideai  
jaramonik ez egitea

1. Ez zaiteze ikaratu, alabak, bide jainkozko au, zerurako efege-bidea dan au asteko, ainbeste gauzai begíratu beafaz. Bide ori ondasuntegi andia irabaztera daroana da; ezta, ba, asko guk neke andikotzat eukitea. Alangoren baten ikusiko dogu, irabazten dan sariaren alderako. uskeria zala dana.

2. Orain, bide ofi azkena jo arte gelditu barik jafaitu nai dautsenakaz jardun nai dot, bizia dakafen ur bizia edan nai dabenakaz. Zelango gogoz eldu bear dautse bideari? Ofa zer-ikusi andiko gauza bat. Azkena jo arte opofik ez egi-teko gogo ta erabagi sutsu benetakoa bear dabe, datofena datofela, ikustekoak ikusi, nekeak neke, nai dabenak nai dabena esan, eldu nai eldu ez, nai ta bide-erdian il bear, edo bideko nekea jaso eziñik gelditu, nai ta mundua gaiñera etofi. Bein baiño safiago jazoko yaku onango berbetak entzutea: "Kontuz gero; urlía ortik galdu zan; sandiak okefeko aldera jo eban; berendia, ainbeste efezu erabilena, bera etoñ zan; erlijiñoari izen txafa ipinteko gauzak dira; eztira emakumeentzako, ames zoroak egiteko ezpada; oba dabe goruetan ekin; eztabe olako txukunkeririk bear; *Aita Gurea* ta *Agur Maria* esatea naiko dabe."

3. Bai, naiko izan be! Neuk be orixe difiot, aizta-txoak; zuen otoitza noren eta Jainkoaren aotiko otoitzari dautsela egitea beti izango dozue ondo bai ondo. Orétan, egia diño. Beste otoitz biribilduagorik ez beste libururik ez gcuñke bear, gu ain dana-beafekoak eta biotz-otzak ez ba'giña. Au dala-ta, ona nik artu dodan erabagia: batzuk, beste mlsteriorik otoitz-gaitzat artzeko eskolea bear dala uste

daben ezkeru, ía beste batzuk, buruen buruz, ezek ase-eziñak diran ezkeru, eurontzako jardungo clot; *Aita. Gure* ofi nagokala, otoitza zelan asi, jafaitu ta amaitu adierazoz argitasun batzuk emongo ditut, gauza sakonetan sartu barik. Ofetara, ezingo zaitue bape liburu barik itxi; eztozue bear-ko beste libururik, baldin emen ikasten alegindu eta apaltasunean ba'zabiltze. Ni beti izan naz Ebanjelio-zalea: ango berbak neure gogoan ba'urago sartzan nabe libururik ondoen egiñak baiño. Beste libururik, ez neban irakurteko gogorik, baiez be egilea oso ontzat ezpa-egoan.

4. Goiko Maixu jakitunaren ondoan jafiko naz, ba, ia zuen gogoko izango dan argitsunik erakusten daustan. Ez-tiñot *Aita Gurea* zeatz adierazoko dodanik, eztaukat neure burua ofenbesterakotzat. Ba-da lendik be ori egin dauanik; eta, alan ez ba'litz be, erokeria litzake nik egin gura izatea. *Aita Gurea-ú* nagokiola gogartc batzuk, argitasun batzuk jafi besterik eztot egingo. Gogoa berotu naita, safitan liburu asko irakurteak otzitu egin garoaz. Gauza jakiña da, ostera, maixuak berak irakasteko ardurea artzen dauanean, ikasleari maitasuna artzen dautsola; aren poza ikusita pozago ta geiago laguntzen dautso ikasten. Alan lagunduko al dautsku guri gure Jainko Maixuak.

5. Lenengo ta bein, iñok, bildurtu naiez, afiskuak begietaratzen ba'dautzuez, ez egiozue jaramonik egin. Ondasuntegi andi batera lapufez beteriko bidean zear joan bear-ta, gauza bitxia litzake afisku barik ibili nai izatea. Ona dago, ba, mundua ondasun ofeik bakez irabazten izteko. Zuriko bat irabazteafen, bai, gan osoak emongo dira itxafik, ez gorputzari ez arimeari ez yake arterik artzen itxiko. Zuok, baiña, beste ondasunik irabazi nai. dozue; Jaunak diñoanez, indartsuak bakafik afapatzen daben ondasun bat zeuokandu edo ostu nai dozue, ta ofetarako efege-bidez zoaze, bide zabal-seguruz, Jaunak berak etoan eban bidez, bere adiskide ta santu guztiak eroan ebenez. Bide ofetan, bada, ainbeste afísku ta bildurgafi ba'dago, ondasun ofeik irabaziz-ustez galdu-bidetik doazanak, zelangoak izango ete dabez?

Askozaz be andiagoak, jakifia, ene alabatxoak. Baiña, iñok eskua luzatu ezik, eztabe igarten benetako afiskua auzef aur jo arte, ta goiko urik bape edan barik gelditzen dira, ez efekakorik ez iztokikorik be.

6. Baiña, ur onen tantakadarik ez-ta, zelan igaro ainbeste arerigaz bufuka egin beafeko bidea? Gitxien uste dabenean, jakiña egafiz ito bear. Guztiok, ene alabak, bakotxa bere eran, nai ta nai ez, itufi ofetarako bidean gara. Siñistu, ba, neuri, ta ez zaiezala iñok itsutu: arako eztozue otoitzaz beste biderik.

7. Gogozkoa ala agozko utsa, zein dan guztientzako beafezkoa eztot emen esaten. Zuokaz diardut, eta zuok bata ta bestea bear dozuez, moja-praileen egitekoa orixe da-ta. Onetan afiskurik aitatzen dautzuena, bera euki bear dozue afiskutzat, eta iges egin alangoari. Ez aitzu esan au, bear bada egunen baten ez yatzue txarto etofiko ta. Apaltasunik eza ta beste ondasun batzuen eza, ori bai dala arduraz egotekoa; baifia, otoitz-bidea afiskubide? Jainkoafen, ez euki olako burutasunik. Deabruak edo asmau ditu olango bildurkeriak. Bere guzufecko jokoakaz, arexek jo-azo dautse bea otoitz-bidean ebiltzezalako batzuri.

8. Eta, itsutasuna alangoa munduarena! Milaka izan siñismena galdu ta gaitz andietan jausi diranak, otoitzik ez egiñagaitik, zabar ibiliagaitik, eta au ezta ikusten. Eta ainbesteren artean, bereaz obeto urteteafen deabruak otiozale batzueri be lufa joazo dautsela-ta, ainbeste bildur ipiñi bear bestei onbideari jafaitzeko. Afisku-atxaki au ipinten dabena, kontuz ortik, gatxari iges egiteko atxakian onari egiten dautse-ta. Asmakizun okefagorik eztot egundo ikusi; benetan deabruarena dirudi. Urten egizu, ene Jaun ofek, zeure alde. Zuk esanak okefetara aitzen dabez. Zuretafak beintzat ez daiela olango itsukeririk izan.

9. Zorionez, zuon artean beti izango dozue laguntzailerik. Egiazko jainkotafak, Jainkoak argi egifiik egiazko bidea ezagutu dauanak auxe dauko beti: bildur guztiak

gora-bera, bere bidean geroago ta auferago egin gurea. Deabruak nundik jo leiken argi dakus-ta, ari iskintxo egiten eta burua austen be ba-daki. Miñik geiago damotso onek deabruari besteen menpetasunak atsegiñik baiño. Iñoz jazo oi da, nastaldi baten, deabruak bake txafa ipintea; orduan, onaren itxuran da-ta, ba-dirudi arerio ofek danak bere ondoren daroiazala. Orduan, Jainkoak ekafita, sortzen da begi-zabaltzaile bat, begiak lausoturik bidea galduta dabiltzela esaten dautsen bat; eta, au Jainkoaren anditasuna!, olantxe safi askotan, egiaren alde urten daben bat edo bi dira asko beste askori geiago egiteko, ta apurka apurka, Jaunak adoretuta, danai bidea argitzeko. Alak guztiak egingo dabez olangoak, itzez ezpada egitez, otoitza gauza kaltegafi dala diñoanik ba'da, mesedegafitzat ipinteko. Sañ Jauna artzea ona eztalako esamesik ba'dabil, eurak safiango Jauna artuko dabe. Olantxe, bat edo bi bide onenetik bildur barik jotteko gertu dagozan lekuan, laster irabazten dau Jaunak atzera len galdua.

10. Bota, ba, aitzak, emen zuen bildufak; ez egin onango gauzetan jaramonik lagunabafen esanai. Edozeiñeri siñisteko egunetan ez gagoz: Kristo'ren antzera bizi dirala ikusten dozuezanai bakafik siñestu. Egin alegin bafua garbi eukiten, apalak izaten, munduko gauzarik aintzat ez artzen, eta Eleiza Ama Deunak irakasten dauana sendo siñesten; eta ardura barik egon, bide onean zagoze-ta. Ez artu bildufik, bafiro diñotzuet, bildufik zetan izan eztan lekuan. Iñok bildufetan sartu nai ba'zaitue, erakutsiozue bigun-bigunik egiazko bidea. Esaiozue ba-dozuela zeuen legerik, zuen legeak otoitzean gelditu barik ekiteko agintzen dautzuela ta lege ori gorde beafa dozuela. Aozko otoitza be naiko dozuela baldin esaten ba'dautzue, itandu egiozue zelan egin bear dozuen, gogo-biotzak aoak diñoan efezuan dozuezala ala ez. Baietz ba'diño —eta ezingo dau ezetzik erantzun—, ofa or zelan autortzen dautzuen gogozko otoitza egitea noraezekoa dozuela, ta goi-argizkoa bera be bai, otoitzean zagozela Jainkoak emon ezkeru.



## Gogozko oioiiza zer dan

1. Gogoz otoitz egiteko jakizue bein, alabak, ez claukazuela ezpanak zetan itxita eukirik. Otoiari ekitean, itzen esan-naia zufen zur auznartu ta itzetan baiño ernai ta adia-go Jaungoikoari diñotsagun ofetan ba'gagoz, otoitz-era biak, gogozko ta agozko, alkafegaz dabiltz nunbait. Iñok ba'liñotzue, ofaitiño, Aita gurea naiz beste otoitzen bat esatean, zuen gogoa munduko gauzetan arikatuta be, Jaungoikoar! eskala zagozela, olan bada, nik ez diñot tautik geiago. Alan be, Efege ain andiaz berba dagizuen bitartean, dagokizuen lotsea gorde nai ba'dautsazue, gizabidez jarduteko be, nogaz diarduzuen ta nor zarien gogora ekartea, egoki be egoki yatzue. Jaunagana uferatu ta Ari "Anditasuna" ta olako itz adeitsuakaz itz egiteko, zelan konponduko zarie, izan be, andiki baten aúfean erabilten diran zeremoni ta dedu-erakutsirik ez ba'dakizue, edo-ta ez zuek ez alakoak zein giza-mailako zarien jakin ezik? Auxe da, bai, olakotako adei-araua, zuek be ikasi bear dozuena; bestelan, olakoren batengana eske zoakioezanean, lelotzat artuko zaitue ta esku-utsik atzera bialdu. Zer da au, ene Jauna? Zer da au, ene Efege? Zelan daroazu gure itzal ta lotsarik eza? Efege zaitugu, ene Jainko, betikoera guztitik, emona ez bai dozu daukazun agintefía. Berarizko gozotasuna asmau oi dot Kredoan itz oneik esatean: "Zure efeiñuak eztau azkenik." Goratu ta onesten zaitut, Jauna, beti-betikoz, zure efeiñuak beti iraungo dau-ta.

2. Ez egizu, Jauna, aintzat artu iñor be, Zu goratu naiz Zugatz itz egiterakoan, agoz bakafik jardutea naiko dala uste dauanik. Zer da au, kristiñauak? Zer adi-erazo nai dozue, gogozko otoitzik eztala bear difozuenean? Ulertu bai ete? Ni, ziur, ezetzean nago: gu guztiok be, antza, zeuen oker-zulo ikusi gura gaituzue. Gogozko otoitza ez

dakizue zer dan, ezta agozkoak zelan esan bear diran be, ta begiztaldiaz bafiz tautik be ez; ba'zenkie, bada, etzeun-  
kie alde batetik ezetsiko, bestetik goratzen dozuena.

3. Nik, alabak —konturatu ezkerro beintzat— beli itz egingo dautzuet, ikaratu etzaitez, otoitz-era biak, gogozkoa ta agozkoa, batera jafi ta aitaturik. Gauza oneik ba-dakit noraifio garoezan, neu be onetan gofiak ikusia nozue-ta; otoitzari buruzko bildufak kalte andia bai dakar, eneuke zuok olako artega ta gogo-urduritasunean sartzerik gura. Inportantzi andikoa dozue bide zuzenez zabiltzela jaki-tea. Bide-galdu ta oker dabilela diñotsazun bidaztiak, bide zuzenaren bila, len ibilia bafiro ibilirik, bere burua nekatu ta denporea alpefik galdu besterik ez dagi, ta beranduago baiño, ezta eltzen ibilaldiaren azkenera. Nok esan daikegu txarto dagoanik, bai Orduak bai Agurtza esaterakoan, Jau-nagaz zelan ondo jardun ikusteko, Nogaz itz egin bear dogun, ta nortzuk garean Ari itz dagitsogunak gogora ekafiaz ortan asi ba'gagiz? Au diñotzuet, ba, aitzak: zer bi oneik bear lez ikasi ta aiturik, zeuen agozko afenak esatera orduko, zatitxo baten beintzat saiatu zaitezela gogozko otoitzean. Ez, nekazari edo edozein lur-langileaz daukagun lango askatasunez, edo geure antzeko emazteki kaskar bategaz lez ez goaz efegegai bati itz egitera: gu lakoakaz edozelan mintzatuta be, ondo dago; ez, ostera, andiki edo efege-se-me bategaz.

4. Alan eta guzti be, Efege au txit umila da-ta, nik trakets samar itz egin afen, ez daust origaitik ez-entzun egin oi, ezta Bere aufetik, zaintzaileen bitartez edo, atera-azo be. An adi-adi yagokozan aingeruak ba-dakie, bada. artzaintxo apalaren lafa-usain —zelan ba'leki, askoz adeitsuago litzakio—, euren Efegek atsegiñago dauala, gizon jakitun eta afas afoputzak ondutako efazoiketa bitxiak baiño. Ofetaz, ba, A ona dalako, guk eztogu Aregaz baldres izan bear; ni lango izaki ats naskagafikoa Bere aufean euki-tea onez eroan dualako-ta, eskertsu agertu gakiozan; on

yaku, bai, Aren garbitasuna ta anditasuna ezagutzera saiatzea. Egiaz, laster dazaugu Bera nor dogun, munduko andikiekana lez, Beragana uferatu ezker; munduan, ba, andiki ofei nor eben aita ta zer artzeko ta jaun-titula daukien itandu ezketiño, eztoгу geiago zetan jakiñik: munduan ezta aintzat artzen norbaitek euki daiken ontasuna, naiz-ta merezigafia izan, daukan dirua baifio.

5. Au gizarte txaldana! Txaloz eskertu Jauna, alabak, ain gauza zarpaila itxi dozuelako; or eztautse, ez, jaramonik egin nai eurak eurenz ta eurekan daukienai, maiztefak eta menpekoak daukienai baiño, ta oneik uts ba'dagitse, iñok be eztautse lotsarik erakutsiko. Gauza txanbelifia, ziñez; bañe-algara politak erabili zengiez, au jolas edeña dozue-ta, batez be zeuen legezko autualdietan, mundukoak zein itsu aldia damoen gogoratu ta ikusiaz.

6. O gure Efege! Al aintzatsu, On guren, Jakiturí bera, aste ta atzen bakoa! Egiñikoetan eztozu mugarik; azken bako ta ulergaitz oro; afigagafiz beteriko itxaso, ondorik eza! Edertasun bakar, eder oro Zeugan dozuzana' Indar uts! O Jainko laztan! Nok leukaken emen, batean, ilkor guztion itz-jario! Nok leukaken, bai, bizitz onetan gure adimenak ulertu daiken giñoan —gure jakirea dana baita ezerez—, gauzak ulertzeko jakituria, gure Jaun on au zerbait ezagutu daigun, guk onetzaz auznartu daikeguzan makiña bat gaietatik batzuk beintzat, nik alik ondoen esan daidazan!

7. Bai, otoitzean jardun baiño len, jafi egizue aúfean ta auznartu zeatz eta meatz Nori itz egitera zoazen, edo Nogaz autuan zagozen. Gure bizi-epea dan baizen luze beste milatan ba'litz be, ez geunke oso-osorik ulertuko zelako artu-emona merezi dauan aingeruak eurak be aúfean dardar daukozan Jaun andi onek; gogo dauana dagi, ta Aren nai izatea, egitea. Bidezko ete dogu, ba, alabak, gure Senar laztanaren gaitasunetan poza artzea, ta noren emazte garean eta zer biziera eroan bear dogun jakitea? O Jaungoiko onbera! Munduan gazte bat ezkontzera doanean, aúfetik

jakin bear dau onek nor dan bere senargeia, bai ta gero daukan diru ta abar be; eta guk, ezkonduok, ez ete dogu, eztegu egunean gu bere etxera eroan aufetik, geure senargeiaz ezer gogotan erabiliko? Gogamen oneik munduko giza-ezkontzetan debekatuta ez ba'dagoz, zergaitik eta nok galazo dausku guri gure Senar kutuna nor dan jakin, Onen aita nor dan ezagutu, zelakoa dan gu garoazan Luñaldea, zelakoak diran agintzen dauskuzan aberaskiak, gizartean ze maila daukon, safitan gogoan erabili, irauli ta auznartzea? Jakin gurako neuke, bai, atsegiñen yakona egiñik, Ari zelan pozik geien emon, eta neure izakera ta Arena ondoen al-kartzeko, zer egin bear dodan ikasi.

8. Andrazko ezkondu bati, senar-emazteen arteko biritza zoriontsu izan daiten, naita senafa beerengo mailekoa izan, auxe egiten alegintzeko besterik ez diñotse. Eta Zugaz, ene Senar maitati!, gizonakaz baiño be, edozertan gero, ardura gitxiago izan bear ete dogu? Gizarte-dedurik ez ba'dozu be, Jauna, Zugaz bizi bear daben emazteoi laga begioe bakean. Au jazo oi da munduan: senafak iñoiz bein, txit leiatsua baita, bere emazteari eztautso izten beragaz ezik iñogaz itzik egiten. Eta emazteak zer egin bear dau ofetan bere senafari eder izan ta onegaz zorionean bizi izateko? Buru-ukapen kaskar auxe bakar-bakafik: gura leukean dana arengan daukan ezkerok, eztau nai izan bear beste iñogaz berba egiterik.

9. Auxe da, ene alabak, gogozko otoitza, egia oneik ondo ulertzea. Au ulertu ta gogoznartuaz ba'zoaze, ta agoz otoitzak esanaz be bai, ederto baiño edertoago; baiña, maitok, ez eidazue iñoz jardun Jainkoaz izketan ta gogamena beste edozetan: onela dagianak ez daki gogozko otoitza zer danik. Gai au naikoa argi azaldu dautzuet, antza: bemoigu Jaunak arazo ontan zelan jardun jakiteko bear dogun eskefa! Olantxe.

Otoitz-bidean jañi danak ezpei ezegaitik atzerantz egin.

Bicle oni gogatsu eidu beaña bañiro aitatzen da

1. Gorabera andikoa da, bafiro diñot, bide au gogatsu ta adoretzu astea. Zergaiti guztiak aitatzeko luzeegi jo bearko neuke. Bi edo iru besterik ez dautzuedaz aitatuko, ene aitzak. Ona lenengoa: ainbeste emon eta emoten dauskunari geuk be bein zerbait emotea erabagi dogun ezker, damoguntxo ori ofaitio geure irabazi andirako dala; ezta itxurazkoa, osoan barik erdizka, atzera artzeko lez emotea. Ori, nire eritxiz, ezta emotea. Zerbait olan artu dauana, gero atzera kentzen dautsoenean, atsekabetxoaz gelditzen da beti, batez be zerbait ofen bear-izana ba'dauko, ta aren jabe egintzat ba'egoan. Eta kentzaile ori adiskide izan ba'dau, ta beroferi be lenago gauza asko emona izanda zofetan ba'dauko; orduan, benetan doilorkeritzat eta esker txar anditzat eukiko dau zordun ori, adiskide-legean zertxobai: emoteko gauza izan eztala-ta.

2. Nun da emazterik, bere senafaren eskutik bitx'. jori edeña artuta gero, ari ereztun bat edo emongo ez dautsonik, ez ereztunaren edefagaitik, emazteak senafarena eztanik ez dauko-ta, baiña bai il artean senafarena izango dalako ezaugafitzat? Gitxiagorik merezi ete dau, ba, gure Jaunak? Uskeritxo bat emon, eta oindiño tori ta tatika, Berari bañe egiten? Amaika ordu galdu doguz geure buruagaz eta bape eskeñik emongo ez dauskuenakaz; bein, bada, Jaunari otoitz-alditxo bat emotea erabagi dogun ezker, emon daiogun unetxo ori osorik, beste zeregin guztiak itxita, ardura guztiak gogotik kenduta; ta agindu daiogun geure buruari iñozko neke, eragozpen ez otzaldik ez dauskuela onetan utsik eragingo. Auferantzean, otoitz-ordu ori neurea eztodala-ta egongo naz, eta Jaunari osorik emon

nai ezta ba'nenbil, Berak legebidez eskatzeko eskubidea daukala-ta egon bear dot.

3. Osozko emon nai-eza aitatu dot; eztiñot, ba, zelan edo alango ondoezen bat edo noraezoko zeregiñak diralata, egunen baten edo geiagotxotan otoitz egin barik iztea, geiagoko barik bein emona atzera kentzea izango danik. Egiteko gogoa bego, beintzat, sendo; ezta gure Jainkoa ofen minberea be, eztago uskeri utseri begira; besterik ezean, esker onez artuko dautzue zeuen borondatea, berau be zeozer emotea dala-ta. Zekenago danak, ezer emotera biotza ezin zabaldu dauanak, emon bei, lukuferuen legean ba'da be; zeozer egin barik ez bedi gelditu; Jaunari ez yako ezer aztuko, gure borondatearen neufira jarten ba-daki-ta. Kontu eskatzen eztogu bape zeatza, bai esku-zabala. Gure zofa andia ba'da be, parkatzeak ez dautso miñik emoten. Or-daintzeko, bafiz, aren zeatza! Ardura barik egon; Beragana begiak jasotzerik, bere gomutarik eztau sari barik itxiko.

4. Otoitzari alik gogotsuen ekiteko bigafen zegaitia: ofetara, deabruak gu tentatzeko esku gitxiago eukiko daua-la jakitea. Deabruak bildur andia dautse biotz adoretuak, ikusita dauko kalte itzala ekarten dautsela. Bere asmakeri kaltegafi guztiak arein eta beste askoren onerako biurtzen yakoz, eta bere kaltetan ditu. Ez gaitez an ofegaitik egon lo, ez bildur barik, azpikeriz dabilen mutila dogu-ta. Zur dagozanei oratzeko eztau, atan be, ainbesteko adorerik, guztiz koldafa dalako. Baiña lo antzean ikusi ezker, kalte andia egin leikegu. Inor ikusten ba'dau bein ofa ta bein ona, onean irauteko gogo ta erabagi sendo barik, gau ta egun ziri ta ziri egongo yako; azkenbako bildurak eta atzerabideak ipiñiko dautsoz begien afean. Neure buruan ikusita dakit au; ofegaitik, zer diñodan ba-dakit. Ofa, ba, zur cgote au zeinbestean dagokigun.

5. Otoitzari ain gogotsu ekiteko irugafen efazoaia, ta ain ondo arira datofena: bufukarako alan adore geiagio izatea. Otoitzerako erabagi ori artu dauana jakitun dago, datofena datofela, eztaukala atzera egiterik. Guda-mutilaren

antzean dago: guda-mutila jakitun dago, arerioen eskuetan jaustekotan, eztautsela bizia parkatuko, gudan ilten ezpada, gero bardin ilgo dabela. Au jakiñik, jo ta su ekiten dautso bufukan; esan oi danez, sari onean ipiñi gura dau bere bizia salgei; garai gelditzeko pozean, zaurien bildufik gixiango dauko, garai urten eta bizirik iraun beretzat bat dirata. Beafezkoa dogu, gaiñera, gure arloari uko egin ezik, buru emoteko uste osoaz. Zetan esan bez; emengo irabazirik txikefenez be, aberats andiak zarie. Ez izan bildufik; goiko itufitik edaten joateko esan dauskun Jaunak ez dauku itxiko egafiz ilten. Len be esanda daukot, eta beste san askotan esan gura neuke auxe. Zergaitik? Asko ibili oi diralako kikildurik, Jaunaren ontasuna siñistu bai, baiña euren buruan nabaitu ta ikusi ezagaitik. Gauza andia da, izan be, otoitz-bidean dabiltzenai erakusten dautsen adiskidetasuna ta txera ona norberak ikusita jakitea, Jauna bera ia bideko neke guztia bere lepoan artzen ikustea.

6. Au ikusi barik daukenak, ez nau onek afitzen, saririk izango daben jakin nai dabe. Ara, saritzat zer dagoan ba-dakizue: ointxeganik asita, bateko eun, eta Jaunak diñona: "Eskatu, ta emongo yatzue" (*Luk., 11,9*). Jaunak Ebanjelioan esana da au, ta Aren itzak siñesten ez ba'dozuez, alpefik ausiko dot nik neure burua ekin ta ekín. Alan ta guzti be, siñis-gogortxo dagoanak —neuk diñotsot—, saio bat egiñaz, ez leuke asko galduko. Orixe dauko. euki be, bide oni jafaitzeak: guk nai ta eskatu geinkena baiña geiago emoten yakula. Au ezta guzufik; jakiñen gaiñeñ diñot, eta Jainkoaren ontasuna dala bide, alan daln ikusirik zagozenok, zeuok atera zaikedaze testigu edo lekuko.

Agoz esaten diran otoitzak, ondo eřezetako, zelan esan bear diran. Otoitz-era biak, bai agozkoa bai gogozkoa, batera samar dabiltz

1. Orain natofen len aitatu dodazan arimaengana, au da, ez euren kautan kiribildu, ez gogozko otoialdian adimenik lotuazo, ez ezertara gogartu ezin dabenakana. Itz bitzuok, baiña —gogozko otoitza ta gogarte—, eztaiguzan onein aũfean aitatu, eleukie olakorik entzun gurako-ta; askotzak dira, izan be, gogozko otoitz naiz gogarte aitatzueak bakařik latz-ikara gogofa sartzen dautsenak. Eta etxe onetara olakoren bat ba'letor be —esan dodanez—, danak e'c bai doaz bide bat-bardiñez, badaezpadan diřot au. Orain esan nai dautzuedana, bai ta *erakutsi* be esan neike —nagusi lez, ama nozue, ba, ta ofetarako beste eskubide ba-dodala deritxot— agoz zelan otoi egin da, ezpanetan darabiltzuezan itzak, berbak ondo aitu beafa daukazue-ta. Jaungoikoa gogoan erabili ezin dauana otoi luzeak be nekaraziko dabe-ta, eztot ofeitaz ezer esan nai; Kristo'ren jafaile gareanez, askotan esan bear doguzan *Aita gurea*, *Agur Maria* ta ola-koak aitaturako dodaz bakařik.

2. Argi ta garbi, guk ulertu egin bear dogu otoitzean diřoguna; ta, ofela, eztau gugaitik iřok esan al izango, itzak ulertu bage mintzatzen gareanik. Berez, ekanduz lez, itzak ebagi ta esanaz naikoa dogula uste izan ezik, beintzat. Naiko dan ala ez, ni enaz or sartzen, jakitunentzat ori. Baiña nik, alabak, eztot gura gu ofegaz bakařik naikotzerik. Kredoa "siřisten dot" diřotanear, siřisten dodan ori ulertu bear dodala deritxat. Eta "Aita gurea" ba'diřot, gure Aita au nor dan jakitea maitasunak eskatzen daust, bai ta otoitz au evakutsi euskun Maixua nor dan be,



3. Ofenbeste ba-dakizuela ta nik zetan gogorazorik ez daukazuela ba'diñostazue, etzabiltze efazoizko bidez. Lennen maixu batetik bestera alde andia daukazue; ta gero, lotsagafi dala be, ezez aitzu oi gara emen guri irakasteko ardurea euki ebenakaz; baiña, ikasle zintzo ta esker oneko izatekotan, ez geunke ofela egin bear, gure maixuak batez be santu ta gogo-zaintzaile ba'dira. Beraz, Jainkoak ezpei laketu guk, otoitz au esatean, geure onerako irakatsi euskun Maixu maitekofaz gogoratu barik berau egitea. Argalak gara-ta, beti ezik be, safi-safi bai beintzat.

4. Jaunak berak erakutsita dakizuenez, otoitzak bakafean izan bear dau. Berak be olantxe egin eban; ez beafizanik eukolako, zelan jardun guri erakustefen baiño. Lendik be azalduta daukot Jainkoaz ta munduaz ezin daikegula batera mintzatu, ar-emona euki; eta ez ete litzake ofela, otoitzean daragoiogula, besteen autuan zur ba'gagoz, edo geure gogamena, aufera yatorkon edozertan dantzari, azke ta nasai itxi ba'dagigu? Iñoiz norbait gexorik ba'dago, edo moja uzkur ta mufiña bada batez be, edo-ta burutik makal dabilelako, naita be ezeri adi egoteko gauza eztanagaitik eztot onakorik esan gura. Beste batzuetan, bai ta, Jaunak olan nai izanik, zoztor-eragozpen eta al-eziñezko ekaitz bi-ziak izaten dabez Jainko-zaleak, euren onerako jakiña; ari-ma naigabetu oneik, orduan, bakeaz jabetzeko alegiñak eginda be, eztabe ezer jadesten. Diñoenari edo diñotsenari ez dagoz adi; leiatu afen, ezta aren gogamena ezertan kokatzen: zentzun bako dabiltz, goialdiak artuta nunbait.

5. Efukigafi yaku olakoa, beronen efuz eztana ba-dakigu-ta. Ezpei kezka, txafago litzakio; ezta, ezpei saiatu, orduan beintzat, zentzun bakoa, ots, bere gogamena zentzunera ekafi nairik; eztau ezer jaritxiko. Efezau, bai, al dauna efezau bei; edo-ta, itxi ori be, ta geixo lez, emon beio atsedeen pizkat bere buruari, beste arazo egoki bati ekiñaz. Au donekuntza-bidean auferatu naita dabiltzanen-tzat eta Jaungoikoari ta munduari eztautsela batera itz egin bear dakiententzat da.

6. Guk geurez bakafean egon, ofetan alegindu bear gara. Ta au, Jainkoak ofela gura-ta, naiko bekigu Noren afean gagozan konturatu ta Berak gure eskabideai zer darantzutsen jakiteko. Ixilik dagola uste dozue, guk Ari entzun ez afen? Gure biotzak itz dagitsonetan, araxe berba egiten dasku Berak be. Ta on yaku, bai, otoitz au guri bakotxari banan Berak erakutsi euskula gogotan erabiltea. Maixu au beti daukagu ondo-ondoan, eta guk ikasleok ez-taukagu, Ari entzun eragiteko, zetan abots zoliz itz egiñik: abots mei ta bigunez be, beti entzuten dasku. *Aita gurea* ondo efezetako, zuok au bear dozuen lez ulertzea gura dot: ez dozuela, iñoz be, alde bear berau irakutsi eutzuen Mai-xuaren ondotik.

7. Au gogarketa dala, meditazifio egitea dala, esango daustazue bear bada, ta zuek agoz efezau besterik ezin dozuela, ta gura be eztozuela orixe izan ezik. Pertsona batzuk ba-dira uzkur egon-eziñak, buru-gurikeri zaleak, otoitzari jardutean, ekandurik ez-ta, euren gogamena eskuratu ta kiribiltzea oso gatx yakenak; gero, bafiz, neketxo au be *tz* artzeafen, ez dakiela diñoie otoitzean zelan asi be, ezin dai-keela geiago agoz efezau baizen. Nik azaldu dautzuedana "gogozko otoitza" dala diñoizue ta ofetan zuzen zagoze; baiña egi-egiaz neuk dirautzet, agozkoa deritxogun au ondo esatera ezkeru, ezin banandu daikegula gogozkoagandik, No-gaz diardugun konturatzen ba'gara beiñik-bein. Eta zeozer efezetan dogunean, oartzu eta zer esaten dogun dakigula efezau beafean gagoz. Jainkoak lagundu beigu, ba, arte ta zuzenen oneikaz, *Aita gurea* ondo ta eratsu esateko, goga-menaren zoro-ibilte barik beintzat. Ni ofetan alegindu naz nozko batzuetan, eta nik aurkitu dodan biderik osagafiena auxe: itzak zuzentzen dautsodazanengan neure adimena zoli ta josirik eukitea. Izan, afen, epe (pazientzi) apur bat, ene aitzak, eta saiatu gogoz, ain beafezko yatzuen jardun one-tarsj egiteko.

Agozko otoitza ondo egiten dauanak irabazi andiak ateraten ditu. Otoitz ofetatik arimea Jaunak goi-  
**-ixurizko otoitzera jasotea, izan leiteke**

1. Agozko otoitza ondo egiñafen irabazi gitxi aterako dozuelakoan egon ez zaitezten, ona zer diñotzuedan: *Aita Gurea* nai beste aozko otoitzen bat efezetan daragoiozuela, jazo leitekena da Jaunak zuen gogoia goi-argizko otoitz bikañean ipintea. Beragaz berbaz dagoanari entzuten ba-dakiela erakusteko olangoxe moduak erabilten ditu iñoz Jaunak; olantxe erakusten dautso bere anditasuna, adimenari opor eragiñaz, gogoaren ekiña gelditu-azoaz, eta, alan esateko, arimeari berbea (itza) agotik kenduaz. Eta, izan be, arimeak orduan, gura-ta be, nekezka baiño ezingo dau itzik atera.

2. Arimeak orduan ikusiko dau Jainko Maixua, barbarorik barik, irakasten daukala, gogoaren indafak loturik: ordu ofetan gogoaren indafak, euren ekitez, onik baiño kalterik geiago egin leie; atsegiñetan dagoz, baiña atsegin ori aitu eziñik; arimea maitasunez gafetan dago, zelan dan asmau eziñik; maitasun ofek atsegiñetan daukala igarten dau, baiña atsegin ori nundik dauan eztau ikusten. Zer bat badaki, ofaitiño: biotzak ezin asmau aleko atsegiña dala bera. Zorion ori eztau galdu nai gogoak, baiña zetarikoa dan ezin dau aitu. Arean (zerbait) aitzeko gauza danean, bafiz, argi ikusten dau ondasun ori ezcala lufean irabaztekoa, ezta emeko neke ta kurutze guztiakaz be. Lufean eta zeruan agintzen dauanaren emoia da, ta Jauna zelangoa, emoia alangoa. Orixe da, ene alabak, goi-ixurizko otoitz bikaiña.

3. Orain ikusiko dozue onek eta gogozkoa dalakoak alkalafen artean dauken aldea. Gogozko ori len be esan dot

zer dan: zer diñogun aitu ta gogoan artuaz, nogaz berbaz gagozan jakiñik, eta Jaun ain andiagaz jarduteko nor garean gomutan dogula, egiten da otoitz-modu ori. Gomuta onek eta euron antzekoak erabiltea, esaterako, Jaunaren alderako zein gitxi egin dogun eta Agaz daukagun zor andia gogoan erabiltea, orixe da gogozko otoitza egitea. Ezta, ez, beste nasterik; ez ikaratu bere izen utsaz. Aozko otoitza, ostera, *Aita Gurea*, *Agur Maria* edo zeuen gogoko beste otoitzen bat esatea da. Baiña, ofaitiño, gogozko otoitza lagun ez ba'dau, lelo gogaikafia izan bear aozko utsarena. Berbak be atzekoz aufera urtengo dabe safi. Otoitz-era bi oneitan egin gifai zeozer, guk geuretara. Beste goi-ixurizkoa dalako ofetan, arean bez. Gure Jaunak berak egiten dau emen dana; Aren emoia da, gure indafez gorakoa.

4. Goi-otoitz au luze bai luze, ta nik alik ondoen, azalduta daukat neure *Bizitza* liburuan, neure atofentzule edo konfessoreak ikusi egien eta euren aginduz egin neban liburu ofetan. Augaitik eztot gai au ikutu besterik egiten. Jaunak zorionez goi-otoitz ofetara jaso zaituenok liburu ori eskuetaratu al ba'dagizue, an izango dozuez Jaunak erasorik jafi nebazan irakatsi ta argibide batzuk. Ez dautzue poztasunik gitxi emongo ta, neure ustez eta liburu ori aintzat dauken beste batzuen eretxiz, on andirik egingo dautzue. Au lotsaria! Nire zer bat aintzat artzeko esan! Ondo daki Jaunak au idazkeran dodan lotsa gofia. Bedeinkatua bedi Bera, nazana izan afen, onez artzen naualako. Otoitz bikain ori daukenak, ni ilda gero, liburu ori eskuratu beie; ez daukenak, eztauke zetan ikusirik. Egin beie emen esan dodana, ta itxi beioe Jaunari aren ardurea, Berak emotekoa da-ta. Ez bide erdian gelditu; jo ta ekin azkeneraiño eltzen, eta ez dautzue ukatuko.

## XXVI

Gogoa zelan bafura ekafi ta kirifoiltzen dan, ofetarako bide batzuk azalduaz. Arlo au joan-etoñi andikoa da, batez be etoitz egiten asi diranenizat

1. Orain gatozan gogozko otoitzera; egoki yaku au gonoraz zelan egin jakitea, ta guk nundik nora ez dakigula, Jainkoak berak emongo dausku gaiñerako guztia. Lenengo gauzak, jakiña, bafua aztertu, *Ni pakataria* esan eta Aitearen egin dozuez. Onen ostean, ene alaba, bakañean zagozan ez-kero, bilatu egizu norbait laguna eukiteko. Eta nor, esatera zoazan otoitza erakutsi eutzun Maixu berbera baiño obarik? Gertarazo, bai, Jauna bera zeure aldamenean, eta ofa zein apal eta maiterik zuri irakasten diarduan! Siñistu eidazu, al dozula beintzat, etzaitez egon adiskide ain on ori barik. Zeure ondora ekarteko oitura artzen baldin ba'dozu, ta zuk maitasunez dagízula ori ta Berari poz emoten alegintzen zareala ba'dakus, ezingo dozu esan oi dabenez, zeure ondotik bialdu; iñoz etzaitu bakañik itxiko; zeure lan eta arazo guztietan lagunduko dautzu; nainon ta nainoz zeugaz daukakezu. Gitxi dala uste al dozu olako adiskidea alboan izatea?

2. Adimenezko ekite andirik ezin dozuen ene aitzak, edo gogoa ofa ta ona barik lotuta euki ezin dozuenok!: egín zaiteze, egin zaiteze. Ara, ba-dakit nik ofenbeste al dozuenta; neu be urte askotan antzeko neke-lofakaz ibilia nozue, ta neke andia benetan gogoa gauza baten bakez euki eziña! Jaunak, alan be, apal-apalik eske joan ezkeru, ez gaitu ain bakar ta legor izten, ez gaitu laguntza barik izten; eta urte betean jadetsi ezin doguna, bedi geiagotan; ain ondo igaroten dan aldiak ez beisku miñik emon: nor dator gure ondorik? Ofenbeste indar ba-dogu, beraz, ofetara egi-

tekc, oitura artzeko, egiazko Maixu onen ondoan ibiltan ekanduteko.

3. Eztiñotzuet orain A gogora ekartekorik, ez gogorakizun sakonak ateratekorik, ezta bará-berozko ekiñaldi txukunik egitekorik be: Berari begiratzeko, besterik ez diñotzuet. Nok galazoten dautzue zeuen gogoko begiak, naita arin samar, besterik eziñean, Jaun oni biurtzea? Gauza ain itxusiak begiratu al dozuezan ezkeru, asma gcinken gauzarik edefena ezingo dozue begiratu? Zuen Senar maiteak, ene alabak, iñoz be eztitu zuekandik ufintzen bere begiak; bere aurkako mila gauza motz eta iraingafi eroan dautzuezan afen, etzaitue alan be begiratu barik izten; eta asko al da, zuok, munduko gauza utsal oneitatik begiak alden durik, banaketan Ari begiratzea? Ara, eztago beste ezeren zain, orixe nai dau bakafik, begiratu daiogula (*Abes.* 2, 14), emazteari diñotson lez; noranai begiratu, antxe aurkituko dozue. Guztiz gogoko dau gure begirakuna, ta berau irafcazteafen alegiñak egiten ditu.

4. Onela egin bear dau, diñoenez, bere senafa zorioneko egin nai dauan emazteak: senafa betilun ba'dago, bera be betilun; senafa pozik ba'dabil, bera be, iñoz egon ezta be, biotz-alai: ona, aitzak, zelako loturatik azke zagozen! Auxe da egiaz, ez itxuraz bakafik, Jaunak gugaz dagiana; Bera mendeko egifiik, zuek etxeoandre izatea gura dau, ta Berak zuek naien dozuena egin. Alai ba'zagoze, begira Ari berbiztuta, ta ilobitik zelan urten eban iruditzeak bakafik poztuko zaitue. Aren dizdiz ta edefa! Zein andi ta garaile, zein pozik! Buñukalditik zelako irabazia atera eba.n! Eskuratu, 'oafiz, zelako efeiñua, ta dana zeuentzat! Eta askorik al da zuentzako, ainbat emoten dautzuenari, noizik beiñean begiak zuentzea?

5. Neke-lofetan ba'zengoze, edo bafu-ilun ta jausirik, begira Ari orturako bidean. Arek bai atsekabe samiña biotzean, eroapena bera izan afen, olan agertu ta alatzen da-ta! Begira, bai, zutoin edo pilarari lotua, oiñazez beterik, aragi guztiak zati-zati eginda, ta zeueri dautzuen maitasunagaitik

gero: batzuk eraso, beste batzuk txu, adiskideak ukatu ta bertan bera itxi, alde egiteko iñortxo be ez. Otzak ilik dago, ta zuok be bakartade gofian zagozen ezkeru, batac bestea poztu zeinkie. Edo begira, gurutz astuna bizkar ganean, arnasarik artzen be izten ez dautsoela. Berak be, begi eder maitekofez, negar-malkoz beterikoakaz begiratuko dautzue, ta zuei poz emoteafen, zu Beragana, Berari poz emon eta begiratzera, zoazalako bakar-bakafik.

6. "O munduko Jaun, nire Senar egiazkoa!", esan zeinkioe, ofela ikusiaz biotza samurtzen yatzuenean, batez be; begitu bakafik ez dautsazue egin bear, bai ta itz egin be, ta ez gero aufetiaz eraturiko otoitzez, Jaunak ain eder dauazan zeuen biotz-atsekabe ta miñez baiño. Jafaitu ondoren: "Estu ta lafi zagoz, Jauna, ta ni lango bat artu nai dozu lagun? Bai, zure begiratze samur ofek diñostanez, aringafi pizkat aurkitu dozu Zuk niregan. Zelan daiteke, Jauna, aingeruak Zu bakafik iztea, ta zeure Aitak berak be Zuri pozik ez emotea? Dana nigaitik Zuk artu nai ba' dozu, Jauna, zer da nik Zugaitik artzen dodan au? Zergaitik, ba, aieneka? Lotsaz nago, Jauna, Zu olan ikusirik; gertu naukazu gain datorkidazan neke-lan guztiak artzeko, ta danak daukadaz aintzat zure antz apur bat artzeafen. Gabiltzan, Jauna, biok bat-bat eginda: Zu zoazan lekutik noake ni be, Zu ígaroten zarean lekutik ni be igaro."

7. Artu, alabak, Aren gurutzea, aren astuntasuna zerbait arintzeko; judeguen saka ta bultzada batzukaitik ez izan ardurarik. Zeozer esan? Ez egin jaramonik. Marmar zuekaitik? Gofarena egin. Labanka, itsumustuka, zeuen Senar maiteaz lufean jausirik? Etzaitze Aren gurutze ondotik ufindu, ez egizue bakafik itxi. Begitu, guztiz nekatua, abaildua doa. Ta zuentzat bai onuragafi Arek gogoz artu daroan samíntasun guztia. Zuek zeuenak asko bai asko anditu afen, zuek zeuen biotz-bafenetan itzalak asmau nai izan afen, pozez gaiñezka urtengo dozue otoiz ofetatik, zuen ofeik Jaunak artu dauazanaren aldean bafe eragiteko besterik ezti-rala ikusiko dozue-ta.

8. Zelan egin leikegun au esango daustazue, aitzak; Jauna munduan ebilen lez zeuen begiakaz ikustekoan, bai, egingo zeunkie ori pozik be, iñoz aspertu barik Ari begituaz. Ez uste, enetxoak, orain bere bafuan Jaun oni begiratzeko, begiak batzeko beintzat, indar pitin bat egin nai eztauana, ardura apur bat ipiñiaz —afisku barik egin daikena berau—, gurutz-oiffean eriotzea begiz-begi ekusan Madalena'gaz batera askozaz be gitxiago jañiko litzakela deritxat niri. Andra Maria'k eta arek bai oiñaze biziak! Zelako zemai, berba motz, bultzakada ta neufibakokeriak! Lagunginkor yatzuen bat aldean ekafi, ez gero iñoz begiratu barik kolkoan eroateko, safi Beragaz berbaz jarduteko baiñio; Berak emongo dautzue autu-gaia. Beste batzuekaz paña-paña itz egin oi dozue, ta Jainkoaz jardutekoan bakafik berbararte adeitsua eukien, euki be, aldamen-inguruan! Inpreñukoak, txefen gaiztoaren ogipekoak ziran-da! Emakume bi areik, egiaz, gofiak ikusiko ebezan, baiña atsekabe andiago aregaz ez eben eurena sentiduten. Ofegaitik, aitzak, gauza txikietarako ez ba'zarie, ez uste izan andiangoetarako zarienik; neke ta uko txikietan jardunaz, apurka apurka eldu zeintekeze andiangoetara be. Onetan nok lagundu izan daizuen, auxe egin zeinkie: Jaun onen iduri edo argazki atsegairik eza? Ez sifiistu olangorik, alegintzen ba'zarie beintzat; alegindu ezik, egia, eztozue aurkituko Ari zer-esanik. Urteetan norbaitegaz berba egiteke egon ezkeru, alangoari afotz gakioz ta ez dakigu zelan itz egin: senitartekoak ízanda be, ez-ezagunak dirudie; luzero artu-emon barik egonaz, ba, senide ta adiskide izatea be galdu egiten yaku.

9. Lagungafi yaku oso geure izkuntza jatofean egiñiko liburu eraspentsu bat artu ta irakurtea, bai gogo batzeko, bai aozko otoitza dagokion era ta moduz egiteko; arimea ofela, pizkaka pizkaka, losinga ta zurikeriz oitu egiten da, len-uneko ikara ta bildur-antzak uxaturik. Egin, esaterako, emazte bat urteak dirala bere senafak itxita dagoala, ta a bafiro etxera ekarteko benetako lanaz ertzak artu bear dituala. Gu pekatariok be ofelaxe gara; egiñik daukagu geure



gogoa ortik zear ibilten, bere naierara aurki, edo obeto, bere atsekabera, gure arima gaxoak ez bai daki; ta, gero, buruko miñik naiko emon oi dausku, bere Senafagaz egon daiten, bañen bafi etxera biurtzen; alan be, apurka apurka ezpada, iñoz eztoгу ezer egingo. Bein ta bafiz diñotzuet, erakutsi dautzuedanera afetaz oituten ba'zarie, au da, Nogaz zagozen eta Nogaz diarduzuen, zuek eskuratuko do-zuen irabazia nik, naita be, ezingo neuskizue adierazo. Uferatu Maixu onen ondora, irakasten dautzuena gogotsu artzeko erabagi sendoz. Jauna benetan aleginduko da zuok ikasle onak ateraten, eta Arek etzaitue itxiko, zeuok aufetik itxi ezik. Ofa, zelako itzak diñozan Jainko-ago arek; lenen-lenendik igafiko dautsazue zelango maitasunez diarduan, eta ikaslearentzat pozbide da beti bere maixuak maite dauala jakitea.

## XXVI I

Jaunak, "Aita gurea"-ren lenengo itzetan erakutsi euskun maitasun andia adierazten dau. Gora ta ardura andikoa da, Jaungoikoaren alaba zintzo izan nai dabenentzat batez be, etofi ta jaiotz-afokeririk, ez izatea

1. "Aita gurea, zeruetan zagozana." O, ene Jaun, Zu bai egiaz arako Semearen Aita, ta zure Semea be bai —zelako itxuraz gero— arako Aitaren Seme! Goratua Zu betiraun osoan! Mesede au, Jauna, eletorkigu egokiago ototzaren azkenerantza? Zuk lenengo itzetik beteten dausku-

zuz eskuak; mesede andia dagiskuzu bai, ta on litzakigu adimena asetutea, gure naimena itzik be geiago esan eziñik, guztiz arazotu ta lotzeraiño. O, emen bai datofela egoki, ene alabak, begiztaldi betea! Efazoiz ba'furatuko litzake arimea ta bere gain be obeto jagi; ta Seme donetsi onek, "zerua", Berak bere Aita dagoala difioskun lekua, zein gauza edefa dan aitzen emongo leuskio! Urten gaitzean lur ontatik, ene alabak; guk eztogu, ba, txikitizat etsi bear onako mesedea, ezta, bein onen balioa jakin ezkeru, lufean geratu be.

2. O Jainko-Seme ta ene Jaun! Zelan emoten daukuzu ainbeste, difiozun aufeneko itzean? Zure eskaria gu-reagaz alkartzen, ofen asko beeratuten zareanez-gero, gu garean laingo izaki kaxkar ta ezerezen anai egiteraiño, zelan clamoskuzu, zeure Aitaren izenean, emon al daiken guztia? Zuk eskatzen dautsazu, ba, gu bere seme egin gaizala, ta zerofen itzak ezin dagike utsik egin, naitaez elburua bete baiño. Zeuk nai dozuna egitera beartzen dozu, ta ezta egikizun makala; gure Aita izanik, guk itsu ta astun iraiñez josi afen, seme ondatzailearen antzera, gu be Beragana biur-tzen ba'gara, eroapenez jasango ditu irain ta gaiztakeri ofeik. Ziur parkatuko dauskuz egiñak; ofetaz gaiñera, poz-tuko gaitu neke-lanetan; alako Aitari dagokionez. zaindu ta janarituko gaitu, munduko aita guztiak baiño obea, ezpai barik, izan bear dau-ta. Ari ez dagokio osorik egiña baizen. Eta guzti onen ostean, erdikide ta zeru-jabe egin garoaz Zeugaz batean.

3. Ene Jaun! Guganako zure maitasunak eta zeure apaltasunak baztertu dagiezala aufeko zoztor ta abar. Gaiñera, Jauna, geuk langoxe izatez ornidua lufean bizi izan ziñean ezkeru, ba-clozula dirudi efazoiren bat gure ona be-giratu ta guri laguntza emoleko. Baiña —ekar gogora—, zeuk esan zeuskunez, zure Aita zeruan bizi da, ta egoki yatzu zuri Aren dedu ta izena zaintzea. Irainak gugaitik eroateko zeure burua eskeiñirik bait-daukazu, itxi azkerik, olako bage znre Aita! Ni baizen ziztrin txaldanakaitik ez

egizu ofenbestera ekafi, eskefik ez leuskioe emongo-ta.

4. O Jesu on! Ofen argi erakutsi dozu Aitagaz bat zareala, zure naiia Arena dala, ta Arena zure! Zure autor-tzaren aratz, ene Jaun! Gugazko zure maitasuna ete eikean obeto adierazo? Itzul-inguruka ibili ziñan, Jainko-Semea ziñala deabruari gorde naiean; gure ona, baiña, ain gartsuki opa dozun ezkeru, ez yatzu ezer aúfean jarten, mesede andi au guri egiteko. Nok, Zuk ezpabe, Jauna, egin leikegun? Nik ez dakit deabruak zelan ez eban susmatu, itz oneitatik soil-soil, Zu nor ziñean, ezpaí guztia astindurik; nik bein-tzat, ene Jesu!, ondo dakust Zuk eta guk maite dogun semeaz lez itz egin dozula, ta altsu zareala Zuk lufean di-ñozuna zeruan be bete-azoteko. Bedeinkatua Zu, ene Jaun, beti-betikoz: emon-zale amofatua zaitugu-ta, zure eskuak eztabe ezer gorde oi.

5. Onenbestez, alabak, ez dozue uste Maixu on bat dogula? Mesede andi au egiñaz asten yaku, ba, guri zer erakusten diarduan konturatu ta zaletu gaitzean. Orain ez deritxazue, itzak aoz esanda be, adimen-argiz ulertzea itxi ta, ainbesteko maitasuna ikusirik, geure biotzak zati-zati egitea ondo litzakigula? Izan be, ba al da gizartean semerik bere aita nor dan jakin nai eztabenik, Aita ori batez be ain on, guren ta aginpidez jantzia danean? Ofela ezpa-litz be, enintzake ikaratuko Aren seme deitu ta ezagutzeko darabilgun mukerkeria ikusiaz; mundua txarto dabil, ba, ta aita semea baiño beeragoko mailan baldin ba'dago, onek ez dau gogo onez aitatatz ezagutzen. Olakorik ezpei emen jazo; etxe onetan, Jaungoikoafen, eztau guretariko iñok antzeko gauzarik gogora be ekafiko: inpernua berbera li-tzake. Alde-erantziz beite emen: sendi edo jatofi onekoa dan lekaimiak gitxien aitatu bei bere aita; bardin gaitzean guztiok.

6. O Kristo'ren ikastetxe! Emen, Jaunak ofela naita, aiantzale zan Pedro doneak, erége seme zan Bartolome deunak baiño aginpide geiago eukan. Gure Jaunak ba-ekian zer gertatuko zan munduan, zein lur onekoa zanari buruzko

auzian; eta au ezta, ladrilutarako naiz orma itsutarako zein dan buztin-lur ohea eztabaida gogaikafian jardutea besterik. Jainko maite, zelako ziztrinkerietan sartu oi garean! Berak aldendu zagiezala, aitzak, olako auzi-mauzi ta eztabaidetatik, txantxetan izanda be. Gure artean, nik uste, Jaunak ofela egingo dauala. Iñok onango ezer ba'leu, ipiñi artez osagafia; ta bildur bedi olakoa, Apostoluen artean Judas'en bat ez ete dan. Zuritu begie ortan, zigor-ilduraz be bai, buztin afunta izateko be eztala gauza aitzen emon eta ulert-erazo arteraiñoan.

7. Aita ona daukazue, Jesús maiteak emona; ez egizue emen beste aitarik ezagutu, ez itzetan erabili be. Saia zaitze, ene alabak, Jainkoaren txera ta maite-erakutsiak merezi izateko: murgil Aren beso artean. Alaba onak ba'zarie, ba-dakizue, iñoiz be etzaituela Beragandik jaurtiko. Olako Aita ez galtzeaŕen, nok ez dau edozer egingo?

8. O, ene Jainko! ta emen bai pozbidea! Baiña geiago ez luzatzeaŕen, gurago dot zeuen bafuetan auznartzeko itxi. Zuen irudimena nastu-nastua izan aŕen be, olako Seme ta Aitaren artean naitaez Gogo Deunak (Espiritu doneak) egon bear. Onek ixio ta gartu begi zuen naimena, Areikanako maitasun biziz osoan loturik, ontarako ezpaita naikoa zuen onura andia bera be.

## XXVIII

"Alkartasunezko otoitza" zer dan azaltzen da, ortara  
oituteko bide egoki batzuk jaŕirik

1. Oar zaitze, orain, zuen Maixuak au diñoala: "Zeruetan zagozana". Ondoren gitxikoa dala uste dozue, zerua zer dan eta zuen Aita guztiz ona nun bilatu bear dozuen

jakitea? Nik dirautzuet, bada, gora andikoa dala adimen jarion edo geldi-eziñentzat, ez bakafik au siñistutea, bai ta bizi-ikasiz berau ulertu al izaten alegintzea be. Auxe da, egiaz, gogapenak lotu-azo ta arimea batzeko biderik egokilabufena.

2. Jaungoikoa nun-nai dagola, ba-dakizue. Beraz, gauza argia, efegea dagon lekuan, antxe dago, esan oi danez, aren jauregia be. Ortik, zerua da Jainkoa egonez dagon toki, ta jakizue Jainkoaren ingurumari dala ditzikor dan guttia. Gogora baita Agustin deunak diñoana, toki askotan Aren bila ibili afen, bere kautan aurkitu ebalatzen (1). Gitxi dala deritxazue arima txepel bat egi onegaz jabetzea, au da, bere Aita Betikoagaz itz egin eta gozatzeko ez dauala zetan zerura igonik, ez izketan zarataka zetan jardunik? Entzungo dausku, bai, ixil-mixilka jardun afen be, ur-ur daukagu-ta. Arimeak eztau egorik bear A bilatzeko, bakartadean jafi ta beregan daukan ostarari ain onagaz bape afitu barik, Ari begira egon baiño; apal ta ustetsu, Aitari lez, Ari itz egin; Aitari lez, Ari eske joan; bere lor-nekeak Ari esan ta edozetarako osagafia eskatu; au danau, bafiz, umil-umil, Aten alaba duin-eza besterik eztala gogora ekafiaz.

3. Itxi egizuez albora batzuk, apal diarduelakoan, Jaungoikoaz euki daroezan ixilpe ta txaldankeriak. Ez, ezta apaltasuna, efegek esku-erakutsiak egin ba'dagiz, olakoak aintzat ez artzea; artu ta beragaz gozartu zaite, zein txiki yartortzun zuk ikusi afen. Apaltasun edefa! Nik etxean artzen dot zeru ta lur Nagusi dana, niri txeratsu itz egitera bertara datorkidana, ta nik, apal-itxuraz, ez dautsot erantzuten, damostanik ez dautsot artzen, ezta Beragaz egon; andik aldegiñik bakar-bakar izten dot! Berak nai dauana niri adierazo ta eskatzen daustan afen, ni —apaltasunagaitik— neure ezeuki ta txirotasunean geratzen naz; ta gafiñera, Beragaz autu-mautuan jarduteko ni erabagitzeke nakusalako, joaten izten dautsat.

(1) Autorkizunak, 1. 10, c. 27.

4. Ez egizue erabili, ene alabak, olako umilkeri zozorik, Beragana jo ta batzuetan Aita naiz Anaiagaz lez, beste batzuetan zeuen Ugazaba naiz Senafagaz lez jardun baiño; orain onetara, gero aretara, Berak erakutsiko dautzue zer egin bear dozuen Bera pozik eukiteko. Ez izan memelak: oratu itzetik, eta zeuen Senar dan ezkerero, olakoari dago-kionez jardun dagiala zuekaz.

5. Aoz izanda be, otoitz-era onen bitartez, adimena askoz ariñago bere bafuratzen da, ta onik naiko beragaz dakanana dogu. "Alkartasuna" deritxa oni; arimea, bada, kemen guztiak batu ondoren, bere barne-zokoan kirimiltzen da, Jainkoaz izateko. Taiu ortan, goiko Maixuak beste edozein bidez baiño arin-egokiago erakusten dautso otoitz-era ori, bai ta "atsedenezkoa" deritxona emon be. Gogoak, bere bafenean sartu ta gorderik, obeto auznartu daike Kristo'ren Nekaldia, an obeto margoz antzetu daike Semea ta Aitari eskiñi, Kalbari-tontofean, naiz Baratzean, naiz Zutoiñean Aren bila adimena nekarazi barik.

6. Ofela, geure arimako zeru txiki onetan sartu ta itxirik egon al dabenak, zeru-lufak egin ebazana dagon leku onetan, eta kanpotiko zentzun oneik bafeiatu leitekezan lekura ez begitu ez an egotera oitu ezkerero, sifiistu beiste bide bikaiñez doazala, ta itufiko ura edatera elduko dirala, cpe labufean arlo luzea dagie-ta. Itxas-ontzian doanaren antzera dabitz oneik, eta aize-giro ona ba'dabe, egun gitxiren buruan txango edo-ta ibiltaldiaren azkenera dira; lufez dabilzanak, ostera, denpora geiago bear dabe.

7. Arima oneik, onezkero, itxasoz ibiltan asirik-celo dagozala esan geinke; ta, oindiño luña osorik itxi ez daben afcn, izandako pozagaitik lefenak dagiez andik askat/eko, euren gogo-almenak bafenera batuaz. Benetako batzea baldin ba'da, laster igafi daiteke, nik adierazo ezin daikedan olako ondoren beroa itxi daroa-ta; iñoiz olakorik izan dauanak, bafíz, bertatik ezagutuko dau. Arimea, bere gain edo, jagi egiten dala dirudi, lufeko gauzak jolas besterik ez baitira, ta augaitik gauza goragokoetara jo gura. Afisku ta are-

rioetatik igesteko gaztelu eldugaitzean sartzen danaren an-  
tzera, zentzunak bazterten ditu kanpotiko gauzetatik, eta  
oneik osoan ezetsirik, zelan ez dakiala, begiak zafatzen yakoz,  
gauza itxi ofeik ez ikusteafen eta arimako begiak zoli-er-  
naiagotu dakiozan. Ofela, bide ontatik dabilenak, otoitz bi-  
tarteana, ia beti begiak itxita euki oi ditu. Ekandu edefa gau-  
za askotarako, lufeko gauzak ez begiratzeko indar egitea  
dozue-ta. Au lenengotan jazo oi da, gero ezta olakorik bear:  
indar geiago bear da gero, otoitz bitarteana begiak zabaldu  
naita. Arimeak indarketan diarduala dirudi ta bere burua  
mendu ta ezten gorputzaren pentzutan; au soil ta mengel  
itxirik, arimeak bertan aginpide indartsua artzen dauala  
esan lei.

8. Asieran ezta au ondo ulertzen, ain argia ez dalako,  
barnera batze onetan geiago ta gitxiago izan daiteke-ta. Le-  
nengotan buruko min pizkat emoten dau, gorputzak be bere  
eskubideak eskatzen dauzalako; baiña ez daki onek txil ez  
egite ori bere burua urkatzea daula. Alan eta guzti be, egun  
batzuetan ortan ekiñik, esandako indar pitiña egin ezkeru,  
argi be argi ikusiko da ortik datofen irabazia. Laster es-  
mauko dogu, otoitzean asitakoan, erleak erlauntzera itzuli  
ta bertan sarturik, ezta ontzen asi dirala; eta au gure alde-  
tiko ardura ta axol bagarik; gure Jaunari eder izan yako, ba,  
gogo ta nai aginpide altsu ofegaz sariztutea, Beragaz emon-  
dako aldi ofen ordaintzat. Ofela, adimenak, bafenera batu  
nai izan ezkeru, kiñu bat egitea naikoa dau, zentzunak artez  
men egiñik, danak euren kautan batzeko. Naiz-ta gero, ba-  
firo be ara-ona ibili, gauza andia da nunbait areik gain-az-  
piratuak izatea; gerora, ba, atxilotu ta mendeko lez urten  
oi dira, ta ezin dagikee ekafi len egin leikeen lako kalterik.  
Naimenak dei dagitsenean, azkafago biurtzen dira, arik eta,  
olako sar-urten askoren ostean, begiztaldi oso-beteana geratzea  
gure Jaunari atsegin yakon arte. Aitu ondo esan dodan au;  
ilun samafa iruditu afen, ba, onetan jardun nai dauanak las-  
ter ulertuko dau. Onezkero itxasoz bide dagigu. Ta onetan

nagi ibiltea egoki ez yakun ezkeru, mintzatu gaitazan pitin bat olako jokabide edefera zelan oituko garean esanik.

9. Arimak azke dagoz ofela pekaturako afisku ta zori askotik; Jainko-maitasunezko suak ariñago artzen dauz; su berberagandik ufago dagoz-ta, adimenak zerbait putz-egin ezketiño, txingartxo batek ikutzea naiko da beingoan ixetzeko osorik, kanpotiko zoztor edo eragozpenik ezpada batez be. Arimea soil-soil dago bere Jainkoaz, ta naitaez ixetu bear.

10. Ontaz egin daigun guk bafuan jauregi txit aberats bat daukagula, uféz ta afi-bitxiz osoan egiña —labur. onako Jaun andiari dagokiona aurki—, eta zuok zariela, egitan, etxe onen zati, ezpaitago etxe ain edefik birtutez jantziriko arima beste danik, eta zenbat eta onoinenez osoago, ango afiak be diztikoi^ago. Jauregi onen bafuan bizi da zuen Aita izatea nai izan dauan Efege andia; balio txit andiko aulkian jesafita daukazue, au da, zeuon biotzean.

11. Lenengo begiraturuz, ezin-bestean ekafia idurituko yatzue egi au adierazteko darabilan irudikizuna; baiña, zuontzat batez be, oso onuragafia izan daiteke; guk emakumok, ba, eskolatuak ez garean ezkeru, au guzti au bear dogu, guk bafuan daukaguna, inguruan dakusgun edozer gauza baiño askotaz —ufik ez emoteraiño— bikaiñago dala ondo ulertu al izateko. Ez, eztaigun iduritu geure bafua utsik: ta Jaunari ba'letsa, ardura-ez onetan andrazkoak bakafik ibiltea! Geure bafuan zein ostarari daukagun gogora ekarteko arduraz ba'genbiltz, nik uste dot ez giñakela munduko uskeri ta zorakerietan ainbeste sartuko, argi ikusiko gendukelako zein ufi ta ezerezak diran areik, guk bafuan daukaguzan ondasunen alboan. Zer geiago dagi piztiak, ikusia atsegin yakonean, bere gosea janariz asetu baiño? Bai, aren ta gure artean naitaez izan bear aldea!

12. Zuok, ber bada, bafe egingo dozue nire lepotik, bai ta au osoro gauza argia dala esan be. Ta zuzenean egongo zarie, baiiia niretzat ilun izan zan aldikada batean. Arima



bat neukala nekian afen, ez neban aintzat artzen aren balioa, ezta bafuan nor egoan konturatu be, bizitz ontako uskeriakaz neure begiak itsututen nebazalako. Nik uste dot, ba, orain lez orduan ulertu ba'neu, neure arimako jauregi txiki onetan Efege ain andia bizi zala, ez neukeala bakafik itxiko onen safi, batzuetan Beragaz egon baiño; Aren bizilekua ez neban, gaiñera, ofen loi ta erabage eukiko. Afigaía benetan, mila mundu ta geiago, bere anditasunez ase-bete leikezana, ain bira estuan sartzea! Egiaz, Jauna da-ta, eskuko be bai Berak nai dauna egiteko; ta, maite gaituan ezkeru, geure neufiko egin oi yaku.

13. Arimea lenengoz, muga bako dana beragan eukiteko guztiz txikia dala konturaturik, naspildu ta bildufetan sartu ez dedin, ez yako Jauna ezagutzen emoten, Berak atan ipiñi nai dauana artzeko beafezkoena emonaz, apurka-apurka, zabal ta nasai anditu arte. Augaitik difiot "eskuko" dala", jauregi au osoan anditzeko aiña indar dau-ta. Giltz-afia emen dago: guk geure biotza, beste edozetik utsitu ta, erabagi-erabagikor, Berari emotean, Berak ipiñi nai kendu-azo dagikean, gura dauana axe, berberaren ondasuna bailitzan. Auxe da Aren egin-baldintza, ta zuzenean dabil: ez daiogun Ari olakorik ukatu. Ta gure naimena indafean artu gura eztauan ezkeru, guk damotsoguna artzen dau; baiña ez yaku osorik Bera emoten, gu osorik Bereak gareala ikusi arte. Au egi utsa da; ta, gafantzi ta gora andikoa dalako, ain askotan gogoratzen dautzuet. Eztau ariman lan egiten, osoro, eragozpen barik, berea dauanean lez; nik ez dakit, alan be, zelan ari dan, gauza guztiak egoki ta eraz nai ditu-ta. Augaitik, jente ufi ta saskaraz bete ba'dagigu jauregia, zelan artuko dau onek Jauna bere jafaigoaz? Naiko txeratsu da, ainbeste naste ta barail artean, apur baten egonaz be.

14. Bakafik dagoala, uste dozue, alabak, gugana datofenean? Ez al dakusazue bere Semeak diñoala: "zeruetan zagozana"? Olako Efegeren jauregikoak, eztabe, ez, A bakafik itxiko: danak Aren inguruan estuturik, gure onerako eskatzen dautsoe, goi-maitasunez beteak dira-ta. Ez uste izan zeruan

emen lez danik; emen, ba, ugazaba naiz nagusi batek, au dala-ta, edo maite daulako, norbaiti esker eclo mesederen bat egin ba'dagitso, bertatik clira nabari onclamu-bekaitzak, inbidiak, eta egundo ezer txafik egin ez dautsen gaixo ari begi gaiztoz begiratzen dautsoe.

## XX I X

A'karíasunezko otoitza jadesteko, era geiago. Gitxian euki bear da nsgusiekandiko maite-erakutsia

1. Jaungoiko maiteafen, etzaitze ibili, alabak, nagusiekandiko mesede ta maite-erakutsi bila. Egin bei bako-txak berari yagokona, ta nagusiak eskertu ezta be, gure Jaunak, ziur zagoze, ordainduko dautzue esker onez. Ez, ez gintzazan ona etofi bizitzan sarituak izateko: bebil beti gure gogamena iraunkofetan josia, ta ez daiogun emengo ezeri jaramonik egin, gure bizitz-arorako be emengoa ez baitogu luzakor. Nagusia, gaur, lekaime onegaz ondo dagola? Biar, ostera, zugan birtute geiago ikusirik, atsegiñago zaituke; ta, olan ez ba'litz be, zer dautzu zuri? Afen, ez emon lekurik olako gogapenai: batzuetan, gauza kaskafetik sortu ta bafen-kezka itzaletara ekafi zaikiez. Ebagi ta ausi artez olako ofeik, zuen efeñua ez dala emengoa ta gauza orok atzen.a daula gogoratuz.

2. Au, alan be, osagafi erdi-bete ta erkin samaña dozue. Oba cla bcronek iraun; zu eratxia, aintzat artu bagea, ta alan

be pozik, zeugan bizi dan Jaunagaitik. Josi begiak zeuregan, so bafura, esan dautzudanez: ortxe aurkituko dozu egundo utsik ez dagitzun zeure Maixua; bai, kanpotiko pozbide gixiago ta Aren gozotasun geiago daukezu. Oso efukior da, ta nekatu-itxiakaz eztau sekula uts egiten, Beragan bakafik uste ontsu ba'dira beintzat. Dabid' efégeak au dirausku: Jauna biotz atsekabetuen aldean dagola (*Ps.*, XXXIV, 19). Au siñisten dozue, ala ez? Dagokizuen baizen zintzoki siñetsi ba'dagizue, zergaitik ofenbeste kezka lafi?

3. O, ene Jainko! Egi-egiaz ezagun ba'zinduguz, diranak bada-ezpadakoak litzakiguz ufean, Zugan uste osoa dabenai aúez emon oi dautsazue-ta. Sifiistu niri, lagunak; emengo mesedeak danak guzur dirala ikusi ta egitzat artzea, on andia baita, batez be arimeari, bere barnetxokoan sartu ta jarduteko, eragozpen eta kaltezko yakozanean. O, lagun bekit Jainkoa! Nok zuoi, bear giñoan, ulert-eragin au? Nik ez beintzat; nik ba-dakit, bai, neureta, aren ta onen gaiñetik, esan beafa euki afen, ez dodala oindiño egin bear neukean lez ulertzen.

4. Ta, arira biurtuaz, nik zelan azaldu jakin gura neuke ta aitzen emon, arimea nola dagoan Lagun onegaz, santuen Santuaz, naspil bagarik, berak eta bere Senafak daukien ixil-bakafean, au da, arima onek berenez "atsegintoki" onetan Jainkoaz batera sartu ta munduko dan guztiari atea itxi, nai dauanean. "Nai dauanean" diñot, au izatez-goitiko gauza ez dozuela jakitea komeni yatzue-ta: geure mendekoa da, Jainkoaren eskefez, nai izan ta geuretu daikegun zerbait. Jainkoak eginda, ofaitifio, Aren laguntza barik ezin bait-daikegu ezer, ezta gogorakizun on bat bera euki be.

5. Au ezta, zelanbait esan, arima-indafen ixiicasuna; gogo-kemenen batzea dozue, arima beraren bafuan. Biderik asko dira oitura au jadesteko. Liburu askotan idatzita dagoenez, geure bafena gauza guztietaz utsitu beafa daukagu, geure kautan bizi dan Jaungoikoagana uferatu gaitez; bai ta argiro diñoskue guztiz, eguneango arazo ta zeregin bitartean be, tarteka-marteka ta unetxo batez izanik be, geure bafura

sartu ta an irauten ikasi bear dogula. Txit onurakor yaku geure biotz-ondoan nor bizi dan gogoratzea. Dana dala, oitu gaitezan, bai ta jakin be, ez daukagula, Jaungoiko.ak guri itz egiteko, zetan zaratuts eta eskanbilean ibilirik; Aren anditasu. nak laster aitzen emongo dausku zelan dagoan antxe bañu ixilean. Beraz, edozein otoitz aoz be, bake anditan, esan al izanik, lan gogaikafitik iges egin geinke, Jaunak berak lagunduko dausku-ta. Aren ufen egon naiean erakutsi dogun epe laburferko indar ordainez, zantzuz be aituko dausku. Ofela, askotan Pater Nostefa esan beafa ba'genduan, bein bakafik esanaz ulertuko dau guk esan nai dautsoguna: eder bai yako gure nekeak arintzea. Ordu betean bein bakafik otoiztuta be, Beragaz gagozala konturatzen ba'gara, zer eskatzen dautsogun ta eskatua emoteko gertu daukagula ba'dakigu, ta zein atsegintsu dagoan gugaz nabari izan ezkerero, ez daukagu geiago zetan jardunik. Esan ta ekin, ez ditu gure buruak makalik ikusi gura.

6. Ez dakizuenai Jaunak berak irakats bekitzue otoitz-era au. Nik, neurez, autortzen dautzuet: ez nebala egundo jakin, gogo-atseginenez otoitz egin edo eferatzea zer zanik, bide au Jaunak erakutsi eustan arteño. Bafuan kirimiltzeko ekandu ontatik, egia, beti eskuratu izan dodaz probetxu ta irabazi andiak. Augaitik luzatu naiatzue ainbeste, berau azaltzerakoan.

7. Amaitzeko, ekandu au jaritxi nai dauanari aufetiaz diffotsat —geugandu daikeguna da, ba, esan dodanez—, apurka-apurka bere buruaren jabe ta nagusitu arte, ekiñean iraun dagiala erabat. Buruagazko mentze ta ukatze ontan ezta ezer alpefik galtzen; beretzat asko irabazi bai, ostera, sointzentzunen bitartez bañen-bizitzarako probetxua ateratea besterik eztalako. Berbaz ba'diarduzue, ekar gogotara badala zuen bafuan Norbait zuek itz egin zengikeoena; entzun naiago ba'dozue, beste iñor baifio zuekandik ufago itz dagitzuela zuek entzun daikeozuen Arek; labur, arimeak jakin bei, egon daitekela naibestean, gura ba'dau, bere eskuan dagolako, egundo be Lagun maite onegandik saiestu barik; eta, gaiñera, safi samar min izango yako berak ain

beafezko dauan Aita, luzaroan, bakar-bakafik, baztertuta itxi izatea. Al bada, batu bei bere bafura, egun bitartean safi; ainbestetan ezin ba'dau, meatzago, nozik-beinka. Ari-meak, ortara egindakoan, goiz edo berandu, irabazi ta etofi andiak izango ditu; ta, Jaunaren esker au bein artu ezketiño, berau eleuke trukauko munduan diran ondasun ta zer guztiakaitik be.

8. Ezer be ez baita lan ta neke-kimiza barik egin oi, Jaungoiko maiteafen, aitzak, euki egizue ondo emontzat oitura au jaristen eralgi dozuen aldi ta ardurea. Ta ba-dakit nik, Arek lagunduta aurki, berau ba'dakazue urte betez edo bear bada sei bat ilabetean bakafik, naitaez eskuratuko dozuela. Begira zein epe laburra onen irabazi andirako! On yatzue, ba, oiñafiak sendo jartea. Jaunari, ausaz, gauza afigafietara zuok jasotea eder ba'litzako be, aurkitu zagiezala ortarako gertu ta prest, Beragandik ufe zagozela. Jainkoak ez bei, nai izan gu bere begieratik iñoiz ufintzerik. Olantxe.

### XXX

Atze ta axol andia dau, otoitzaldian zer eskatzen dogun jakiteak. "Pater Noster"eko itz oneik: "Santifikadua izan bedi zure izena; betorkigu zure ereiñua". Itzok, azaltzen asten dan atsedeen-otoitzari ezarten dautsaz

1. Ete dago iñor, ez-jakiña izan afen, aundiki bategana zuzendu ta mesederen bat eskatzera doanean, zer egin bear dauan aurfetiez auznartzen ez dauanik? Ba ete da, izan be,

iñortxo, Ari gogait ta iguin ez, baiña poz emonik, zelan eskatu ta Arek emongo dautsona zetako bear dauan ez dakinik, batez be, Jesus onak guk eskatzeko dirauskun lez, gauza andiren baten eske ba'goakioz? Egiz, gogotan antzekoa dirudit au. Zuk, ene Jaun, ezin zeinkean esakun baten guztia sartu, esanaz: "Emoiguzu, Aita, egoki yakuna"? Bai, Jaungoikoak dana daki, ta etzan geiago bear antza. O Jakituri betikor! Au naikoa zan Zure ta zure Aitaren arterako. Zu ofela zuzendu zaiakozan Baratzean: zeure naia ta ikarea erakutsi zeuntsozan, eurok Aren eskuetan itxirik.

2. Baiña gu, ene Jaun ofek, ezagun gaituzu, ta badakizu jakin be, gu ez gagozala Zu zeure Aitaren guraria betetako zengozan baizen eratxiak. Augaitik diñoskuzu gauzak, otoitzean, banan-banan eskatu bear geuntsozala, jardun ofetan eskatzen doguna ondo datorkigun ala ez astiro begiratu daigun, eta, ezezkoan, eskatu ez daizugun Zuri olakorik. Guk, bada, aukeramena dogun ezker, ezkeunke Jainkoaren emoirik artuko, geuk aufetik aukeratu ta nai doguna emon ezik beintzat: geuretzat onena izanda be, dirua eskuan ikusi barik, iñoiz ez gareala aberats izango uste dogu.

3. Ai, ene Jainkoa! Ez bai dogu jakin ta ikusi nai fedea ofen lo eukitea zer dan, ezta zelakoa izango dan egunen baten guk artuko dogun zigofa edo saria! Au dalata, on yatzue, alabak, "Aita gurea" esatean zer eskatzen dozuen jakitea, Aita betikoak mesederen bat egin ba'dagizue, Ari ostera biur ez dagiozuen. Ikusi aufetik, begiratsuro, eskatu nai dozuena ondo yatortzuen ala ez; ondo ez ba'yatortzue, ez eskatu; otoiztu bai, ofaitiño, Aren Anditasunak argia emon dagizuela. Itsu ta nakar bai gagoz, biziindartzen gaitun janaririk ezin geinke artu; eriotzea, dakarskuenak bai, oster; ta zelako eriotza, bildurkor ta betikoa!

4. Jesus onak itz edo berba oneik esateko agintzen dausku, arako efeiñua gugana datofela eska oi dogunekoak: "Bedeinkatua izan bedi zure izena; betorkigu zure efeiñua". Begira emen, alabak, gure Maixuaren jakituri andia!

Gogotan artu nai neuke emen, ta on yaku egiaz efeĩnu onetarako zer eskatzen dogun argi ulertzea. Jainkoak baekian, alan be, emen bere efeĩnua guri emonik, gu Berak gai egiten ezpa-ginduzan, geurez ez gintzazala gauza ez santutu, ez goretsi, ez omen egin, ez Aita betikoaren izen doneari txalo joteko. Jesus onak, orixegaitik, eskabide biak batean sartu ebazan. Emen adierazo nai dautzuet, alabak, nik auzi ta lelo onetzaz uste dodana, zer eskatzen dozuen jakiñik, zein bizi ta sendo jardun beařa daukagun onetan, eta zelan alegindu bear garean emongo dauskun Ari atsegin izateafen. Gai au eder ez ba'yatzue, erabili zuek beste gogarte batzuk: ortarako beste baimen emongo dautzue gure Maixuak, gauza guztietan, nik dagidan lez, zuok be Eleizeak irakasten dauskunari men egin ba'dagiozue.

5. Gaiñerontzeko poz askoren artean, zeru-efeĩnuan dagon zoriona, nire eretxiz, auxe dozue: luřeko gauza utsal guztiei agur egiñik, arimeak onen lagun samufaren auzoan somatzen dauan bakezko gozotasuna. Oso atsegintsu ta bake-esnetan nabari da, ingurukó zer guztiak Jauna omen dirditsuz bete ta Aren izena goraturik, ifiok be ez dabela A irainduten ikustetik datorkion bafen-pozez gaifiezka. Zeruan diranak oso maite dabe; arimeak be eztau beste egitekorik, A maite izatea baizen; eta ezin dagike maitatze ori bertanbera itxi, Jauna osorik, dan lez, ezagutu daroa-ta. Zeruan lez maite izan bear genduke luřean be, baiña ezin osoro ta bere erako; alan be, bear giñoan A ezagun ba'gendu, ez geunke maite dogunez maite izango, txit bestera baiño.

6. Aingeru izan bear dogula esan nai ete dot, eskari au artez zuzendu ta aoz egoki otoitz egiteko? Ofela nai leuke gure Jainko Maixuak, eskari ain goena egitera beartzen gaituan ezketiño, ta ez dausku ziuřik asko esango gauza eziña eskatzerik. Zelan eziña, Jainkoak lagunduta, erbeste ontan be? Itxasoan, bear bada, oindifio gabiltzalako, espetxe ontatik urtenda baizen beterik ez dogu lortuko; baiña ba-dira unekadak, ibiltari nekatuen barne-almenak be atsenden ta baretasun eztitan gure Jaunak jarten dabezanak, argi

ta garbi kiñuka lez aditzen emonda, Jaunak bere efeiñua emonikoak zelan gozatzen diran dakienak. Guk eskatutako eran, Arek bere "efeiñua" emen emon oi dautsen arimak, bai-ezaugafi sendoak be izaten dabez, bein edo bein euron bitartez betiraun osoan gozatzeko itxaropena euki dagien.

7. Begiratu bete-beteaz diardudala esango ez ba'zeunste, ondo letorke emen, eskariaz jardutean begiztaldi utsaren asieraz, au da, euki daukienak atsedent-otoitza deritxoenaz pizka bat itz egitea; baiña gorago esan dautzuedanez, aozko otoitzaz ari naz bakafik, ta bi oneik aurkakoak, buruz-buru dagozanak dirala dimdi: ofela da, izan be, ez dakianarentzat, baiña nik ba-dakit egoki datofena dala. Par-ka egidazue, gai au oraindik geiago azaldu nai ba'dautzuet: esanda itxi dodanez, asko ezagutzen dodaz nik, agoz ezezau edo otoitz egiterakoan, eurak zelan ez dakielarik, begiratu utsezko egokera goi-goikora Jainkoak jaso oi dauazanak.

8. Aozko otoitza besterik egundo euki al ízan ez eban pertsona bat ezagutzen dot, eta oni oratu ta erantzirik, dana cukana. Aoz ezer esan edo ezezau ezik, or zear yoakon gogamena, ezin geiagoan galdua, zabal ta ezigatx. Baiña, Gure Jaunaren odol-ixuri ohoretan *Pater Noster* batzuk, —ai!, guztiok ba'gendu ak lango bañu-iraultze ta gogaketa!— beste zenbait otoitzegaz, ezezaten iru ta lau ordu emon eroiazan. Bein oso lafi etofi yatan, berak ez ekiala gogoz otoitz egiten-eta; berak ezin eikean begietsi, begiz-begi jo; otoitzak aoz esan bakar-bakafik. Zer ezezaten eban itandu neutson; eta "Aita gurea" esanaz bakafik, begiztaldi utsean aurkitzen zala ikusi neban, eta Jaunak aldika Beragaz al-kartu ta batzeraiño jasoten ebalá. Mesede andiak artzen ebazala, aren egifietatik be ezezto ateratzen zan, santuen antzera bizi zalako. Aatik Jauna goratu ta aren aozko ototzaren inbidiz geratu nintzan.

Au egia baldin ba'da —ta ofela dozue—, ez uste izan zuok. begiztatzaileen arerio zarienok. emendik azke (libre) zagozenik, aozko ototzak batez be, bear dozuezan lez bafu garbiz ezezu ezkeró.



## XXXI

Auñeko gaiaz geiago. Atsedenezko otoitza azaltzen da, ontara eldu diranentzat oarkera egoki batzuk emonaz.

Jakingafi da oso

1. Oindiño be, ene aitzak, atsedeen otoitzari buruz geiago azaldu nai dautzuet, nik besteai onetzaz entzun edo —nik zuei irakatsi dagizuedan, bear bada— Jaunak adierazo nai izan daustan lez. Nire eretxian, eta gorago esanda itxi dodanez, Jauna emen asten da nunbait gure eskaria ontzat artu dauala aitzen emoten; oindixik, mundu onetan asten yaku, bai, bere efeiñua guri eskuratzen, guk egiaz Aren izena onetsi ta enparauak be orobat egin dagien den-datu, alcgindu gaitezán.

2. Otoitz-era au gure izatez gaiñetikoa da, guk alegiñak egin afen jaritxi ezin daikeguna; gogoa emen baketsu datza, edo obeto, Jaunak damotsa bake ori bere begieraz, <sup>s</sup>>meon zintzoari lez. Ofela nare dira barne-kemenak oso; ta, kanpotiko zentzukiakaz artu-emon berarizkorik ez dauan ezkerero, bertatik arimea konturatu oi da Jaungoikoaren ondoan dagola ta, pizkat geiago uferatzen ba'yako, Arekin al-kartze gozoz bat egiteraiño eltzen dala. Au ezta, osterá, norbait lez an dakusalako, ez gorputz-begiz ez arimakoz. Simeon deunak be, Ume zoriontsu a, ezeuki ta zapi baldafetan batua ta ain jente gitxi laguntzaile, ikusi ebanean, obeto iduritu zeikean, Goiko Aitaren Semea barik. guraso txiroen seme zala; alan be, Umeak berak aitzera emon eutsan goi-argiz. Emen be, taiu ofetan ulertu daroa arimeak, naiz-ta ofen argitsu ez. Arimeak ezin daike esan, ba, zelan ulertzen dauan; bere burua, baiña, efeiñuan dakus, edo beintzat, efeiñua emongo dautsan Efegeren alboan bai. Ta arimea bera be bildurtuta dago, agiri danez, Jainkoari ezer eskatzen azartu barik. Egokera onek sorgofa dirudi, bafu

ta azal; azaleko gizonak, bafiz •—gorputzak diñot, obeto aitu daizuen—, eleuke beretzat nai ezetariko •irakin-zirkiñik; bide azkenera doi-doi eldu dan ibiltariaren antzera, atsedena artu nai leuke, bafiro be bideari gogotsuago ekiteko aurki. Era onetan bafíztuten yakoz soin-indafak.

3. Esan-ezín aiñako zifara gozoa asmetan da gorputzean, eta atsegin berebizikoa ariman be. Pozaren pozez aurkitzen da itufi-ondo ikusiaz bakar-bakafik, urik edan bagarik be egafia asetua baita. Bere ustez, ezta besterik ifikatu edo opa izatekorik: bafen-kemenak, zarata barik, atsedena eztiz daukazan ezkeru, edozer iruditzen yako zoztor Jaungoikoa maitatzeko. Ez dagoz, baiña, onen galduak; biak •—adimen ta naimen— azke dira-ta, igafi ta asmau dagikee noren ondoan aurkitzen diran. Naimena dago emen atxilotua, ta, ofela dagola neke-miñik izatekotan, bafiro be aukeramena eukitera biurtu leitekela ikusteak emon legikeona litzake. Adimenak gauza bat bakafik ulertu nai leuke; oroi-menak be eleuke beste ezer gogora ekafi nai; gozotasun onetan, bada, biak argiro dakuse emen daukiena naiko yakela, ta gaiñerakoak artegatu besterik ez dabezala egiten. Gorputzak, bere aldetik, eleuke ikerarik egiterik gura; ustez, eder yakefi gozotasuna galduko leukie, ta ez dira azartzen irauli ta naspiltzen. Gogaikafi yake itz egitea bera be. Ordu bete emon oi dabe bein bakafik "Aitn gurea" esaten, Jainkoaren ur-ufe egonik, kiñuz be aitzen dautsela uste clabe-ta. Jauregian bizi dira, euren Efégeren aldamenen, eta nabari dabe emei lufean asten yakela bere efeiilua emoten. Munduan ez dagoz antza, ta eleukie nai ez ikusi ez entzun, euren Jauna ezik: ezek ez ditu artega, ez ezek kezka. Laburkiro: atsedena-otoitz onek dirauan bitartean, arimak, emen nabari daben poz-atsegiñaz, sor ta lor dagoz bai, ta ez dabe uste opagafirik beste ezer legokenik, eta, pozez gaiñezka, ots egingo lenkie, beiñola Pedro doneak lez: "Jauna, egin daiguzan emen iru bizileku" (*Mat.*, XVII, 4).

4. Banaketan, atsedena-otoitz onek diraualarik, Jainkoak beste mesede bat egin oi dau, egundo artu ez dauana-

rentzat aitzailagoa. Baiña bein edo bein olakorik izan ba' dau ta biziikasiz eskolatua baldin ba'da, Jaunagandiko doe ori leukakenak laster igafiko dau ta poz andia ekañiko dau-tzue berau zer dan jakiteak. Jainkoak safi egin daroa, nik uste, mesede au, besteagaz batera be. Egon au, andia ta epe luzez danean, naimena zezeri oratuta ez ba'lego, eleukela deritxat bake ofetan ainbeste iraun al izango. Batzuetan, guk beronen zergaitia ulertu ez afen. egun bat edo bi irauten dau. Otoitz-maila goi ontara Jaunak jasotako arimakaz mintzo naz. Eurak ba-dazaue ez dabiltzala ain zur ta adi esku artekozeregifietan, eragile beiñena, au da, naimena palta yakela. Ta kemen au, nik nste, Jainkoari loturik datza, ta beste kemenak azke, libre izten ditu, Aren mofoitzan arazotu daitezana. Oneik orduan askoz trebe ta eragifiago dagoz ortarako; lufeko garatz eta gauzetarako, ostera, baldanago agiri dira, bai ta aldizka mekotuta be.

5. Au egiten dautsonari mesede andia dagitso Jaunak; bizitz biak bada, ekiñezkoa ta atsedenezkoa, alkar nastu ta batzen dira emen. Izate osoak, ofela, Jauna otseintzen dau: naimenak, begiratuan datzalarik, zelan ez dakiala, lan dagi, ta beste indar biak, Marta'ren arazoa bete daroe: beraz, Marta ta Mari alkafegaz dabiltz. Pertsona bat ba-dazaut nik, Jaunak egokera ontaraiño safi jaso oi ebana; berak ez ekian au zelan zan, eta begiratu-zale andi bati itandu eutsonean, onek erantzun eutsan baietz, ori izan leitekena zala, ta egiaz berari be ori jazoten yakola. Beraz, arimea ain gozotasun esan-eziñean dagon ezkeru, nik uste dot, atsedent-otoitz onek dirauan bitartean, naimenak, al dala beintzat, atsegindu ta bete daikean Aregaz oso alkar-turik egon bear leukela.

6. On izango da, aitzak, aolku edo abisu batzuk emotea, zuon artetik ifior, Jainkoak, bere maitasun utsez gero, otoitz onetaraiño ekafi ba'legi be. Onetarikoak, ba-dakit, batzuk ba-dira. Lenengoa auxe: poz au arimak nabari dabela, ta nundik nora etorri yaken jakin ezta be, ta euren ezin daikeela irabazi ikusi afen, berau iraun-azo da-

gikeela uste dabe beifiik-bein, ta ortarako alegiñak egin be bai, euren arnaseari eutsiaz-ta. Taiu barik jakotzea da, alan be, ots, lelokeria: guk ezin daikegu egunik ufatu, ezta gainbera datorkigun gaba galazo be. Otoitz au ezta gure lana: gure indafen gaiñetikoa dogu, gure eskutik kanpo dagoana. Berau iraun-eragiteko biderik seguruena, auxe: guk, ez gitxitu ez geitu, ezin daikegula ortan ezertxo be egin. argi ta garbi ulertzea, ta berau merezi izateko guztiz gai-ezak garean ezketiño, guk ezin geinkela eskefak emonaz artu. besterik egin. Eta esker emote au be, ez bedi izan berein itzezkoa, polito-polito geure begiak, zergariaren antzera, goirantza jasoaz baiño.

7. Egoki yatzue, baita, bakafeko ixiltasuna bilatzea, geure Jaunari leku emoteko, Aren Anditasunak bere lana osotu dagian. Ta noizik-noizera, geienik be, olako itz samurño bat, noiz ilgo dagoan kandleari putz-aize biguna, edo-ta bafiro biztu-aizatzeko emon oi yakon putz-oldafaren antzekoa; su-izpi bizitan efe ba'legi, alan be, gure arnasotsak ito besterik eleuke egingo. Nire eretxiz, samurkiro biztu-azo bear dogu, adimen-indafez esaera luzeak apain eratzeagaitik, naimena lar arazotu ez dagigun.

8. Aitu ondo, lagunak, ufengo oar-esan au. Askotan aurkituko zarie zeuen arimako almen biakaz ezer ezin egiñik: arimea bakezko itxaso gurian murgil dagola, or dabil zuen idurimena goiak zear, eta an gertatzen dana ez dirudi bere etzekoa danik: ez, afotz bailitzan, iñoren etxean bizi dala begitantzen yako; ta berenean pozik ez daulako, beste bizitoki batzuen bila dabiltzue, or dagokion atsedena zelan gozatu ez daki-ta. Ba-leiteke au neuregan bakafik jazotea, ta besteak ez bide dira ofekkoak; batzuetan —neure buruz diardut—, il nai neuke. Ta zergaitik? Neure gogamenaren asko-zaletasun au esku-mende eukiteko lain ez nazalako. Beste aldikada batzuetan, adimena antza egonez dago bere etxean, naimenari lagundurik. Eta iru almenok bat datozanean, zerua dirudi egokera onek. Maite diran ezkondu bikote lez, arek nai dau onek gura dauana; baiña senafa

txarto ezkondua ba'da, laster ikusten da onek emazteari emon leikeon atsekabe-miña. Gisa berean, bada, naimenak, atsedean gozoan egon ba'lego, ez beio adimenari zoro bati baiño jaramon geiago egin. Beragandu nai ba'leu, naitaez arazotu ta kezka jafiko litzake. Ta modu ontako otoitzean, arimeak, irabazi beafean, galdu egingo leuke, Jainkoagandik bere esateko lan baga artzen dauan ori.

9. Euki gogoan irudi edo antz au, nire eretxiz egoki datofena dozue-ta. Oraindik arimea amaren ugatza artzen dauan ume antzera ari da; amak, ari atsegin izateafen, agora bota oi dautso esnea, arek ezpanai be eragiten ez dautselarik. Ofelaxe da emen: adimenak laguntzake, maite-arloan diardu gogoak. Eta gure Jaunak au gura dau: arimeak, ifiundiko efazoiketa barik, Bere auzoan dagola konturaturik, bere Anditasunak aoran ipifiitako esnea bakar-bakafik iruntsi dagiala, gozotasun aren guria txastatuaz; ofezaz gaiñera ezagutu dagiala Jaunak mesede ortan diardutsola ta, Bera be, arimeari damotson gozotasunean gozatzen dala. Ezpei, alan be, zer ta zelan gozatzen danik jakin nai izan, unekada ortan bere buruaz aitzuta bizi baiño. Alboan daukona, ba, egokien yakonaz arduratuko da. Edozein indarketa, gogamena menderatu naita, edo an gertatzen danean eskuartu dagian, eziña litzakio, ta gura nai gura ez aotiko esnea jausten itxi bear; eta ofela, jakiña, jainkozko janaria galduko leuke.

10. Atsedean-otoitz au onexek bereizten dau "alkartezkoa" deritxonetik, au da, arimea osoan Jainkoaz alkartuta dagoanekotik; arimeak, orduan ez dago janari-irunste au berau be: arimeak ez dakialarik ze moduz, Jaunak berberak jarten dautso bafuan. Otoitz onetan, bafiz, Jainkoak nai dau, antza, arimeak be lan pitin bat egitea; oso atsedentsu ta aisa, ofaitiño, doi-doi ezer sentitzeko moduan. Arímea onela aurkítzean, adimena yako zoztor ta kezka; au ezta jazo oi, ostera, iru kemenak guztiz aikartu ctiranean. Sortu zituanak sor-gor jarten ditu, ta ortik datofen poz-atsegiñak, almenok zelan ez dakiela be, danak arazotzen ditu zelanbait.

11. Augaitik —diñot nik—, "alkartze" otoitzaldian, naimenaren bake ta poza andia baita, arimeak ezin dau erabagi pozaldi ori nundik norakoa danik, argiro beintzat, onen eta lufeko poz guztien artean alde galanta dagoala ondo dakian afen. Mundu guztiaren jabe, bertoko poz-guritasun danakaz izateagaitik be eleuke emongo arimeak, bere naimen-zokondoan sentitzen dauan olako zorion pizkat; ni-retako, bada, bizialdiko beste poz-atsegiñak naimenaren landak, edo azalak, gozatu oi ditu.

12. Beraz, zuen artekoren bat otoitz-mail goi ontan aurkitu daitekenean —au, bada, esanik dagonez, agiri-agirian izatez goitikoa clozue— adimena, edo obeto aitzen emoteafen, irudimena, munduko taiubakokeri andienetara ba' doakizue be, bafe begi alakoak ofen bizkafetik, zorotzat joaz, ta bego nasai bere bakezko atsedeen gurian. A joan-etofika nekatu afen, naimena da emen etxeakoandre, ta indartsu alan be, ta onek ekafiko dau a eskura, zuok ezetan be arduratu barik. Eta indafaren indafez menderatu gura ba'zeunkie, zuen naimenak arein kalterako dauan adorea erkinduko leuke, ots, jainkozko janariz asetztetik datofena, ta ez ak ez onek eztau ezer irabazirik aterako, bitzuak galdu baiño. Esaerak diño: "Lar batez estutua, oro batez galdua"; emen be, auxe jazoko da, nire ustez. Oar-ikasiak erakutsiko dau ori; ortakorik ez daukanari, ostera —ez naz bape afitzen— iluna ta alpefikoa irudituko yako. Alan eta guzti be, esan dot, olako zentzun apur bategaz, naiko argi aituko dozue; bai ta bertotik onura edo probetxu pizkat atera be. Jauna goralduko dozue, gauza au zuei emen azaldu ta espliketako gai egin naulako.

13. Onenbestez, amaitu daigun, esanik: arimea bein otoitz onetan egokitu ezkeru, esan daikegula dirudi Aita betikoñak emon dautsola emen egin eutson efeiñu-eskabi-dea. O eskabide zorionsu! konturatu barik, ainbat mesede eskatzen dautsogunekoa! Eska-era bikain! Augaitik, ene aiztak, arduraz ta benetako afetaz esan daiguzan beti Pater Noster ta beste aozko otoitz guztiak. Jainkoak mesede au

egitprduan, lufekp zer danakiaiztu.bear dógúzy:lur osóaren  
 Ja,bea eldutean, oroj^urti pi dau^kanpora; ;!;! ><vuun^<u:u  
 <,;• 14; Ez-;diñPtí otoitz áu daukien' guztiák, náítaez,í mtin-  
 •• duko- dan datta erántzi<sup>1</sup> bear' daberikf baiña 'ohek' ezágútu  
 dagiela 'béiñt'zát ^a u 'gurá heuke'hik—', 'zer'pálta' yákén  
 •oindiñokafen, eta" euréri' buru'ak 'ápal-etsirikj' alegihdu 'dai-  
 tezala dána ítxi tá 'éfaztéh; 'oféla ez' 'ba'légie, badá, émeñ  
 geratukó' litzatekez" bape auferatu bár'ik. Olakó' óndasunák  
 arimeari egiñaz-eta, Jainkoák argi tá'gárbi dáfakus gauza  
 andietarako' *mv* dauala.' Ta beré 'éfuz 'ezpada, "árima<sup>1</sup> ofek  
 auferakuntza' galanták' egingp ditu 'ziuf ik' 'askb?' Baiña<sup>1</sup> jaiñ-  
 koak ba'dakus arimeña, onen 'bañuan bére efeiñua ipiñi aferi,  
 lur ontako gauzetara 'biurtzen 'dalay ez dáutso'jakiñá'bére  
 efeiñuan daukari ezkutu ta"místeriorik iragáfiko, ezta oTang-  
 go pntarte..ta doairik egin'be<sup>1</sup> noizká tá Tabu'baiño.

15." "Orifári ba-daiteke ni okér egotea; baiña nik; ba-  
 ijakúst" etá báclákitoféfa jazo; pi dana. Áuxegaiti)ç dira,  
 'riifé aburuz, ain! grixi pso" bafenkpi diranak: onen,, msesede  
 goikóari dagokion eran, ekiñez erantzuten ez dau.tspelakp;  
 báñro.be artu dagieza^, euren bañuak ganora? gertat.u piez  
 dabezalako. Onakoak indafçz, lez erauzten,; dabe. euren nai-  
 mena,;bere;gauzatzat. artu^ .daukan.Jaunareri ,eskuetatik:..a.ri-  
 ma oneik gauza kaskafetara zaleturiL jku.steh. ditu-ta, beste  
 arima batzuk, Bera .maite, dabiñak,<bjlat:zen .dauz, íñits geia-  
 gpz. arei emon, naiean.o^lan be, JenerigP. arim.a ;6feí :ez. dautse  
 emondakpsL pspap • kentzen, bañu garbiaz,- biziiba'dira :beintzat.  
 Baiña pertsna. -b^tzyk ba,ñdira ,— ta. .ni, • be -ofeitakpa:: izana  
 nozue—, pso aldrebesak: Jaunak biótz-samurtzen dituorieik,  
 goi-argi donez perotuz, lur-gauzak zer dir.an jakin aiñako ar-  
 gitasuna empnaz, ta, azkenean, .bere, ;e.feiñua. eskuratuz,  
 atseplen-tpitzeari. jafink, Eurak, osterá,, sor,.ta gor;.. guragP  
 bait-dabe itz etajtz jar4u">.eta, esku affekojariajalik arifien  
 amaitu nai dauanaren antzera, berejn :apzqp ptpitz. lasterka  
 esa.n. Ç-isa,pnetari, djñpdanez,. gure Jaunak, bere,,efeñua  
 eskuetan jafi nai, jzanda. b.e, areik .ez.dautspe artu .gura:

obeto dagie, ustez, euren eguneango, otoitzak esanaz, ta olan nasai bizi dira., ;

16. Ez egizue, aiztak, olakorik egiñ; zur ta ernai zagokeze, Jaunak esker au dagitzuenean! Gogoan euki, áfen; ondasun :galanta alpefik galtzen dozuela; ziur égon, noizik-bein Pa.ter. Noster'eko • eskari bat egiñá, aríñeketan'safi esanaz baiño geiago ; irabazten dozuela. Zeuekaidik ur-ur daukazue eskatzen dautsazuelia, ta etzaitue entzun baga itxiko. Eta, nire. eritxian, Aren izena onéla goratu ta "san-tifikadu" bear dozue^ Aren etxeko zarien ezkeru, bada, Bera aintzaldu ta goستن dozue, uzi ixio ta naitasUn geiagoz; eta, gaiñera, alan dirudi, zuek ezin zeinkie besterik egin, Aren mirabe ta zerbitzari izan baiñp.

### XXXI I

**Pater Noster'eko: "Egin bedi zure borondatea, zeruan lez luíean be" azaltzen da emen. Itz oneik adi tá zur esaten dauazanak, asko dagi, tá Jaunak óndo be ondo ordaihtzen dautsoz**

1. Mesede. andia, bene-benetan, gure Maixu onak gu-retzat Berak eskatu ta guk geuretzat zelaneskatu bear dogun erakutsi, dauskunekoa; onek beregan artzen dau guk bizialdi onetan eskatu gura izan gengiken guztia. Bere anaiak egi-terairioko mesede andi au eskuratu dauskun ezkeru, ikusi daigun erabat zer nai dauan guk bere Aitari emotea, ta zer



eskatzen dauskun Aitari ordez emon daiogun; lenengo ta bein, gure Jaunak zer eskatzen dauskun ikusi bear dogu, egindako bedeinkapen ain andiak zelanbait ordaindu bear dautsaguzan ezkeru. O Jesus ona! Zuk gure onerako ainbat eskaturik, gure aldetik zein gitxi artzen dozun ordaiñez! Emoten dautsaguna, bada, ezereza da, olango Jaun andiari zor dautsagunaren aldean. Alan be egia da, ene Jaun, gu ez gaituzu utsik izten; eta al dogun guztia emon oi dogu, itz oneik: "Egin bedi zure guraria; zure naia, zeruan lez, egiña bedi lufean be", esatean; geure borondatea, egi-egiaz, ba-damotsagu beintzat.

2. Zuk ederto egin zenduan, gure Maixu on ofek, atzen-eskari au egiñaz, guk be bete daigun guri berton agintzen dauskuzuna. Egiaz, bada, Jauna, zuk ofelan ez ba'zengi, eziña iduritzen yat. Baiña, zure Aitak egiñik emen guri bere efeiñua emon daigula eskatzen dautsazunean, nik badakit zure agindua beteko dana, zuk gure izenean eskatzen dautsazuna guri emonik. Lur au zeru biurtua dagon ezkeru, zure naia egitea ezez izango yatzu. Onela ez ba'da, Jauna, ta nirea lango lur kaskar ta elkoñean, ez dakit zelan izan daiteken. Ain gauz andia eskintzen dozu!

3. Ta onek bere zera dau. Afigafi yat, izan be, pertsona batzuk Jaunari gurutz-nekerik eskatzen ez azartzea; eskatu ezkeru, ba, beingoan bialduko dautsezala uste dabe. Ez diñot ezer, ofeik eroateko aiña indar ez daukiela-ta, apaltasunez eskatzen ez dautsoenakaitik. Alan be, nik uste dot, maitasuna erakusteko ain bide latza eskatzeko adorea damotsenak, eroapenez artu ta eroateko aiña kemen be emongo dautsela. Eskatu ta ara nekeok emongo dautsezalako bildufez eskatzen ez dautsoenai nik itandu gura neuskioe, zer diñoen eurekan Aren borondatea egin daijala Jauna otoizten dabenean. Ala besteak diñoena esateafen ete diño, ta ez egiteko asmoz? Au, aitzak, ez legoke ondo. Begira: Jesus ona da emen gure Mandatari, ta, ez neke-oiñaze gitxigaz gero, gure ta Aitaren bitarteko egin nai izan dau; ta ez litzake gauza itxuratsu, Arek gugaitik eskintzen dauana guk

cgi biurtu nai ez izatea; bestelan, iñoiz be olakorik ez aita-tzea, oba litzakigu. Goazan orain beste bide batera: ona, alabak, bear-beafik ori beteko da, guk gura nai gura ez, ta Jainkoaren naia egingo da bai zeruan bai lufean. Siñets egi-dazue, ar ene eritxia, ta onbide egin naitaezkoa.

4. Oi, ene Jaun! Au bai yatala atsegin! Nire nai do-loña gorabera, Zuk ez dozu iñoiz zeure guraria bete gabe itxi! Gora Zu betikoz, ta gorets zagiezala sorkari guztiak: aintzaldua bedi zure izena betiraun osoz! Ona nengoke ni, Jauna, zure borondatea egin edo ez egin nire eskuetan ba' legoke! Baiña orain, neuretzat alde ona ataratetik oso garbi ez afen, gogoz damotzut nik neure naimen au; lendik be, bada, biziak erakutsi daust, ta ondo erakutsi be, neure naia Zugan osoro iztetik zelako irabazi andia datorkidan. Oi, adiskideak!, zelako alde dakarskun onek! Eta zenbat gal-tzen dogun, arako Pater Nostefa esatean, ontan Jaunari es-kintzen dautsaguna bete bagarik itxi ezkerol!

5. Sorburu ontatik yatorkuzan irabazi ta onura guz-tiak adieraztera orduko, emen eskintzen dozuen guztia era-kutsi nai dautzuet, gero bear bada, gai ori etzenduela ondo ulertu-ta, ziria sartu eutzuela esan ez dagizuen. Lekaime batzuk, bada, au dagie: agindu ta eskiñi bai, baiña gero es-kiñia bete ez, eskiñitakoa ez ebela ulertu aiko-maiko artu-rik. Eta au izan daitekena dozue; geure naia beste bateren gain itxiko dogula esatea gauza efeza da, baiña gero, bizi izanaz, egin daikegun gauzarik zailena dala ikusten dogu, bete bear dan lez betetzekoan beintzat. Nagusiak, alan be, gu makal ikusirik, ez gaitue beti ain gogor artzen; batzue-tan, gaiñera, makal naiz sendo, bide bardiñez erabili ta eroan oi gaitue. Emen, bafiz, ezta ofela; Jaunak ba-daki bakotxa zenbateraiño eltzen clan, eta arima kementsu bat aurkitzen dauanean, onegan bete daroa bere borondatea.

6. Oraindik be, Jainkoaren borondatea zer dan go-gora ekar-azo ta iragafi gura dautzuet. Emengo aberasta-sun, atsegin, dedu, ez beste ezer emongo datzuenik ez uste izan; ain txatxar etzaitue gura. Zuek emoten clautsazuena

askotzat dauko ta itxuraz ordairtdu nai dautzué, bizi. zatiela be bere efeiñuádamotzue-tá. Ikusi gura ál dozué zér dagian au bencbenetan diñotsenakaz? Baratzeko otoitzékban esari bai «utson, itandu bére Seme aintzatsúafi. Erabagi osoz ta adore guztiz esana zalakó, aikutzue zeih ederto béte ebari Aregan, neke-oiñaze ta irain-jazarpenik asko emonaz, azken-arnasa gufutz-abe gaiñeanaitu arte gero. y- •, -...;

7. Ikusi' emen, alabak, zef eimort eútsán jaihko Aitáfc geien maite ebatí Ari; ta onek árgitá 'gafbi dárakiisfcu Areh borondateak zer adierazten' dauati. Ne'ke-o'iñázeáfc" ditugu, beraz, Aren bezuza ta .maite-erakutsiak mutidu orietan. Geúrí' dauskun.maite-zaletásunaren tiéufi tá 'efáfa éftibtí oi dausku; asko maiie dabézanaf'asko' emoti dafoatsé; gítxi máite dabezanai,: gitxiago, ^bakotxák'eraikiitsi oi 'dautsori' kéméti tá Berari; dautseti máite-suari yagokónheuífirá. Askó<sup>li</sup> maité dauanak;; éfex dakuS' Jáuiiak, "ásko efoati daikela Béf'agaitik; txepel ta otxak, •ostera.gitxi'. Geure^rriaitá'suriá do'gulá, rtfíc uste dot., andi naiz; fexiki, ,guk , eroan, igengiken gutútzearen neufL Augaitik,,:aiztak,:mdite-suau ba'dáukazue, gogora zer egin, bear clpuzen: Jaunarifisaite.n dausazuezanak ;ez, daiteza^ la izan.eguhdp.beitz edefak bakafik, Jainkoak iaai leukemia e.roaten, eta ,egiten: bflíi beroz;;arduratu baiíio. Onela,fez-ta, beste edozein , eratará. zeuen naimena ; Afi ba'damotsazúe, afi^pitxia, erakutsi, ta, .-berau, artizeko , éskaturik,.., Arek; eskiía artzeko, luzatzean, zuok obeto gordetzea lez Jitzakei; ;;

"•;8. Ixekáta'burlakeft ondkV'gUgaít'ik airibat egih etttso-eizánariy ez' yátó'koz••' ottdo'. Bés'té efázblrík ez' ba'lego bé, oker andiá lítzake 'giik ófela Aréti iépbtik 'bafe' é'gitea,<sup>1</sup> beíri ta bafiro, "Aitá<sup>is</sup>'gurea" esáteh do'guh •gtiztietáh. Emoh daiOgúh, •béirf' betiko, 'airi'safi'eskiñi dautso'guir afi-'pitxiá'; égiá dbgú' aláhbéy Bérak'efamoskula iétierigóz, 'giik gefo emofi daiogun. Muhduan bí'zi difahak' naíkoa égingo dabe, euren naimenazintzozaihkoaren'fneríde jatteko erabagia artu ba'dagie; baiña;;zúek;'.alabak, esan ta-egin, auda,itzak eta egiñak ,bear.dozuea;' egia esan, lekaimok egin oi::dogunez. Noizik'-beiríy alanbe, ez bakafik geure afi-bitxia Jatmari es-

kiñi, bai ta^Aren esku bañuan ipiñi be egin oi dogu, t'á' gero bañiro geure eskuratu. Gu bai lenengotan esku-zabal, ta gero kaskar! Emokeran zúfago jokatu, oba litzakigun.

9. Liburu 'au egiteá'n, 'nik erabili dodan asmo guztia auxe izan' dá: geúfe buruak Egileari osorik eskintzera bultz-eragitea, ots, geure guraria Arenaren mende jar'i ta izaki edo.lufeko gauzetatik erantzi. Onek zein gora andia daukan kontutatzen ba'zarie, ez dautzuet beronetaz ezer geiago esango;. azaldu nai dautzúet, alan-be, gure Maixu onak zergaitik jarten dabezan emen eskabidezko itz oneik. Arek ondo bai daki noraiñoko irabaziá. aterako dogun bere Aita betikoari agindutakoa beteaz. Oso epe labuñean, bada, geure ibilaldiafen azkenerantza aurkituko gara, ta bertatik aitatu-dautzuedan itufiko ur bizia edango dogu. Baiña, gauza guz-tietañ, rarek eskatzén - dauskunez. gugan egin dagian, geure naimaha osoro Jaunári emon ezik, guk ez dógu sekula be' ur/%ortatik edango<sup>1</sup>. Au; arako otoítz bíkain-bikaiña, dozue,- artazidaztéko' esan zeunstiena; - ' - •• ••

' 10; <sup>1</sup> Eta ó'ntáfa'ezkefo, erakútsi dáutzuedánéz, guk ez dogtr geufé áldetik 'ezértd' 'bé égíteri;' Emén éz dogu gúk ez lánik egiten, ez éfabagífik ártzen, ez eta beañezko be geiago; otoitz au "egin bedi zure borondatea" izan ezik, gáñerako. gbtzia 'zoztorta erágozpen besterik ez yatzue. Egin bedi nigan' zure; borondátéa efa ta gauza guztietan, Zeuk, ene Jauna, nai zeunken lez. Neke, lan ta gurutzeak emon gura ba'daustazuz, indartu nagizu, ta betoz; jazarpenak, geixoaldiak, lotsariak eta beañizanak bialdu nai, ba'daustazuz be, emen naukazu gertu; ez dot arpegirik itzuliko, ene Jainko! Ez daukat, gáñera,: eskubiderik be areitatik iges egiteko; zure Semeak eskiñi bai eutzun nire. naimen au danon ize\* 'nean, ez dagokit niri onetan uts egiterik. Betor nigana zure efeñu ori, zure Semeak niretako Zuri eskatu eutzunez, nik Zure naia bete, dagikedan. Zeurea nozu-ta, agindu taebatzi nitaz, Ze.uk opa dozunez, ,

' .11,.' Oi, ene aitzak, zelako indafa dauan borondate\* cmote onek!; Erabagi osozkoa. baldin ba'da, Alguztiduna

bera geure txikitasunaz bat-egin, eta gu Aregan eraldatze-  
raño erakañ oi gaitu, gisa ofetan izaki egiña bere Egileagaz  
batean korapiloturik. Ez al zagoze ondo ordainduta? Ikus  
zein ona dan zuen Maixua! Arek ba-daki zelan irabazi bere  
Aitaren ondo-naia, ta guk zelan ta zegaz beste ainbeste egin  
erakusten dausku.

12. Erabat, zenbat eta guk asmo osoagoz jokatu, ta gure  
eskintzariak ez dirala berba uts obeto egipenetan erakutsí,  
geiago, geiago garoaz Jaunak be bere bafen-kautara. Lur  
ontako gauza guztien gaiñez geiago jaso oi gaitu, bai ta geure  
gaiñez be, onelan gu zerutíko doai ta mesedeak artzeko gai  
egin ta gertaurik. Bizitz onetan be, eten barik, ordaindu  
daroasku dagitsogun mofoi-lana. Guk geiago zer eskatu ez  
dakigula, Aren Anditasuna ez da iñoiz aspertzen guri me-  
sede bafiak egin-nairik. Arimea Beragaz bat egíñik eukitea  
naiko ez yakolarik, berau laztandu ta beroni ezkutuak ira-  
gafi ta ager-azten daragoio; pozafen dago Jauna, arimea, zer  
irabazi dauan konturatuaz doiala ta emoteko daukanetik be  
zerbait ezagutzera eldu yakola ikusirik. Onakoa, Jaunak be-  
rak, kanpotiko zentzunetatik erantzi oi dau, oneikaz ezetan  
be arduratu ez daiten. Onek dagi "zentzun-galtze" deritxo-  
guna.

13. Taiu ortan, Aren adiskidetasuna txit bafenkoia dan  
ezkero, arimeari ez dautso bakañik berea zan naimena biur-  
tzen, bai ta aregaz batera Berea emon be egin oi dautso.  
Arimearen adiskide kutun dala, eder yako Jaunari aregaz  
baterako aginpidea, esan oi danez, "txandaka" artzea; ta,  
arimeak Jaunaren esana dagian neufira, ofela Berak, ordai-  
ñez, dagi arek eskatzen dautsona, naiz-ta Jaunak askozaz  
beteago: altsua da-ta, gura dauan beste dagike, ta beti nai  
dau ofelaxe.

14. Arima gaixoak, ostera, nai izan afen, ezin dagike  
Arek nai leuken guztia; emon ezik, ezin dau ezertxo be.  
Auxe da aren aberastasunik andiena: alegin geiagoz, zor  
geiago; ta safi askotan nekatua, aragi ontan atxilo egoteak  
beraz dakazan ainbat buruauste, zoztor, atzerabide ta lotu-

raz; ordaindu nai leuskio, ba, zor dautsonetik zertxobait. Neke-artze au, bafiz, txaldan uts izatea litzake. Izan be, a3 doguntxoa egin afen, zer ordainketa egin geinkeo guk Ari, arturiko ori —esan dodanez—, ez baldin ba'daukagu emoteko? Zer dala-ta, ori ez ezagutu? Ta al dogun bakar au, ots, geure naia Ari emotea, zergaitik ez egin gogo osoz ta pozafen? Gaiñerako guztía, Jaunak egokera oneragiño ekafi dauan arimeari zoztor eta oztopo besterik ez 3'ako; kalte egifiik, ez dakartso ezer onik: apaltasunak bakafik eutsi legikeo emen, eta ez adimen-indafez lortutakoak, gero, egi-ikusie utsez irabazitakoak baiño. Guk onen bitartez ulertu daroagu, ameneko baten, geure ezereza ta Jainkoaren anditasuna, efazoi-indafez luzaro asko ikasi al gengikean baiño argiroago.

15. Emen auxe jakin eragin nai dautzuet: zeuen al izatez edo arduraz onaiño eltzerik, ez uste izan; oker zen-«okeze. Bestera, bafu-bero ibili eta be, otz geratuko zarie. Soil ta apal, —emetik bai datorkigu dana—, esan zuok sendoro: "fiat voluntas tua": egin bedi zure borondatea.

### XXXIII

Bear-beafezko yaku, Jaunak guri emotea, Pater Noster'eko itz cneitan eskatzen dautsoguna: "Panem nostrum quotidianum da nobis hodie". Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia

1. Jesus onak ba-ekian, bai, esan dodanez, zein gauza zaila dan guretzat eskatzen dauan au, batez be gu izatez makal izanik, eta guk ez dakigula zein dan Jainkoaren bo-

l-orfdatea sanaskórtart'áitzeri emoriik. Bai, 'gu rriakáiák gafa ta A oribera; aítgaitik, ósabidereh'bat naitaézko dogúla darakusku ta étxakúla bape égoki eskintzeri dariskuriá eriion barik iztea'; gui'éztat, bá, pri egiáz'beíetea arazorik gá'txená izari áferi; ortxe'bai dago gú'reifabazi tá'alde bri guztia. Adibídez, 'esarí 'gízorí aberáts .ago-goxodurí 'bat'i, gosez 'dagozari besté batzuk 'be játékó bgi-izkitxóa béñnik-bein izan dágiari, be're máiari'neufiá'járteaJarik'oák nai dauala, ta milaka atxakí ipiñiko dautzuz au, b'érafi' ondoryatorkpriez izan ezik, aitu eragiteko. Esan orob'at nrarnarti naiz esameslari bat'i,, Jaungoikparen. .aginduz, urko laguna bere burua lez maite izatera beartuta dagoala, í ta.axterijç artu.eziñik jafi.ko yaízu,, ta ez dozu ezetara be efazoirá ekafiko. Esan azke ta guri bizi izatera eginda dagoan lekaide edp.praileari ikasbide ona emori "'béáféán' aufkitzerí d'ara/ ta'ikusí dagial.a"' egin bedi zuré bof'ondafé'a" diñoarié'ári,"zeí diñoári, 'ít'ák bakafik éz dírala ,bete bear dabezariák; zin-itzez -agiridu ebála" Jairfkoa'ren naiera, egitea, ta Jainkparen bofondatéa 'dala berç ágirítzari ta botoak betetea: gogofazo bei olakoak, arisku ta bide txafez ba'dabil, agintzariak osoan ausi ezta be, arein kontra diarduala egitez; txirotasuna eskiñi ba'dau, gorde dagiala aiko-maiko barik, Jaunak auxe nai daulako; batzuentzat, olantxe be, ez dago biderik olan jokatu nai izateko. Zer jazo litzakean, beraz, gure Jaunak berak geiena egin ez ba'leu, emon euskun bsabideárerí bitartez? Ziufik asko, oso gitxi izango ziran itz au beteko ebenak, au da, Aitari gtiírá 'áidé'"egiri 'bedf zuWbbrbRdát'éa"' esári éuts^éiicariV'egíní <kko e&km-m-au be-tekó ~~emk,~~?'-••'-• • - ^ Í «• s;s ;, ,•;

2T"Jesris'tiha'k^íjéfak;,"guré'béáfizáfíak ikusizy'bide afígafi bat idoro ta ufatu eúskúrr—Sfela erakutsiaz guri dauskun maitasun mugabagea—, ta bere ta beraren anaien ize-nean egin eban eskabide au: "Emoiguzu, Jauna, gaur geure eguneroko ogia"."Jaiinco.maiteafen; ulertuidaigun orido, aiztak, gure Maixu.onak eskatzen dauanau: gure ^gpgg-bizitza, ba, onetan-daukagu, eskabideko' berba -ta itzok- geure begi

aurki. Ortik diño: "Geure ogia." Beretik gurera ez dau jarten alderik; guk be ez daigun jafi; geure otoitza Arenagaz alkaturik, bada, indar andia izango dau jainkoaren begi aúfean eskatzen dana eskuratzeko.

## XXX I V

### **Gai berean dañai, "egunero" itza azalduaz. Jaunartu osterako, guztiz egokia da**

1. Jesus onak, gugaz "egunero" egotea bere Aitari eskatzen dautsonean, "betiko" esan nai dauala dirudi. Au idaztean, alan be, onek afitu nau: "Emoiguzu gaur, Jau-na" esan ondoren, zergaitik gaiñeratzen dauan bafiro: "eguneroko ogia."

2. Nire ustez, "egunero" diño, lufean bizi gareala emen daukagu-ta, bere begieraz gozartu gaitezán, eta gero zeruan be bai, Aren laguntzaz ondo baliatzen ba'gara. Aren asmoa gugaz geratzean ezta besterik guri lagundu, gu kemen-bizkortu baiño, guban "egin" dedila eskatu dogun jainkoaren naiera bete dadin.

3. "Gaur" esatea, bafiz, egun baterako dala deritxat; au da, munduan dirauan bitarterako, ta ez geiago. Ta bai eguna! Betiko galtzen diran zori txafekoentzat berariz; areik eztabe, ba, jauna gozartzerik beste munduan izango. Efua jaunarena ezta, ofaitiño, galtzen ba'dira be; jaunak ez ditu egundo be ízten, bufuka-azkeneraiño beti areik be



indatzen daragoi<í:t;a;ígaiz:tetsi areik, beraz, eúféiv aldirik edefenean ogirlaguntzarik ez ebela izan-éta, Aitaren aúféán ez dabe, iez, atxaki ta , akiakuilurik izangol • Bere-<sup>i</sup> Seméak augaitik diñotso, mundua; fegun"bat bestefik eztala-ta íxí ta laketu daiola berau geure mofoitzan igaroten. Jainkoak guri emon ta Bere gurari bakaféz mundura bialdu eban ez-kero, orain ez gaitu berenez albora itxi gura, bere adiski-deen aintza ta arerioen lotsari, ementxe geugaz bizi baiño. Orain, "gaur", diñolarik, ez dau gauza bafirrik eskatzen; ogi txit donea Aren Anditasunak emon euskunetik, bada, bein betiko emona dogu giza-janari ta mana gozo au: nai dogu-nean daukagu berau ta, geure efuz ez ba'da, ez gaitu goseak ilgo: arimeak zelan nai artu ta jan, beafézko dabezan poz-eusgafiak aurkituko ditu Sakramentu guztiz santuan. Ez dagó beafizanik;-ez nekérik, éz érásoldifiki Arerí néké-lo-fak nabari izan ,ta txastatu ezkeró, ^efez eroan ezin daike-zanik.

4. Jaun onegaz batera, eskatu Aitari, aitzak, itxi dai-zuela "gaur" zuen Senafa, egundo be etzaitzela mundu onetan Bera barik ikusi; ta, zuen poza girotzekó, náikoa izan -daitela ogi-ardoa onein iduripean 'gefatzeta; áuxé be beste zer maitaturik; ez pozik,ez dailkanaféñtzát lar atse-kabedan aféh. Eska Berari ez daizuela onek uts egin', duih-kiro artzeko grazia egiñik.

.5. Zuok, jaungoikoareñ'eskuetan zeueri buruak ósoro itxidozuezanok, ez izan, au ezik, beste-ogi-árduráiik/ otoitz-aldjan -: diñot>;•gora • ándiko^ gauzak gogótan darabiltzueza-nean,.. beste 'bitarte batzuk- ba-dozuez, lan egiñaz;:-zer;jana ii;aba;zteko.;Ortán.be, baiña, ez,,euki arduta lafegiyé; orain ez gero, zeuen buruak geiegi arazótutaferalgi; barik;- olako-etan, zezer.jan bear dozue-ta, gorpu.tzaklan.dagiala, bakez bego .arirnea. Lendik be; l^uzerik askp azaldu day.tzueffanez, ítxi arlo pri zeue.n Senafári, Berak baitau ornidulçp aldiorp.

6. Mutil bgt, mofoitzako, )etxean aftzea lez dazue.iMo-foiaky al dauan; .guztia.egin beafaj daukarbereugazabari; poz emo,teko;,.pnék,. lOstera.^jatekçz ornidu beaii dáu, here etxean

mofoi-zeregiñetan daukon bit.arte guztian: ez. bera ez a, ze-  
 gaz janaritu ez daukanean,. izan ezik. Emen ez dogu ofen  
 bildufik: gure ugaz.aba ,da, ta beti jzango, aberats ,ta altsu.  
 Elitzake,..beraz, polita mproia, zer-jan-eske.ba'lebilegunero,  
 ofen ardurea dauka.n ugazabak emongo dautsolapndo.be  
 ondo jakiñik. Arpegira botako leuskio egiaz; rnpfoitzari ez  
 yagokozan gauzetan lar sarturik ez,er. artez ez dagian ezkeru,  
 ardura.tu daitela bere egitekoa zçatz .bete. ta ugazabari, poza  
 emoten.. '•••••"

7. Augaitik, aitzak;<sup>1</sup> eskatu bei nai dauanak lurtar ogi  
 ori. Guk eskatu daiogun Aita betikoari geure ogi zerutafa  
 duinkiro artu al izateko bear dpgun grazi ta eskefa. Beraz,  
 ikusíz, ain estaldua bai dago, gorputzaren begiak atsegindu  
 ezin diran ezkeru, arimakoetara agertu dakigula beintzat,  
 pozezko janari gozoa, gure bizitzari eusten dautsona dala  
 guri adierazorik.

8. Ez dozue, uste Janari guztiz deun -au, gorputz one-  
intzako.be azkufi ,ta jateko dala,. ta osagafr eder soin-ga-  
txentzat.be? Ni baiezkoan nago, Ta geixo ta gaitz andiak  
 ebazan, bat ezagutzen dot nik, safi min itzalakaz egoala  
 be, gure Jauna arturik,. min ofeik eskuz lez kentzen ya-  
 kozana, .guztiz ondo geraturik... Au .askotan jazo.oi yakon,  
 eta, nife ustez, gorde ezindaikeguzan neke-min .ezagun-  
 çzagunakaz. Eta: duinkiro artzen dabenakaz. Ogi deun»deun  
 onek egín oi dabezan gauza^ afigafiak oso ezagun doguza-  
 lako, ez ditut emen jañiko aitatu dodan pertsona onetzaz  
 esan .neíkezan asko ta asko, ni pñelaxe dala ziuñilç asko  
 jakín ta egitzat euki afen. Gúre Jaunak, baiña, fede bizia  
 emon eutsbn oni',"ta Kristo, gufe Oná, rhunduañ ibili zan  
 garaian b'izi'" náí' eukela esatén, lagun ba'tzueri 'entzupaz,  
 bafe égian Pnek bere kautan, orduan baizen egiaz gaur be  
 Sakramentu guztiz santuán geurikela-ta, zer geiago bear  
 eben, uste izanik.

9. Ain ona etzala be, ba-dakit. ník, norbait. au urte  
 aslcoz fedea indartzen alegindu oi zala Jaunartzerakoan,  
 Kristo bere bañeneratzen soin-begiakaz bene-benetan ikusiko

ba'leu lez; Jaun au, bere ustez, beraren bafu-zoko gaixora sartzen yakon, ta berak be al ebantxoia egin bear kanpotiko zer guztietatik azkatu ta Aregaz batera bere bafuan 'oatu ta kiribiltzen. Zentzunak batera ekafi ta neufía emotea zan bere egikizunik beiñena, ain doe andiaz danak bafu-bafuan gozartu eitezana, edo obeto, euren arimea zeregin ortan nekerazo ez egien. Kristo'ren oiñetan iduritzen zan, Madalena'gaz bat negar-malkoak ixuririk, egiaz parisotafaren etxean ikusi izan ba'leu lez. Eta barne-berotasunik bape nabari ezta be, fedeak iñotsan ondo yakola an egotea.

10. Ortik, bada, geure buruak itsutu ta amuts lez jo nai ez ba'doguz, Kristo'ren begiera ezin geinke begitandu idurimenak arildutako iduri bat lez, Jauna gurutzean naiz Aren Nekaldiko beste edozein unetan iduritzean, orduan jazo zan antz-antzera geure bafuan gertarazten dogu-ta. Au onela gerta oi da, ta Bera geugaz daukagu bene-benetan; ez daukagu Aren bila ufin zetan joanik; augaitik, Jesus ona, berezko beroak ogi-eraskiñak urtu ta ezereztu arte, geugaz dagola dakigun ezkeru, gagozan gozo-gozo Berari lotu ta erantsirik. Jesus'ek munduan ebilela, bere soiñekoa ikutuaz bakafik geixoak osatzen ba'ebazan, nok ezpaian jafi ta ukatu leike, gure bafuan bizi dala, guban be, fedetsuak ba' gara beintzat, gauza afigafiak egingo ez dauazanik? Eta, geure etxean bai dago, eskatzen dautsoguna emon? Afera ona ba'dagiotse, Aren Anditasunak ez dau txarto ordaintzen ostatu-alogera.

11. Min al yatzue Bera soin-begiz ez ikustea? Begira, ori ez yaku emen egoki: munduan ebilanean, eta orain dir-dirtsu, ezpaita ikusgafi bardiña. Gure giza-izatea makal litzake ikuskizun ori jasoteko: mundurik elitzake geiago, ez berton egon nai leukenik be. Egi betikor au bein begiz jorik, bada, argi-argi ikusiko leuke guk lufean aintzakotzat daukagnzan gauza guztiak guzur-iruzur besterik ez dirala. Ta Jaungoikoa, ain argi dizditsuan murgil ikusiaz, ni lango pekataritxo bat, ainbat irain egiña, zelan azartuko litzake Arengandik ur-ur egoten? Ogiaren itxurapean, osteria, es-

kuar ta entzun-bera daukagu; efegea koko jantzi ezkeru, ba, ainbeste lotsa, begirune ta zeremoni barik itz egin geinkeola dirudi; ain zuzen be, koko jantzi edo itxuraldatu zalako, ori ta geiago jasan beafean dagola deritxat. Nor azartu, alan be, otz-epel, duin-ez ta ainbeste uts-akatsez astun, Arengana uferatzen?

12. O, egitan, ez dakigu, ez, zer eskatzen dogun! Baina Jaunak, bere jakiturian, guk baiño obeto atondu eban gauzea. Bera, egin-egiñean be, bere begieratik ona aterako dabela dakienai agiri izaten yake; begientzat ikus-ezin dala be, erarik asko ditu Arek arimeari agertzeko, bafuzifara bizi ta olakoakaz. Zagoze zuok Aregaz gozo-esnetan; ain abagune edefa, Jauna artu ondorengo ordu au, ez egizue, afen, alpefik galdu, ene aitzak. Menpekotasunak beste zeozer agintzen ba'dautzue, bego alegiñez zuen arimea Jaunagaz. Zuen gogapenak, ostera, bertatik ba'doaz beste gauza batzuetara geiago zuen bafuan dagoanaren ardura ta begirunerik ez ba'daukazue, zelan ezagun-azoko yatzue? Auxedau, bai, gure Maixuak aldi egokia guri erakusteko, ta guk Ari entzuteko; bai ta ofela dagiskulako, Ari oiñetan mun egiñik, gugandik ez daitela aldendu eskatzeko garai edefa be.

13. Ta au ez dautsazue Kristo'ri eskatu bear bere iduri beti begira lez; zorakeria deritxat, ba, iduria begiratzeafen, pertsona bera aldamenara iztea. Elitzake ofela, biotzez maite dogunaren argazkia guk daukagula, guk laztan dogun au gu ikustera ba'letorkigu, maite au baztefean itxi ta argazkiagaz autu-mautuan jardungo ba'gendu? Ba ete dakizue ori nozko dan edefa, ta niri beintzat guztiz begiko yatana? Maitea bera ufin aurkitzen danerako, edo-ta, legor-uts gu itxirik, olan dagola adierazten dauskunerako. Orduan atsegin yaku oso, ofenbesteraño kutun dogunaren iduria ikustea. Noranai begiak zuzendu, antxe euki nai geunke. Ta, izan be, ba al da begi-atsegingafi ta gauza obarik, ainbeste laztan gaituana ta ondasun guztiak Beragan daukazana baiño? Sifiausle onek bai doakabeak, euren efu andiz, au ta antzeko pozbiderik ez dabelako!

14. Jaunartu ondoren, Kristo zeuen bañuan daukazue-ta, itxi alegiñez soin-begiak eta zabaldu arimearenak; eta biotz-bafenera begiratu zoli-zoli. Neuk esan dautzuet, eta bafiro diñot, eta safi esan nai neuke, jaunartzera zoazen guztietan au ba'dagizue —ta alegindu zaitezze, bar'uak garbi eukirik, On onen gozotasuna safi txastatzen—, Aren eto-fera eztala ain ixil ta gordea izango: era askotara agiri izan-go yaku ziuifik asko, guk Bera ikusteko dogun naikunde-aren neufian nunbait. Ain zuzen, zuek biziago opa, A geiago ta osoago agiri.

15. Baifia geure bañuratu ta gero, Ari kasu ta jara-monik egiteke, Beragaz bat beste zer txatxafago batzuetara ba'goaz, zer egingo dausku? Indafez ekafiko ete gaitu guk Bera ikusi ta Beragaz egotera, bere burua guri erakutsi gura dauskula-ta beste barik? Ez! Gizonak ez eben, ba, ain ondo artu, danak ikusteko eduz bere burua agertu ta nor zan argi ta garbi esan eutsenean; gitxi baiño etziran izan siñistu eutsoenak. Beraz, efukirik lar dagisku guztioi Aren Anditasunak, Sakramentu txit gurenean dagoana Bera dala aitzen emon nai dauskun ezkerro. Baiña agiri-agirian Bera begiztatu, naiz dituan anditasunak iragafi, naiz bere onda-sunak emon, ez dautso iñori egin gura, leia gartsuz maite dabela erakusten dautsenai izan ezik: oneik ditu egiazko adiskide.

16. Neuk dirautzuet, gaiñera, ofetarikoa eztana, al dauan guztia ondo gertetan eginda jaunartzera ez doana, ez dakiola Jaunari gogaikafi izan, agiri izateko ta olakoak Ari eskatuaz. Onakoak, eleiz-agindua beterik ordua egin ordu-koxe, bere etxea laga oi dau, ta Kristo be jaurti gura dau bertatik; itxura danez, albait eta bizkofen, beste garatz, zeregin eta bizi-buruauste batzuetan arduratzen da, Kristok etxea artu ez dagion antza.

Asitako gai-arloa amaitzen da, Aita betikoari oiuz

1. Alkartasunezko otoitz-era dala-ta ontaz naiko idatzi neban afen, Jaungoikoaz bakafean egote au inportantzi andikoa dogulako, emen be luzatu naitzue zerbait baiño geiago. Mezea entzuckeran Jauna artzen ez ba'zoaze, gogozko jaunartzea egin zeinkie, guztiz onuratsu yatzue-ta. Orduan be sartu ta batu zeuen kautan, era batera; onek, bada, Jau-naganako maite-su bizia erasten dautso arimeari: Aren gorputza artzeko zintzoro gertau ezketiño, iñoiz uts-egiteke alan be, guk aitu ezin geinkezan era ta bide askoz, bere grazia emon oi dausku oparo. Sutara uferatzea baizen dozue au: su andia izan afen, ufintxo ba'zagoze ta eskuak estaldu, nekez sentiduko dozue aren berotasuna; olantxe be, ostera, bera barik baiño, jakiña, bero geiago izango dozue. Emen bestera dogu: su ontara, ots, Jaunagana otza uxatzeko asmuz alderatzen baldin ba'gara, gure arimea, bear lez gertuta ba'dago ta zati baten an ba'dirau beintzat, ordu askotarako beroturik gelditzen yaku.

2. Ez kezka ta naibagez ibili, aitzak, ontan lenengo-koan ain egoki ta erara ez ba'zagoze be; ta daitekena da: bai, deabruak, bear bada, lafi, miñez ta urduri, jafiko dautzue biotza; maltzur arek ba-daki, ba, ze kalte andia dator-kion emendik: beste gauza batzuetan emen baiño on-eraspen geiago aurkitzen dozuela buruan ezafiko dautzue. Ez egiozue kasurik egin; eta ortik dakuske Jaunak noraiño maite dozuen. Ar gogoan arima gitxi baiño ez dirala Ari lafialdietan lagundu naiz jafaitzen dautsenak. Neke pizkat eroan daigun Beragaitik, Aren Anditasunak ordainduko dausku-ta. Ofezaz gaiñera ar buruan zenbat dagozan, ez bakafik Aregaz egon nai eztabenak, bai ta, zoritxañez, zakar ta nabarmen, euren etxeetatik bota oi dabenak be; dagigun, beraz, zeozer,

Bera ikus-min gareala aitu dagian be. Gure Jaunak guztia jasan daroa, bai ta jasango be, Bera artu ta maite-epelean beregan eukiko dauan arima bat bakafa aurkitzeafen. Bat au bedi zuena; batxorik be ez ba'lego, ba, Aita betikoak ez leuskio gure artean egoten itxiko. Baiña Kristo'ren adiskideen adiskide ta mofoien ugazaba dan Arek, bere Semeak zer nai dauan ba-daki-ta, ez dautso ain arazo bikaiñean oztoporik ipiñi gura, ontan be Aitari dautson on-erexia bete-betean bai darakus.

3. Burutik burura, bada, Zuk, zeruetan zagozan Aita on ofek, gura dozu ta aintzat artu daroazu Kristo'k dagiana, ta argi be argi, asieran bertan esan nebanez, Zuk ez dozu ukatuko guri egoki yakunik ezertxo be; beraz, zure Semeak bear dau norbait auzian bere alde itz egiteko, Berberak ez-tau ba iñoiz be bere burua aldeztu ta begiratzten. Au, gareanak garealako, ausarkeri litzaken afen, geu gaitezten, alabak, Kristo'ren begirari ta alde-egile: Jaunak berak agintzen dausku, gaiñera, eska daiogula. Nai ori beterik, ba, eska daiogun auzpez Aren Anditasunari, Jesus onaren ize-ñean, taiu ontako mesedea pekatarien eskuetan jafirrik, ezer be geiago egiteko gelditu ez yakon ezkeru, efuki dakiola ta irain-uiol ofi ipiñi dagiola osakairen bat. Bere Seme santuak, guk oparitan safi eskiñi dagikeogun, ain era egokia asmau ta jafi euskun ezkeru, emoi bikain au bide daitela gaitz-efeka auferago joan ez dedin; au da, Sakramentu guztiz santu oneri Lutertafen artean egiten yakozan erdeñu ta lotsabakokeriak ugaldu ez daitezten geiago. Ainbat eleiza zuzitu dabez, ainbat eleiz-gizon galdu, ainbat sakramentu ondatu!

4. Zer dogu au, ene Jaun ta Jainko! Edo betor munduaren atzena, edo ezafi osabidea ainbeste gaiztakeri gordiñi! Gu ziztrin ta erkin gareala be, ez dago biotzik ofenbeste sufridu leikenik. Zuk be, Aita betiko, ez egizu, afen olakorik itxi edo laketu: ebagi su au, nai ba'dozu, zeure eskuan daukazu-ta. Begira, Aita, zure Semea munduan dago oraindik. Aren lotsafen, amaira beitez olango gauza motz,

naskagañi ta loiak. Eder ta garbi baita, ez dau merezi olako gauzak dagozan etxean egoterik. Ez egin, oi Jauna!, gugaïtik, ez baitogu merezi, baiñan bai zeure Semeagaitik. Ez gara gu azartzen ez dedila gure artean egon eskatzen. Bera bagarik, zer genduke? Zeozek bakerazo ba'zaiz, doe edo bai au emen eukiteak, ufean. Oker oneik, baiña, osabideren bat bear dabe naitaez, ta ipiñi Zeuk, ene Jaun ofek!

5. O ene Jainko, nok zeinkezan zirikatu gogait eragin arte! Eta Zu serbidu bene-benetan; bai ta nik be, egin dautzudazan on guztien truk, olangoxe mesede andia eskatu al izateraiño! Zuk ez dozu on-egite txikafenik be ordaintzeke izten; baiña nik, Jauna, ez dot olakorik egin. Alderantziz, bai, egin dot, pekatuz Zu asafazorik, ainbat gaitz Zuri ekarteraiño egin be. Zer dagiket, ba, ene Irazaille, Ogi txit santu au Zuri aurkeztu baiño? Zeurea dozuna Zeuri biur-tzen dautzut, zeure Semearen irabaziakaitik, Zugandik ainbat eraz merezia daukan esker au niri egiteko eskatuaz. Bai, Jauna, bai! Bare egizu itxaso au! Eleiz-ontzi au ez bebil aldioro, onen ekaitz biufian! Jagon gagizuz, ene Jauna: bestelan gaduak gara! (*Mat. VIII, 25*).

## XXXV I

Pater Noster'eko itz oneik azaltzen dira: "Dimitte nobis debita nostra", Parkatu eiguzuz geure zoñak

1. Gure Maixu zindoak, bada, zerutiko janari onegaz, geuk zoztofen bat ipiñi ezik beintzat, edozer yakula efez, ta Aitari esan dautsoguna be, au da, guban bere borondatea



bete daitelakoa, guztiz ondo egin geinkela ikusirik, guri parkatzeko diñotsa orain, geuk be besteai parkatzen dautseguzalako. Origaitik darfai, bai, irakasten dauskun otofian, itz oneik esanaz: "Eta parkatu eiguzuz, Jauna, geure zořak, geuk geure zordunai parkatzen dautseguzan lez".

2. Begira emen, aitzak; ez diño: "geuk parkatuko dautseguzan lez". Batez be, alako doe andia (Ogi santu au) eskatu ta bere aukeramena Jainkoarenean ipiñi dauana, guzti au egiñik egon bear dauala, guri adierazteafen diño ori. Beraz, oneik doguz Kristo'ren itzak: "guk parkatzen dautseguzan lez". Izan be, Jainkoari "fiat voluntas tua", egin bedi zure borondatea, zintzoro esan dautsonak, asmoz beiñik-bein, aufetiaz euki bear dau dana parkaturik.

3. Itufitik ura lez emetik atera, zelan poztu oi ziran santuak irain eta jazarpunen erdian, Jaunari eskabide au egiterakoan ba-eukien ba Ari zer aurkeztu. Zer egin leike, bestela, ni lango pekatari gaixo batek, ain gitxi neuk parkatzeko ta ain asko neuri parkatzeko daukadan efukafi onek? Au gogoan dakargun, aitzak, afeta andiz; zer astun gafantzitsua benetan, gure Jaunak, su betikofa merezi eben gure efuak ain gauza txikeřaz, "geuk parkatu" ezkeru, guri parkatu nai izatea. Ta gauza txiker onetatik be, Jauna!, ain ufi daukat nik Zuri eskintzeko! Zuk dubarik, utsean parkatu bear daustazuz, ba, egindako irain ta zořak. Emen bai arira datofela zure efukia!

4. Onetsia Zu, ain maskal ta ezeuki naiatzun au sufriduten nozulako. Zure Semeak, guztion izenean aurki, diñotzunak, ni ezerez nazan au albora itxiko nau. Baiña, ene Jainkoa!, ete da ni lango arimarik, egi au iñoiz auznartu eztabenik? Edu onetariakoak baldin ba'dira, nik zure izenean daskatset, gogoratu dagiela au ta aiztu dagiezala, afen, iraiñak deritxen gauzatxoak, dedu ta ohorezko puntutxo oneikaz, ume antzera, lastozko etxeak dagiguzala dirudí-ta.

5. Jainkoafen, ulertuko ba'gendu, aitzak, dedua zer dan ta zetan dagoan berau galtzea! Orain ez diardut zuekaz, naiko txar litzake, ba, oindiño be au aitu barik ba'zengoze.

Neure kítan diardut, neu be, mundutaíak lez, "dedu" itz onen esan-naia snstefez ezagutu bage, neure izen onean afozzen nintzaneko egunak gogora ekafiaz. Oi, lotsa naz orain, zelako gauzetan mindu oi nántzan ikusiz! Ni ez nintzan, alan be, deduzko txoko ofeitan lafegi sartu ta efotua. Ez neban beteten, baiña, dedurik beiñena, ez neban ezagutzen ez begiratzen, arimarentzat onena izan afen, egizko dedua, onurakor yatana.

6. Egiz iñoan au esan ebanak: "Dedu ta onura, ez dabiltz batera". Nik ez dakit ontarako esan ebazan ala ez, ezta itzez-itz diranik be. Baiña, arimeak protxu atera oi dauan zer ori ta gizonak dedua deritxoen beste ori, ezin daitekez egundo be bat etofi. Ikaragafia ziñez, mundua bestera dabil! Goazan esker beroka Jaunari, olakotik atera ginduzalako!

7. Kontuz gabiltzan, alanbe, ene aitzak, deabruak ez bai gaukaz aztuta. Monjetxeetan be asmau oi ditu olako izen-onkeriak, bai ta legeak ezafi be, mundukoetan lez nau-sitasunean gora ta beera dabiltzanak aurki. Egin-egiñean, gizon ikasiak be nik ulertu ezin dodazan egokiera batzuk izan bear ditue euren irakatsi-sailetan: Urtzizti edo teologi azaldu dauana ezin jatsi ei da Jakintza edo pilosopi azaltze-raiño. Au be dedu-maila dogu ufean; gora bai, beera ez. Irain litzakioe olakoai, nagusiak aginduta be; alde Jarten yakezanak be izango litzakez, ta egiaz irain egin dautsela difiotsenak: deabruak efez arilduko dauz efazoiak, Jainkoaren legean bertan be bai, egi-bidetik dabiltzala dirautsenak. Gurean be, Ama nagusi izan danak eztau auferantzean be-ragoko zeregiñik bete bear; zaíagoai lotsa pizkat erakustea ta, ez yakuz aztuten; eta, agiri danez, auxe berau be, iñoiz, irabazpidetzat daukagu, Ordenako araudiak berak be ofela agintzen dauskula-ta.

8. Taiu bakokeri dogu au; bafe daragiskuna, edo obe-to, negar eragitekoa. Bai, legeak ez dirausku umil ez iza-tekori: era egokia agintzen dausku gauza guztietan. Baiña nik ez daukat ain artua zetan ibili neure deduarekiko gau-

zetan, zer onetan ta gaiñerako batzuetan onen arduratsu izanik, beste batzuk bear bada bete bagarik itxi ez dagidazan. Ez bego afeta guztia ortan; ni axolabage ba'naz be, izango da nok ofen ardurea artu. Dana dala, au jazo oi da: gora-miñak gara-ta, emendik zemratzerik izan ez afen be, ez dago amesetan be gu andik erastekorik. O Jauna' Jauna! Zu al zaitugu jafaibide ta Maixu? Bai, orixe! Nundik zan, ba, zure dedua, zure ohorea, gure Dedutzaile? Ez ete zenduan galdu, kurutzagean, eriotz-arte apaletsiatz? Ez. Jauna! Andixik irabazi zenduan Zuk gu guztiontzat deduzko grazia.

9. Oi, Jainko maiteafen, aitzak! Bidea galduta gabiltz, asieratik oker goiaz-ta. Jainkoari eder bekio, afen, ez daitela arimaren bat galdu, dedua zetan datzan jakiteke, deduzko puntu baltz oneik zaintzeafen gero. Atzenez, zerbait ba-dagigula uste izango dogu, onako kaxkarkeri bat, ez irain, ez destaiña, ez ezer, bateren bati parkatzen ba'dautsogu; ta ondoren, zer andia egin dogulakoan, Jaunagana joko dogu geuk be besteai parkatu dautsegula-ta, guri be parkatu daiskula eskatuaz. Argi eiguzu, afen, Jainko ofek, zer diñogun be ez dakigula ta esku utsik gatorkizuzala ezagutzera eldu gaitazan. Parkatu eiguzu au be, efukior zaitugu-ta. Emengo gauzak amaia dabe, ta zigofa betikoa; ez dakust, beraz, Jauna, guri alako mesedea egiteko, bitarte lez eskatzen dautzunarena ezik, Zuri afean jarrea merezi dauan ezertxo be.

10. Beste aldetik, au bai eder Jaunarentzat, batak beste maitatu ta alkar-bakean irautea! Jesus onak, bai, afean ipiñi leikeozan beste gauza batzuk be, onela esanaz: "Parkatu eiguzu, Jauna, dagiguzan penitentzi andiakaitik, otoitz etenbako, barau luze, naiz dana Zeugaitik itxi ta maite-maite zaitugulako". Bai, egia, beste zer asko afean jafi leikeozan. Baifia auxe bakafik esan eutson: "Geuk geure zordunai parkatzen dautseguzan lez". Onela iñoan, antza, ba-ekialako ondo be, zein gartsuki maite dogun dedu au, goitiko izen baltz au. Auxe zan, nunbait, guretzat jadesteko gauzarik zailena ta bere Aitarentzat atsegingafiena, ta Berberak eskiñi daroatso gure ordez.

11. Bafendu ondo gogoan, aitzak, Kristo'k au diñola: "Geuk parkatzen dautseguzan lez"; eta onegaz, esanda daukadanez, gauzea osorik egiña dala adi-erazo nai dausku. Ta zfut egon onetan, auferago esaniko otoitzean doe bereziak artu naiz otoitz bikaiffera jasoia izan dan arimeari, besteai parkatzeko erabagi sendoa arturik andik urten eta, ereti bat izan ezkerro, edozein irain, naiz-ta astunenak —zetan esan bez umekeri besterik ez diran iraiñakaitik, oneik ez dautse ba zirkiñik eragin oi, Jainkoak ain gora jaso ezkerro— egotafiz eroateko gertu dagoanari, bardin dautso aintzat artua izan nai izan ez; ez cliñot ondo, ardura dautso-ta, deduak ba atsekabe geiago dakartso dedu-ebak baiño, ta nasai biziizateak geiago nekerazten lanarteak baiño. Aríma batek, izan be, Jaunak emen bere efeñua egiz emon dautsonean, eztau nai bizi mundu onetan; au dala deritxo egiazko bidea zeruan jaun ta jabe izateko, ta oar-ikasiz ikusia dau ortik yatorkon irabazi andia ta donekuntza-bidean zelan auferatzen dauan, Jaungoikoagaitik bere burua nekerazo ta jasanaz. Jaungoikoagaitik neke-lofak naitara artu ta igaro ez dituen arimai izan ezik, Aren Anditasunak iñoizkoren baten bakafik egin oi ditu olango bezuza ta maite-erakutsi andiak. Lendik be, liburu onetan aitatu dodanez, andiak dira begizjotzaile edo otoitz bikaindunen lanak, eta ontarako Jaunak biontz oitu ta gatxetara egiñak aukeratzen ditu.

12. Jakizue, ba, aitzak, alako arimak, "osoa" zer dan dazauen ezkerro, gauza igeskofetan ez dira luzaro gelditzen. Gisa ortako irain ta nekeak lenengoko zifaran mingafi dirala be, asmau ordukoxe or datorke efazoa beste aldetik, ta bertatiko atsekabe a il-zori itxi daroa, Jaunak emondako gauzea eskuetan ikusteak dakartson poz biaz; ofela arimeak, Jaungoikoaren aúfean doe ta ontarte betikoz geiago irabazi oi dau egun batean, amar urtean Agaitik berak naiz artutako neke-lanakaz bear bada irabaziko leukezan baiño. Nik dakidanez, au safi jazoten dana dozue; begiztzaile askogaz artu-emonu eukia nozue, ta ziur be ba-dakit ofela jazoten dana. Askok ufe ta bitxiak aintzat artzen dabezan

lez, oneik neke-lofak opa izan ta artu oi dabez, oneikaz bait-dira aberastuko.

13. Buru-goratzetik ufin dagoz era ontako arimak; gozo artu daroe, bafiz, euren ust-egite ta obenak besteai jakin-azo ta iragafiaz, olakoren batek aintzat attzen dabezala edo, konturatu ezker. Beste Ofenbeste jazo oi yake senidartekoakaz be, amairik ez dauan efeifiuan ba-dakie ba onek ez dautsela irabazirik ekafiko. Odol argikoak izatetik zala edo, konturatu ezker. Beste ofenbeste jazo oi yake edefik etortekotan, Jainkoa obeto otseintzeko bear leukanean litzake bakafik; ofetarako ezik, diran baiño geiagotzat baldin ba'daukiez, mingots yake; ta ukatze au, atsekabez ez, baifia gogoz dagie. Au onela dozue, ta batez be Jainkoa gero ta zintzoago mofoitzeke gauzetan, Jainkoak berak alako apaltasun andia ta Beragazko maitasun bizia euki al izateko mesedea egin dautson arimea bere buruaz guztiz aztuta bizi dalako ta berak iraintzat ez daukazan beste gauza batzuk ingurukoak sentidu leikiezanik be siñistu ezin daulako.

14. Atzenera aitaturako ondoren oneik, done-bidean auferagotu diranetak eta Jaunak safitan begizte bikaiñez Beraganaño eldu-azoteko doaia egin dautsonarenak dozuez. Lenengo ori, alan be, atsekabez iraiñak artu ta eroatera erabagita egote ori, diñodanez, laster be laster eskuratuko dau Jaunak alkartze-otoitza deritxona emoteraiño eldu dan arimeak. Onako ondorenik izan ezik, ez onakoetan ondo sendotuta otoitzatik urten, etzala uste izan bedi Jainkoaren mesedea, deabruak egiñiko begitasun naiz bezuzaren bat baiño, geure buru-dedua indartsuago egiteko bialdua nunbait.

15. Izan daitekena dozue arimea lenengoz Jaunak mesede oneik egitorduan, bertatik kemenduta ez geratzea; baiña olakoetan jafaitu ezker, neuk diñotzuet, epe laburfean sendotuko dala, beste onoiñetan ezta be, iraiñak parkatzeko onetan bai beintzat. Nik ez dakit zelako arimea dan, efukiaz beraz ain batuta dagona —ortik ezagutu daroa bera zer dan eta zenbateraiño parkatu dautson Jainkoak—, beingo baten ta eñez asko berak iraindu ebanari parkatu

ta bera iraindu ebanagaz bakezkoak egin nai eztauzana. Jaunak egin dautsozan maite-erakutsi ta doeak begi aúfean daukazanak, osterá, luzápen barik erakutsi oi dautso zelako maite-suaz lastan dauan, eta pozak zorátsen dau maitasun ori ordáñez ager-azteko aukera on bat eskintzen yakonean.

16. Bafiro diñot: asko dira nik ezagutzen dodazanak, izatez goitiko gauzetara Jaunak jasotakoak, aítaturiko otoitza edo begiz-ikustea Agandik artu izan dabenak. Eta beste uts-akats batzuk izan afen, onetan ez dot bape ikusi, ta ez dot uste egon be egongo danik, Jainkoagandiko mesedeak ba'dira beintzat. Andiágoakaz eskertua ba'litz norbait, bc-gira bei zelan doazan aziaz ondoren oneik: onakorik, osterá, bere kautan aurkitu ez ba'legi, bildur bedi osoro. Gozotasun ofeik ez bei uste izan Jaungoikoagandiko eskefak diranik, Arek ba, ikertuz, beti aberats esin daroa arimea. Gauza ziufa da au; doe ta gozotasunaren eragiña arin samar igaro áfen, laster áitzen emoten dautso arimeari, izten dautsozan irabazien bidez. Ta Jesus onberak au ondo dakialako, ortik diñotsa bere Aita gurenari, txit erabagikor, "parkatzen dau-tsegula geure zordunai".

## XXXVII

Zein edefa dan Pater Noster'eko otoitz au. Andik  
yatorkun era askotariko poz-atsegiña

1. Jaunari botzez eskefak egitekoa dogu, alabak, Ebanjelioan daukagun otoitz bete ta goitiko au; gure Maixu onak eratu ta esana da berau, dakizuenez, ta guretariko bakotxak bere beafizanetarako batez be artu ta erabili dai-

keana. Ta afiturik nago egon be, ofen itz gitxik. otoitz bikaiña ta osotasuna, bafuan osoz artzen dabezala oartuaz; liburu au ikasi ezkeru, bada, eztogu antza besterik bear. Orainartean, Kristok berak asieratik azaldu ta erakutsi dausku gogozko otoitza zer dan, egon eta batzez kotik asi ta begiztaldi goi ta osoeneraiñoko guztia. Nik, ostera, guzti au adierazten emon aiñako jakituria ba'neu, oiñafi sendo onen gain egokiturik, liburu mardula onduko neuke otoi-tzari buruz.

2. Jauna ementxe asten yaku erakusten, ikusi dozue-nez, otoitz eta begizte onen ondorenak, Beragandiko doaiak diranean. Eta safi gogoak emon daroast niri, ain gauza jagi ta ilunean zelan eztan geiago agiri izaten Aren Anditasuna, guztiok ulertu daikeogun. Niri deritxat baifia, otoitz au danontzat zan ezkeru, ofelaxe ilun itxi ebalu Kristok, bako txak geure erara eskatu ta artez ulertzen dogula uste izanik, ortan be poza artu gengian danok. Lur-gauzarik nai ez daben otoitz-zaleak eta Jainkoari osoan lotu ta emonak be eskatu daikiez olan zerutar graziak, Jainko beraren ontasun andiz, lufean bizi az be gozartu leikiezanak. Atzenez, lufean beerago bizi diranak be —ondo bai da bakotxa dagokion ogibidean bizitea—, eskatu legie eurak eta euren etxeokoa janaritzeko ogia. Bidezko baizen on da au; bai ta beste edozein beafizan naiz gauzatarako eskatzea be.

3. Gauza bi oneik, ofaitiño —geure naimena Jainko-eskuetan itxi ta iraiñak parkatu—, guzti-guztiantzat dira. Egia, emen be, esan dodanez, ba-dira goragoko ta beeragoko armailak: bete-oso diranak, jakiña, bete-oso lez egingo dabe naimen-emote ori, bai ta esandako osotasunez parkatze koa be; guk, bafiz, aitzak, al doguntxoa egingo dogu, Jainkoak eskintzen dautsogun guztia artu oi dau-ta. Kristok, geure ordez, olako egiunea dagiala dirudi bere Aita betikoaz, au esanik: "Zuk, Jauna, au ba'dagizu, nire anaiak beste au egingo". Ta zagoze ziur, Arek eztau bere alde z utsik egingo. Oi, zein sari-emoile zintzoa dan! Ta neufi barik ordaintzen daki!

4. Onelan, ba, aitzak, gure aldetik toles-izufik ez baldin ba'dago, ta gure Maixuak ikusi ba'dagi diñotsoguna beteko dogula, elitzateke gauza zaila, otoitz au bein baka-fik esanaz be, gu oso aberastuta iztea. Txit maitekor dogu, gakiozan gu be egiti; ez daiogun gauza bat esan eta beste bat gogoan; lau ta argiak ba'gaiakoz, beti emon daroa eskatu baiño ugariago.

5. Gure Irakasle onak ba-ekian, bai, otoitz au egiaz ta zintzoro esaten ebenak, Aita betikoñak egingo eutsezan doe ta eskefen bitartez, goi-goiko mailaraiño elduko zirala; bai ta ba-ekian arima oso beteak, edo ortarako eltzeko bidean dabiltzanak, bildufik ez dautsoen mundua txit zapal-duta daukiela euren oinpean, lurbiraren Jaun ta Jabeari eder izanik ontara. Onako arimak, euren kautan oar daroezan ondorenakaitik, Jauna pozik daukiela-ta, itxarokizun andia asmau leikie gogo-bafenean; eta, gozotasun lilurakor ofetan murgil, eleukie gogora ekafi be egin nai beste mundurik, ez areriorik.

6. O Jakituri betikor! O Irakasle on! Bai edefa, alabak, onako Maixua eukitea, jakintsu ta zuña, afiskuetan jagoten gaituna! Auxe benetan, segurantza osoa ortik yatorko-ta, arima jainkozale batek emen bean nai izan daik-kean guztia. Onen inportantzia ezin leikegu itzez goratu ta aitzen emon bear bestean. Gure Jaunak ba-daki ondo be beañezko dala arima oneik itxartu ta arerioz inguratuta dagozala adieraztea, ta afiskutsuago yakela oindiño ardura lafegi barik gorantz joatea; ba-daki, bai, onakoak Aita betikoaren laguntzaren premifia geiago daukiela besteak baiño, jaustekotan goragotik jausiko litzakezalako. Eta erdi-ilunean, ziria sartuta lez ibili ez gaitez, erbeste ontan bizi gareala guztiok naitaezko dogun eskari au dagitso: "Eta ez eiguzu itxi, Jauna, tentazifioan jausten; baiña gaxetik jagon gaizuz".



Bear-beaíezko yaku Aita betikoari onela eskatzen dautso-gun grazia: "Et ne nos inducas in tentationem, sed libera nos a malo": Eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten, baiña gatxetik jagon gaizuz. Deabruagandiko zirikada ta maltzurkeri batzuk bat-banatu ta azaltzen dira. Jakingafia oso

1. Eske gabiltzala, aitzak, zer andirik asko daukagu emen gogoz artu ta aitzen emon beaíekoak. Begira: nik uste dot —eta ziur uste be—, santutasun-mailan onaiño eldu diran arimak, ez gurutzetik, ez tentalditik. ez jazarpen edo bufukatik ufintzekorik, ez dautsoela Jaunari eskatzen. Auxe baita beste ezaugaíi eder bat, ziur ta oker-eziña: Jainkoak emongo leuskioezan begiztaldi ta on-egiteak, begitasun utsa barik, jainkozko ats-arnasatikoak dirala aitzen emotekoa noski. Arestian esan dodanez, ba, edu ortako arimak eztabez eskatzen, ta biotz-biotzez eskatu be, gurutze ta kezka ofeik leiatsu opa dabczalako baiño. Gudari antzera dozuez, gefa geiago ta pozago; ortik, bada, irabazi ta mozkin ugariago ditxaroe. Gefarik ezta be, eguneango sari edo alogeragaitik serbidu daroe, baiña ba-dakie ortik ez dirala beingoan aberats atarako.

2. Siñistu, afen, aitzak. Kristo'ren gudariak, au da, otoitz bikaiña jadetsi ta ortan ari diranak, ez dagoz iñundik be bufuka-orduari zain; etsai agirikoak ez dautse iñoiz be bildufik sartzen; ezagun dabez, ta indar gitxi dabela areik ba-dakie Jainkoak eurai emondakoaren ondoan; bai ta badakie beti garaile gelditzen dirala ta irabazi andiakaz; ez dautsoe, beraz, egundo atzerik emon oi. Bildurgafi dira, ostera, arerio azpi-sugeak, aingeru-argiz jantzitako deabruak, eta arimai egoki yake bildur ori, ta aspertzake Jaunari eskatu bear dautsoe jagon daizala ortik; bai, itxura aldakofez

yatorkezuz oneik, eta, gure arimeari kalte itzela egin arte guztian ezagutzera emoteke, bizi-odola edan oi dauskue ta oitura onak lofindu: ziri ta sare artean gabiltzala, ez gara konturatzen. Safi eskatu, alabak, Jaunari, "Aita gurea" esagaizala onan iruzurtuta ibiltetik, ez daiala ontzat emon olakorik; bai, ostera, konturatu gaitezala bertatik arein zital terakoan batez be, jagon gaizala olako zirikaldietan, zaindu gafatzaz, ta egizko argia ez daitela gugandik ezkukuratu. Gure Maixu onak bai erakusten dauskula zuzen ta bidez au eskatzen, bai ta Berak guretako eskatu be!

3. Ikus, alabak, zenbat eraz dabilzan gogo gaiztoak, guri gatxa ta kaltea ekafi gurean. Eta ez uste, etoi ta sabelzuri sakatu oi dauskuezan bafen-gozotasun ta bezuzak, Jainkoagandikoak ditugula guri buruan sartu nai izatea dala bakank. Au, egin leikeguen kalterik pitifiena da, nire eritxiz: bai ta egin leikie onan arimaren batzuk ariñago i'bilteta be, bañuan nabaitzen daben gozo-beroaz ordu geiago otoíizean emonik. Eta iñoiz, ortan deabruak esku artzen dauanik ez dakie-ta, Jainkoari eskefak egin ta egin dara-gioie, olako mesedeen duin ez diralakoan; Jainkoa beroago maitatu ta Aren mofoitzan zintzoago jokatzera bearturik dagozala uste dabe, bai ta, Aren eskutik yatorkezalakoan, Jaunak mesede bañi ta andiagoak egin daioezan, euren bañuak egokiago gertetan leiatu be.

4. Saia zaiteze, aitzak, beti apal ta umilak izaten. Siñistu, etzariela duin olako mesederik artzeko, ta ez bila ibili ifiolaz be. Bide ontatik deabruak, nik uste dot, arima askori galduak dirala buruan sartu ta egiaz galdu egin dauazala; Jaunak, ofaitiño, arek guri egin dauskun kalte-gatxetik be ona ekafi oi dausku. Aren Andikitasunak, bada, gure asmoari begiratzen dautso, ta darabilgun asmo au ezta besterik, otoitzari lotu ta ekiñaz, Bera al bait zintzoen otseindu ta poz-esnetan eukitea baifio. Jauna, bafiz, beti dogu zintzoa. On yaku, alan be, zur ta ernai ibiltea, arerioak naiz gure apaltasun-miesa zulotu, naiz afokerizko lufunik ingurñan sortu ez dagiskun: ontatik jagon zaiezala eskatu bear

dautsazue Jaunari. Ez bildur izan, alabak; Arek ez dautzue, ba, Berak ezik, beste iñok poztu ta gozarazten luzaro itxiko.

5. Etsaiak, bai, onetan egin leikegu, ta geuk igafi bari-rik, kalte polita: ez daukaguzan onbide ta birtuteen jabe gareala siñistu-azo. Ta au bai izufi iguingafia! Bañu-samurtasun eta mesedeetan, egia, artzaile bakafik gareala deritxogu, ta ondorioz Jaunaren mofoi zintzo izatera beartuago gagozala; birtute-kontuan, ostera, geuk be zerbait emon ta serbidu dogula-ta, Jauna bere aldetik guri zerbitzu ori ordaindu beafean dagola, uste dogu. Ta gisa onetan, mailaka mailaka, kalte andia dakargu onek, emendik bada gure apal-eritxia makalduz doa ta, andik, ez daukagu ainbeste ardura ustez geurea dogun birtute, onoimen au eskuratzten jarduteko. Ta nun onen osabidea, aitzak? Nire kabuz, auxe onena: geure Maixuak darakusguna, "otoitza"; bai ta ez gaila tentaziñoan jausten itxi, Aita betikoari eskatu be.

6. Ba-da beste afisku bat oindiño. Jaunak ezer onik emon ba'dausku, mesede ori baituran, edo atzera biurtze-koa lez, emona dala uste izatea, ta egiaz safi jazo oi danez —Jainko-ardura zufez gero—, bein eta bañiz kendu leis-kuna dala. Zeuekan be ez ete dozue, aitzak, iñoiz ofenbeste asmau? Nik bai, beintzat. Edozertaz erantzita nagola uste dot batzuetan, eta izan be, azterketa edo proba egin ezkerro, ofelaxe nago; ufengo unekadan, ostera, guztiz lotua ta itsasia nago, ta neure burua ozta-ozta ezagutzeraiño egon be, ta ain zuzen, aufeko egunean ixeka egin neutsen gauzai bear bada. Beste bein adoretzu ta indafez aurkitzen nazala deritxat, eta Jainko-gauzetan eneuke ezelan arpegirik itzuliko, bai ta noz edo nozko baten ofela dala aitzen emoteraiño be; baiña biaramonean, txiñufi bat be Jaunagaitik ilgo ez neukela nago, iñok ezetan gogor ba'legist beintzat. Bai, batzuetan ez daust ardura antza neure kontra esaniko ezergaitik; eta onetan be, probatzera ezkerro, ofela da ziur aldikadetan, onek poza emoteraiño. Egunak ba-dira, ostera, itz lau ezerez batek kezkatan jarten nauenak; mundu au, orduan, itxi nai neuke, bertoko edozer nekegañ yatala ta.

7. Au ez yat niri bakafik jazoten; ni baiño obeagoetan be ikusia dot, eta ba-dakit ofelaxe dala. Ta au onan iza-nik, nok esan al daike beretaz onoimentsu edo aberats da-nik, arimea, doe ta on oneik geien bear leukezanean, ain-barik, oso ezeuki aurkitu ba'dadi ortan? Ez, aitzak; beti txiro (pobre) ta ezeukian bizi gareala uste izan daigun, eta ez gara jausiko zegaz ordaindurik ez daukagun zo-fetan. Ondasunak beste bide batetik etofiko yakuz zinfik asko, ta guk ez dogu egundo jakingo gure Jaunak, Beragandiko laguntza bage, geure giza-izate efukiofaren pre-sondegi ilunean noiz itxi gurako gaitunik. Eta enparauak, Jaunak dagiskuzan mesede ta deduagaitik, gu onak gareala uste ba'dabe, laster dakuse bai ta geure onegiteak dirala soilki baituran jarten doguzanak; eta ofela areik iru zufez geratuko dira, ta geu be bai. Egia da, apal ta umil Jauna otseindu ezketiño, Arek azkenez lagundu oi dauskula geure beafaldietan; baiña au egiaz efotuta euki ezik, esan oi da-nez, txitean pitean itxiko zaitue Jaunak. Auxe berau be, ostera, ez dozue besterik Aren mesede andi baiño, artu bakorik ezer ez daukagula zeatzago ulertu daigun.

8. Orain, bafiz, ezafi gogoan beste oarkizun au be. Deabruak, safi, onbide ta birtute baten jabe gareala —emon eroapena— siñistu eragiten dausku, Jainkoafen asko sufriduteko erabagi sendoak artu ta ofetan alegiñak dagiguzanean batez be; baietz uste dogu, sufriduko geunkela, pazientziz gero, edozer gauza Beragaitik: deabruak, izan be, asko lagundu oi dau guk ori siñetsi daigun, eta gu pozak zoratuta egon oi gara. Kontuz, aitzak, ez egiezu olako birtuteai jaramonik egin: ez daigun egundo izena besterik onoimen ofetan dakigunik uste izan, edo-ta Jaunak emon dauskunik iduritu, ondo aztertu ta garbi agiri izan artean beintzat. Bear bada, gogoko ez yatzuen itz-erdi norbaitek esatean zuen eroapena lufean iraul ikustea, jazo leitekena da. Safitan jasan oi dozuenean, goretz Jaungoikoa. onbide au erakusten asi yatzuela-ta; desak, lefenak, alegifiak egin be bai otzan eta biotz-samur izaten. Onela egiñik, bada,

aitzen emongo dozue Jaunak nai dauala bere emoiari buruzko ordaina: eskuratu eutzuen, bai, ta esana dot zuek baituran lez bera eukitea gura dauala bakar-bakafik.

9. Beste zirika-bide bat be ba-dau etsaiak. Gogoz txiro ta ezeukiak gareala begitantzen yaku —bai ta askotan esan be, ez dogula ezer nai, ez gaitula ezeren ezek kezkatzen ondasunai buruz—, baiña zerbait emoteko erea ya-torkuneko, naiz-ta geuk gaiñezka daukagunetik izan, efekara da gure gogozko txirotasuna osorik: bai, dakargun bezu ta esan-oiturak ederto laguntzen dasku ofela dagigula uste izateko! Beraz, egoki be egoki yaku onetan beti be kontu andiz ibiltea, deabruaren ziria ala egia dan jakin daigun zein aitaturiko gauzetan zein beste askotan. Onoi-men efotsu onetarikorik Jaunak damoskunean, bakar ofek dakazala dirudi beste guztiak be bere atzetik. Au zer agiria dozue. Baiña bafiren bafi diñotzuet: olakorik ba-dozuela iduri afen, bildur zaiteze, arerioak ziriren bat sakatu ez daizuen. Egiz umila dana beti dabil zalantzan ta enuxubanaxu bere birtute ta onbideetan; eta, geienik, besteetan dakusenak ziufago ta baliotsuagoak deritxe.

## XXXIX

Gat asiari dañaitso. Era askotako zirika-bideak azalduaz, oarkizun, abisu batzuk emoten dauz. Bide bi, arimea tentaldian jagoteko. Atal onek ba-dau bere una

1. Esanikoaz gaiñera, zur zabilteze, aitzak, deabruak asmau oi daskuzan umil-era batzuekaz be: safi, beiñola geuk egindako pekatuen astuntasunari buruz kezka ta ur-

duri galanta sor daroasku arek. Modu askotara artegatu ostean, atzenez, gai eztirala-ta, jaunartze ta otoiketatik be atzeratu egin oi ditu arimak; eta, jaunartzera doazanean, ondo gertau ete diran ez ete diran, mesedeak artzeko eben aldirik edefena alpefik doakioe. Geiago: arimea kezkatan sartu ta Jaunak, ain duin-eza dalako, Beragandik albora itxita daukala siñistu eragiten dautso, iñoiz Aren efukian be ia tutulu jarteraiño. Afiskutsu deritxo esku arte darabilen guztia ta dagiana, naiz-ta ona, etekin edo fruturik bakoa. Txit uste bagetua itxi oi dau, ezer onik osotutzeko gogo barik; besteak dagiena ona iduritzen yako, berak dagiana, txafa.

2. Artuizue ondo, alabak, diñotzuedan au. Iñoiz, bai, zeuen burua ofen pekataritzat artzea, ba-leiteke apaltasun ona; beste batzuetan, bafiz, ziltzaldirik galgafiena litzakizue bear bada. Neroni be, ortik ibilia naz ta, ba-dakit ofelaxe dala. Apaltasuna, naiz-ta sakonena izan, ez yatzue artegakor, ez urduritsu, ez naspilkoi; baketsu, leun ta gozo baiño. Geure burua ain gaizto erkin begiztatzean, bafullor-miñez inpernua ondixik merezi dogula argi ikusi ta, efukia eskatzen be ez azartzeraiño, gizaseme guztien erabateko gofotoa zuzen be zuzen zor dogula iduritu afen, neke ta atsekabe oneik, egiaz apalak ba'gara beintzat, bafutiko poz-atsegiñez nastean datorkiguz, eta guk ez geunke ezelan be onako barik geratzerik gura izango; benetako apaltasunak, ez nasi, ez zalapart, eztau arimea estutzen, al giñoan nasaiagotu ta Jainkoa obeto otseintzeko trebeago egin baiño. Gogo gaiztoagandiko atsekabeak, baiña, oro •aspil, oro istilu, arimea gainbera lardaskatu ta irabildu oi dau: nekegafi izaten da oso. Arerio aren maltzurkeri dozue au, nire ustez, guri umil-umilak gareala siñistu eragin **nai**-rik; eta, al ba'leu, bide batez, gu Jaungoikoagazko gibelbiduferaiño eroango gindukez.

3. Ofela zagozanean, ken gogamena albait ariñen kaskar-izate ortatik, eta Jainkoaren efukian murgil, zenbat maite gaituan, zenbat sufridu eban gugaitik gogoraziz; goi-

beratze ori tentaziñoa ba'da, ostera, auxe be ezingo dozue egin, ez gogoia bakeratu, ez ezertan kokatu, zeuen buruak gero ta geiago nekerazo baiño: naikoa dagikezue, ofelakotetan, tentaziñoa dala igafiaz be. Orobat jazo oi yaku, besteak baiño penitentzi-zaleagoak gareala ta zerbait ba-dagi-gula geure buruari aitzen emoteafen, neufi ta ganora andibako gorputz-zigorketa ta ildurak egin daroaguzanean be. Ildura oneik autofoentzuleari naiz nagusiari ixil-gordeka zabiltzenez, edo ta eurok izteko diñotzuela, itxi ez ba'dagizuez, au argi ta garbi tentaziñoa ta zirria sartzea dozue. Min izan afen be, leia zaiteze esan egiten, au bai yatzue osoago.

4. Beste tentaldi bat, txito afískutsua. Uste ta segurantzta benetakoa dozue, ez giñakezala ezelan be biurtuko lengo utsetara, ezta munduko atsegiñetara be. Geure buruari dirautsogu: "Orain ba-dakit mundua zer dodan; bertoko guztia ba-dakit arin doiala amaira; Jainkozko gauzak gogozago yataz." Ziriketa au, monja-bizitza asi-bafian baldin ba'da, kaltegefi yaku osoan; edu ortako arimak, ba, seguru dagozalakoan, ez dira arduratzen pekatuzko galzorietatik iges egiten. Aldíz aufetik ez dakusezan zoztofak jarten yakez bitartean, eta Jainkoak ez beioe itxi ien baiño be beerago jausten. Deabrua ondo oartzen da, bai, kalte egin daikeon arima dala olakoa, ta ingurukoai be ona datorkiela ortik; onenbestez, alegin andiak egiten ditu, bein jausi dan ezker, jagi ez dedin geiago. Augaitik, bafenguritasun eta maite-erakutsirik asko egin afen Jaunak, etzaitzeze ifioiz be seguru ibili; muzin egin gogotik deabruaren jausbide guztiai, ta ez izan egundo be bafiro jausiko etzarien ziurtasunik.

5. Mesede ta bezuza oneitzaz itz egin, afen, argia emon daikezenakaz: ixilik ez euki ezer. Zein otoitza astean zein amaitzean, euki au kontuan: amaitu beti, otoitzik bikaiñenez izanda be, zeuen ezerez-ezauerazko gogorakizunez. Eta, Jainkoagandikoa ba'da, safi zeuek nai izan ezta be, konturatu barik egingo dozue au; onako otoitzak, ba, bera-

gaz dakar apaltasuna, ta ezereztasun oneri buruzko ezauera argiagotan itxi oi gaitu. Ez dot geiago jardun nai onetaz, gai au azaltzen dautzuen liburu asko daukazuezt-a. Esan dcdaiia, oar-ikasiz dakidana dozue, naiz-ta batzuetan kez-kaldi edefak artu bear. Esan daikegun ezek be ezin leikegu segurantz-a osorik ekafi.

6. Beraz, Aita betiko!, zer egin daikegu guk, Zugana jo ta etsai onein ziri-sare artean ez gaizuzala itxi Zuri eskatu baiño? Betoz agiriko bufukak, Zuk lagunduta, bada, efezago onez urtengo gara ofeitatik; baiña gogo gaiztoaren maltzurkeri me ezkuatak, nok ager-azo ta ulertuko? Ene Jaungoikoa!, Zuri eskatu bear dautzugu beti osagafia. Emo-iguzu, Jauna, ezaugafiren bat itsumustukoen kontra; erakusguzu, bai, zelan geure buruak ezagutu ta ziuafazo. Bide ontstik dabilzan arimak ba-dakizu zein gitxi direan; olako izuak artuta bizi ba'dira, oster-a, gitxiago dabiltzakez ora-indik.

7. Afigafia ete? Onek edo ak uste izan daitekena da, deabruak ez dauala zirikatzen otoitz-bidetik dabilena baiño! Mundua, bene-benetan, are geiago afitu oi da, santutasunezko tontofera elduaz doazanetariko bat deabruak bere sare artean afapetan ikusiaz, agiriko maltzurkeri ta obenbideetan eun milagaitik baiño. Emen eztago egon be, on edo txar jakin-miñez zetan kezkatan ibili; mila leguatik be, edozeiñek ikusi daike Satan dabilela onako stiluetan. Gizartea, egiaz, zuzenean dago; izan be, "Aita gurea" eraspentsu esan oi dauanetakorik oso gitxi dira deabruak atzipetzen dabezanak; eta, onakorik jazo ezker-o, gizartekoak sor ta lor gelditzen dira, gauza bakana ta oi-eza dalako. Berez-berezkoa da, gizaseme ilkofo, gauza bat safi gertatzen ikusiaz, ofela dak uste izatea, bai ta zeozer bafi naiz noiz-baitekoa baiño eztanean, afi ta zur egiñik geratzea be. Gogo gaiztoak eurak be bildurgafi yakuz. Eta au oso egoki yatorke arei; donekuntzaraiño eltzen dan atima batgaitik, ba, beste askok iges dagitse esku artetik.



## XL

### **Jainkoaren maite-bildurēan beti irauten aleginduaz, ainbesteko ziri-iruzur artean be seguru ibili gintekez**

1. Irakasle on ofek eiguzu, otoi, iges-bideren bat, onen naste-buruka galgafian ainbesteango izu-ikara bage bizi gai-  
tezan. Izan geinkezan iskilurik onenak, alabak, Jaunak be-  
rak emoniko bi oneik doguz: maitasuna ta bildufa. Mai-  
tasunak, izan be, bizkortu oi ditu gure oinkadak, eta bil-  
dufak darakusgu oiñak nun ipiñi, bizidun danok igaro beafa  
dogun bideko berein tupust-afiren kontra estropezurik izan  
ez daigun. Onelango iskilu ta armaz zainduta, seguru ibi-  
liko gara iruzur-karkabara jaustetik.

2. Itanduko daustazue: "Onoimen andi, andi bi oneik  
noiz daukadazan, esan ete neinke?" Ta zuzenean zagozela  
deritzat, onetan be gauza ziur agirikorik ez baitaukagu;  
egia, ziur goi-maitasunean murgil bizi izan ezkeru, grazian  
bizi gareala esan geinke. Baiña, begira, aitzak, ortarako ba-  
-ditugu bapatean agertzen diran ezaugafiak eta, esaera da-  
nez, itsuak eurak be ikusi leikezanak. Ez dagoz gorderik,  
ez; zuok areina entzun nai ezta be, areik ots zolia ataraten  
dabe, birtute onein jabe osorik asko ez dira-ta: onegaitik,  
ezari-ezarian, ezaugafiago dozuez. Gaztelu gogor-sendo bi  
yakuz Jainko-maitasuna ta bildufa, ta emetik gefa egiten  
yako zein munduari, zein gogo gaiztoai.

3. Bene-benetan Jainko-maitale diranak on dan guztia  
maite dabe, on dan guztia opa, on dan guztia aldeztu ta  
on dan guztia goratu oi dabe; onakaz alkartzen dira beti,  
onak sorosi ta zaintzen dabez, onbide danak besarkaturik:  
egi ta maiteagafi dana, orixe laztan dabe bakafik. Al dala  
uste dozue, edo al daula, Jainkoa egiaz maite dauanak,  
munduko uskeriz, aberastasunez, atsegin nai deduz, pozik

artzea? Olangoaren kautan ezin izan daiteke ez eztabaidarik, ez bekaitzik: Maitea pozik euki, or aren asmu bakafa. Bai, Jaunagazko maite-suz il-beafean dabiltz olako arimak, euren bizialdi osoa Ari zelan zeatzago begiko izan emonaz. Maitasun *ixila*, bear bada? Oi, Jainko-maitasuna, egizkoa beintzat, ezin ixilik edo ezkutuan euki! Or, bestela, Paul deuna naiz Madalena; bata, Paul deuna, iru egunen bañuan maite-miñak artua egoala konturatu zan; bestea, Madalen, lenengo egunetik oartu zan. Eta ondo, gero! Jainkoagazko maite-suak, bai, izan daikez bere gora-berak, ta daukan indafaren neufira ta ariora aitzen emon oi da: makal ba'da, gitxi agertzen; kementsu ba'da, argiago azaltzen. Baiña, gitxi zein asko, Jainkoazkoa ba'da, ezta iñoiz be ixil-zokoan kuku geratzen.

4. Orain, ostera, otoitz bikaiñera eldu diranai deabruak egin oi dautsezan ziri-sartze ta lilurak azaltzen diardugu-ta, maitasun ufiak eztau emen zer ikusirik; begizatze-egoerara eldu diran arimak gogotik maite dabe Jaungoikoa, edo ez dira begitafak, eta au era askotara agertu oi da tamalez: su anditik dirdir andia bai dator. Maite-jokoan ufi ta eskas ba'dira, bebiltz arduraz, zeri bildur izan baitabe: ikusi begie leiaz zer palta yaken, otoitzari ekiñik apal-apal jokatu begie, bai ta zirikaldian ez daizala bertanbera itxi, Jaunari gogoz eskatu be. Ni bildur nozue egiaz, ezau-gafi au tarteko ezpada, badaezpada ez ete gabiltzan oraindixik. Baifia apaltasun-bidetik ba'zabiltze ta, zeuen bañua egiti ta autofentzuleari lau agertu ta aren esana beti egiñaz, egia nun dagon jakiten saiatu ba'zagize —esan dautzuet—, deabruak, iruzur ta liluraz zuok naspildu nai izan afen, zuok erioz galtzea uste izan afen, ofegaz berofegaz bizia damotzue.

5. Baiña len azalduko Jainko-maitasun au, orain esatera noakizuen bildufaz batera, zeuen bañuan asmetan ba'dozue, pozik zabilte ta bake eztitan. Arimea lafitu ta onegite andiotan gozartu ez dedi, eundaka guzur ta bildurera jafiko dautzuez deabruak afean, bai ta beste batzuk

zuei jafi azoten lagundu be. Berak beretzat irabazi ezin zindeikiezan ezkeru, zeozer beintzat guri galdu eragin naita lefenak egin oi ditu, ta asko irabazi leikienak be galdu dagiela erabat, izaki ain zatafak artutako mesede andiak Jainkoagandikoak dirala edo izan daitekezala siñisturik; batzuetan, euki be, erdi-azturik daukaguz Aren efuki antziñakoak.

6. Zer uste dozue? Suster bako bildufok guri jarrea, deabruari ez dautsola bape ardura? Bai, ardura dautso, ta ez gitxi, askotxo baiño. Onela, ba, kalte gaitz bi dakarskuz: lenengoz, otoitzari diarduenak, eurak be atzipetuak izan daitekezala-ta, olakoak entzun ezkeru, bildufean jarten ditu; bigafenez —esan dot—, deabruak atzeratzen dauazanetatik asko geiagok Jaungoikoagana joko leukela au ain ona izanik, orain pekatariakaz bañu-bañuko artu-emon gozoa daukala ikusiaz batez be. Onek berotzen ditu, ta efazoiz alan be: batzuk ezagun dodaz nik, ofelaxe biotz-berotu ta otoitzari ekiñik, epe labufean egiazko begiztaile egin ta mesede galantak Jaunagandik artu dabezanak.

7. Or, ba, aitzak, zuen artekoren bati Jaunak olakorik egingo ba'leuskio, goretzi Jauna txalo-joka. Ez uste, alan be, oso seguru dagoanik; otoitzez gero ta geiago lagundu, bai, ofaitiño, iñor ezpaitago afiskutik seguru itxas ekaitzaizetsu ontako galzoretan nasi bizi dan artean. Onetara, onelango maitasunik ba'da, laster ezagutuko dozue, ník ez dakit ba zelan iraun leiken gordeta. Eziña da, diñoenez, giza-maitasuna ezkutuan eukitea: geiago gorde nai, argiagu agiri oi; eta au maitasun zatafean, ezereza oifiafi daulako, olango izenik be merezi ez dauan zer ofetan. Zelan esku-tatu, beraz, ain maitasafe sendo ta bidezkoa, beti geituz doana, maitatzea izteko biderik ez dakusana, maitasuna maitasunez itzuli ta ordaintzeko zutafirík tinkoenean eragiña? Ta itzulia edo ordaindua izango danik ezin daikegu ezpaian jafi, oiñaze gafatz, gurutze ta odol-jarionez bai euskun erakutsi, ta onen zalantzarik izan ez gengian, gurutzeko eriotzaraiño erakutsi be.

8. Oi, Jainko maite! Alde makala maitasun bi oneitan, batez be biok egiztu dauazan arimarentzat! Bizitz au amaitu orduko, bemoisku Jaunak onako eskeña! Alaitasun esan-eziña litzakigu, ziñez, eriotz orduan, ezer baiño geiago maiñe izan dogunak epaituko gaitula gogoratzea. Beste munduratzean, ziur egon gintekez, bai, geure zofen auziaz: ez goakez erbeste ez-ezagunera, geure-geure dognn arbaso-lufera baiño, guk Bera ainbeste ta Berak gu ofenbeste laztan izan gaituanaren eñialdera ziufik asko. Gogora, afen, alabak, maitasun onek emen dakarskun irabazia ta ez eukiteagaitik datorkigun kalte andia: maitasun au ezak zirikaliaren eskuetan izten gaitu, esku gaiztoetan, on guztiaren etsai ta gaitz osoaren adiskide danaren eskuetan!

9. Zer jazoko ete arima gaixoari, alako oiñaze ta nekeetatik doi doi askatu ta gero Satan'en su-lezara jausi ba'dadi? Gain yatorkona bai atsedenaldir izukor! Zauriz ta zatiz bai doakela betiko sutara! Zenbat, eta zenbat aldetako sugeak bertan! Leku bildurgafi! Ostatu z.ori txafeko! Ostatu txafa, gau batez soilki, eroan-gaitz ba'da, guritan aziarrentzat batez be —ta onakoak doaz ara geienbat—, zer ete betí-betiko ostatua? Arima zurbil arek, zer uste dozue asmauko daula amaibako sutan? Ez daigun, alabak, soin-gurikeririk opa izan: ederto gagoz emen; gau bat besterik ezta ostatu ezaiñean. Gora Jainkoa! Leiaz penitentzi egin daig.un bizitz onetan. Eriotz-ordua bai gozo bigun, pekatu guztiena eginda eukirik, garbitokira beafik ez daukanarentzat! Lur ontantxe be, baleiteke, zerutar alaitasuna artzen astec; ez, une atan be eztau olakoak biklufik izango, ba-kearen poz nasaia baiño.

10. Onagiño eldu ez afen be, aitzak, eska daiogun Jainkoari, il aufetik oiñaze-naibageak izatekotan, izan dai-tezak guk gogoz eroan ta euretatik onez urtetako modukoak, eta ofetan be ez daiguzala galdu Aren adiskidetasuna ta grazia, bizitz ontako zirikaldi ulerkaitzetan jausi barik ibilteko beafezko dogun Beragandiko laguntasuna emen baiño.

## XLI

Jaungoikoagazko bildufa. Pekatu ariñak aibora itxi  
bear doguz

Ni bai, onezkero, luzatu! Baiña ez gura neukean beste; gozo ta ao betekoa yaku ba, Jainkogazko maite-jarduna. Eukitea, zer ete? Maite uts dogu-ta, niri be emon beist beretik zerbait.

1. Orain, ostera, lotu gakiozan Jainkoaren bildur-sailari. Au be, berau daukfenentzat eta ortan diarduenentzat, ezta ezagun zaila. Asieran, egia —ta egoki da zuek jakin daizuen—, onen kementsua eztan afen, azi ta geituaz doa pizkaka-pizkaka; Jaunak mesede andiakaz lagundutakoak, ostera, epe txikian jori ta aberats biurtu oi dira birtutez, ta origaitik, asieran beinik-bein, ezta bardin ezagun izan oi arima guztietan. Egunean egunean aziagoturik, geituaz doa aren balioa be, ta onakoak pekaturako afisku ta bada-  
ezpadako lagunekandik aldendu oi diralako, laster ezagutu daikeguna da; ba-dira, gaiñera, beste ezaugafi batzuk be. Gorago aitaturiko arimak, bafiz, ots, begiztaldira eldu diranak —zein maitasun zein bildur—, biak agiri ditue euren kanpotiko egikeretan be. Onakoak, naiz-ta zuek ufetik begiz jo, ez yatzuez egundo be ardura bage ibiliko: Jautiak daukaz bere eskuz, ta irabazi galantak ortik etofita be, eura, gogoz beintzat, ez dautzue pekatu ariñik be egingo; astunak, bafiz, suak bestean bildurtzen ditu.

2. Oneik dira, aitzak, zuek bildur izan zaitezen nik gura neuken lilurak. Jainkoari eskatu daiogun beti, Bera iraintzeraiñoko zirikaldira gogofik ez daigula bialdu; ori azpiratzeko emon beafa daskun indafaren neufi ta erakoa izan daitela. Auxe dozue beinena. Ta taiu ontako bildufa da, iñoiz gugandik aldunderik nik gura ez neukena: auxe bai dokegu zainleku ziur.

3. Oi!, zer andia benetan, Jauna iraindu barik eukitea! Ofela, izan be, efezago yaku bai guri menpekuoi, bai inpernuko jopuai! Bitzuok, ba, naitaez, Aren otsein izan bear, gu alai-pozetan, areik samin-indafez. Beraz, guk Jauna pozik ba'daukagu, Aren etsaiak be maña bafuan esituko doguz ta, naiz gogotik zirikatu naiz ixil-lakioak beatz-topo jafi, ez dauskue esateko galterik egingo.

4. Artu ondo oarkizun au, gafantzi andikoa baita. Erabagi egizue, ta sendoro gero, Jauna ez dozuela iñoiz be minduko: pekatu astunez Bera iraindu baiño len mila bizitza galtzeko gertu zagozela, ta ariñakaz be arduratan ibiliko zariela. Emen, ostera, jakiñez egindako pekatuakaz ari naz; konturatu bako utsetan, bada, nor ezta jausiko, ta safitan jausi be? Konturatze bat, ba-da izan, oso erabagizkoa ta gogoz artua, ta beste bat, oso ariña, pekatu egin ta kontuan jausi, dana bat dalako, guk aretaz ozta-ozta ezer ulertu be egin genduanekoa; alan be, guztiz konturatu ta jakiñaren gaiñera egindakoetatik, naiz-ta txikefenak izan, Jainkoak gorde ta jagon gaizala: gitxi ta txikefik ez bai dago, beti begira daukagun Aren Andikitasun gurenaren afean jauki ta egindako utsean. Olango iraiña, nire ustez, guztiz auznartu ta gogoan iraulia da. Norbaitek Jaunari esango ba'leutso lez: "Jauna, eder ez yatzun afen, nik au egingo. Zuk ba-dakusazula ba-dakust, Zuk nai ez dozula ba-dakit, ondo dakit; nik, alan eta guzti be, Zuk naia bete baiño gurago dot neure griña ta lerai jafaitu." Ba ete da txiki edo pitiñik onako zatarkerietan? Ezetz uste nik: utsik txikiena izanda be, aintzat artzekoa dogu.

5. Jaungoiko laztanafen, aitzak, bildur au zeuekan sustraitu nai izan ezkeru, nai-ta-naiezko dozue, Jainkoa iraintzea zein zatafa dan gogotan safi erabili ta ondo ulertzea. Bai, bizia yoaku ontan, batez be onbide au guk geure arimetan bafen-bafenean sustraitu nai ba'dogu. Ta ortaiño eldu zariela konturatu arte guztian, jakizue, kontuz, oso arduraz ibili beafean zagozela oraindik, jaus-afiskuak itxi ta Jainkoaganagotzen lagun ez yatzuezan gaiztoekandik alde

egiñaz. Gabiltzan, bai, afetaz, dagigun danean geure gura-  
mena tolestuz; afetaz, bai, gure itzak enparauai ona ekar-  
tekoak izan daitezcan be, autu-mautu ta itz-mitz bada-ezpa-  
dakoetatik iges egiñik. Neke ta ekin kementsua bear da,  
egiaz, bildur santu au arima bafenean sartu ta itsasteko;  
maitasuna benetakoa baldin ba'da, alan be, laster doia gero  
ta geiago azi ta garatuaz, berezikiro, esan dodanez, arimea  
munduko ezergaitik be Jainkoa eleukela irainduko ta, era-  
bagitsu ikusi ezkeru, naita origaitik, noiz edo bein, bafiro  
be jausi: aul-makal bai gara, ta ezin geure buruagan uste  
lafegirik izan. Erabagia sendoago ta norbere indafean uste  
gitxiago: Jankoa bakafik gure uste oso.

6. Esandako bildu .au bein geuregan ondo eřotu ez-  
kero, ain izukor ta laf\ ez daukagu zetan ibili geure kau-  
tan: Jaunak aldeztuko gaitu etenbage, ta lorturiko ekandu  
onak be ez dausku gitxi lagunduko uts-egiñez A ez irain-  
tzeko. Zernaizko askatasun santuz jardun gengike orain,  
bai ta gogoko yakunagaz batu be. Gizarteko arazo ta gau-  
zetan be bai sartu zaitekeze; orain, bada, len Jainko-bildur  
ziñezko au jadetsi aufetik, arimearentzat pozoi ilgafi ya-  
tzuezan zerak be, Jainkoa obeto maitatu ta goresten lagun-  
tzaille izango yatzuez safi askotan, agiri-agiriko afiskueta  
zuek jagonik. Eta lenago arein argalkeria txaferako bultz  
eragile ba'yatzuen be, orain zeuek zaiakez arei laguntzaile,  
areik zeuen begi aufean eukiteko be indar egiñik, eurak  
bai dautzue emongo eskatu bako maite-erakutsiaren ordaiña

7. Safi askotan zurtu naz, bai ta Jauna goretsi l^,  
au da, safi itandu dausats neure buruari, askotan jazo oi  
danaren zergaitia: Jainko-zale dan baten aufean, au mutu  
egonik be, eztau iñok Aren kontrako itzik ateraten. Au  
jazo oi da, nik uste, gizartean adiskide diranakaz lez: geure  
lagunaren adiskideari beti dausagu lotsa pizkat, eta a  
aufean euki ezta be eztoгу aretzaz ezer esaten gure laguna  
mindu leikenik. Onakoa Jaungoikoaren grazian bizi da an-  
tza, ta mailarik berenengokoa izanik be, guk itzalez ta be-  
girunez begiratzen dausagu ta enparauak be ez yakoz ari

nekegafi, edu ortako Jainko-irain bat eleukela ondo artuko ba-dakie-ta. Egia esan, nik ez dakit zergaitik, baifia ofelaxe gertatu oi da geienik. Ez izan, ba, estuegiak zeuen gauzetan; arimea lafitzen asi ezkeru, au gaitz dozue edozer onerako, ta alangoa kezkatu ta bildurkor biurtu oi da safitan, beretzat eta zeuentzat kaltegafi oso. Ta onaifio eldu ezta be, beretzat bear bada ona dalarik, Jaungoikoagana eztau ortik arima askorik eroango; bai, osteru, atzeratu, bera ofen urduri ta estu ikusiaz. Gure giza izatea olango-xea dozue, ta zer egingo? Bai, olako arimak, gisa ontako gauzen aúfean izutu ta ito egin oi dira, ta onerako zidoñik seguruena zuek daroazuena dala argiro ikusi afen, zuen lofatzez eztabe ibili gura.

8. Zoztor onein artean ba-da beste untze bat be. Olako arima kezkatuak, eurak baiño zabar, nasai ta ez-osoagotzat euki daroet ingurukoak. Zer dala-ta? Inguruko oneik, ausaz, eurak dabiltzan zador-bidez ez dabiltzalako; eta arein eritxiz zabar diran ofeik, bear bada, santuagoak dira, azkeago itz egin afen, eta urkoai be on geiago dagitse, ofen meko kezkatu ez dabiltzalako. Bañu-pozak artuta norbait ba'dakuse, nasaikeria dala deritxe. Bai, safi jazo oi da onelagu lango ezjakiñakaz, ots, pekatu barik zeintzuk gai erabili geinkezan ez dakigunokaz. Beti artega ta beti zirikezkan, gogo-matasa oso arildu eziña da, ta anskutsua gaiñera, lagun urkoarentzat kaltekor baita. Au, bafiz, uzku ta lafi danak, bere antzera ez doazanak bide okefez dabiltzaia uste izatea, txafa baiño txafago.

9. Beste gaitz bat be izan daiteke. Bestaldetik bildurzarie, gauza batzuetan batez be: itz egiteko eskubidea izan ta ifioiz ortara beartuak izan afen, etzarie azartzen iñolaz be; bildurzarie, bai, lafegi esanik, Jainkoa irainduko ete dozuen; bai ta, beste batzuetan, biotzez gofotatu bear zeunenari buruz, lar ondo apaindu ta bear aiña ezaindu ez ete dozuen.

10. Ofetan, aitzak, Jaungoikoa iraindu barik al dala, txeratsu ta maitekor izan zaiteze zernaitan; ar-emonu do-



zuen guztiekaz bebiltz ofela zuen egitadak, zuen autu ta izketa, zuen biziera ta jokabidea eder dakioen guztiai, ta iñori bere ez bildur-zio ta santutasunerako atzerabide. Au ez dozue gora gitxikoa, batez be lekaime ta jainko-zaleentzat: onean ta santu-bidean auferago ta aitzakaz leiatsu ta kutunago. Arein autu-jardunak beti zeuen nai-araura ez diralako min artu afen, ez egizue ifioiz be afimenik erakutsi: ofela arei onean lagundu ta euren maite-zaletasuna zeuekanduko dozue. Bai, inguruan doguzanai, batez be geure aitzai eder izan ta poza ekarteko, guztiz arduratsu jokatu bear dogu, laztan ta adikofak izanik.

11. Ikas egizue Jainkoagandik, ene alabak. Arek ez dau, egiaz, zuek uste dozuen besteko zeatz-meatzik olako zer zirimirietan; ez egizuez, ez, zeuen arimak nastu ta kizkortu ta adorea kikildu, ortik bada onik naikoa galduko zeunkie. Izan beti asmo artezekoak, ta, diñodan lez, Jainkoa iñoiz ez minduteko erabagi sendokoak; ez zokondoratu zeuen arimea: ofela ba'zengie, etzeunkie santu-bidean auferakuntza andirik egingo, ta deabruak bestaldez uts-egite ta kaskarkeri asko beraganduko leukez zuen buruz gaiñetiko ortik. Gisa ontan ez dozue ezer onik lortuko, ez besteai al giñoan lagundu.

12. Beraz, emetik dakusazue gauza bi oneikaz —Jainko-maitez ta bildufez— bide ontatik ibili gintekezala nasai ta baketsu. Oso ardura barik ez, baiña bildur au aufelari dogula bai; segurantza osorik ez dogu izan bear, ba, bizi garean arte guztian: zorakerizko galzori litzake. Ta gure Irakasleak, guk zer beafa genduan ba-ekialako, ofela aitu eban, "Aita gurea" deritxogun otoitzaren amaieran bere Aitari au iñotsonean: "Baiña jagon gaizuz gatxetik. Olantxe."

Paier Noster'eko azken-itzok: "Sed libei-a nos a malo. Amen", azaltzen ditu

1. "Baiña gaxetik jagon gaizuz. Olantxe." Jesus onak zio ta efazoi naiko ebaladeritxat, otoi au Bere alde egiteko; bizitz onek nekaturik eukala dakusgu, ba, batez be atzenengo aparian bere Apostolui onela inñotsenean: "Leia biziz nengoan zuekaz Pazko au jateko" (*Luk.*, XXII, 15). Apari au zan, izan be, bere bizitzako azkena, ta itzok argiro adierazten dauskue bizitz au luze ta gañatz yakola. Gaur, osterera, eun urtekoak be, nekatuta ez, baiña geiago bizi izateko leiaz daukaguz! Ofetakoz, ba, ez gabiltz ain txarto; bai, gure Jaunak aiña neke-lor ta ezeuki barik bizi gara naitaez! Zer izan zan Aren bizialdi osoa, arerioekandiko nekaldi ta Pasiño latza beti bañiztatuz, eriotz etenbagea baizen? Au guzti au, baiña, etzan ezer be, bere Aitari guk egiñiko konta-ezin al irain eta betiko inpernurutzen ziran arimak aldeñeska jañi ezkerro! Au, egiaz, goi-maitasunak beroturiko giza-biotz bati be oiñaze bizi ba'yako, zer izango ete Jaun onen, ez neufi ez muga dan, maitasafe gartsuari? Benetan eska leikeon, bai, bere Aitari ainbat gaitz-neketik jagon eta ezar-azo egiala betiko efeiñuan nasai ta bakez, Bera bait-zan ango etxagungei ziña!

2. "Alantxe", edo Amen. Eskari guztien amaieran erabili oi dogu itz au; eta, nire eritxi argalean, gure Jaunak eskatu eutson emen bere Aitari, betiko jagon gaizala gaitz orotik. Beraz, nik be ofelaxe eskatzen dausat Jaunari, beti-betikoz jagon ta zaindu nagiala gaitz guztitik; zor dodana osorik ezin dagiket, ba, ordaindu, eta bai, egunean egunean, zor ta efu geiagotan jausi bear bada. Ta onez eroan eziña da, Jauna, maite zaitudan ala ez, tiire gurariak aintzat artzen dozuzan ala ez, ziur ez jakitea. Oi, ene Jaun eta Jain-

ko! Onezkero jagon ni gaitz guztitik, alda nagizu on guztia-  
ren lufaldera! Zer daukie euki be emen, Zuk mundua zer  
clan, zerbait bakafik, erakutsi ta ezagun-azo dautsazuen ari-  
mak, eta Aita betikoak eurentzako daukan zoriona fede  
biziz artu ta ditzaroenak?

3. Zerurako gar bizi etenbakoa da otoitz bikaiñean  
dabilzanentzat, jardunkizun ortan arturiko mesede ta  
doeak Jainkoak emonak diralako ezaugafirik ziufena; ori-  
gaitik, euren begiztaldia jatofa baita, au daukienak beukie  
aunditzat, eta eskatu. Baiña ezpei iñok uste izan, nik au  
dala-ta diñodanik; ni, ba, gaizki bizia nozue ta bildur naz  
geiago bizi izateko; besteko, neke yat ainbat lor. Jainkoa-  
gandik maite-erakutsi asko artu dabezan arimak. ostera,  
ezta afitzekoa, mesedeok zufutaka artzen ez dabezan le-  
kuan egon nai ez izatea; eztabe bizi nai ainbeste gozatzeko  
ofenbeste eragozpen artean, eta bai zuzen-eguzkia egundo  
sartu oi eztan lekua bizirot leiatu. Ifits bizi onek jotakoan,  
lurtar oro baltz iduritzen yake. Ezin ni oar zelan bizi lei-  
kezan amentxo baten be; eztau pozik, antza, bein Jainko-  
gozotasunak txastatzen asi ta emen be Aren emona yako-  
nak, bere gurariz ez, baifia Efege-naren araura bizi bear  
baita.

4. Oi, bestelako bizia dogu au, apika, eriotza ez opa  
izateko! Bestera makur bear gure naimena, Jaungoikoarena  
egiteko! Guk egia nai izatea opa dau Jaunak, guk bafiz  
guzufa obetsi; betiko dana guk nai izatea gura dau Arek,  
baiña gu igazkofera makurtu oi gara; zer andi ta zindoak  
guk bilatu ta opa daiguzan gura dau Arek, eta guk ziztrin  
lurkoiak bilatzen; ziufean bakafik gu kokatzea nai dau Arek,  
guk ezpai ta urduria maite dogularik. Uskeri ta ixekaren  
ufengo dozue au, alabak; ez, ostera, afisku oneitatik jagon  
ta gaitz guztitik atera gaizala Jainkoari eskatzea. Gure nai-  
kuna ofen oso-betea izan ezta be, dagigun eskabide au, ta  
gogotsu egin be. Asko ta askotara eskatzea, Altsu danari  
deskatsogun ezkerot aldatz-gora egiten ete yaku? Eskatzen  
doguna, ofaitiño, ziufago jaritxi daigun, Jaungoikoaren

naiak berak aukeratu begi opatu nai dauskuna, guk geurea Ari osoan amoregiñik daukagu-ta. Zeru ta lur, onetsia Aren izena betiraun osoan, ta nigan bedi aldioro Aren boronda-tea! Olantxe.

5. Orain ikusi zuek, aitzak, azaltzen asi nintzan gai au niri ta zuei irakatsiz, zelako ardurea astindu daustan Jaunak, "Aita gurea" esatean zer eta zenbat eskatzen dogun aitzen emonik, noski. Goratua bedi betiko; ez bai nekian eta ez yatan egundo burura etofi ain ezkutu andiak ortan egozanik. Baiña, ikusi dozuenez, gogo-bizitza guztia artzen dau onek bañuan, lenen-lenengotik asi ta Jainkoak arimea bere baitan murgildu ta bide azkenean egoala esan neban ur biziko itufitik parpo edaten emon-azo arteko guztia.

6. Dimdienez, aitzak, bañen ontako poz-atsegiñaren gozotasuna erakutsi nai izan dausku Jaunak. Au egokia oso, irakurten ez dakienentzat: aituko ba'lebe beronen guna, irakaspenik asko aterako leukiez otoitz onen bitartez, ta pozak zoratu.

7. Ikas daigun, aitzak, zein apal erakusten dauskun gure Maixu on onek. Bai eskatu be: parka daistala onen gai sakon ezkutuak azaltzen azartu nazalako. Aren Anditasunak ba-daki ondo be, esan dodana Berak erakutsi ez ba'leust, nire adimen-argia etzala gauza egikizun ofetarako. Zuok be, aitzok, ager Ari eskefona; apal ta zintzo eskatu zeunstien, kaskar onek irakastea gura izan zenduen: origaitik, antza, Jaunak argitu nau. Liburu au, zuok ikusi aurfetik, Aita Maixu Domingo Bañez, neure autorleari emongo dausat; zuen onerako ba'deritxo ta zuoi emon ba'dagizue, eder litzakit zuek pozafen ikustea. Iñok irakurteko eran ez ba'lego, bañiz, or dozue nire gurari ona: au egiñaz, zuek agindutakoa bete dot, albait eta zeatzen. Nik idaztean arturiko nekea ederto ordainduta dagola dirudit, ez baiña idatzia ikasi ta gogoz iraultzekoa.

Gora ta onetsia Jaungoikoa, Aregandik bai yatorku itzez ta oldoztuz dagigun on guztia. Alantxe.



# BIOTZ - OIUA K

], Ene Jaunagandik baztertua?

Oi, bizi, bizi! zelan dirauzu zutik, Bizi yatzunetik ufin? Zeri zagokio, bakarte gofi ortan? Zer dagizu, zeure egiteko guztiak uts ta akats ba'dituzu? Zek poztu oi zaitu, ene gogo, itxaso zirimoltsu ontan?

Efuki dot neure burua, ta efuki batez be, efuki barik bizi izan nintzan aldia. Oí, Jauna!, zure bideak bai bigun; baiña, nor dabilke bildur barik? Zu otseindu bage egonaren bildur nozu; ta, Zu otseintzera noanean, eztot ezer eder yatanik aurkitzen, zor dodanetik zeozer ordaintzeko. Nazan guztia ofetan erabili gura neukela dirudi, ta neure ezezezari ondo begiratzean, on danik ezertxo be, Zuk emon ta lagundu ezik, ezin daikedala laster dakust.

Ene Jaungoiko ta efuki!, zer nengike nik, Zuk niri dagistazuzan anditasunak ez lauskitu ta ondatzeko? Zure lanak on, zuzen ta baliotsuak dituzu, jakituri andiz osatuak; Zu bait-zara, ene Jaun, jakiturgia bera. Ofetan ari ba'da nire adimena, tukutsu ta bekaizkor dabilkit guramena; eleuke gura, ba, Zu maitatzeko iñor be zoztor izaterik: adimenak ezin dau ofen anditasun andietan bere Jainkoa nor dan jaritxi: ta guramenak Aren gozotasuna artu nai dau, ta ez daki zelan; ilkortasun ontako giltzape estuan txit neketsu

dago-ta, edozer yako oztopo ta gogaikafi; lenengotan, egia, izan eban laguntza zure anditasunak gogo emotean, eta or agiri dira obeto nire kaskarkeri bat-banatu ezin aiñakoak.

Zertako esan dot au, ene Jainko? Nori nagokio uluz? Nok entzuten daust Zuk ezik, ene Aita ta Irazaille? Ta Zuri neure miña aitzera emoteko, mintzo beafik ete dot, bafuan zaukadala argi dakustan ezkerok? Au da nire artez-kafan jo eziña. Baiña, ai, ene Jainko!, zelan nik ziur jakin Zugandik baztertuta enagoala? Oi, ene bizi, gauza ain joan-etofi andikoan onen segurantza gitxigaz bizi bear dozuna!, beintzat nai dago arimea bere atsedem betean; safitan, bada, na, ostera, maitale geiago ta andiango azi oi da, ta onein tezan bide izan leikela uste dauanean.

## 2. Arima-egañizko bakartadea

Safitan, ene Jauna, gogoan erabili oi dot, Zu barik bizi izatea zeozegaz alikatu al ba'da, bakartadean litzakela; an beintzat nasi dago arimea bere atsedem betean; safitan, bada, askatasun osoz gozartzen eztanean, oiñazea bikotztu egin oi da; baiña munduko izakien artean artu-emonu euki beafak dakařena ta arimea ixilean bere Egileaz aitzen izten ez dautsonetik datofena, oiñaze baiño atsegin geiago da. Baiña, zer da au, ene Jainko, Zu poztutea besterik gogo ez dauan arimea nekerazten dauan atsedena?

Jainkoaren maitasun altsu!, zein bananduak zure ondo-renak eta munduko maite-suarenak! Onak eztau lagunik gura, daukanetik ostuko dautsoelakoan; nire Jaungoikoarena, ostera, maitale geiago ta andiango azi oi da, ta euten gozotasunak arindu oi dira danak eztabela on atatik gozartzen ikusiaz. Oi, ene On!, onak dagi, bai, Zugaz daukaguzan atsegin-pozkaririk andienetan be, poz-atsegin oneik gura eztabezan eta betiko galduko dabezana asko be asko dagozala

gogoratzek emoten dauskun naigabea; ta origaitik, arimea lagunak zelan egingo bide bila dabil artega, ta pozik izten dau bere gozotasuna, beste batzuk be gozartzeko saiatu dai-tezan bide izan leikela uste dauanean.

Alan be, zeruko ene Aita!, elitzateke oba arimea Zugandiko atsegin gitxiagoz dagoanerako naikun oneik itxi ta orain oso-osoa Zugaz gozartu? Oi, ene Jesus!, Zuk bai laztan giza-semeok! Guk Zuri egin geinkizun mofoi-arazorik andiena, arein maitasuna ta irabaziagaitik, Zu iztea litzake, ta Zu orduan be geureago ziñakez; naimenak, bada, ofen-beste atsegin izan ezean be, pozik dago arimea Zu pozik zagozalako; ta, gaiñera, lufeko atsegin bideak, Zuk emonak begitandu afen, ez deritxoe ziuñak, soin ilkor onetan bizi garealarik, urko lagunaganako maitasunez orniduta ez ba' dabiltz beintzat. A maite ez daunak, Zu be etzaitu maite, ene Jaun ori; ailagiñazko odol-ixurtzez erakutsita dakusgu, ba, Zuk Adan'en semeai dautsezun maite-gar bizia.

### 3. Erosle erukitsu ta epaile zuzen

Zuk naia egiñaz sendo irauten dabenai, ene Jainkoa, Zuk eratuta daukazuzan aintza ta ospea gogoraturik; zure Semeak zenbateraiñoko lan-oiñazez irabazi euskuzan eurok, gu ofen merezi bageak izanik; eta, zelan maitatu bear dogun nekearen nekez erakutsi dauskun ezkerok, zenbat balio dauan maitasunaren andia esker onez artzea; oneik guztiok gogora ekafi ta bafenean iraulirik, atsekabez urtu yat arimea oso. Zelan daiteke, Jauna, au guzti au ilkofoz aiztutea, batez be Zu iraintzean? Oi, ene Erosle, aiztukor alenok euren buruz be zelan aiztu oi diran! Zure onberatasuna, bafiz, orduantxe be txit andi; orduan gogoratzen gaituzu, ta ots-tanka ilkofoz Zeu zauritzeafen jausi danari be, Zuk, au aiztuta, eskua damotsazu bafiren bafi, ta zoroaldi osa-



gaitz ortatik itxartu oi dozu, Zuri osasuna eskatzen leia gaitzean! Onetsia olako Jauna, onetsia ain efuki garaia, ta goratua betikoz onberatasun ain onagaitik.

Ene gogo!, gora egizu beti Jaungoiko ofen andia. Zelan biurtu leiteke Aren kontra? O!, zori txafekp diranai, maite-erakutsiaren anditasunak kalte dagitse. Ezar Zuk oni osakaia, ene Jainko. Giza-semeok! noizarte biotz-gogor? (*Eres.* 4, 3), ta Jesus txit otzan onen aurkako alan be? Zer da au? Gure zitalkeriak, bear bada, ofela iraungo ete Aren kontra? Ez; gizonaren bizia elbitz-lora lez ba-doa igaziz, ta etorteko da Neskatzaren Semea epai bildurgafi a emotera. Oi, ene Jainko altsu!, guk nai ez afen, Zuk epaituko gaituzu-ta, ordu artarako Zu pozik eukitean zer yoakun zegaitik eztogu aintzat artzen? Baiña, nok, nok eztau naiko Epailari ain ona? Doatsuak, ene Jaun eta Jainko!, une lafi aretan Zugaz poztuko diranak.

Zuk jasorikoak, Jauna, ta iraitzeko pozkari bat irabazteafen zein zitalki galdu zan konturaturik, Zuk lagundu ezker —ta Zuk, ene Maite laztan, beti laguntzen dautsezu maite zaituenai, bai ta dei dagitzunari erantzun be—, aspertu barik Zuri poza emoteko erabagita dagoanak, zer osabide izan leike gero bizi izateko, bateoa artzeango efubakotasunean eukan besteko ona galtzeak damotsan oroi-miñetan, ezin ilez, irautea ezik? Izan leiken bizirik onena, biotz-zauskada onegaz beti iltea. Samurkiro maite zaitun arimeak, alan be, olangorik eroan (sufridu) al ete?

Baiña, zelako zorakeriak itanduten dautzudazan, Jauna! Zure anditasunak eta efukiak aitzu yataz antza, bai ta munda pekatariakaitik zelan etofi ziñan, salneufi andiz zelan erosi ginduzuzan, eta, oiñaze ta zigor-zartada samingafiak epez eroanik, zelan ordaindu zenduzan gure sasi-atsegintasanak. Jainkozko begiok estaldu eutzuezanen osatu zendun nire itsukeria, ta arantzazko koroe mergatzez nire afokeria. Jauna, Jauna!, au txit mingafi yako maite zaitunari; pozbide bakaña dot nik: nire gaitzakeria jakitean, Zure efukia beti-betikoz goratua izango dala; ta, alan be, ez dakit neke au

kenduko daustien, i.fkortasun ontako lazeriak oso, Zu ikusiz, kenduko diran arte guztian.

#### 4. Aídi galduari begira

Atsedean pizkat artu daroa, úfean, nire atimeak, ene Jauna, Zure efukiz iñoizko baten Zugan atsegiña artzea izango ba'leu, orduan asmauko leuken gozotasuna gogora ekafiaz. Orain, baiña, ara baiño len, mirabetu gura zindukedaz, Zuk, nire arimea otseinduaz, irabazi eustazunean gozartuko nazan ezkerero. Zer egingo, ene Jaun? Nik zer egingo, ene Jainko? Berandu, oso berandu ixio dira nire naituziak, eta Zu bai, Jaun ori, oso goiztar zenbiltzala deiez, ni irabazi gura-ta, Zure arazoan oso-osorik jardun nengian! Ausaz, lander efukafi danik Zuk, Jauna, itxi al dozu bertanbera, edo-ta Zugana eldu nai dauan eskale gaixorik sapuztu?

Bear bada, Jauna, mugarik ete dabe zure anditasunak, edo zure egin afigafiak? Ene Jainko, ene efuki!, ta oraintxe be zelan iragafi zeinkezan zeure mirabeagan! Altsua zara, Jaungoiko andi; orain jakin leike, galdu dauan aldia begiratuaz, nire arimea aitzen dan ala ez bere kautan, eta Zuk, Jauna, zelan egin zeinken unetxo baten, al dozu-ta, arek galdua bafiro eskuratzea. Taiu bako zerbait diñot, úfean, aldi galdua —diñoenez— ezin baita ostera lakatu. Onesten zaitut, ene Jainko!

Zure al izate andia dautort, Jauna! Altsu ba'zara, zarea-nez, oro al dauanak ete dau eziñik? Gura, ene Jaun, gura; naiz-ta aul izan, gura dozuna al dozula sendoro siñesten dot, eta Zuk egiñiko afigafi andiak entzunik eta andiangoak egin zeinkezala ikusirik, are geiago sustraitu oi da nire fedea ta Zuk ofela egingo dozula kemen biziagoz siñesten dot. Eta zek afitu bear gaitu Zuk, guztiz Altsu ofek egiñekotik? Zuk ondo dakizu, ene Jainko, neure argalkeri guztien 2rtean be,

zure al ta efuki andiak ez nebazala iñoiz ezagutzeka itxi. Merezigafi bekit au, Jauna, irandu etzaitudan aldi orde. Ene Jaungoikoa, nai ba'dozu al dozu-ta, orain ta gero niri eskefa egiñik, ber-artu, afen, galdutako aldia (denporea), eztegu-soiñekoaz Zure aufera agertu nadin (*Mt.*, 22, 11-12).

## 5. Maitasun-intziriz

Ene Jaun!, ain txarto otseindu zaituna ta Zuk emonikoa ain ganora barik jagon dauana, zelan azartzen ete da Zuri mesedeak eskatzen? Asko-askotan saltzaile izan danagandik, zer itxaron? Nik zer dagiket, ba, poz bakoen pozkile ta Zurez osatu nai dauanaren osagafi? Oba ete yat, bear bada, neure lafialdietan ixilazo, Zuk arteztuko daustazualakotan? Ez orixe! Zuk, ba, ene Jaun atsegingafi, zenbat izango ziran eta eurok Zuri esateko guri zelako nasaibide yakun zenkian ezkeru, eskatzeko diñauskuzu, emon barik ez gozuzala itxi-ko-ta (*Jon*, 16, 24).

Batzuetan arako Marta, emakume on aren espa (keja) datorkit gogora (*Lk.*, 10, 40); etzan a espaz bere aizeaz bakafik; nik ziurtzat daukot, Jauna, aren sentimenturik andiena Zu bere nekeaz etzifiala mintzen, ta bera Zugaz egon ez afen Zuri ez eutzula ardurarik be, uste ebalako izan zala. Bere aizta beste etzendula bera maite begitandu yakon, antza, ta onek berak ain maite ebana otseintzeak, baifio askotaz min andiagoa emoten eutson, agiri danez, maitasunak ba nekea atsedan biurtu oi dau; ta, batez be, onela dala esan daikegu, bere espa ta bafen-min guztiaz, aizteari ezer be aitzen emon barik, Zugana, Jauna, jo ebalako; maitasunak adoretuta, etziñala beraz arduratzen adierazo eutzun. Eta erantzunean bertan difioadan auxe aitzera emoten dala dirudi; gauz guztiei balioa damotsona maitasuna baita bakar-bakafik, eta onetan beafezkoen dogu, andiandia dalarik, maitatzekoan ezer ez dakiola zoztor izan.

Baiña guk, ene Jainko!, zelan euki daikegu maitatuak merezi dauan bestekoa, Zuk niri daustazuna arenagaz aiotu ezik? Ni be, emakume jainkotiar onegaz, zinkurinka ete? Oi!, eztot efazoirik ortarako; beti ikusi ditut, ba, ene Jaun-goikoagan nik eskatu zein opa izan baiño maite-erakutsi azi ta andiagoak; Zuk, Jaun onbera ofek, ainbesteraifio jasan nozulako, bai, espaz, kejaz naukazu. Ez, bestelan, ez daukat zergaitik. Zer eskatu leike, bada, ni lango izaki baldresak? Emon daidazula, ene Jainko, emon daizudala Agustín gurenagaz *{Autorkhunak, 11, 2}*, zor dautzudan askotik zerbait ordaintzeko; oroi Zu Zeuk egiña nazala, ta ezagun daidala nik nor dodan neure Egilea, maite izan dagidan.

## 6. Osabiderik ezpa-dau, geituz bioa nire miña

Ene atsegin, egindako guztien Jaun eta Jainko! Noizarte zain, zure arpegia ikusi-miñez? Luñean atsedeen-izkirik be, Zugan ezik, eztaukanari zer sendagailu Zuk emoten? Oi, bizi luzel; oi, bizi neketsu!; oi, bizi bizibagea! Oi, bakar-tasun bakafa!; oi, osabiderik eza! Noz, ba, Jauna. noz? Noz-arte onela? Zer dagiket, ene On, zer dagiket? Zu nai ez izatea gogo izan, apika? Ene Jainko ta Irazaille!, zauritu ta osatzen eztozuna, kauskada egin ta mailaturik ikusten ez, il-azo ta bizi geiagoz laga; tira, ene Jaun, altsua zara-ta, nai dozuna egin oi dozu; ar zatar batek, ba, ene Jainko, buruz-buruzko oneik jasatea nai dozu. Ofela bedi, ene Jainko!, Zuk gura dozun ezkeror: Zu maite izan, nik eztot gura besterik.

Baiña, ai!, ai!, ene Sortzaile!, min latzak kuxu-muxu ipiñi oi gaitu, bai ta, Zeuk nai dozun arte, ergelkeriak esan eragin be; ta gogo atxilotuak askatasuna ames, Zuk naitik ari bat bera aldegitteke: guraizu, ene dirdai, onen miña geiagotzea, edo-ta zeatzean osa egizu. Oi, eriotz, eriotz! Ez yakiat ire bildur nor dan, bizia euregan daukak-eta! Baiña,

nor ezta aren bildur izango, bizirik erdia Jainkoa maitatu barik emon ezkerok? Ta ni onakoa nazalarik, zeren eske nabil ta zer opa dot? Zigofa, bear bada, neure efu ta utsegiñak merezia? Ez Zuk, ene On, olakorik nai izan, ni erostean askotxo eralgi zenduan-da.

Oi, ene arima! Egin dedila zure Jainkoak naia; orixe yatzu on ta egoki; mirabe zakio ta itxaizu Aren efukitasunean, min ori osatuko dautzu, ba, zure efuen negarbideak onein zelanbaiteko parkapena lortzerakoan; neke barik, gozotasunik ez. Oi, ene egizko Jaun ta Efege!, onetarako be enaz ezer, Zuk esku gurenez Jagundu ezik; Zure esku indafez, bai, dana dagiket.

## 7. Zertako nai dozu, ene Jainko, nire maitasuna?

Ene itxarote!, ene Aita! Ene Sortzaile, egiazko Jaun ta Anai! Zuk diñozu, zeure atsegiñak, giza-semeakaz dozuzala {*Itz.*, 8, 31); au irakufi ta auznartzean, pozez jartzen yat biotz-bafena. Oi, zeru ta lur Jaun zareana!, oneik bai itz edefak, edozein pekatari be uste onean irauteko! Nogaz atsegindurik ez al dozu, Jauna, ni lango ar kaskar usain txafeko onen bila Zu ibilteko? Bateorakoan entzun zan au: "Auxe da atsegin yatan Seme kutuna" {*Mat.*, 3, 17). Guztiok, Jauna, antzerakoak ete?

Au bai efukitasun beiña! Au bai guk merezi ezindako maite-erakutsia! Ta guk, ilkofo, au danau aztu! Gomuta zaite Zu beintzat, ene Jaungoiko!, ainbat auleri ta kaskar-bitsez; begira, bai, gure ezereza, oro dakizuna zara-ta.

Oi, ene gogo!, ar gogoan Aitak Semea ta Semeak Aita alkar ezagutuz daukien maite-atsegiña ta Gogo Deuna biokaz batean lotzen dauazan su ixioa, ta, irutan bat diran ezkerok, iru Nor oneitatik bat be zelan ezin dan ezauera ta maitasun ontatik banandu. Nortzu gorenengo oneik, alkar ezagutu ta

maitatuaz, atsegiñetan bizi dira. Zertako, bada, nire maitasuna? Zertako nai dozu, ene Jainko, edo-ta zer irabazi ta etekin dakartzu? Onetsia Zu!; bai, onetsia Zu betikoz, ene Jainko! Izaki guztiak, Jauna, gora zagiezala azken bage, Zuk ez baitozu amairik.

Poztu, ene arima, zure Jainkoa merezi aña nok maitatu bada-ta. Eiozuz eskefak, lufean be emon euskulako olan nok ezagutu, bere Seme bakai^a. Magalpe onen itzalera ustetsu uferatu zeintekoz, eta eskatu, Aren Anditasuna zugan atsegin dan ezkeru, munduko zer guztiak ez daitezala naikoa izan Aregaz gozartu ta zeure Jainkoaren anditasunean alaitzetik zu ufintzeko, ta maitatua ta goratua izatea merezi dauan ezkeru, lagundu daizula zu be zerbait-txo izan zaitezuan Aren izena onetsi ta aipatzeko, egiaz esanik: "Jauna gogotik gosten dot" {Lk., I, 46}.

## 8. Edegi, Jauna, oies ez dagitzunari

Jaun, ene Jainko!, zelako bizi-itzak daukazuzan. Zuk, eta guk ilkofoak, nai ezkeru, Zugan aurkituko genduke opa dogun guztia! Baiña, afitzekoa al da, ene Jainko, guk zure itzak aztutea, gure egikizun gaiztoak dakarskuen zorakeri ta geixoaz? Ene Jainko, ene Jainko, sortua dana irazan zenduna! Ta sorturikoa zer da, Jauna, Zuk geiago egin nai i:an ezkeru? Alguztiduna zara; zure egite afigafiak zenbatu eziñak dira {Job, 9, 10}. Egin, Jauna, ez daitezala zure itzak nire gogamenetik aldendu.

Zuk diñozu: "Zuok, neke ta lofetan zabilten guztiok, zatoze Nigana, Neuk bizkortuko zaituet-eta" {Mat., 11, 28}. Zer geiago guk nai, Jauna? Zer eskatu?, zer bilatu? Lufekoak zegaitik dagoz galduta, atsedena bilatzeafen baiño? Lagun zakidaz, Jainko, lagun zakidaz! Zer da au, Jauna? Oi. tamalgafi! Aurkitu ezin daikegun lekuan bilatu nai,

itsukeri andia, ziñez! Efuki, Jauna, zeure izaki onein efuki; soizu, eztoigu alkar aitzen, ez dakigu ez zer opa ez zer eska. Argi gagizuz, Jauna; begira, jaiotzetik itsu zanak baiño bea-  
fago dogu guk, arek ba argia ikusi nai ta ezin (*Jon, 9, 1*); orain, Jauna, ezta ikusi nai. Oi, au gaitz osa-belaska! Emen, ene Jainko, erakutsi bear da zure al-indafa, emen zure efukia.

Oi, zein gauza mergatza eskatzen dautzudan, ene egiaz-ko Jainkoa: maite etzaituna maite izan daizula, deirik ez dagitzunari edegi daiozula, geixorik atsegiñetan bizi danari ta geixo-bila dabilenari osasuna emon daiozula! Zuk diñozu, Jauna: "Ez nator zindo bila, pekatari bila baizen" (*Mat. 9, 13*). Oneik dozuz Jauna, egizko pekatariak. Ez Zuk so gure lausoari, ene Jainko, zure Semeak gugaitik jariondako odol-  
uiolari baiño; gaiñezkako gaitz-itxaso ontan dizdiz begi zure efukiak. Begira, Jauna, zeure egiñak gaituzu. Bekigu tarteko zure Ontasun efukitsua.

## 9. Nire Jaunaren zaurietako ituñi biziak

Ene arimaren Jaun on maitatia! Zuk ba-diñozu, gaiñera: "Iñor egafi ba'da, betor Nigana, ta edan begi" (*Jon, 7, 37*). Zelan egafi ez ete, lur ontako uskeri zirtzilen ifitsez sugar bizitan dagoana? Uraren beafa dago, bai, gaberik iñor aitu ez daiten. On bait-zara, ba-dakit nik, ene Jaun, emongo dautsezuna; Zerofek diñozu, ta zure itzak uts-eziñak. Eta, su ortan biziz, ortan aziak eta ortara egiñak diralako, su ofen atximufik igartzen ez ba dabe, ezta zorabio ta urduri utsean Zure uraren bearkunik somatu be, olakoentzat nundiko osakaia, ene Jainko? Era ontako beafizanetan laguntzeko etofi ziñan Zu mundura; asi, Jauna; gauzarik zailetan erakutsi bear dozu zeure biotz-beratasuna. Begira, zure etsaiak aufera doiaz, ene Jainko. Efuki **zaitetz, eufen**

buruakaz efuki ez diranakaz. Euren zoritxafak Zugana eldu nai ez izateraiño eroan ditun ezkerok, zatoz Zu eurekana, ene Jainko; neuk daskatzut arein izenean. eta ba-dakit nik. bai, kontuan jausi ta euren kautaratuz Zure poz-atsegiñak txastatzen asten ba'dira, bafiz biztuko dirala ildako oneik.

Oi Bizi, diranak oro biziasten dituzuna!; ez niri ukatu nai dauanai agintzen dautsezun ur gozo-gozo au. Nik gura dot, Jauna, ta eske naukazu, Zeugana eldurik; etzakidaz ostendu, Jauna, Zuk ba-dakizu ba nire beafizana ta ur ori dala Zurez zaurituriko arimarentzat egiazko osagaí.

Makifiatxo bat su-mota ba-dira, Jauna, bizitza ontan! Oi!, efazoiz bizi bear da bai bildur-ikaraz! Batzuk suz arimea erkifierazten dabe, beste batzuk garbitu, Zure atsegiñean betikoz bizi daiten.

Ene Jainkoaren zaurietako itufi biziak! Zuok bai beti erioka, jori be jori, guretzat jan-edari! Ta seguru bai dabilkela, bizitz malkartsu ontako afiskueta zear, jainkozko mistela onegaz azkortu-nairik dabilena!

## 10. "Jesus'ek negar egin eban"

Ene arimaren Jainko!, gu bai arin Zu iraintzeko, ta Zu ostera ariñago guri parkatzeko! Zer zio edo efazoi daukagu, Jauna, gu aren azafi ta ausart ibilteko? Ez al da ori, Zure efuki andiaz jabetu ta zure zuzentasuna arteza dala aztutea? "Eriotz-miñak inguratu ninduen" (*Eres.*, 114, 3). Oi!, oi!, obena dan astun, onek bai eban il Jainkoa, ainbesteko samin-oiñazetan! Eta orain zein ur zagozan, ene Jainko, areikandik! Nora Zu joan, ta oiñazerik ez? Nainundik dagitzuez zauri ilgafiak.

Kristiñauak!; garaia dozue zeuen Efegeari bakartegian lagundu ta Aren alde bufukatzeko; gitxi baiño eztira, ba,



geratzen yakozan menpekoak, eta aldra andia Luziper'en atzetik doazanak; eta txafago dana, agirian adiskide agertu oi yakoz ta ixilean saldu daroe; arean eztau noreganik entzindu. Oi, adiskide ziña!, azpisuge yatzunak gaizki ordaintzen! Kistar zintzoak!, lagun zakioze zeuen Jainkoari negar egiten; malko bigun areik etziran, ba, Lazar'gaitik bakafik, Jaunak deadarka ekin afen, berbiztu nai izango ez ebena-kaitik baiño (*Jon*, 11, 35). Oi, ene On!, Zuk bai zeunkazala aúfean nik egin dodazan uts eta efuak! Onezkero amaira beitez, Jauna, amaira beitez nireak eta guztienak. Bizira egizuz ostera be ildako oneik; zure dei-oiuak beitez oso indartsu, Jauna, ta Zuk emon bizia eurak eskatu ezta be, urten daitezcan gero, ene Jainko, euren atsegiñezko oxin sakonetik.

Ez eutzun Lazar'ek berbiztu eizunik eskatu; pekatari zan emakumeagaitik egin zenduan. Begira emen, ene Jainko, a baiño andiago dana; dizdiz begi islatu zure efukiak; nik, naiz-ta kaskar, eskatu nai ez leukitzuenakaitik eskatzen dautzut; ba-dakizu, ene Efege, zenbateraiño samintzen nauan, Zugana biurtu ezik, beti-betikoz eroan bearco dabezan min-oiñaze andiakaz ain aztuta ikusteak. Oi, zuok!, atsegiñez, pozkariz ta adiguriz bizi ta zeuen naikundea beti dagizuenok, tamal eukizue zeuen buruengaitik; gogora zaitetze, sulezako asafe artean, betiraun osoz atxilo, egon bearco dozuela. Adi, bai, adi, gaiztetsiko zaituen epaileak eskatzen dautzue orain, eta une-izki soilez be eztaukazue bizia seguru; zergaitik etzeunkie bizi nai bein betikoz? Oi, g'zabiotzen gogofa! Bigundu beiz, ene Jainko, zure onberatasun neurtu-eziñak!

## 11. Oi, azken bako oiñaze!

Oi, Jainko on, Jainko on', zelako samin-itxaso dodan neure bafuan, onako istilukk gogoratzekoan: zer asmauko dauan bizitz onetan, beti, txeraz, maitez, mirabetua, aintzat

artua ta atsegin-sariz betea izan dan arimeak, eriotz ondoren betiko galdua dala-ta galpen onek amairik ezabela argi ta garbi ulertu ta an eztautsola balioko, emen lez, fedeko gauzak gogora ekañi nai ez izateak eta etzala oindiño asi gozartzen iduri izango yakonetik baztartzan dabela ikustean! Eta efazoiz; bizi az amaitzen dana, izan be, aize-ufa besterik ezta. Antxe egon bearko, beraz, beti-beti min-jario izan bearko dauan lagun-mordoilo erage ta biotz-bako a biran dauala, suge kirimilatuz beteriko zingira atsitu atan sartua —suge ofeitatik geien leikeanak agokadarik andiena daroatsola gero—; zorigaiztoko ilunbe atan, bai, oiñaze ta naigabea kuin-kuin, gaiñezka, iñundiko argirik bage, sugar aizarotsu batena ezik...

Berez danaren aldean, zein motel doan au! Oi, Jauna!, arima oni nok ipiñi eutson ainbeste basa begietan, aratu baiño len au ez ikusteko? Oi, Jauna!, nok zafatu dauz aren belafiak, askotan au esan afen, ez entzuteko ta atsekabe onein betikotasunaz ez konturatzeko? Iñoz amaituko eztan bizia!, oiñaze azkenge, oiñaze azkenge!, zelan ez dautzue bildur, gorpuzta ez neketzeafen, oge latzean lotartzeko bildur diranak?

Jaun, ene Jainko! Au ulertu barik bizitako aldia (denporea) negartzen dot; eta Zuk ba-dakizun ezker, ene Jainko, au aitu nai eztabenak, asko-asko dirala jakiteak zenbat naigabetu naraan, batek beintzat, Jauna, batek beintzat —orain eskatzen dautzut— jaritxi daiala Zugandiko argia, au gero askoren argibide izango litzake-ta. Nigaitik ez, Jauna, ez bait-dot merezi, zeure Semearen irabaziakaitik baiño; ikus Aren zauriak, Jainko, ta Arek parkatu bai eutsen egin eutsezana, parkatu eiguzu Zuk be guri.

## 12. Kristo ta Satan, etsai biren artean

Ene Jainko, egizko indar!, zer da au, danerako bai gara uzkur ta txepel Zure kontrarako ezik? Onetan erabili oi dira Adan'en semeen kemen guztiak. Adimenez ain itsu ez ba'legoz, ostera, guztien indafak sorta baten alkartuta be elitzakez naikoa izango euren Sortzaile danaren kontra izkiluak (armak) artu ta ameneko baten inpernuko leza-bafeneraiño jaurti daikezanaren aurka etenbako gefa egiten azartzeko; baiña, arein adimena itsurik dago-ta, zoro diardue, eriotz-bila lez, ofela euren lilurapen zoroan bizi-az jabetzen diralakoan; bai, efazoi-kemena galdurik dabil-ta, zer egin geinkeoe, ene Jainko, onako zoro-geixoz dagozanai? Geixo onek berak, diñoenez, are geiago indartu oi ditu; ofelaxe dira, geixoak, nire Jainkoagandik alde dagienak: Zu beti arei on egin beafez, ta areik Zure kontra sumindurik.

Oi, jakituri, uler-eziña! Zeure izakiai dautsezun maitasun guztia bear izan zan, bai, ainbat itxura-bakokeri eroan al izateko, ta gu osatu arte, Zeuk ortarako mila bitarte ta sendagailu opaturik, guri zain egoteko! Onek afituta izten nau, gogo emoten dodanean: ba-dirá gauza pitin baten be indafik egin nai eztabenak, eta gaiñera euren buruari siñis-tazoten dautsoe, naita be, ezin dirala arako jausbidetik al-dendu, ezta arimearentzat ondamendi izugafi dan galzorttik ufindu; ta, alan be, Zu zarean lango Anditasun garbi-garbiari erasoteko ba-daukagu indafa, ba-daukagu gogo. Zer da au, ene On, zer da au?, nok emoten ete indar oneik? Zure kalteko bufuka ontan jafaitzen dautsoenen buruzagia ez ete da, nunbait, Zure mendeko ta su betikofean murgildua? Zer dala-ta Zure aitzia? Azpiratuak zelan adoretzen ete biotzak?; zeru-ondasunetatik bota bai eben, zelan jafaitzen dautsoe ain txiro danari?; zer emon leike, zoritxafa besterik bere eztauanak? Zer da au, ene Jainko?, zer da au, ene Egile? Nundik datoz indar oneik Zure kontra, ta ainbeste epelkeri gogo gaitzoaz bufukatzeko? Zu, ene Efege-seme, zeureen alde ez ba'zenbiltza be, ilunetako nagusi onei zeozer

zor ba'geuntso be, au elitzake zuzen ta bidezko, Zuk guretzat beti-betiko gorderik daukazunaren aldean, eta aren (deabruaren) pozkari ta guzufezko eskifii etoak ikusita be; zer egin leike gugaz, Zure kontrarako dabílenak?

Itsukeri andia, ene Jainko!; esker txar gordiña, ene Nagusi! Zorakeri osagaitza, egiaz, ene Jauna, Zuk emoten daukuzunaz guk deabrua otseintzea!; Zure gugazko maitasun zabal ori guk olan gofoto zaitun eta beti-beti gofotauko zaituna maite izanaz ordaindu beafa!; gure onerako ixnri zendun odola, ta eroan bear izan zenduzan zigorkada, oiñaze gofi ta atsekabe lafiak, zeure Aita betikoaren sumiña kitutu beafean —Zuk ez bai dozu bengantzarik nai—, Zuri egiñiko balzkeri andiak Zuk guri parkatu afen, guk, zoro utsok, Zu ofela erabili zinduezanak artu oi doguz geure lagun ta adiskidetzat! Bai, arein buru inpernukoari jafaitzen dautsagun ezkerero, danok bat gareana argi dago, ta ziuñik asko aren lagun biziko gara beti, Zure biotz-onak senera ez ba'gakarz ta joanak asketsi.

Oi, ilkoñak!, sar, sar zeuen kautara; begira zeuen Efe-geri, orain otzan daukakezue-ta; bego, onezkero, gaitz-ibai ofen ibilia; itzul zeuen sumin ta indafak gefa dagitzuenaren kontra, nausitasuna ostu nai dautzuenaren kalterako; biur, biur zeuen bafura, edegi begiak, eskatu deadar-intziri zoliz ta begi-malko efekofez argia munduari emon eutsonari; aitu zaiteze, Jainko maiteafen, zeuei bizia emoteafen berea galdu ebanari zeuen indar guztiakaz bizia kentzera zoaze-ta; begira, bera dozue gero zuek arerioakandik zaintzen zaituena. Ta au naikoa ez ba'litz, jakizue beiniñik-bein zuek ezin dozuela ezer Aren al-izatearen kontra, ta goiz edo berandu, betiko sutan ordaindu bearko dozuela ofen balzkeri ta ausartzi andia. Jaun au loturik, geuri daukun maite-lokafiz morapilotuta ikusten dozuelako eie da? Zer besterik egin eben il ebenak, lotuta gero, zigorka zauritu baiño?

Oi, ene Jaíñko!, zelan daroazu Zuk zure nekeakaz ain eitxi mintzen dana? Aldia datorke, Jaunr. zure zuzentasuna aitzera emongo dana, bai ta zure efukia bc. Begira, kristi-

ñauak, artu ondo gogoan, eta eztoz guk osorik beintzat egundo be ulertu al izango gure Jaun eta Jainkoaren efukitasun andiak eta guk Ari zor dautsaguna. Aren zuzentasuna ain garbia ba'da, ostera, ai ene!, ai ene!, zer zori yagoke zuzentasun ori bete ta eurekan efaiñutzea merezi dabenai?

### 13. Oi, arima maiíatzaifeak!

Oi zuok, arimok!, zeuen gozoa ezeren bildurge jadanik miazkatuaz, etenbako eresi-joan ene Jaungoikoaren lilurazko zoramenean zagozenok! Doatsu zuen zoria. Efazoiz diarduzue, baí, betí gorapenezko kanta ofeitan, eta ondamuz (inbiriz) daukazue nire arimea, ondamu andiz gero, zuek azke (libre) zagozelako, batez be aldi doakabe onetan nire Jaungoikoari egiten yakozan irain ofen andiak emon daroen oiñaze-atsekabetik, eta ainbat esker txafek berez dakañetik, eta Satan'ek daroan arima pilo itzela ikusi gura-ebak damoenetik! Zeruko gogo doatsuak!, lagun zakiguze geure ezerezean, bitarteko zakiguze Jainko efukitsuaren afean, zuen pozkaritik zertxobait egin daiskun, guban be banatu daian zuek dozuen ezauera argi ortatiko zerbait!

Aitu-azo eiguzu Zeuk, ene Jainko, bizi zirtzil ontako ames-zelaian gízonkíro bufukatzen dabenai zer emoten yaken. Aitzera emoiguzue, oi, arima maitatzaifeak!, zeuen atsegiñen betikotasunak damotzuen gozotasuna ta zein gauza bigun-etzia dan egundo be eztirala amaituko zír ikustea. Zoritxafeakoak gu, ene Jauna!, egiok ondo jakin ta siñistu afen, eurok auznartu ta gogoz iraultzeko ekandurik eztozulako, txit bakan ta afoz yakez arimai ta eztabez ezagutzen, ez ezagutu gura be. Ai!, oneik bai berekoi, agoxuri ta atsegin-zale! Osoan eukiteko pizkat, urte bete, egun bat, ordu bete, amen bat ausaz, ez itxaiteafen, guztia galdu daroe, afean daukien ezerezaz poza artzeagaitik!

Oi, oi, Jauna!, guk bai uste gitxi Zuregan! Zuk, bafiz, zein altxor aberatsa emon euskuzun guri, ogeitamar urte lan andizko ta gero eriotz mingots eroan-eziñezkoa; au da, zeure Semea emon euskuzun, gu jaió baiño askoz lenago; ta ez-keuntzula ordainduko Zuk jakin afen, altxor ain bikaiña guri entzindu barik etzendun itxi nai izan, Zuk, Aita onbera ofek lagunduta, A ta gu batean saiatu ezkeró irabazi geinkena, Zure efuz beintzat, guk eskuratu barik geratu etzedin.

Arima zoriontsuak!, ain ondo probetxu egiten jakiñik, neuñi bikain onegaz etxauntza ain atsegintsu ta iraunkofa erosi zenduenok, esaiguzue: zelan balia ziñien ofen mugarik bako Onagaz? Afen, lagun zaiakuze, itufitik ur-ur zagoze-ta; artu ura, egafiz noz ilgo emen gagozanontzat.

#### 14. Begiratu gozo, begiratu ízukur!

Oi, ene Jainko!, Jaun egiazkoa! Ezagun etzaitunak, etzaitu maite. Egi andia! Baiña, ai!, ai ene!, Zu, Jauna, ezagutu nai etzaituenen zori txafa! Bildurgafi, ziñez, eriotz-ordua. Baiña, ai!, ai ene!, ene Sortzaile!, ikaragafia bai zure zuzentasunaren auzi-eguna! Safi-askotan gogora dakart nik, ene Kristo, zein gozo ta atsegintsu agertzen yakozan zure begiak maite zaitunari ta Zuk, ene On, maitasunez begiratu nai dautsazunari. Urte luzeetako moñoi-saritzat be, naikoa da, nire ustez, Zi.ik zeuretzat daukazuzan arimai zuzenduriko begiratu samur bakartxo au. Oi, Jaungoiko maite!, nekez aitzera emon daikegu au bear aiñean, Zu zein gozo zarean aufetiaz dakienai izan ezik!

Oi, kristiñauak, kristiñauak!, ikusi Jainko gnren onegaz daukazuen anaitasuna; ezagutu, bai, ta ez egizue egundañó ezetsi; begiratu au, bada, bere maitaleentzat txit ezti dan lez, ikaragafi da sumin izukofez Aren kaltean dabilta-

nentzako. Oi, gefa lazgafi da bai pekatua, zentzun ta kemen, gure gogoaren Jaube danaren aurkako!; geien al dauanak, azpikeri andiangoak asmau oi ditu Efege yakonaren kontra. Ba-dakizu Zuk, ene Jaun ofek, aúfean jarten yatazan inpernuko oiñaze ta asafe guztiak baiño bildur geiago sartzzen eustala safitan, azken-epaiko egun ikaragafi atan zure jainkozko arpegia nire kontra suminkor ikusiko ete neban gogoratzeak, eta ain tamalgafi yatan une atarako zeure efukiaren indafa eskatu oi neutzun, bai ta, Jauna. gaur be ofela eskatzen dautzut. Lufean zer etofi daiket ontara eltzeko? Dana batean nai dot, ene Jainko, ta jagon naizu atsekabe ain gafatzetik. Ezpeit nik neure Jainkoa itxi, ainbat edertasun nasai gozatzetik ez nadin saiestu; zeure Aitak emona zaitugu, ez daidan nik galdu, ene Jauna, bitxi ain bikaiña. Txarto gorde dodala autortzen dautzut, Aka betiko; baiña oindiño ba-da osagafia, Jauna, ba-da osagafia, erbeste ontan bizi garean bitartean.

Anaiak, anaiak!, Jainko onen semeak! Leia gaitezan, leia gaitezan; ba-dakizue, ba, Jaunak diñoan au: Bera irainduaz damu ba'gara, eztala geiago gure efu ta gaiztakeriakaz gogoratuko. Oi, efuki neufirik eza! Zer geiago guk nai ete? Ofenbeste eskatzeko lotsa elitzakenik, ba ete da iñor? Orainxe nunbait gure Jaun Jainko onbera onek damoskuna artzeko garai edefa; ta adiskideak gura dauazan ezkeru, gure alde odol guztia ixuri ta bizia galdu ebanari nok ukatuko dautsoz? Begira, eztausku ezer eskatzen, eta geur<sup>^</sup> onerako be egoki yatorku ori egitea.

Oi, afen, Jaun Jainkoa! Au gogofaren gogofa! Oi, zorrakeri ta lauso biribila! Gauza bat galdu ba'dadi, ofatz bat, edo mirotz bat —aidean zear egan ikusiaz begiai atsegin apur bat emoteko baifio eztana—, galtze ofek min emoten dausku; eta eztauskula mifiik emon bear Jainko-anditasunezko añano egalari au ta atsegiñetan amairik izango eztauan efeiñua galtzeak! Zer da au, zer da au? Eztot nik ulertzen. Emon Zuk, ene Jainko, osagafia ainbesteko zorrakeri-lausoari.

## 15. Oi, neke-!ofak, bizitz ontako pozkari!

Ai cne!, ai ene, Jauna! Erbestaldi au tint luze gogofa baita, cne Jainkoarekiko ifika neketsu ta bíziz jgaro beafekoa. Zer dagike gogoak, Jauna, giltzape ontan sartua? Oi, Jesus, luzea bai gizonaren bizia, labuía dala esan oi dan afen! Labuía da bai, ene Jainko, amai-eziña dan bizia beronegaz irabazteko; baiña txit luzea, bere Jainkoaren aufean egon nai dauan arimearentzat. Osakairik ete daukazu min onentzako? Ez dago, Zeugaitik sufriduten danean ezík.

Ene Jainko-maitaleen atsedean biguna!; ez utsik egin laztan zaituenari, Zeure bitartez azi ta gitxituko da ba Maiteak ifika daukon arimeari egin oi dautsan oiñazea. Nik Zu poztu nai zaitut, Jauna, baiña nire poztasuna balaclakit ilkoferetatik bategan be ez dagoana; au onela izanik, eztozu efudun egingo nire ifitsa. Emen nakusazu, Jauna; Zuri mofoi-arazoren bat egiteko bizi bear ba'da, lufean etofi leikedazan neke-lanetatik bat bera be eztot ukatzen, zure maitatzaile Martin deunak iñoanez.

Baiña, ai ene!, ai, ene Jauna!, arek egite onak eukazan eta nik itz edefak bakafik, ez bait-naz geiagorako. Bediz zerbait nire gutatiak, ene Jainko, Zure begi-aufe gurenean, eta ez begifatu, afen, nire merezi eskasa. Merezi daigula, Jauna, guztiok Zu maite izatea; bizi bear dan ezkerok, bizi gaitzean Zeuretzat; amaira beitez gurekiko naikeri ta buruzale-geiegiak: izan ete leike gauza andiagorik, Zuri poza emotea baiño? Oi, ene poz, ta ene Jaungoiko!, nik zer egingo dot Zu poztuteko? Ene Jainkoari askotzak eginda be, ziztriñak dira nire mirabe-egikizunak; zetarako ba, egonez egon ni ziztrinkerik ziztrin onetan? Jaunak naía bete daiten. Nun irabazí andiagoa, ene gogo? Itxaron, itxaron, ez baitakizu noz elduko yatzun ez eguna ez ordua. Zagoz ernai ta afetaz, dana baitoa afapaladan, zure gurariak ziufa ezmez ta aldi labuía luze egiñagaitik. Gogoz bufukatu orain,



ta ofela zeure Jaungoikoari dautsazun maitasuna agirikcago egingo dozu ta zeure Maiteagan amairik ezin izan daiken bigun-gozotan geiago atsegindu.

## 16. Zauri ta zauri

Ene Jainko, Jaun ziña! Bakafean, Zugandik aldenduta, bizi beafak emoniko neke-miñez daukazun arimearentzat pozbide zabala da, nunbait, Zu zoko-mutur guztietan zagozala jakitea; baiña maite-suaren azkar-zolitasuna ta neke-min onen oldar biziak geitzen, zer onik dakar, ene Jainko?, adimena artegatzen da, ba, ta ezagumena, egi au ezagutzeko, estaldu egin oi da, ezer ez ulertu ez ezagutzeraiño. Zugandik ufindua dala dazau bakañik, eta eztau osagafirik gura; maite-berotan dagoan biotzak, ba, eztau nai ez aolkurik ez pozik, zauritu ebanak emona ezik: ortik ditxaro bakar-bakañik bere barne-miñaren osabidea. Zuk nai dozunean, Jauna, laster osaru oi dozu egin dozun zauria; aufetik ez itxaron, eztago-ta, ez osasunik ez atsegiñik, eroapenez eroatetik datofena ezpada.

Oi, Maitari egiazko!, maitasun berberezko geziz egin dozuan zauri oneik, zein onbera, samur, atsegintsu, gozo ta maite-erakutsiz osatzen dozuzan! Ene Jainko ta neke guztien atsedean, zein urduri nabíen! Jainkozko suak geixotu dauana sendatzeko, izan eikean izan be giza-osakairik? Nok jakin al leike zauri au noraiño doian, edo nundik norakoa dan, edo zelan arindu beronen oiñaze mingots gozoa? Efazoizkoa elitzateke gatx bikain au onen zer kaskafez, au da, gizonak artu daikeezan bidez otzandu al izaitea. Oso egoki diño Emazteak Abesti bikaiñean: "Nire Maitea enetzat, eta ni, Arentzat" (*Abes.*, 2, 16); olako maitasunik ezin daiteke, ba, asi nirea lango gauza ziztriñetik.

Ziztriña ba'da, bafiz, ene Senar maite, zelan ezta gelditzen sortutako gauzetan?, zelan dabil beti goi-min, bere

Sortzailearengana eldu-naiean? Oi, ene Jainko!, zergaitik ni neure Maitearentzat? Maite-bufuka au Zuk asten dozu, ene egiazko Maitari ofek; bufuka besterik ez dirudi, ba, egon-ezin onek, almen ta zentzuki guztien bertan-bera izte onek; or dabiltz bai oneik, zeï ta auzoak zear, Jerusalem'go alabai deika, euren Jaungoikoaren bafirik oneik ete damotsen (*Abes.*, 3, 2). Beraz, Jauna, bufuka au asitakoan, nori erasotera joango, eurok bizi ziran —arimearen gorenengo alderdia— gaztelu onen jaube egin danari ezik? Areik kanpora bota ditu, ango garaitzaleaz bafiro jaubetzeko, ta onezkero A barik ikusita nekaturik, laster euren buruak menpekotzat eskiñi daroez, eta bafiro indar guztiak galtzeraiño bufukan daragoioe, ta ofela, azpiratuarena egiñik, euren garaitzailea azpiratzen dabe.

Oi, ene arima!, neke onetan zein alkar-eraste miresgafia izan dozun! Ta au bai zearo jazoten dala ofelaxe! Beraz, nire Maitea enetzat, eta ni, Arentzat: nor sartuko ete su txingartu biok zatitu ta itzaltzen? Alpefiko lana litzake, biak bat baitira onezkero.

## 17. Gogo nai zeunkena, guraizu Zuk niretzat!

Ene Jainko!, ene jakituri amaigea! Ez ein ez neufi, ain-geruen eta gizonen ulermenak oso gailentzen dozuzana! Oi, Maitasun!, nik neure burua ulertu ta maite izan daikedan baiño geiago laztan nozuna! Zuk emon gura daustazunaren gaiñez, zetarako, Jauna, nik opa izango? Nik neure ifitsez atunduriko zerbait Zuri eskatu naita, zetarako nekerazo nai dot neure burua, nire aukeramenak eratu ta nire guramenak ope izan leiken guztia, Zuk ezagutzen ba'dozu ofen asmoa, ta nik ez baldin ba'dakit ontatik zelan ona atera? Bear bada, nik irabaziz urtengo nazala uste dodan onetan, neure arimearen ondamendia legoke. Izan be, neke-Ior batetik aldendu nagizula eska ba'dagitzut eta ortxe atan be

baldin ba'dago nire gorputz-ilduraren asmo ta elburua, zer dozu, ene Jainko, nik eskatzen dodana? Ori emoteko eske ba'noakizu, nire egonafiari ez yatorko ausaz egoki, makal baitabil oindiño ta ezin daike sufridu ofen zartako latza; eta ofla ba'dagit, apaltasunean sendo ez nagolarik, zeozer egin dodala ustu izango dot bear bada, ta Zeu zara ene Jainko, dana egin daroazuna. Geiago jasan (sufridu) gura ba'dot, eneuke naiko zure zerbitzurako izen ona galtzea eztala komeni dirudien gauzetan, neurez bilatu ez daidan neurekiko dedu-eragiñik; ba-leiteke, alan be, nik galdu egingo dala deritxodan bidetik bertatik, nai dodana lortzeko, au da, Zure mofoi zintzo izateko, uste baiño geiago irabaztea.

Oneri geiago jardun neikeo, Jauna, ez nazala aitzen aitzera emoteko, aurki; baiña Zuk aitzen daustazula dakidan ezkerro, zetako jardun? Neure ezereza ernai ta nire efazioia itsu dakustazanean, ene Jainko, emen neure eskuz idatzitako ontan aurkitu nairik nabilkenean ikusi daikedan. Safitan, ba, ene Jainko, txit ziztrin ta aul ta tiltil dakust neure burua ta zure mirabeari —mundu ontako ekaitz guztien kontra bufukatzeko ainbat mesede Zugandik artuta eukazala eritxonari— zer jazo ete yakon artega nabil. Ez, ene Jainko, ez, ez uste lafegirik geiago nik neuretzat opa izan neikezan gauzetan; Zeuk gogo nai zeunkena guraizu niretzat; nik orixe nai dot, ta ez besterik, nire on guztia Zuri poza emotean bai datza. Ta Zuk, ene Jainko, niri poz emotea gura ba'zendu, nik nai neukean guztia beterik, galdua nintzakela derist.

Gitxirako bai dala ilkolen jakituria ta kolokak arein burubideak! (*Jak.*, 9, 14). Artu Zuk zeurez bear diran bideak, nire gogoak bere naierara baiño zeurera pozago otseindu zaizan. Enagizu zigortu neuk nai edo opa dodana emonaz, Zure maitasunak —bizi bedi nigan aldioro— gura ezpa-leu. II bedi onezkero "ni" au, ta nigan bizi bedi ni baiño geiago dana, ta niretzat neu baiño be obea, ni mirabe izan al nakion: bizi bedi Bera ta bemozt bizia; Bera bedi

Efege ta ni Aren mendeko, nire arimeak ez baitau beste askatasunik gura. Zelan azke litzake Garaia Gandik afotz legokena? Ete dago menpetasun andi ta ezaiñagorik, arimea bere egitearen eskutik jarein egoiea baiño? Doatsuak Jainko-erukizko ta maite-erakutsizko oiñestun ta kate sendoz euren buruak atxilo, indarka be ezin askatzeraiño loturik daukiezanak. Eriotza baizen altsu cla maitasuna, su-leza baizen gogor (*Ahes.*, 8, 6). Oi, nor legoken onezkeroren eskuz iñik, jainkozko oxin-bafen onetan murgildua, bertotik iñoz, iñoz urtetako itxaropen barik, edo, obeto esan, anoik kanpora bafiz ikusteko bildur barik! Baiña, ai ene, Jauna!, bizitz eriozkin onek dirauan bitartean, beti dago afiskuz betikon bc!

Bizitz, ene onaren arerio,. nok leukaken zu amaitzeko eskubidea! Zaroadaz, Jainkoak zaroazalako; zaukadaz, Arena zarealako: ez zakidaz saltzaile, ez esker gaiztoko. Guzti onegaz, ai ene, Jauna!, luze yat erbeste au: zure betikoaren orde, alc'i oro labur; txit luze egun bat, ordu bete, irainduko ete zaitun btldufez bizi danarentzat. Oi, aukramen, zeure askatasunaren jopu gofi, sortu zindunaren maite-bildufari josifa bizi ezik! Oi, noz izango egi garaiaren itxaso azkengean ondaturik zeure burua dakuskezun egun zora-gafizko a'; an etzara geroztik pekaturako azke izango, ezta nai be, zeure Jainkoaren biziiaz girotua, ziztrinkerik guztitik seguru zagokez-ta.

Jaungoikoa zori oneko da, berenez ezagutu, maitatu ta gozarturik, beste ezer ezpaitau al; eztau askatasunik, eziña cla-ta, Jainko-bikaitasunaren anrka legoke-ta, bere buruaz aztu ta ez maitatzeko. Orduantxe, ene arima, zeure atsedentegian sartuko zara, On garai onegaz efaiturik, Beronek aitzen dauana zuk be aitu, Beronek maite dauana zuk be maitatu ta Beronek gozartzen dauana zuk be gozartu dagizunean. Zeure naimen aldakofa galdurik ikusi dagikezunean, orduan, orduan eztozu aldaketarik bape geiago; Jaungoikoaren eskefa, grazia, altsu izan dalako, zu be bere jainkozko izatearen erdikide egin zaitu; ta oso-osoa egin be,

On garaiaz auferantzean ez aztu al, ez aztu nai izan al, Aren maite-sutan murgil, iñoz Aregaz gozatzea ez izteko eran.

Zoriontsuak alako bizitz-liburuan idatzita dagozanak. Baiña zu, ene arima, baldin ba'zagoz, zergaitik zaitut artenga ta naikar? *{Eres., 41, 12}*. Itxaron Jainkoagan, orain be bada neure pekatuak autortuko dautsodaz ta Aren efukiak goretsi; pekatu ta efuki, danakaz batean, gorapenezko kanta-sorta dagikeot, intziri betikoz, neure Salbagile Jainkoari. Nik neure poz-aintza abestuko dautsodan eguna ba-leiteke iñoiz bein eltzea *{Eres., 29, 13}*; orduan amaituko dira nire intziri ta bildufak, eta enaz bafu-damuz lotsa izango; baiña, bitartean, "ixilik, uste onez itxoitea, ona nire indafa" *{Is., 30, 15}*. Amaitzekoak díran izaki ta onein ondasun guztiak euki baiño gurago dot betiko bizia eskuratzeko saiatuaz bizi ta a itxaronaz il. Ez nagizu, Jau-na, bertan-bera itxi; Zugan itxaroten dot, eta ezpei nire uste ona iruzurtua izan *{Eres., 30, 1}*; ni nadin beti zure mirabe, ta Zuk egizu nigaz nai zeunkena.

# OLERKIAK

*Ama Teresa gai guztietan agertzen yaku andi. Jainko-zale, mistiku ikaragaría genduan, eta era askotara bere bañua utsitu hear. Mistikuak, ostera, geienez esakera zořotz, alegizko ta olerkitxoetan esan oi dauskuez euren biotz-bařen-hařeneko gauzarik ezkutuenak.*

*Bertso-egile trebea zan Teresa, ta bere sasoiari ba-ehan ořen entzute joria. Bere alabatxoentzat egiten ebazan geien bat, bere komentu-hizitza iripar gozoz orniduteko, hai ta here ostera ta txango luzeetako nekeari aringarí pizkat ezarteko he. Au da —bere alaba hatek, San Jose'n Maria amak diñoskunez—, ainhat koplá ta bertso osotzen ehazan, edozein jazoera gaitzat arturik.*

*Amazortzigarén gizaldiaren erdiruntz, Aita Andres'ek • • >. ko bilduma bat egin eban komentuetan oraindik ahestu-ten ziran etd ama Teresa'renak zirudien guztiakaz. Gerora, areitatik batzuk onizat artu dira, bezte batzuk ez. Eta gaur libururik geienak, ama Teresa'k herak egiñak lez, argital-zen dabezanak emen euskeraztu doguzanak dira.*

*Lau sailetan banandu doguz: 1) Lirikuak; 2) Gabonkentak; 3) Eskintzazkoak, eta 4) Sendikoak. Danak politak, mamintsuak, eta saři gaia be eñ-bertsuetatik artu ta oretutako arin txanbeliñak.*

# Lirikuak

## 1.—NIRE LAZTANA ENEA

*Nazan eta daukaclan oro  
Emon neutsozan unetik,  
Nire Laztana da enea  
Ta ni Arena osorik.*

Eiztari bigunak geziaz  
Oso zauri nindunean,  
Tink yatan gogoia gelditu  
Maitasunaren mendean,  
Ta aldaketa dagit bikaifia  
Bizitz bafia arturik:

*Nire Laztana da enea  
Ta ni Arena osor'k.*

Gezi goriz zauritu nindun,  
Maite-suz zan kutsutua,  
Ta nire gogoia idoro zan  
Egileaz alkartua.  
Jainkoarena nazanetik,  
Eztot nai beste maiterik:

*Nire Laztana da enea  
Ta ni Arena osorik.*

## 2.—IL-EZINEZ

*Bizi naz, ez baiña enegan,  
Ta ain ditxarot bizitz goítia*

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

Joana bizi naz neugandik,  
Maite-sutan il-beafez;  
Jainkoaren baitan bizi naz,  
Beretzat nindun maitez jo:  
Biotza neutsonean emon,  
An jafi eustan idatzia:

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

Jaungoikozko espetxe onek  
—Nire maitezko egoitza—  
Jauna dau egin nire iopu  
Ta azkerik ene biotza;  
Ta ain yat g'riñagafi Jainkoa  
Ene atxilo ikustia,

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

Ai!, au biziaren luzea!  
Erbeste onen minkofa!  
Espetxe ta kate oneitan  
Esturik bizi beafa!  
Noiz urten-zain nagola soilki  
Damost oiñaze gofia!

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

Ai!, au biziaren gañatza,  
Jainkozko ezti bagea!  
Maitasuna baita txit samur,  
Itxaro ez, baiña, luzea:  
Ken eidazu, Jainko, pixu au,  
Galtzairu baizen andia:

*Ez ilteak dc.ust  
Kentzen bizia.*

Il-beañaren uste gozoz  
Bizi naz bakar-bakafik,  
II ostean, bada, bizia  
Itxarok dakarst ziuñik;  
Bizia damozun eriotz,  
Ez luza, bait-nozu zeuria:

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

Ona, mardul da maite-sua...  
Bizitz, ez zakidaz ziztrin;  
Ez daukazu beste biderik,  
Gaintzeko, galdua egin.  
Betor bein eriotz biguna,  
Betorkit ilte aurkia:

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

Alako bizitza goikoa  
Egizko bizitza dana,  
Bizitz an aitu ta il arteiño  
Biziz goza oi eztana:  
Eriotz, ez zakidaz muker;  
Iltzear bizi nadin lenik,

*Ez ilteak ai!,  
Kenduz bizia.*

Bizitz, zer neikeo nik emon  
Nigan bizi dan Jaunari,  
Zeurori orde z galdu ezik  
A dagidan irabazi?  
Ilda opa dot A jaritxi;  
Ofen dot kutun maitia,

*Ez ilteak daust  
Kentzen bizia.*

### 3. JAINKOAREN EDERTASUNA

Oi, edertasun guztien  
Gaindiko Edertasun!  
Zauri barik min dagizu,  
Ta min barik zuk deusezten  
Izakien maitasun.

Gauza bi ain banak lotzen  
Dozuzan morapilo!  
Zergaitik zara jareiten?  
Loturik, ba, indar damozu  
Gatxak ontzat artzeko.

Izanik eztauna amairik  
Eztaunaz dozu batzen:  
Amaitu barik Zuk amaitzen,  
Maite bear barik Zuk maite,  
Zeure ezereza Zuk anditzen.



#### 4.—BILA NAIZU ZEUGAN

*Saiatu Niregan, gogo,  
Ta Ni bila naizu zeugan.*

Maiteak, gogo, ain eder  
Bait-zinduzan argazkitu,  
Margolari jakiñenak be  
Ofen txairo ezin leikean  
Alako antzik osotu.

Aratz eta eder sortua  
Maitasunez izan ziñan,  
Ene bulafean margoztua'  
Galdu ba'zaiz, ene maitea,  
*Gogo, saia zaitez Nigan.*

Ene bulafean ba'zenki  
Zagozana zu islatua,  
Antz-iduri bizi-bizitan,  
Poztuko ziñakez zeu ikusiz  
Ain ederto margoztua.

Eta zerofek ez ba'zenki  
Ni nun aurkitu apikan,  
Ez ibili, otoi, aldefai:  
Ziñez idoro nai ba'nozu,  
*Bilatu nagizu zeuregan.*

Zu zaitut neure etzan-leku,  
Zu nire egoitz ta etxea;  
Edozein orduz dagitzut dei  
Zure bafuan ba'didorot  
Giltzean dagola atea.

Zeurez at ez nagizu bila;  
Ni aurkitzeko soilikan  
Ots egitea dozu naiko:  
Txit bizkor noake zu^ana,  
*Ta Ni bila naizu zeugan.*

#### 5.—ZEUREA NOZU

*Zeure naz, Zeutzat jaioa;  
Zer Zuk niri nai, Jainkoa?*

Anditasun gorenena,  
Jakintza oso betiko,  
Enezat ontasun utsa,  
Jainko ziña, sortu bako:  
Begira Zuk maite-kantaz  
Diardutzun ar txikia.

*Zer Zuk niri nai,  
Jainko andia?*

Zure naz, sort bai ninduzun.  
Zure naz, Zuk eroana,  
Zurea, Zuk eresia,  
Zurea, Zuk itxarona.  
Zure naz, Zuk dei egiña;  
Zugaitik ez nintzan q;aldu.

*Nigandik, Jainko,  
Zuk zer nai, dozu?*

Zer agindu Zuk, Jaun ona,  
Mirabe kaskařarentzat,  
Zer egiteko daukazu  
Gaizkile jopu onentzat?  
Emen naukazu, Maite leun,  
Aurean auzpez naukazu:

*Nigandik, Jainko,  
Zuk zer nai dozu?*

Ene biotza ikus emen,  
Zeure eskuan dipintzut nik  
Or nire soin, bizi, gogo,  
Nire eřai ta lera guztik;  
Ene Senar, Erosle leun,  
Zeutako nintzan eskini:

*Zer eskatzen Zuk,  
Jaun maite, niri?*

Eidazu balbe naiz bizi;  
Emon osasun naiz geixo,  
Egotz guda naiz bake cder,  
Ekar dedu naiz min-laido,  
Nadin meko naiz indartsu;  
Baietz diřoketzut beti.

*Zer eskatzen Zuk,  
Jaun maite, niri?*

Aberats naiz txiro bizi,  
Pozez kuin-kuin naiz soin-laru,  
Alaikor naiz gogo-zurbil;  
Eidazu su-leza naiz zeru,  
Bizitz gozo, euzki-zabal,  
Oroz bait-nozu mendeko.

*Zer niretzat nai,  
Ene Jaungoiko?*

Nai ba'dozu, emon otoitz;  
Ezean, eidazu legor;  
Naiz bafen bero guria,  
Naiz antzu ta igar orokor.  
Anditasun txiř nagusi,  
Emen daurkit gentza soilki.

*Zer eskatzen Zuk,  
Jaun maile, niri?*

Emoidazu, ba, jakintza,  
Edo maitez, ez-jakiņa;  
Eidazuz askozko urteak,  
Egun alai naiz ezaifia,  
Naiz gose naiz betekada;  
Ara naiz ona iraul naizu.

*Nigandik, Jainko,  
Zuk zer nai dozu?*

Atsedenez nai ba'dozu,  
Maitasunaren nagoke.  
Lanerako Zuk agindu?  
Lanean il gura neuke.  
Esaidazu nun, zelan, noz?  
Itz, otoi, ene Maitea:

*Zer gura zeunke  
Nik egitea?*

Emon Kalbari naiz Tabor,  
Eremu naiz lur joria;  
Nadila Job oiřazetan,  
Naiz Jon Kristo'gaz eztia;  
Nadila maasti ekarkor,  
Edo, nai ba'da, eiartsu.

*Nigandik, Jainko,  
Zuk zer nai dozu?*

Nadin Josep giltzapean,  
Naiz Egipto'ko nagusi;  
Edo Dabid neke-lofez,  
Naiz erpiñean goretsi;  
Nadin Jona murgildua,  
Naiz artatik atarea.

*Zer nai dozu, Jainko,  
Nik eútea?*

Ixil-gorde naiz izlari,  
Ekafi bage naiz onez,  
Lege betez zauritua,  
Miñetan naiz atsegiñez,  
Naiz Jainko-legea gozar,  
Zeu bakafik nire bizi.

*Zer eskatzen Zuk,  
Jaun maite, niri?*

*Zeure naz, Zeulzat jaioa;  
Zer Zuk niri nai, Jainkoa?*

## 6.—ERBESTE-OIUAK

*Soila bai, ene Jainko,  
Bizia Zu barik!  
Eriotza dot opa  
Zu ikusi-miñik.*

Ibilte au dan luze  
Ludi ontakoa!  
Erbestaldi mingotsa,  
Egoitz nekezkoa!  
Oi, ugazaba maitati,  
Jaso ni emendik!

*Eriotza dot opa  
Zu ikusi-miñik.*

Zurbila da bizia,  
Mergatzik osoa;  
Zugandik ufun ezin  
Da alaitu gogoa.  
Oi, ene On samufa,  
Naukazuerti-ilik!

*Eriotza dot opa  
Zu ikusi-mimk.*

Oi, eriotz onbera,  
Urgatz ene miñak!  
Zure ots ezti, gogoa  
Jarein oi dabenak!  
Zer zorion, oi laztan,  
Zurekin egonik!

*Eriotza dot opa  
Zu ikusi-miñik.*

Lurkoi dan maite-sua  
Bizitz oni oi itsats:  
Jainkozko maite-lamak  
Besteaz dau arnas.  
Zu bage, Jainko altsu,  
Nok irauñ bizirik?

*Eriotza dot opa  
Zu ikusi-miñik.*

Lurtar bizitza dogu  
Ileta jafaia;  
Egizkoa, ostera,  
Zeruan alaia.  
Eder bekizu, Jauna,  
Ni an zorionik.  
*Eriotza dot opa*  
*Zu ikusi-miñik.*

Nor izuz ipinten dau  
Gorputz-eriotzak,  
Ortik ba'datorkioz  
Atsegin askotzak?  
Olan yatorkoz, bai, Zu  
Beti maitatzetik.  
*Erioiza dot opa*  
*Zu ikusi-miñik.*

Nire gogo jausia  
Oiuz dago, urtua.  
Ai!, nor maitegandik  
Bizi ufindua?  
Asko da, onezkero,  
Onako oifiazetik.  
*Eriolza dot opa*  
*Zu ikusi-miñik.*

Amu-ortzetan jausi  
Dan zarbo gaixoak  
Erio mende daurkiz  
Miñaren azkenak.  
Ai!, ni emen nagotzu  
Zu bage samiñik.  
*Eriolza dot opa*  
*Zu ikusi-miñik.*

Alpefik nire gogo  
Dabil Zure bila;  
Zu beti ikusgaitz, bete  
Barik onen Ieia.  
Onek dau bizi sutzen,  
Asperenka asirik:  
*Eriotza dot opa*  
*Zu ikusii.-miñik.*

Ai!, nire bulafera  
Zu zatozanean,  
Bertatik nozu, Jainko,  
Zu gal bildufean.  
Au yat mingafi oso,  
Oiuka jafirik:  
*Eriotza dot opa*  
*Zu ikusi-miñik.*

Amaira beite, Jauna,  
Ilte ain luzea;  
Indartu Zure miñez  
Dagon mirabea.  
Ausi burdiña oneik,  
Nadin zori onik.  
*Eriotza do't opa*  
*Zu ikusl-miñik.*

Baiña ez, Jaube maite,  
On baita jasana;  
Ene efuak garbitu,  
Uts-mordo galanta.  
Ai!, neure malko-bidez  
Bentzut Zuk esanik:  
*Eriotza dau opa*  
*Nerau ikusi-miñik.*

## 7.—GURUTZEARI GORALPENAK

*Gurutz, bizi-atse den ezti,  
Goratua zaitetz beti.*

Oi ikufin, zure babespean  
Makalena dager sendo!  
Oi, gure eriotzaren bizi,  
Zu bai zara berbiz tinko!  
Otzan dozu leoia biur,  
Zuk galdu-azorik bizi.  
*Goratua zaitetz beti.*

Zu maite etzaituna dago  
Azke eztala, loturik;  
Zuri nai dautzunak oratu  
Eztau ezetan okefik.  
Gaitzak abirik ez dazauan  
Zori onezko al nausi!  
*Goratua zaitetz beti.*

Buztarpetuok ginduzun zuk  
Azke izatera ekañi;  
Zuk zeuntson nire gatxari be  
Osabidea ezafi:  
Jaungoikoarentzat zenduan  
Poz-efaiñua jadetsi.  
*Goratua zaitetz beti.*

## 8.—GURUTZEA

*Gurutzan dago bizitza,  
Baita pozkario,  
Ta bera dogu bakañik  
Zidor zerurako.*

Gurutzean dago Jauna  
Zeru ta lufeko,  
Ta bakearen gozoa,  
Naiz izan gudako;  
Lufean dauz aienatzen  
Samin-gaitzak oro,  
*Ta bera dogu bakañik  
Zidor zerurako.*

Emazteak Laztanari  
Gurutze diñotso  
Palmondo-tantai bat dala  
Bikaiña osoro,  
Ta aren gaiñeko alea  
Ale bat jainkozko:  
*Guk bera dogu bakañik  
Zidor*

Orio-abe lerdena  
Da gurutz jagia;  
Orioz igorzten gaitu,  
Emonik argia,  
Ar, ene gogo, gurutza  
Pozkarioz naiko,  
Bera baitogu bakafik  
Zidor zerurako.

Gogo Jaunari mendua  
Guztirik dagonak  
Ta egiaz erantzia,  
Mundutik joanak  
Poz ta bizi gurutzea  
Besterik eztauko;  
*Guk bera dogu bakafik  
Zidor zerurako.*

Emazteak naí daun tanr.ai  
Dogu gurutzea;  
Zoragafi yako, ziñez,  
Onen gerizpea,  
Bere Laztanaz ixilik  
Maitez jarduteko;  
*Guk bera dogu bakafik  
Zidor zerurako.*

Beso-zabal jar zanetik  
Zugatz ortan Kristo,  
Gurutzean dogu dedu  
Ta aintza benetako;  
Neke-lofak jasatean,  
Bizi-pozkario,  
*Ta biderik ziuřena  
Gutzat zerurako.*

## Gsbo-.-Kantak

### 9.—ARTZAIN ERNAIAK

*Artzaiñak, ernai zagozenak  
Zeuen artaldea zaintzen,  
Bildots bat, Jainkoaren Seme,  
Gaur yaktc emen iaioten'.*

Txiro ta ezetsia dator;  
Bera zaintzen asi gaurtik,  
Otsokok bestelan ostuko  
Guk gozartzera aufetik.  
Peru, ekarstazu makila;  
Ez dot eskutik itxíko  
Bildotsa kendu ez daiskuen:  
*Ez al dogu zeru-Jainko?*

Ander, urduritua nago  
Pozez ta miñez batean:  
Jainko ba'da gaur jaió dana,  
Zelan ila daítekean!  
Oi!, batera gizon be da-ta,  
Bizia eskuan dauko;  
Ikus, Jainkoaren Semea  
*Gaur yaku ementxe jaió.*

Zelan eskatzen dabe Berau,  
Gefa ba'dagitse gero?  
Bere etxera ba'lioake,  
Nik uste, Peru, obeto,  
On oro eskutik dauko-ta,  
Ba'dausku obena uxatzen.  
Jainko onek, etofi danetik,  
*Mlña bearko jasanen.*

Aren samiñak zu mintzen  
fez;  
Oi!, egia, ziñez, gizonak,  
Onura datorkionean,  
Asmau ez bestien gaitzak!  
Artzain onek ez al dau artzen  
Artalde andi ospea?  
Gauza lazgafia, alan ta be,  
*Jainko txit gorena iltea.*

### ]Q.\_SALBAG!LEA JAIO

*Gaizkatzera yatorku gaur  
Artzain, gure aidea,  
Jainko indaréz betea.*

Origaitik dausku Satan  
Gikzapetik atera;  
—Aide da baita Mitx'ena,  
Gi.lbur ta Txiko'rena.  
—*Oi, Jainko altsu baita!*

—Bai, ikusi neban jaioa,  
Ta artzain-neskatxa alai.  
Jainko ba'da, txiroakaz  
Zelan dau, oi!, egon nai?  
—*Ez ete cla txit altsu?*

—Zelan, Jainko ba'da, saldu  
Ta il gurutzean dindil?  
—Efugeak ez ete eban  
Jasanikan. obena il?  
*Oi, Jainko altsu baita!*

Itaun ofcik aterturik,  
Daigun samur otseindu;  
Gugaitik iltera dator,  
Beraz il gaitzezan gu:  
—*Ez al da Jainko altsu?*

n.~~EGUBAÍ!

*Aítaitea dakarsku  
Onberaz Jainkok;  
Ez izan bilduñk,  
11 gadin biok.*

Aitak, oi!, damo:iku  
Bere Semea;  
Gaur dager lufean,  
Seaska, borda.  
Au poza!, gizona  
Jainkoa baita!  
*Ez izan bilduhk,  
Gailzezan ilik.*

Begira, Mikola,  
Zein maite-sua!  
Efugea dabil  
Otzaren bila!  
Jainkoak izten dau  
Bere efeiñua:  
*Ez izan bildurik,  
Gaitzezan ilik.*

Zelan, baiña, Izarño,  
Ak egin ori,  
Dirdira lagarik  
Eun zakar jantzi?  
Txiro dau nai bizi,  
Bekigu mozkin;  
Bai dator gizonik,  
*Gaitzeztan ilik.*

Zer emongo dautse  
Andi ofen truke?  
Zigor-zarta latzak  
Ta naiko oiñaze.  
Oi!, zelako ituna,  
Gure barne-min!  
Au egi dalarik,  
*Gaitzezan ilik.*

Zelan dira azartzen  
Altsua dala?  
Enda txafak dabe  
Ipiñiko ila.  
Ori ba'da, Izarño,  
Lapurtu daigun,  
—Ezta Bera nairik?  
*Gailezan ilik.*



## 12.—BA-DATOR EGUNA

—*Ikusik, oilarko,*  
*Nor dagon deika.*  
—*Aingeruak dira,*  
*Goiznabar baita.*

Ots bateko durunduz yataz      Nor dogu neskatx pinpirin  
Belañiak ozenera.      [au  
Goazen, Gil, ozkofi da-ta,      Nausiaren aide ala?  
Artzain-neskatxa ikustera.      —Aita Jainkoren alaba da,  
Izar lez ñir dagiala.

—*Ikusik, oilarko,*  
*Nor dagon deika.*  
—*Aingeruak dira,*  
*Goiznabar*

—*Ikusik, oilarko,*  
*Nor dagon deika.*  
  
*Goiznabar baita.*

## 13.—ODOL-JARIOKA (Erdainkuntzaz)

*Odol-jarioka,*  
*Eta eztakit nik,*  
*Eztakit zergaitik.*

"Zergaitik, ditauntzut,  
Auzia Aren kaltez,  
Efugea bai da  
Ta gaitz-izpirik ez?  
Zale-ifikaz zan,  
*Eztakit zergaitik,*  
*Nire maite-miñez,*  
*Nik jakin gaberik!*

Oiñazez josia  
Ete jaio ondoren?  
—Bai, il-zori baitago  
Gatxa kentzeaŕfen.  
A bai Artzain andi  
Izango ziuurrik!  
Eztogu A maite?  
*Oi!, baiña, zergaitik?*

Ez al zara oar  
Sein efüge dala?  
—Esanaz etor yat  
Ligori garbala.  
Eletorke txafik  
A guk maitatzetik.  
*Eztakit zergaitik.*

14.—ODOLA LUÑEAN  
(Erdainkuntzaz)

*Vme au negaréz yatorku;  
Ara, Gil, deiez daukazu.*

Lufera jatsi zan zerutik  
Guri bufaka kentzeko;  
Oña liskaña noz asiko,  
Aren odola bean ustu.  
*Ara, Gil, deiez daukazu.*

Maitemin-sua andi bait-zan,  
Ezta asko negar eitea;  
Indar bei, adorez betea,  
Beti bear ba'dau agindu.  
*Ara, Gil, deiez daukazu.*

Ez yaku merkea be izango,  
Ain asi ba'yaku goiztar  
Bere odol-jario-bear.  
Ba-dogu, bai, negar anpulu!  
*Ara, Gil, deiez daukazu.*

A ez letorkigu iltera,  
Pozik legoke berean;  
Ez dakuszu, Gil, etortean,  
Leoia lez dala ofutsu?  
*Ara, Gil, deiez daukazu.*

Esan, Batxi: zer gura dozu,  
Olan niri deadarka?  
—Maite daizula, otz-dardarka  
Bera zeugaitik bait-dagotzu.  
*Ara, Gil, deiez daukazu.*

15.—ÉREGEKAZ

*Izaña da eldua,  
Dizñraz betea;  
Biaa Éregekaz  
Nire artaldea.*

Goazen leiaz danok  
Mesias ikusten,  
Aufetik esanak gaur  
Bai dira betetzen;  
Gure egunotan yaku  
Zerutik jatsia:  
*Biaa Éregekaz  
Nire artaldea.*

Adiguri bikaiñak  
Daiguzan eroan,  
Éfegeak bai datoz  
Maitasun beroan.  
Alaitu bei gaur gure  
Neskatx dotorea:  
*Biaa Éregekaz  
Nire artaldea.*

Ez egizu, Martintxo,  
Efazoirik bila,  
Mutil au Jainko dala  
Gauza bai jakiña.  
Emoiozu biotza,  
Eta ni lengoan:  
*Biaa Éregekaz  
Ni're artaldea.*

## E s k i n t z a z k o a k

16.—ANDER DEUNARI

*Maitasunez eroateak  
Olango atsegiña ba'dau,  
Zein poza ez zu ikusteak!*

Zer izango Jainko andia  
Guk begiaz ikustean,  
Ander deuna gurutza ikusiz  
Poztu bazan ainbestean?

Oi, ezin leike utsik emon  
Oñazean atsegiñak!

*Zeln poza ez zu ikuvteak!*

Maitasuna azia danean,  
Ezin egon egiteke,  
Ezta sendoa Laztanafen  
Maitez bufukatu bage.

Onegaz gainduko dauz usu  
Dituan etsai dongeak.

*Zein poza ez zu ikusteak!*

Danak dira eriotz-bildur;  
Eta iltea zuk gozoa?

Oi!, ni zori erpiñagoan  
Bizi izatera bai noa.

Oi!, ene Jainko, zure ilteaz  
Aulena ein zendun sendo.

*Zu ikusteak zer ez eingo?*

Oi, Gurutz done, zur bikai-  
[na,  
Gurentasunez andia!  
Senartzat zendun Jainkoa artu  
Izanik ezesgafia!

Alaitsurik nator zugana,  
Merezi ez afen zu ikusi:

*Zu ikustea yat poz andi!*

## 17.\_!LARION DEUNARI

*Gudari batek gaur ditu  
Ludi ta arenak gainditu.  
—Jeurl, jeurt, ene obendari,  
Zidor au dogu gidari.*

Gabiltzan txit bakar-zale,  
Ta eztatgun gura ilterik  
Ezeukian bizitzea  
Jadetsi arte osorik.  
Gure gudari zangafak  
Ba-dau antze ta kemenik'  
*Jeurt, jeurt, ene obenda.ri,*  
*Zidor o, /> dogu gidari.*

Gorputz-ildurazko izkiluz  
Luziper dau azpiratu;  
Egonafiz da liskartzen,  
A zek onezkero izutu?  
Zaldun onen lofatz-bidez  
Guztiok jañai al dogu.  
*Jeurt, jeurt, ene obendañ,*  
*Zidor au dogu gidari.*

Gurutza eban besarka,  
Nok tarteko eiñik ez-ta;  
An dogu beti argia,  
Ak pekatariak itxia.  
Oi, maitasun doatsuak  
Gure gudarik zitunak!  
*Jeurt, jeurt, ene obendari,*  
*Zidor au dogu gidari.*

Koroea dau irabazi,  
Ez geiago naigaberik;  
Ospe ta aintza merezian  
Orain dago atsegiñik.  
Oi, garaipen doatsua  
Bai lortu gure gudarik!  
*Jeurt, jeurt, ene obendari,*  
*Zidor au dogu gidari.*

## 18.—KATARINE MARTIRI DEUNARI

Jainko andiaren  
Maitale andia!  
Zaindu gaizuz, otoi,  
Izar dirdaria!

Txikitatik zendun  
Zuk Senafa artu;  
Atsedan bakoa  
Zure maite-su.  
Zugana ez doa  
Izuz jausia,  
Jainkoz kutunago  
Ba'dau bizia.

Mifiago Senafaz  
Ezin bizia,  
Miñetan aurkitu  
Arin guria;  
Oro dau gozatsu:  
Iltea dau nai,  
Bee-bizia bada  
Ez yako aznai.

Begira, txepelak,  
Neskatiñ oni;  
Ez eder ez uré,  
Ez ditu uisi:  
Guda gogofean  
Sartua danak  
Gogoz opa ditu  
Oifiaze-lanak.

Arek daun zoruna  
Nai ba'da goza,  
Atsedan bila ifioiz  
Ez gaizan neka.  
Oi, iruzur atzia,  
Maiterik eza,  
Oifiazean biziz  
Gero nai osa!

# Sendikoak

## 19.—ZORI ONA (Jantzi-artze batez]

Zurbil-zelatik, neska,  
Nok alda zaítu ona?  
Dana al duan Jaiñkoak  
Ta nire zori onak.

## 20.—BURU-ZAPIA

*Aizta, ernai egon zaitezán  
Zapi au emon dautzugu,  
Zeru bera yoatzu ortan.  
Etzaite, ba, arduragetu.*

Zapi polit onek dirautzu  
Egon zaizala beti zai,  
Senafa datorken artean  
Ilun ta eguzki ernai;  
Zuk gitxien uste izatean,  
Lapur antzera A yatorketzu:  
*Etzaite, ba, arduragetu.*

Iñok ez daki ordua noiz,  
Len-garaiz ete zantzua?  
Bigafenez? imgafenez?  
Iñok be ez daki ordua.  
Itxafik, ernai zagoz, ba, aizta  
Zeurea eztaitzuen ostu:  
*Elzaite iñoz arduraoetu,*

Zeure eskuan ixiotuta  
Euki beti kruselua;  
Zintzoki erabil zapia,  
Gefikoa txit lotua;  
Afisku andiz bait-zengokez,  
Etzaite iñoz lozofootu:  
*Etzaite, ba, ardurag^tu.*

Egitez ta irabaziz euki  
Oriorik ezpa-zcndu:  
Oriorik ezpa-zcndu:  
Oriorik ezpa-zcndu:  
Oriorik ezpa-zcndu:  
*Etzaite, ba, arduragetu.*

Ez dautzu iñok auferatuko.  
Erosten ba'ziñoakez,  
Berandutzea ba-leiteke  
Ta Senafa sartu tartez;  
Ta bein atea itxi ezkeru,  
Deituta be, ezingo sartu:  
*Etzaíte, ba, arduragetu.*

Etengabe ardura zaitte  
Gogo zindoz beteteko,  
Eriotz-egunera arteiño,  
Gaur eskiñi dozun oro;  
Olan ernai egon ba'zadiz,  
Senafaz bat zara bañu:  
*Etzaite, ba, arduragetu.*

## 2].—PROFESA BATEAN

*Oi, zein on bardiñik bakoa!*  
*Ezkontza sagaratu!*  
*Zeruan garai dan Jainkoa*  
*Izan da, ba, ezkondua.*

Oi, zein atsegin gainezkoa  
Zuretzat gaur ipifiia,  
Maitaletzat nai zaitu Jaunak  
Ta ilik zaitu irabazia!  
Eskintza egin dozulako  
Zintzo jardun A otseintzeko.  
*Zeruan garai dan Jainkoa*  
*Izan da, ba, ezkondua.*

Bitxi bikaiñez zaitu jantziko  
Senar Jainko zerukoak  
Ta pozik asko ekafiko  
Iñoz ez kendutekoak;  
Baiña, batez be, emongo  
[dautzu  
Gogo bat apal-azoa.  
Efege da-ta, gurako clau,  
*da, ba, ezkondua.*

Baita Berak emongo dautzu  
Maitasun done garbia,  
Ta dokezu — neuk dirautzut— •  
Mundu-bildufa jaurtia,  
Ta are geigo gaiztoarena,  
Gaurtik bai dago lotua:  
*Zeruan garai dan Jainkoa*  
*Izan da gaur ezkondua.*

22.—EZ LOR5K GEIAGO  
(Profesa-egunean)

*Ikuñin onen ondorean  
Zabiltzenok egiñalean,  
Ez lorik geiago, ez lorik,  
Luñean ez baita bakerik.*

Buruzagi azkar antzera  
Gure Jainkoa yakun il;  
Goazen Aren lofatz-jafai,  
Geuk bai gendun jafi dindil.  
Zorion doatsua eban  
Atara guda ontatik!

*Ez lorik geiago, ez lorik,  
Luñean ez baita bakerik.*

Pozkaricz da cskintzen  
Gurutzan josita ilteko,  
Bere neke-oiñaze andiz  
Guztion argi izateko.  
Oi, azpiratze aintzatsua!  
Oi, guda zorionsua!

*Ez lorik getago, ez lorik,  
Luñean ez baita bakerik.*

Ez bedi koldafik arean,  
Bizia daigun zoritu;  
Galdutzat daukanak bestean  
Nok egundo bera zaindu?  
Jesus baita gure gidari  
Ta guda ontako sari:

*Ez lorik geiago, ez lorik,  
Luñean ez baita bakerik.*

Eskiñi gakiozan danok  
Bai Kristo'gaitik ilteko;  
Ta zeruko ezteguetan  
Atsegin andiz izango.  
Goazen ikur onenpean,  
Krisio bai doa auñean:

*Ez lorik geiago, ez lorik,  
Luñean ez baita bakerik.*

23.—ALAJKOR BIZI  
(Profesa-eejunean)

*M.aiteak gura dausku  
Giltzape biotza;  
Alaikor bizi daigun  
Karmeldar bizitza.*



Zein eztegu joriak  
Egin zitun Jaunak!  
Aren maite-argiak  
Uxatzen itzalak.  
Agur daígun biotzez  
Beraren gurutza.  
*Alaikor bizi daigun*  
*Karmeldar bizitza.*

Auxe da biziera  
Jaunak autetsia,  
Obenari egiñik  
Beronaz esia;  
Berak eskiñi dausku  
Poztasun betia,  
Giltzapea ba'dogu  
Atsegin suria.

Zer andiak damoskuz  
Betiko dirdaian,  
Baldin ba'dogu izten  
Aren on ordian  
Munduko loikeria  
Ta galpen lakatza:  
*Alaikor bizi daigun*  
*Karmeldar bizitza.*

Oi, zelako espetxe  
Askatasuntsua!  
Betiraun osorako  
Bizitz zoruntsua;  
Ez dot askatu gura  
Geiago biotza,  
*Alaikor bizi daidan*  
*Karmeldar bhitza.*

#### 24.—ASEHIRANTZA

*Goazen zerurantz danok,*  
*Karmeldar lekaimeok.*

Goazen, bai, ildura-zale,  
Apal ta ezetsiak,  
Poza lufean itxirik,  
*Karmeldar lekaimiak.*

Jainkoak beti gauz maite,  
Ots daisku Aren deiak;  
Ustez guakoan jafai,  
*Karmeldar lekaimiak.*

Menpetasun-agintzara  
Goazen muker bageak,  
Gure muga, atsegin baita,  
*Karmeldar lekaimeak.*

Otez dardar jαιο zana  
Kiskaltzen dau maiteak,  
Giza-zapiz estaldua,  
*Karmeldar lekaimeak.*

Txirotasuna bide dogu,  
Gure zeru-nagusiak  
Goitik beera ibília,  
*Karmeldar lekaimiak.*

Goazen ondasun-bila,  
Txiro ta ezeukiak  
Ase oi ditunagana,  
*Karmeldar lekaimlak.*

Eli Aitari jafaituz,  
Aren indar beteak  
Gure arimak azkortuz,  
*Karmeldar lekaiameak.*

Gure naiera ukaturik,  
Elisai'n ats bikiak  
Bero beisku barne-muifia,  
*Karmeldar lekaimiak.*

## 25.—LEIA BIZIAK

Nik poza dot negafean,  
Ta atseden urdurian,  
Neure bare mingoztua  
Ta on oro jausian;

Gosea bekit asetze,  
Bilduŕa itxarokizun,  
Atsekabea atsegin  
Ta ikara gozotasun;

Maitez nago ekaitzetan,  
Zauria yat obari,  
Alde yat ezetsia  
Ta iltea bizigafi;

Aiztua bekit orogai,  
Apalestea guren,  
Ziztrin-kaskaŕa uste on,  
Laido-iraiña garaipen;

Altxor bekit ezeukia,  
Zirt eta zarta garai,  
Azazkafi egun-lana,  
Ta ituna ene alai;

Nardan bego nire ospe,  
Nekeetan nire griña,  
Zokoan nire nausitza,  
Bakar nire egon diña;

Neure argizko itzalean,  
Beerengo ni andien,  
Gurutza bedi enetzat  
Bide-zidor edefen;

Kristo'gan beuket uste on,  
A soil-soil nire apeta,  
Aren nekaldiak asnas,  
Ari antz-artzea josta;

Eratxia bekit dedu,  
Jasana aintz-adar alai,  
Beeraldia ene azi,  
Erdeiñu ene zagai;

Ontan datza nire ermoa,  
Emen nire segurua,  
Nire egizko agiria,  
Nire zintzo-zeiñua.

26.~-ARTZAH'<í-NESKA DOATSUA  
(Profesa baterako)

*Oi, antzain-neska doatsua,  
Betiraunez Érege dan  
Artzaiñari gaur emona!*

Zorizkoa zure adufa,  
Olako Senaf dozuna:  
Ni, ene Gil, bildufez nago,  
Nik ezin arpegira ari so,  
Senartzat artu dau, bada,  
*Beúkoz Érege dana.*

Bere efira eroateko,  
Esaiozu, zer emon dautsan.  
—Zer emongo ete? Biotza,  
Gogoz eta osorikan.  
—Ziur!, crdaifiezko pitiña,  
Edefa dogu, ba, artzaiña,  
*BetikoZ Érege dana.*

Geigo ba'leu, geiago emon;  
Ari oarka zu, kutun?  
Napar gofia artu daigun;  
Ekar, edo neuk ekañiko;  
Senartzat artu dau, bada,  
*BetikoZ Érege dana.*

Neskak emona ba-dakigu,  
Ta Artzaiñak zer emon ete?  
Bere odolez dau erosi.  
Oi dirutza!; nok ainbeste?  
Neskatxa bai zorionduna,  
*Artzain au alaitzen dauna!*

Oso laztan eban, ufean,  
Altxor orí emoteko;  
Jakizu dana damotsola,  
Jantzi eta oiñetako.  
Ots, Senafa dau berena,  
*Be'tikoZ Érege dana.*

Ondo legoke bera artzea  
Geure talde ontarako,  
Ta pozezko kantaz gozatu  
Biotza ari irabazteko,  
Senafa artu dausku, bada,  
*BetikoZ Érege dana.*

27.—JAWTZIAREN ONEZ

*Jantzi bañia emoten daus-  
[kuzun  
Zeru-Érege,  
Jente txarëtik, otoi, egizu  
Jantzi au gorde.*

Gurutza, alabak, lepora-  
   [tzean,  
 Izan kemena,  
 Ta Jesus zeuen argi danari  
 Eskatu ona;  
 Ta zori ortan Bera yatzue  
 Lagun-zaintzaile.  
*Jente txarĕtik, otoi, egizu*  
*Janlzi au gorde.*

Pizti txar onek artegatzen  
   [dau  
 Otoitz-garaian,  
 Gogo sendoaz ez ba'zabiltze  
 Eraspenian;  
 Beraz, biotzak Jaunagan sen-  
   [do,  
 Ernai zagoze.  
*Jente txarĕtik, otoi, egizu*  
*Jantzi au gorde.*

Itera etor ziñen ezkeru,  
 Ez ikaratu,  
 Abere txafon imurtx batgaitik  
 Ez asaldatu.  
 Olakoetan Jaunagana jo  
 Oba beti be.  
*Jente txarĕtik, otoi, egizu*  
*Jantzi au gorde.*

## 28.—AUTU MAITATIA

Daustazun maitasuna bada  
 Nik Zuri langoa, Jainko,  
 Esaidazu, zetan zagoz Zu?  
 Edo-ta, ni, zetan nago?

—Arima, zer nai dozu ni-  
   taz?  
 —Ene Jainko, Zu ikustea.  
 —Ta zer dozu geienik izu?  
 •—Zeu, oi!, betikoz galtzea.

Arima Jaunagan gordeak  
 Zer nai bear dau leienik?  
 Zer, maitatu eta maitatu,  
 Ta maite-sutan txit gorra  
 Bar'iz Zu maitatu, ezik?

Leukaken biotza daskatzut,  
 Ene Jaun, Zeure beti nadin;  
 Leun abia daidan egin,  
 Egokien yatan tankeran,  
 Zu beti bertan zadizan.

## 29.—ZORIONEKO BIOTZA

Zori ontsua  
Maite-mindua,  
jaunagan dauna  
Bere gogua:  
Oro Agaitik  
Ezetsi dauna,  
Aintza ta poza  
Agan daukana.

Bere buruaz  
Axolik ezta,  
Jainko maitegan  
Dauka jo-muga;  
Olan alaiki  
Ditu igaroak  
Itxas ontako  
Uin ekaiztuak

## 30.—ETZAITTE KEZKA

*Etzaitte kezka,  
Etzaitte izukor,  
Dana da igazkor,  
Jainko da aldakaitz;  
Eroapenak  
Oro jadesten;  
Jauna daukonak  
Guztia dauko:  
Jauna soil naiko.*

Jaso zuk gogamena,  
Beti goraka;  
Ez mindu ezergaitik,  
*Etzaitte kezka.*

Bila zerukoi dana,  
Betiko garaitz;  
Eskiñiz zin, aberats;  
*Jainko da aldakaltz*

Jañaitu zuk Kristo'ri  
Gogo alaikor,  
Ta betor datofena,  
*Etzaitte izukor.*

Maite zuk, merezi lez  
On baztergeak;  
Maite ziña soil clal?ar  
*Eroapenak.*

Ikusten munduko ospe?  
Aintza da utsalkor;  
Irauncan ezer ez,  
*Dana da ipazkor.*

Fede bizi ustetsuz  
Bañena sutzen,  
Siñestez eta itxaroz  
*Oro jadesten.*

Naiz-ta safi eraso  
Zakar sulezak,  
Onen aía goítuko  
*Jauna daukonak.*

Betoz itxi, gurutze,  
Zoritxar naiko;  
Jauna altxor dauanak  
*Guztia dauko.*

Zoaze, ludiko onak,  
Zorun uts asko;  
Guztia galdu afen,  
*Jauna soil naiko.*

### 31.—KARMEL'GO LEKAIMEAK

*Goazen zerurantz danok,  
Karmel'go lekaimeak*

Besarka daigun Gurutza,  
Kristo'ri jafai danok,  
Argi ta bide bai dogu,  
Ta atsegin oroz betea,  
*Karmel'go lekaimeak.*

*Garbitasun* agintzea  
Afeta anditan zaindu;  
Jauna maíte izan bakafik,  
Ta Aregan kiribildu;  
Ez edefets beeko gauzak,  
*Karmel'go lekaimeak.*

Niniak íez bete ezkeru  
Eindako iru agintzak,  
Mila asafe ta ilunetik  
Beti gaitue jagongo,  
*Karmel'go lekaimeak,*

*Txirotasun* deritxena  
Zeatzik gorde ezkeru,  
Aberaskiz kuin-kuin dago,  
Ta zabal goiko atepak,  
*Karmel'go lekatmeak.*

*Menpetasun* agintzari  
—Jakite goia izanik—  
Ez yako iraiñik egiten,  
Egin gaizala ortik Jaunak  
*Karmel'go lekaimeak.*

Ta ofela ba'dagigu,  
Etsaiak beraturik,  
Aintza emongo azkenik  
Zeru ta lur Jaube danak,  
*Karmel'go lekaimeak.*



# ESANAK

*Esan eta aolkurik asko dira Santa Teresa'ren idazti edo liburuclan, or-emen zabaldua. Esan edeřak, esan mam.in-tsuak; bařu-bařuraiño sartzan diranak, eta gurelzat, geure bizitza moldaizeko, egoki bai egokiak.*

*Evora'n, 1583'gko. urtean, egindako On-bidea're« le-nengo argitalpenean agerlu ziran lendabizikoz; Jesus'en ama Teresa'ren Esanak eben idazpurutzat. Eta ama Teresa bizi zalarik au egin zan ezkeru, beronen baimenez egingo zan ziur asko. Andik wte bira (1585), Aita Grazian'ek argitara cmon ebazan bařiro. Ta ořclaxe, gerora be, saři askotan.*

1. Erabili eztan luřak, malatsa izanagaitik, lafa ta sasia besterik eztau emongo.
2. Bařu-zale guztietaz, au da, praile, apaiz naiz padařak aitatzean, ondo itz egin beti.
3. Askoren artean, berba gitxi.
4. Eratsu zaite esku arteko gauza guztietan.
5. Lafegi etzaite iřoiz be tematu, joan-etofi andi bako gauzetnn batez be.
6. Neufizko alattasunez itz egin guztieri.
7. Ez ezer artu isekaz ta destařaz.
8. Zentzun ta ganora-ezeko ez iřori agiraka egin, ezta zeure apaltasuna ta lotsaria erakutsi barik be.



9. Ikusi nogaz zabiltzan, eta aren izakerara etofi gero: alaiagaz, alai; bekoki-ilunagaz, ilun; au da, danakaz bat zatoz, danak zeureganatzeko.

10. Ez itzik egin, ondo pentsau barik; eta Jaunari argia eskatu beti, Ari eder etxakunik erasi eztaizun.

11. Akiakuilu bila etzaite egundo ibili, efazoi-efazoizko gauzetan ezik.

12. Jakituriz, onoimenez, etxe edo jatofiz, ez egizu zeure burua jaso gura, onek onik ekañi leikela ezpa-deritxazu beintzat; apal ta umil bedi olakoetan be, ta ofeik guztiok Jaungoikoaren eskutiko emoiak dirala gogora ekafi.

13. Gauzak ez geiegi goratu, bafuan daukazuna lau-lau adierazo baiño.

14. Alkar izketa ta autualdi guztietan tarteratu beti goi-usaíñezko zer batzuk be; onela, itz alpefeko ta mar-markeririk naiko uxatuko dituzu.

15. Aufetik ez dakizunik ez baieztu eguno.

16. Etzaite iñoiz sartu zeure eritxia gauza guztietan emon naiez, eskatu ezik beintzat, edo alkar-maitasunak ofetaratu ezik.

17. Norbait bafen-gauzaz mintzo danean, entzun ola-koak ikasle zufian, eta artu zeuretzat esan leikean ona.

18. Agertu zeure nagusi ta autofentzuleari izan zeinkezan tentaziño, uts-egite ta naskagafiak; arek, bere eritxiaren arabera, ofeik azpiratzeko efemedio ta osagafia emon daizun.

19. Ez urten, ez ibili efazoi barik gelatik kanpora; urteieran, bafiz, eskatu laguntasuna Jainkoari, atsegin ez yakunik egin eztaizun.

20. Oiezko orduetan izan ezik, ez egizu jan ez edan; eta atan be emon esker beroak Jainkoari.

21. Egi-egiaz Jaunari begira ba'zengoz lez, egizuz gauza guztiak; onela dagianak asko irabazi daroa.

22. Zeure buruaz ezpada, ez egizu egundo txafik ez entzun ez esan; ta onek poza dakartzunean, on-bidean aufferatuaz zoiaz.

23. Jainkoari zuzendu ta eskiñi egiozuz esku arteko zeregin guztiak; bai ta bere dedu ta goramenerako izan daitezala eskatu be.

24. Pozik zagozanean, ezpei izan bañe-karkar geiegiz, poztasun apal, eratsu, maitekor eta eragilez baiño.

25. Zeure burua mirabetzat euki beti, ta ikusi danetan Kristo gure Jauna, ta ofela begirune ta dedua izango dautsezu.

26. Zagoz gertu beti esaten dautzuen egiteko, zeure nagusi edo lendakariagan Jesukristok berak aginduko ba' leutzuz lez.

27. Edozein arazo ta ordutan aztertu zeure bañua, ta daukazuzan utsak ikusirik, alegindu zaitez —Jauna lagun— eurak zeugandik kentzen; onela egin ezketiño, osotasuna jaritxiko dozu.

28. Zure inguruan bizi diranen utsegite ta akatsak ez egizuz aintzat artu, zeure birtute ta utsak gogoan erabili baiño.

29. Ibili ta jardun beti gauza baxotxean eta ereti baxotxen, Kristogaitik, edozer sufriduteko gurari beroakaz.

30. Egunean egunean, eskiñi zeure burua befogetamar akliz Jainkoari; egin au, Jainkoagazko bañu gartsu ta naitkunde biziz.

31. Goizeko otowitz bitartean gogoan erabili dozuna, ekafi egun bitartez aufean; ardura berarizkoa ipiñi onetan, gisa ontan asko irabazi leike-ta.

32. Zaindu ta gorde ondo Jaunak emoniko biotz-zifara ta sentimentuak, eta ipiñi egitez otowitzean eskuratu leiketuzan gurariak.

33. Iges egizu, alik eta geienen, bakar izatetik; alkartasunean bizi izateko kaltegafi yatzu bakar-nai ori.

34. Irakufi bein ta bafiro zeure lagunarteko lege ta aginduak, eta bete egizuz gero gogotsu.

35. Sorkari, au da, egiñiko gauza guztietan begitu Jaungoikoaren ardura ta jakituria; gogora egizu Bera gauza danetan.

36. Erantzi biotza zernaitik; eta, bilaturik, Jainkoa aurkitu dozu.

37. Ez egizu sekula erakutsi azalez bañuan ez daukazun deboziñorik; estaldu, alan be, egin zeinke.

38. Beafizan andian izan ezik, ez erakutsi bafuko deboziñorik; "ene ixila enetzat", diñoe San Prantzisko ta San Bernardo'k.

39. Lapikokoa, ondo naiz txarto egosita di<sub>fo</sub><sup>Y</sup>ola-ta, etzaite iñoz marmafean ibili; ofelakoetan, ekafi gogora Jesukristo'ri emondako beaztuna ta ozpiña.

40. Maian ez iñori itzik egin, ezta begiak beste norbaiti begiratzeko jaso be.

41. Gogo emon zeruko maia ta ango janaria —Jaungoikoa—, ta bertara deituak edo bazkaldafak —aingeruak—; jaso zeure begiak mai atara, bertan egon-mifiez.

42. Jesukristoren ordezeko dan zeure nagusiaren auean, bear-bea'ezkoa ta lotsa anditan baiño ez egizu berbarik egin.

43. Edozeiñen auean egin ezin zeinken gauzarik ez egizu egundo egin.

44. Ez egizu alde-alde iñor jafi, gauza iguingafia da-ta.

45. Zeozergaitik agiraka ba'dagitzue, artu egizu bañu ta kanpo umiltasunez; ta eskatu Jaungoikoari asafe egin eutzunagaitik.

46. Nagusiak gauza bat agintzen dautzunean, ez egizu esan beste batek alderantziz, bestera agintzen dauanik; gogora egizu danak dabezala asmu onak, eta egin zuk esaten yatzuna.

47. Zuri ez yagotzuzan gauzetan, ez egizu itandu ez jakin nai.

48. Ekar auean joandako bizitza negartzeko, bai ta oraingo epelkeria be, ta oindiño zeruraiño eltzeko palta yatzuna, bildurpean bizi zaitezcan: onik askoren itufi dozu au.

49. Menpekotasunaren kontra ez baldin bada, egizu beti etxeokak diñotzuena; bai ta umil ta gozo erantzun be.

50. Zeuretzat bakafik jateko, jantzi edo olakorik ez egizu eskatu, premiña andian izan ezik.

51. Eriotzararte, ez iñoz itxi zeure burua apaletsi ta ilduratzeari, gauza guztietan.

52. Egin beti maitasunezko egintza asko, oneik arimea ixiotu ta samurtzen dabelako.

53. Egin beste birtutezko egintzarik asko be.

54. Eskiñi gauza guztiak Aita Bctikoari, bere Seme Jesukristoren irabaziakaz batera.

55. Izan danakaz otzan, baiña zeure buruaz latz.

56. Santuen jaietan gogoratu arein onoímenak, birtuteak, eta eskatu Jaunari beste ainbeste zeuretzat be.

57. Egin arduraz gaueroko azterketa.

58. Jaunartzen dozunean, goizeko otoitza bedi ain kaskaña izan afen, Jainkoa artzera zoiazala ikustea; ta gabekoa, egiaz artu dozula gogora ekafi ta auznartzea.

59. Nagusi zareala, ez egiozu iñori asafeakor agiraka egin, asafe ori joanda gero baiño, ta ofela zure zentzubidea on-itufi izf.ngo da.

60. Zabiltz beti osotasun ta eraspén-kezka, ta onciakaz egizilz gauza guztiak.

61. Tardun safi Jaunaren bildufean; garbatua ta apaletsia dakar onek arimea.

62. Begira ondo zein arin aldatzen diran pertsonak, eta zein uste gitxi izan geinken eurokan; eta, ofela, Jainkoari oratu sendoro, au ez baita iñoz aldatzen.

63. Zeure arimako gauzak autofentzule on jakitun bati azaldu, ta gero bcrak esaten dautzuna egin danean.

64. Taunartzen dozun bakotxean, eskatu Jamkoañ doaien bat, efuki aunditan bai yatzu etofi zeure arima gaixora.

65. Bitartekotzat santu asko euki afen, San Jose izan beite batez be; onek Jainkoagandik asko jaristcn clausku.

66. Ilunaldi ta bañu-lafietan ez egizuz itxi egin oi zenzuzan otoitz eta penitentzizko egikizun onak, deabruak ortarako zirikatu afen; bestera, egin len baiño be geiago, ta Jaunaren laguntasuna laster daukakezu.

67. Zeure bañen-kezka ta aulkeririk ez aitzen emon

etxeko nagi-zabafenai: zeuretzat eta besteentzat kaltegafi litzake au; bai, oster, oso-bete ta Jainko-zale diranai.

68. Gogora egizu au: arima bat besterik ez daukazula, bein bakarik ilgo zareala, zeure-zeure dozun bizi labur bakafa besterik ez dozula, zorientasun bat, eta au betikoa, baifio eztagola, ta gauzarik asko saiets itxiko dituzu.

69. Jainkoa ikustekoa bedi zure nai bizia; zure bildufa, galduko ete dozunezkoa; zure oiñazea, ez dozula gczatzen, eta zure atsegiña, ara eroan zeinkezanak damotzuna, ta bake biziko zara.

## AUIKIBIDEA

Safera . . . . .	7
Aldiz-aldizko biziz-gomutea . . . . .	15
Ama Teresa otoizlarien <b>irakasle</b> . . . . .	27

### ON - BIDEA

Auforkizutia . . . . .	40
Ízaufea . . . . .	41
I.—Lekaimetxe au, zek eraginda egin neban ain txiro . . . . .	43
II.—Gorputzaren beafizanen ardurarik eza. Txiro-tasunaren ondasunak . . . . .	45
III.—Lenengoan esanaren jafaipena. Lekaiameak, Eleizaren alde lanean diarduenen onerako otoitz egin bear dabe. Azkenean afen bat dakar ... ..	49
IV.—Legea betetzeaz ta gogo-bizitzarako gafantzitsu diran iru gauzaz . . . . .	54
V.—Autofentzuleak asko ikasiak izateak dauan gafantzia . . . . .	60
VI.—Lenengo aitaturiko maitasuna azaltzen da ...	63
VII.—Gogozko maitasuna lortzeko bide batzuk . . . .	66
VIII.—On-ona da egiñiko gauza guztietatik geure buruak, bafu ta kanpo, erantzi ta jareitea . . . .	72
IX.—Egoki baizen on yake gizarteari agur egin dau-tsoenai, euren senideakandik ufin bizi izatea ...	74

X.—Senideak ukatzea ezta naiko, geure buruari be uko egin bear. Buru-ukapen au ta apaltasuna alkafegaz dabiltz . . . . .	76
XI.—Gaixoaldietan lortu bear dan buru-ukapena ...	80
XII.—Jaungoikoa benetan maite dauanak ardura gi- txi emon bear dautso bere biziari; dedu ta an- dikeriak, bafiz, biotzez ezetsi. . . . .	82
XIII.—Norbere burua ukatzeaz geiago; egiazko efa- zoiaren jaube izateko, munduko eritxi ta efa- zoiari iges egin bear dautsegula. . . . .	87
XIV.—Aufeko jardunetan esan diran gauzakaz bat ez datofenari etxako profesarik emon bear. . . . .	90
XV.—Efurik ez-ta efudun egiten gaituenean ixilik egoteak ondasun andiak ekarten dauskuzala ...	92
XVI.—Otoitz bikaiñekoen eta gogarte-zaleen artean zelako goi-be ta aldea dagon. Jainkoak batzue- tan arima besteratuak be zergaitik jaso daroa- zan otoitz bikaiñera. Onek eta ufengo atal- buruak ba-dabe euren bañu-mamiña. . . . .	96
XVII.—Guztiak eztira goi-ixurizko otoitzerako gai. Ba- tzuk beranduan eltzen dira araiño. Egiazko apalak, Jaunak daroan bidetik, pozik ibili bear dau. . . . .	100
XVIII.—Lengo gaiari jardunik, begiztatzailleen nekeak eginkofenak baiño mingotsagoak dirala diño. Au pozgafi da areintzat. . . . .	104
XIX.—Otoitza zer dan adierazoten asten da. Adimena erabilteko gai ez diranentzako irakutsiak. . . . .	108
XX.—Otoitz-bidean, andik edo emendik, beti dauka- guz pozaldiak. Ortzaz beite, aspertu barik, le- kaimeen autu ta izketa ... . . . .	116
XXI.—Gorabera andiko gauzea da otoitzari gogo beroz eltzea, ta deabruak jarten dabezan atzerabideai jaramonik ez egitea. . . . .	120
XXII.—Gogozko otoitza zer dan. . . . .	124
XXIII.—Otoitz-bidean jafi danak ezpei ezegaitik atze- rantz egin. Bide oni gogatsu eldu beafa bafiro aitatzen da. . . . .	128
XXIV.—Agoz esaten diran otoitzak, ondo efezetako, ze- lan esan bear diran. Otoitz-era biak, bai agozkoa bai gogozkoa, batera samar dabiltz. . . . .	131

- XXV.—Agozko otoitza ondo egiten dauanak irabazi andiak ateraten ditu. Otoitz ofetatik arimea Jaunak goi-ixurizko otoitzera jasotea, izan leiteke. 134
- XXVI.—Gogoia zelan bafura ekafi ta kiribiltzen dan, ofetarako bide batzuk azalduaz. Arlo au joan-etoñi andikoa da, batez be otoitz egiten asi diranentzat ..... 136
- XXVII.—Jaunak, «Aita gurea»-ren lenengo itzetan erakutsi euskun maitasun andia adierazten dau. Gora ta ardura andikoa da, Jaungoikoaren alaba zintzo izan nai dabenentzat batez be, etofi ta jaiotz-afokeririk ez izatea. .... 140
- XXVIII.—«Alkartasunezko otoitza» zer dan azaltzen da, ortara oituteko bide egoki batzuk jafirik . . . . 143
- XXIX.—Alkartasunezko otoitza jadesteko, era geiago. Gitxian euki bear da nagusiekandiko maite-erakutsia. .... 149
- XXX.—Atze ta axol andia dau, otoitzaldian zer eskatzen dogun jakiteak. «Pater Noster»'eko itz oneik: «Santifikadua izan bedi zure izena; bertorkigu zure efeñua». Itzok, azaltzen asten dan atsedent-otoitzari ezarten dautsaz. .... 152
- XXXI.—Aufeko gaiaz geiago. Atsedenezko otoitza azaltzen da, ontara eldu diranentzat oarkera egoki batzuk emonda. Jakingafi da oso. .... 156
- XXXII.—Pater Noster'eko: «Egin bedi zure borondatea, zeruan lez lufean be» azaltzen da emen. Itz oneik adi ta zur esaten dauazanak, asko dagi, ta Jaunak ondo be ondo ordaintzen dautsoz ... 163
- XXXIII.—Bear-beafezko yaku, Jaunak guri emotea, Pater Noster'eko itz oneitan eskatzen dautsoguna: «Panem nostrum quotidianum da nobis hodie». Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia. .... 169
- XXXIV.—Gai berean dafai, «egunero» itza azalduaz. Jaunartu osterako, guztiz egokia da. .... 173
- XXXV.—Asitako gai-arloa amaitzen da, Aita betikoari oiuz. .... 179
- XXXVI.—Pater Noster'eko itz oneik azaltzen dira: «Dimitte nobis debia nostra», Parkatu eiguzuz geure zofak. .... 131
- XXXVII.—Zein edefa dan Pater Noster'eko otoitz au. Andik yatorkun era askotariko poz-atsegiña. .... 187
- XXXVIII.—Bear-beafezko yaku Aita betikoari onela eskatzen dautsogun grazia: «Et ne nos inducas in



tentationem, sed libera nos a malo»: Eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten, baiña gatxetik jagon gaizuz. Deabruagandiko zirikada ta maltzurkeri batzuk bat-banatu ta azaltzen dira. Ja-kingafia oso. . . . .	190
XXXIX—Gai asiari dafaitso. Era askotako zirika-bídeak azalduaz, oarkizun, abisu batzuk emoten dauz. Bide bi, arimea tentaldian jagoteko. Atal onek ba-dau bere una. . . . .	194
XL.—Jainkoaren maite-bildufean beti irauten alegin-duaz, ainbesteko ziri-iruzur artean be seguru ibili gintekez. . . . .	198
XLI.—Jaungoikoagazko bildufa. Pekatu ariñak albora itxi bear doguz. . . . .	202
XLII—Pater Noster'eko azken-itzok: «Sed libera nos a malo. Amen», azaltzen ditu. . . . .	207

### BIOTZ-OIUAK

1. Ene Jaunagandik baztertua? . . . . .	211
2. Arima-egafizko bakartadea . . . . .	212
3. Erosie efukitsu ta epaile <i>zuzen</i> . . . . .	213
4. Aldi galduari begira . . . . .	215
5. Maitasun-intziriz . . . . .	216
6. Osabiderik ezpa-dau, geituz bioa nire miña . . . . .	217
7. Zetako nai dozu, ene Jainko nire maitasuna? . . . . .	218
8. Edegi, Jauna, oles ez dagitzunari. . . . .	219
9. Nire Jaunaren zaurietako itufi biziak . . . . .	220
10. «Jesus'ek negar egin eban». . . . .	221
11. Oi, azken bako oiñaze! . . . . .	222
12. Kristo ta Satan, etsai biren artean . . . . .	224
13. Oi, arima maitatzaileak! . . . . .	226
14. Begiratu gozo, begiratu izukor! . . . . .	227
15. Oi, neke-loñak, bizitz ontako pozkari! . . . . .	229
16. Zauri ta zauri. . . . .	230
17. Gogo nai zeunkena, guraizu Zuk niretzat! . . . . .	231
Esanak . . . . .	235

### OLERKIAK

Lirikualt:

1.—Nire laztana enea . . . . .	236
2.—Il-ezinez . . . . .	236
3.—Jainkoaren edertasuna . . . . .	237
4.—Bila naizu zeugan . . . . .	238
5.— Zeurea nozu. . . . .	238
6.—Erbeste-oiuak . . . . .	240
7.—Gurutzeari goralpenak . . . . .	242
8.—Gurutzea . . . . .	242

## Gabon-Kanfiak:

8.—Artzain ernaiak . . . . .	243
10.—Salbagilea jaio . . . . .	244
11.—Egubafi . . . . .	245
12.—Ba-dator eguna . . . . .	246
13.—Odol-jarioka (Erdainkuntzaz) . . . . .	246
14.—Odola lufean (Erdainkuntzaz) . . . . .	247
15.—Efesekaz . . . . .	248

## Eskintzazkoak:

16.—Ander deunai; . . . . .	248
17.—Ilarion deunari . . . . .	249
18.—Katarine martiri deunari . . . . .	250

## Sendikoak:

19.—Zori ona (Jantzi-artze batez) . . . . .	251
20.—Buru-zapia . . . . .	251
21.—Profesa batean . . . . .	252
22.—Ez lorik geiago . . . . .	253
23.—Alaikor bizi (Profesa-egunean) . . . . .	253
24.—Abefirantza . . . . .	254
25.—Leia biziak . . . . .	255
26.—Artzain-neska doatsua (Profesa baterako) . . . . .	256
27.—Jantziari onez . . . . .	256
28.— Autu maitatia . . . . .	257
29.—Zorioneko biotza . . . . .	258
30.—Etzaitze kezka . . . . .	258
31.—Karmel'go lekaimeak . . . . .	259

Esanai; . . . . .	261
-------------------	-----



## O.UEN AITRKTBTDEA

- \:?j:-:kiciftíasuiiafi: taear ez diranak, II, 5; onak eta txafak, IV, 6; adiskide ta senidarteko onak. IX, 4; umeen jolasak, XX, 4.
- /Vsca: otoitzean ez jardun agoz bakafik, XXII, 1-2
- Ajt'cireza: geiak eraz atondu bear dira, XV, 9.
- Alcierciikeriak: berarizko adiskidetasunetik datoz, IV, 4-5; bai ta nausikerietan ibiltctik be, VII, 9-10; gauza gogofa, ziñez, gitxiren artekc aitu-eziña, VII, 9.
- î\lc;r-m;<sup>l</sup>.if.asi?na: bear-beafezkoa ola, IV, 5; alkar-maitekeriak, iv, 7-n.
- cFrazlioa!: Kristok ez ebazarr albora izten, III, 7; maitekeriak kalte gei.ago ciakartse emakumeai, IV, ñ; «andrazkoen makalakiñxoak», XI, 2; eleuke nai bere alabak andrazko lez agertzeiik, g'izaki sendo lez ba'ño, VH, 8; izlari izatea galazoten dautse Apostoluek cta curen ezerezak, XV, 7.
- "pü'íasiina: aizta bi. >, 2; mailak, XIT, í; arazo xe-apaletan jardun, XII, 7; •cfudii!! cgin L'iv.;í. zagoz ixilik, XV, 1-2; ajedrezeko andraa, XV, í); otoitzerako naitaezkoa, XVII, 1; sasi-apaitasuna, XXVIII, :>>; Andra Mariarena, XIII, 3.
- ii'iniak: Batgaitik garbitokian egongo litzake beti, III, 6; zenbat galtzen diran, I, 2; otoitza, arimen onerako, XX, '•>..
- Ar'üigafia: bilatu gogamenaren zoroaltfietarako, XXIV, 5.
- ^ffadia: eguueroko otoiz ofeik esatean, nogaz diardugun jakin bear da, XXII, 8.
- Vñeft; Maitasuna neurtzeko pazientzia, XXXII, ', edozer nekc erneteko kementsu. XVIII, I; irabazi. andia, XXXVIII. 973

- Askatayuna: gizon jakitunakaz arimako gauzak erabilteko, V, 2-6; Jainkotar arazoetan, XLI, 4-9.
- Aísegñiak: Jainkoak ala deabruak emonak diran ez dakiguvi ezker, gabiltzen apal-apal, XVII, 3.
- Autofentzuleak: egoki da ikasiak izatea, V, 1-5; ez lafegi itsatsi, IV, 9; goi-ixurizko gauzetan autofentzuleari agertu dana, ta gero aren e.sana egin, XIJ. 4.
- Azken-epaia: dana jausiko da orduan, II, 8.
- Aztertu: lekaimagaiak prófesa aufetik, XIV, 2.
- flakea: legea betetzetik yatorkuna, IV, 1-4; alkai'ganako maifa sunean, IV, 8; zeru-efeñuan, XXX, 5.
- Bañez, aita Donringo: otoitz-gaietaz idazteko baiezkoa emon entson, itzaufean, 1.
- ífarauak: legean arduraz ibili ezker, ez doguz oneik befe barik itxiko, IV, 2.
- liafua: bafu-garbi ibili ta ez izan ezeren bildur, XXI, 10; bafu garbia dogu edozetarako len-oiñafi, V, 3; safi jaunartzeko, XXXIV, 14; otoitz aufetik bafua aztertu, XXVI, 1.
- ífeafizana: urkoari lagundu, VII, 8-9; gorputzekoai ez egin ja-ranronik, XI. 1-4; gurikeri geiago ta zaleago dogu gorputza, XI, 2; naitaezkoa onbide biurtu, XXXTT, '1.
- jRetirauna: amaibako sutan, XL, 9.
- ÍSarua: buruko min ariñak eta korua, X, 6; min nndia danean dabezan estuasunak, XIX, 12-13.
- .Oeabrua: tentaldi fa azpikeria)-., itzaufean, 2-3; kendu sarbi-deak, V, 5; matasa andiak sortzen ditu, IV, 5; autortegian, IV, 10; otoitzean, XXXVIII, 2 3; esamesak, XII, (!-9; apal danaren aurka ezin dau ezer, XII, 8-9; bildur anclia daufe biotz adoretsuai, XXIII, 4.
- Dedua: dedu-puntutxuak, VII, 10; XII, 8; cledu ta diruak alkafegaz dabiltz, II, 3-5; opa izanik galdua oi da, XII, 8; lastozko etxeak dirudie, XXXVI, 4; d-edna komentuetan, XXXVI, ñ-6; bidea galduta, XXXVI, 9.
- Hivua: ez afenik egin ogasunak eskatzeko, I, 5; andikeriak eta diruak alkafen Jasun dira, 17. 5; diriTcicaitik cz n.rhi jtin jarik, XIV, 4.
- Kcicrtasuiia: eder oro Jaunagan, X7UÍ, 8; asmau. geinkenik edefena, XXVI, 3; aingeruena, XXXVIII, 7; ariroa garbiana, XXVII, 10.
- Egia: Jainkoaren eaizko maitalenk ona ía egia maite dabe bakafik, XL, 3.
- ífsitekoa: bakotzak berea bete bei, Jainkon.fen. XXIX, 1; egin zirt edo zart, lotsa ta zer-e«nn?ik al'oor a if-yirik, XV, 6; onek darakus ateraten dan on.uvn, XVIII, •?; -'giii andiak artu-tako asmo andiak bear. IV, 1; Jarmak iuesede anc'iak, arimeak egite beak, V, 2

ftilciasH: oLoitz egui beragattik, 1, 2; Elerzeak írakasteu dauskuna, sendo siñistu, XXI. 10.

liranlzi: kanpoko zer guztiak, VLil, 2-3; kariueldafen arttíau arin uko egin bear yako guzliari, XIII, 6-8; bafuz be erantzi beafa, X, 1; otoitz bikaiñera ezkeru, askoz geiago, XXXI, 14.

ařazoia: neufi-neufiko gurutzea, XIII, 1-4; aiko-maiko lafegi geu.k nai d.oguaa beti egiteko, XXXIII, 1.

Efezua: zelau efezu bear dan, XXIV; otoitzak ganoraz esatetik yatorkuu ona, XXV; asko efezau?, III, 6; nogaz gagozan gogora ekafi, XXII, 3; agozko otoitzetik goiotoitzera, XXX, tí;begiak itxita, XXVIII. 6.

*Kri.oiz;::* Jaiukoaren bildufean bizi dauak, eztau kezkarik, VII, 1; uts eía pekatu guztien penitentzia eginda euki ezkeru, gozo yaku eriotz-ordua, XL, 9; Kristo'gaitik ilten gatoz komentura. II, 5; oso erabagitsu ibili ezik, eztogu ezer egiugo, XI, 4.

j'jiu: Hí'urik oz-ta efuduu egin, XV, 4; efuduu egiñik, ixiiik egon, XV, 1-4; iñoiz nobere burua ez zuritzea okefa litzake, XV, 1.

É'Jrukia; murgildu gaitezan Jainkozko efukian, XXXIX, 3.

iiiskcfu: goi-mait.asunaren ezaugafi, XL, 2; guk egin daigun geure eskuan dagoana ta gaiñerakoa Jauugoikoak emongo, XVI. 7-8.

fíkiolatlalf: autofentzuie jakiDun edo eskolatuak, IV, 9-10; Eleizearen argi, I, 2; cskefona, XXIV, 3; egiazko argia, V, 3; onein mailak, XXXVI, 7.

iiixe: andi La txikiak, II, 7-8 «eíxt au zero txiki bat da», XIII, 0. (jiaixoalcUak: onakoetan zefako ildura bear dan, XI, 1-5.

tífirbitokia: ara beaf'ik ez, XL, 9; maitasueuz ango oiñazeak laburtu, III, 6.

fioyaniena: ezin batu, XVII, 3; zelan baiu, XXIV, 5.

íiogoa: zelakoa dau eta nun dagoan, XXVIII, 2-12; txiíufi bat iltelío be gogo ccio kemen barik, XXXVIII, G-7.

fjiog'ozío snaitasiuu: alkari bear dautseguna, VI, 1-9; lufeko edo seutiinentuzk.o maitasua, VII, 3; zentzun bako min-maraiila, XI'l, 8 9.

fiorputza: gorputzareu k-ua. X, ;3; «il barik bizi», X. 5-7; nuzkevi-zaleak gara, XI, 2; ainixiñako bakar-zaleak edo padafak etziran burdiñezkoak, Xt. 1; gorpulz-zifara gozoa, XXXT, 3; Jaunartzerakoan. miñak uxatu, XXXIV, 8.

f.Ji-us'utzca: efazoizko guvutzea ezta gurutza, XIII, 1; sencioen ezaugafi. XVIII, 7; maitasua dau bere neufi, XXXII, 7.

ílfíura: bafukoa. nahiicma ezilea cla onotia, XII, 1-4; ez dakars ku gatzik, X, o-tí,

iiífíeí'fífia (su-ieza); guztioutzat kaiie andia, IV", 11.

*lr'.líiVÁ<-->*: u;'-o lofn"~u h -.;, naikoa, XVII, 2.

- Irañiak: ez uste izan iraiñik бага dabiitzamk, XIII, 1; iru.vnak deritxen gauzatxoak, XXXVI, 3-4; kaxkarkeriak, XXXVI, 9; Kristok parkatzen dausku, XXXVI, 11; b-enetako otoizlariak beti parkatzen dabe, XXXVI, 1B.
- Irakufi: liburu bat lagun dau otoitz-aldian, XVii, :•/.
- Iruclimcna: deabrua bera baiño be kaltegafiago yakit, X, ii.
- Iñezgin: itz ederto ta txarto aitu, XIV, 2; Jaiiikozku gauzai-; autuan erabili, onaren alderako, XX, 4-5; Jauuugaz ixileau, XXV, 3; bafu-bafuan, XXVI, 8; itz goxoak Jauugoikoaz bakafik, VII, 8.
- Ixiltasuna: asperiu barik otoitzari ekiñaz, zaiuciuko dogi; brue:: bizitzarako bear dogun ixiltasuna, IV, 2->; e; a;iii.au ponitentzirik, legea bete baiño, X, 6; apaltasua da, efu barik egin ezkeru, ixilik egotea, XV, 1.
- i.Bñari: berbaz ezta be, dariok egitada onez iziari, XV. '•.
- Jainkoa: gure bafuan, XXIX, 7.
- Jaiuko-biMufa: ona ta guzufezkua, XL, :H>; ourai oudoreuak, XLI; pekatu arin, utsegite ta olakoetacik i;,,,,; fip.gis, LXi, 3 4.
- .íanaria: lan egin bear da zer-jana irabazíeko, XXXIV, 13.
- Jarchina: ekin-bizitza ta otoitz-bizitra; ez jartlmi goi-ixurizko otoitza jaritxi naita, XVII, 5; atsedenezko uLoiLzeau. biak dabiltz, XXXI, 5.
- Jai'aimissia: oba jaraunisirik euki ez, II, 2
- Jaunnrtzca: Kristo'ren gorputza jan.'irf ía osagafi dogu, XXXIV, 7-8; ereti apartekoa edozer eskalzoko, XXXIV. lu-12; begiak itxi ta arimea zabalclu, XXXIV, i4; Kristo oizi zaji garaiu ba-zengoz lez, XXXIV, 8; Beragaz edozer yaku efez. XXXVII, 1; maite-epr.l artuko daiiaii arima batgaitik be, Kristok edozer jasango ;iau, XXXV", 2; gogozko Jaimartzea txit onurakor yaku, XXXV, 1; Ogi deuuak ciagizan afi gafiak, XXXIV, 8.
- Lanila: oso egoki, bakaitadeaai bizi diranentzako, I.í. 8.
- Lekai(U:ak: praiieai: ciira Eicizearcn alde zolien jokutzen dabe-nak, III, 2: euron egiLckoa oíoiczn da, zein gogozkoa zein agczkoa, XXI, 7; gizartetik yaiorxen kalíea, IX, 1-2; kal-i.cgafi tianik e/. artu komcniuctan, XIX, 13; ikasbide ona emon beafa, XXXIII, 1,
- Li>kD.hnenk: zeitizundunal; izan beitez, XIV, 2; mundua ta iirau-cluko gauza guztiak eskupean eu.ki bear dabez, XIX, 6.
- L'jlu'.imetxeaif: San Josc'koa, I, 2; txiro ta beartsutasunean, II, 7-8.
- ííiaiasiiua: truke cdefa, XVI, 7; ezin ezkutuan euki, XL, 3; SGgurantza aucíia emon oi dausku, XL, 4-5; poza eriotz aldian, XL, 8-9.

- ."it-f;,"L'4f;/k'les: dedu aud.ikc.Hiak. Vli, 10; oi'da.uizyica, "VJ. .; goi'putz-gurikeri bila. XI, 1; gogo-bizitzai'ako cragnzijcii ya ku, XXXVI, 4-5.
- h." ;,i;cK';tasufni: aginlza au albait ondoen betc, XVIII, 1; go tzaiiaren nieudc, V, 7.
- Sii'.scfieak: mescede tuiciiak, biziiza zeatzagoa, V, 2, gurutzca maiteago, XXXVIII. 1-2; apaltasun andiagoa, XVIII, 7, norbere burna obcto ezagutu-azo, XVIII.
- ymzvi': guk opari lez safitau eskiñi daikeogu. XXXV, 3.
- júKifiiii: tnuttduko ariu-eitionak, XIII, 4-fl; Kristo'rett areno, I, 4-5; mundulafak salatari, III, 4; iitundua ntenderatu, santuen antzera, XIX, 5.
- kcignsiif: oneik onak ba'dira, menpekoak be onak izango, III, 9
- ñai;>-; .lainkoat'Cii uaia da gureureii ercciu, XXX, 2-3; Jaunak zer nai dauan, XXXII, 2-13; XXXIII, 1-5; Aren naia zuk us'le osoz cgin. XXXIV, 3-6; utsegitcak aul biurtzen dabe. IV, 5.
- .Naitstiiiriik; kmeitl.uetako gatxik txafena, VII. 10; e.bagi oiako igierak, XII, 1; kaltegafi yakuz, XII. 8.
- Vcghfak; onak dii'ii, XVII, 4; ziutzo ta beiietakoak tnaitasuezk.o GÜll biztu egiten dabc, XIX, 7.
- fjiifirn: kaltegafi oso í.xar bati asient onioica, AIU, 4; ekandu oua, bai'iz, laguntzailo dogu, XL, b'.
- 'fi-'Jf'.aunak: fufekorik c>: biktlu, JT, 3-5; ez eskatu, III, 7; iguiit izan, VI, 6.
- UiicriuiiL'iiii: baraizuk eta, oaselizak ottdo daioz ortarako, II. 7; xortzci) gaituen ugiriko oneraspenak, XXXV, 2.
- íJsKúinenak; ez diuitse gorputzari indafik kentzen, baina bai arimea adcretu. XV, 3; otoitz ouareii ezaugafi. XXI, 10; arimea edertzen dabe, XXVIII, 10; niaifagañ biurtzen gaituc, VI, 1.
- if'.i'iiiiik: J\I'Í'S!O':'Í!! onuak bel.c. [, ::
- Oicif:;;; bcah'cku; ua, gogoz ctio itgoz egiita, XVIII. 3; XXk 7-8; XXII. ': XXÍV, ñ-7; gurc koineutuak otoitz leku b:r:r-ziitk cira. XV.ÍJT, J; ofoiizareu indafa, XX, 3; otoitz ogic Elcizcarc:] alcie Ut iagucurkoagaitik, III, 2-(i; a.rinren alde. III. (i; icgca, beí.eaz, eienbarik otoitz egiteu da, IV, 2. fikuvzci;» «loi.ca: XXÍT, 1-9. ñg-zko ;HOHZ:I: XXIV, 1-7.
- tíioiiv: !);c;ñ!: agozkoari ekitean ba-leiteke Jaunak ariínea, gc; "igiz:;; otoifzeau ipintea., XXV, 1; begiratu utsezko cgo-kc';i, XXX, 7; goiko bide ezkuuak, IV, 3; otoitz bikaifiera ckccko bideak, XVT 1-5; azkeiieraíño sldu nairik ekiten



- dautsonari Jamkoak ez dauLso ukatzen, XXV, 4; Jamkoak indartzen dau olakoa, XVIII, 6; noizik bein emon oi dau gaiztozko egoeratik aterateko be, XVI, 6-9; danak ez daroaz Jaunak bide bikain ofetafik, XVII, 14.
- l'ukatua: pekaturako afisku ta bada-ezpadako laguriekandik al-dendu, XLI, 1; deabruak, arimea artgaz bete nairik, anditu egiten dau. XXXIX, 1; ariña be txafa da, XLI, 4; arin bati leku emon ezkeru, ezta bakañk joango, XIII, 3-4.
- FenitentMa: lafegirik ez, XV, 3; zur eta neufiz, X, 6; gogobafukoak gorputza be indartu egin oi dabe, XV, 3.
- A'oz: ixiltasunean, XIII, 6; menpekotasunean, XVIII, 5.
- I'ozgafiak: ez ibiii onakoen bila, XV, 8; ozta euki-azo be, \*XXXI, 6-7.
- oanLutasuna: santua zan IVlarLa, naiz-ta begizLatzaile ez, XVII, 5; ez esan, «ez gara aingeru», XVI, 9; sautuak irain eta jazarpen artean poztu oi ziran, XXXVI, 3; santuen izketa, XLI, 8.
- Senafa: bizitzan zorionsu izateko, XXII, 8; bitxi ta eruzLunak XXIII, 2; Senar maiteak elikatzen gaitu, II, 1; itxi zeure Senafari, XXXIV, 5.
- Scnilotasuna: andrazkoak be gizaki senclo izatea nai dau, VII, 8; Jainkoak sendoi laguntzen dautse, XVI, 9; ezta txukun-keririk bear, XXI, 2; bein erabagi sendoa artu ezkeru, ez ibili kezka, XL, 4.
- Senitartoak: oneikaz euki bear dan artu-emon, VIII, 3; gu rutz yakuzaeuan, bai, izan artu-emon, VIII, 3; onena da Jaunak biaitzen dauskuna, IX, 4; otoitz egin eurakaitik, XX, 4.
- fiiñausicak: triskantza andiak Prantzi'ri, I, 2; giza-inclafak ezin bifindu arein erasoa, III, 1; asko jausten dira otoitz ez egiteagaitik, XXI, 8; Eukaristian be zeiaiko iraiñak artzen ditun, XXXIII, 5.
- Siñismcna: bizi-bizia bear da, XXXIV, 7-11.
- Txalciankeriak: itxi ofeik albora, XXVIII, 3; txopel izatea ezta gauza ona, XXVIII, 3-4; ez erkindu arimea, XLI, 47; arima kezkaitiak, XLI, 8.
- I'xirofasuna: lekaimetxe txiroak, II, 1-5; beartsu ta gurizale, ezin ezkondu, XI, 3; eskiña bete, XXXIII, 1.
- Íjkafa: limosna damoskuenen alde otoitz egin, II, 8; ez izan olako guraririk, II, 3.
- 'Ura: ur bizia. XIX, 2-3; iru egikun, XIX, 4; ur bizia damotsat, XIX, 17; XX, 1-2.
- Uste ona: biiatzen dauanari beti damotso Jaunak, II, 1; zelako uste ta konfiantzaz Jaunagana jo, alantxe emon daroasku, XXIX, 3.

Utsak: zure laguna okefeko bídetik ba'dabil, esaiozu, VII, 4; bildur eta erabagiak aienatzen gaitu uts-egitetik, XL, 1-2; utsak baí. baiña ez parkatzeorik ez, XXXVI, 15.

Xortu: gogamena ezin ezertan be josi, XXIV. 4; artu atsedean pizkat, XXIV, 5; ez egizu gogamena monderatzerik nai izan, XXX, 9.

Zentzundunak: onari oratu oi dautse kementsu, XIV, 2.

Zentzun-galtzea: kanpotiko zentzukietatik erantzi oi dau, XXXTT, 12-14.

Zeremoniak: ez otoitz biribildurik, eta baí Aita gurea, Agur Maria ta olakoak, XXI, 2-3; lagungáfi yakuz Iiburuak. XXVI, 9; alkartasun-otoitzerakoan, itxi begiak, XXVIII, 6-8; Orduak gogozko otoitzaz alkartu. XXII 3

Zerua: gure arimea, Jainkoa dagoan zerua XXVIII. 36; komentua be.zeru dogu, XIII, 7,

